

artikulu bilduma 1928-1936

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

<http://klasikoak.armiarma.com>

Artikulu bilduma, Enrike Zubiri «Manezaundi» (Rosa Miren Pagolaren edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1990

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

artikulu bilduma
1928-1936

I. ATALA
GERTAKIZUN ETA IPUINAK

AURITZEKO FERIETATIK

(Ene herritarren solas gisan)

—To, Pello, nun ahila? Auritzeat?

—Ba, hik ere bide bera deramak; eztea hala, Manez?

—Hala uk. Nahi nitek behia eta ahetsaren erosle hun bat kausitu.

—Altaa, Axantxa, Auritzeko tratulanta ibili uk hor gaindi etxez-etxe miatzen eta eskaintzen.

—Bana haren eskeak apalxkoak zitukan Pello, eta abiatu nuk hunat, hea eskale hobeagokorik gerthatzen den.

—Debriek sardakio! holako behi ederrak fite izain ditik frango erosle. Zortzi ehun liberaz goiti balio dik, ba. Ahetsak ere zerbait inen dik; hauta uk. Hire azinda bethi ederrenetarik, zaintzen baitituk artoski, eta hain xekatiak izanikan yinen zauzkik ahurrerat erosliak.

—Ago, ago Pello, ehizala hain urrun yuan; oraiko egunetan ez dituk, ez, nolana hika hatzemaiten; prezioak ere, dakikan bezala, arras aphaldiak dituk.

—Debrien arima! Nahi dukana izanikan ere hi bethi khexu hiz, Manez.

—Ba, hori atsaldian hiauk ikhusiko uk, Pello; etzakala espantu haundirik in.

Oraiko egunetan ustegabe gerthatzen ez denik ez duk.

Gure gizonak tratu eder bat egin ondoan sartzen dira ostatuan.

—Hea, Gaxuxa, ekharzkin berehala bi pinta, hoberenetatik.

—To, Pello, leher in behar nitek burutik pasatu balinbadut ere holako prezio pollita in behar nikeela. Badakika zonbatian saldu dituan Baztandar tratulant galant hari?

—Bo, nik dakita, Manez.

—Mila eta berrehun ta berroita hamar liberetan biak.

—Gizona! Hori uk, hori, xantza. Debria, hiri bethi dirua ahurtaka. To, ene lau zikhiro horien eroslerik nihundik eztuk ageri.

—Yinen zauzkik, Pello, ehizala arrangura. Guazen, guazen, hea Agoitzeko hura ikhusten dugun.

Azkenian Agoiztarrak erosten dazko lau zikhiroak Pellori, eta berriz ostatuan sarturik eta bizpahiru pinta hustu ondoan abiatzen dira etxealderat egundainoko mozkorrarekin, hordi arrailak, doi doa xutirik egonez, besarkatuak, bideari zehiarka, harat-hunataka, irrintzina eta kalapita gorrian.

Ilhun beltzian, Gorosgaraiko laster-bide patar hartan, bide ixtil eta lohitsuan lerraturik, firristan bi gizonak badoatzi maldari behera itzulipurdika, eta sasi baterat sartzen dira oldar gaitzian. Azkenian loale phizu batek garhaitzen ditu, eta gaua han iragaiten dute.

Biharamunian, goizeko izotzño batek yatzarrarazten ditu eta buriak arindurik, emeki emeki xutitzen dira.

—Atx! Pello ez dikiat zer debru dutan lepho huntan, arras nekez higitzen ahal diat buria.

—To, nik ere Manez, sahets huntan, gerruntzian, min haundia diat. Ba eta sudurrian ere badiat zerbait.

Manez, irri karkailan hasten da Pello-ren begitartea ikhustian lohiz estalla, itxura bitxi eta irringarrienean.

—Gaizua! haugi, haugi erreka hortarat zikhinkeria horien garbitzerat eta ikhuzterat.

Artoski garbitu ondoan abiatzen dira berriz bideari, oraikoan xuxenkiago, eta azkenian eguerdi irian sartzen dira bere etxetan, etxekoandieriak berantetsiak zaudelarik beren etxe aitzinean, zerbait gerthakari itsusi igurikan eta herabeen.

—Bana errak, hi, Manez, hori dea etxeat yiteko tenoria? Alaintso! ze tresna dugun etxean!

Eta ahotik ateratzen zaizko emazteari elhausturia bizian itz larrienak.

—Alo, alo; nai duna ixilik egon? Badinat aski egungo

Eta hitz horien ondotik, Manezek sakelatik ateratzen ditu diru-paper yoriak, eta emaztearen eskuetan ezarririk, erraiten dako erdeinuz:

—No, altxazkin; ni banian oherat, akhitia eta trenpe xarrian nun.

Diruaren botberea! Holako diruketa ederrak emaztearen kopeta ilhuna argiarazi zuen, eta begiak pindarretan, Ahurrian tinki tinkiak atxikiz, badoa behiaren eta ahetzearen sari ederraren gordetzerat armairuko xoko kukutuenean

Eta geroxoño, bozkarioan, bere senharra ikhustean ohean zabal-zabala, lo zurrunga ederrenian, bere baitan dio:

Yinko huna! Izan ditekeen senharrik gisakuena eman daazu, Yauna».

(La Voz de Navarra, 1933/11/25)

DONIANEKO MERKATIAN

—Erran, Gaxuxa, noat hua hain aphaindia, hain panpina?

—Donianeat, oizu.

—Alaintso, gero ere errain dine muthikoek balakatzen hutela, hainbeste floka, xingola, edergailu eta yauntzi ederrekin.

—Ze nauzu, Katalin, bakhotxa den bezala da.

—Alo, alo ba in zan pidaia hun bat eta hea senargai galant bat kausitzen dunan.

—Hori, ikhusiko, [...]

Gaxuxa, Doniane Garazirat heldu bezain sarri yartzen da egarritua. Kafe batetako athe aitzinean, mahain ttipi batean, eta handik ikhusten du merkatu eguneko yendeketa, goiti eta behiti, haro haundian.

Berari hurran, beste mahain batian, ohartzen du yaun gazte mehar bat, turista horietarik, buru-has, bere galtzerdiak agerian belhaun azpiraino, pipa eder bat ahoan.

Behakoa bethi Gaxuxari itzatia, azkenian ausartatzen da irriño bat ezpainetan agerraraztea eta kheinu bat eginik entzunarazten du botz aphalian, kasik ahapetik, Ah! la belle basquaise.

Gure Gaxuxak, alegiaz etzuela deusere entzun etzituen higitu ere bere begiak, bainan, nun khausi nexkato bat lausengu balakatzaille horier kordokatzen eta hunkitzen ez duena bere bihotza? Arrotza berriz ausartatzen da erraiterat «Mais, que tu est charmante».

Bigarren lausengua aditu ondoan Gaxuxak senditzen du bere bihotz zolan halako kilikaño ezti bat eta buria doi bat itzulirik behako zalhu batez soiten du muthiko arrotza, batbere kopeta xarrian.

Ordian yaun gaztia xutitzen da eta garaitzale harro baten itxuran yartzen da nexkatoaren mahainean, erraiten dakolarik, «Vous permettez, mademoiselle?»

Gure gaizo Gaxuxa harritua, kasik ikharan, bihotza yauzika ixiltzen da, ez yakinikan zer erran, zer egin, gizon haren ausartziari ihardesteko eta ihardokitzeko.

Ixildura labor hau onhartze bat iduri zaiko gizon hanpurutsuari eta kantitu gabe hurbiltzen zako nexkatoari, anitzez soberaxko, futxo.

Gaxuxaren zuzentasuna bat-batian yazartzen da eta xutiturik erraiten dako:

—«Debru franximent lizuna hail hementik orai berian. Alaintso, norekin uste huk hintzala?» gathulu bat eskian besua altxatua haren burian puskatzeko xedean.

Muthiko galtzerdi nabarduna iziturik holako nexkato kalipudunaz lekiak husten ditu zalhukara. Bainan anartean harramantzak yendea bilharazten du eta multzoaren artetik agertzen da muthiko alimale bat, ukhondoka bidea idekiz, eta Gaxuxari erraiten dako:

—Baña, ze gerthatu zain kalapita huntan?

—To, Yuanes, hetiko madarikatu gizontto harek etzikiat zer uste nintzala iduri zitzaikon, bere lizunkeriekin.

Yuanes haundiak hori entzun eta ximixta bezala badoa .arrotzarenganat eta kondatzen ahal ez diren paso, beharrondoko, ukhamilo ukhaldi, eta ostiko, eho aldi gaitzian emaiten dazko, oste haundiaren karkailetan.

Ba eta, asarrean mahaina uzkaildurik baxera guzia puskhatsu eta xehakatu zen, eta nausia berehala oihuka oldartzen zaio Yuaneseri.

—Ixo, gero.

—Hea zonbat diren kalteak, ihardesten dako.

Hok pagatu ondoan, Gaxuxa nigarretan, eskutik eremaiten du bere gerizapean, emazte ezagutu batzuenganat. Herrirat itzultzean berriz kausitzen du Kattalin mutxurdina, mihi gaixtoa eta bekhaitzkorra, bethi xixta eta zimiko gutizian, eta erraiten dako nexkatoari, bere irri maltzurrarekin:

—«Ze, hatzeman duna bilatzen hiniena?»

Eta Gaxuxak:

—Zuri zertzaizu, atso zimurtia?

(La Voz de Navarra, 1933/12/12)

BATTITTAREN SOLDADOGOIA

Bazterretxetako muthiko batentzat Iruñe alderat yuaitea soldado-goaren egiterat, adina heldu zakolarik, ez dezakete hemen asma zonbatetaraino den hitsa egun hori eskualdun menditarrarentzat.

Aita-semek gerthakari latzgarrienetarik daukate beren semearen etxetik urruntzea, ez baxharrik haren besoak beharrenezkoak direlaketz etxeko funtsen lantzeko eta arhatzeko, bainan izigarri zaiotelaketz soldado yuaitea, ustez eta gudararat doala. Hain dute higuigarri eginbide horren bethetzea, nun Kaliforniarat gogotiago nahi dute yuan, han bederen gudu hirriskurik ez delaketz eta gero eskualdunen artean direlaketz, zeren eta denek dakigun bezala oste haundika bilduak baitira eremu heietan, artzaingorat yuanak. Eta elgartzen dire beren mintzaira eta Eskual-herriko ohidura guziak yarraikiz, hainbestetaraino nun han sorthu anitz badira eskuara bezik ez dakitenak.

Eta badakizie, irakurleak, eskualduna berekoen artean delarik lorian dagola.

Gaixo aita-amentzat erdiragarri eta urragarri da ikhustea beren Battitta maitea urruntzen. Amak nigar punpula matelari behiti, mokanesarekin begitarte ardua xukatu beharrez, besarkatzen du bere semea. Zintzurra hertsuran ithoa, ezin hitzik athera, ahapetik, kheinuz, despeitzen du bere haur gaixoa.

Muthikoa bihozmin haundian baztertzen da amaren besoetatik eta bururik itzuli gabe, hertsura gaitzian abiatzen da mokanes haundi batean puska batzu bildurik, makhil bat eskian.

Buria apha-aphala badoa aitzina eta alhor urrundu batetarik aitzurle adixkide baten oihua entzuten du:

—Battita!, ho. Battitta, intzak pidaia hun!

Gure muthikoak besoa altxaturik eskerrak itzultzen dazko makhila goitituz.

Iruñerat heltzean haren igurikan zagon hemen bizi den herritar bat, eta eremaiten du Battitta soldadotegirat, eta han sartzean turruta soinu samin batek beharri xiloa zulatzen dako eta bihotza ikharatzen.

Bildotx xume bat bezala otsoaren harpean sartzen dute gela alimale batean, eta han, deneen aitzinean buluzarazten ahalge gorrian, etxeko arropak utzirik soldadoaren soinekoak yauntzteko.

Berehala ethortzen da soldado multzo haren erakaslea soldadogo zeretan, bere begitarte idorrarekin eta biharamunetik aitzina eremaiten ditu Iruñe bazterretako sorhopil zabal bathetarat eta denak ibilarazten lerro luzian, urratsetan trebatzeko, bere oihuaren manuz «Un dos, un dos, un dos»...

Zorionez Battittaren ondoan dago baztandar bat erdara kutsia dakiena eta entzuten duelarik, «Derecha, deré», baztandarrak ukhondo ukaldi batekin erraiten dako, «eskuinerat».

Arratsaren iragaitea ere borthitz zako muthikoari, ehun lagun artean, ohe andana lerrokatu batzuetan, turruta madarikatua berriz entzunik ixiltzeko manurekin.

Hola iragaiten ditu sei ilhabethe, sei mende bezain luziak eta uda hurbiltzean gogotik ez ditu baztertzen ahal bere herriko bestak. Bulta luziak, bere ohean yarririk, han dago gogoetan ardietsiko othe duen bere herrirat yuaitea bestetarat.

Bere adixkide baztandarra berriki Battittaren andanako aitzindari egin dute, cabo mailerat iganik, eta erraiten dako othoi egin dezan inahala hea unten ahal duten bere

etxekoekin aste baten iragaiterat besta egunetan.

Egun batez, hitstura haundian zelarik, arrunt etsitua, hurbiltzen zako cabo baztandarra, begitartea argi, paperño bat eskian, bizkar aldian gordetia, eta erraiten dako Battittari:

—Ze, gutiziarik bauka herrirat yuaiteko?

—Gizon dohatsuena nitekek to, hori ardiets baneza, ihardesten du Battittak.

Eta cabo-ak luzatzen dako paperño yoria eta erraiten:

—To, horrekin yuaiten ahal hiz nahukalaikan.

Gure Battittak hori entzun eta yauzi batez xutitzen da, bere beharrier ezin sinetsiz holako berri xoragarria.

Berehala soldado arropak utzirik etxeko soinekoekin yaunzten da, eta ximixta bezala badoa La montañesa beribilian xartela hartzeko.

Ikhustekoa zen arratsean nolako bozkarioan sartu zen etxean! Aita-amak eta haurrideak harrituak eta erhotuak zauden Battitaren agertzeaz, bathere igurikatzen ez zutelarik.

Zortzi egun eder iraganik eta anitz yantzaturik berriz itzultzen da Iruñerat, bainan ez lehenbiziko aldian bezain hits, bertze sei ilhabeteretzat.

Abiatzean, ayui! ayui!, ahotik atheratzen zeizkio soldadogoa urhenturik Urtheberriko itzultzekotan, bethi-bethikotz.

(La Voz de Navarra, 1933/12/20)

«KOKOTZ» ARRAINTZARIA

Ohartu bide zizte, irakurleak, herrixka guzietan badirela bi gizon bitxi, besteak ez bezalakoak direnak.

Bat, zozoa, buru haundi batekin, kuya alimale baten heinekoa, erdi mentsa , erdi ergela, urratsak herremel eta hurri, lepho gainian duen aztak nekatzen duela ibiltzeko iduri. Eta dohakabeak haurren trufak yasan behar dituela. Bainan, kasu, egun batez samurtzen balinbada! zernai itsuskeria egiten ahal du bere furfurian.

Bestea da, gizon bat, lanpide ezaguturik gabekoa, abila eta ernea, bainan bandila. Ez da laborari, ez da hargina, ez da zurgina, ez du etxerik ere, eta gauak iragaiten ditu barruki edo aterbe batean.

Bizkitartean badaki nunbaitik bere hazkurria kausitzen, han edo hemen bere laguntza galdetzen baitute edozein lametako, xumeenak izanikan ere.

Holako gizon bat bazen gure denboran, denek ezagutzen ginuena «Kokotz» izengoitiarekin; eta arraintzan zuen bere bizimolde lakhetena.

Hortan gizonik trebeena zen, eta biphila, eta Arnegiko zubitik Gainekoletaraino errekaoko zokho-mokho guziak ezagutzen zituen, eta izterrak buluzirik bazabiltzan harpe guzietan besoa sarturik, eta eskuz atheratzen zituen arrain ausarki.

Ttotta-eneko zurrunko osinian aspaldidanik ohartua zuen arrain gaitz bat, sekula hain haundia ikhusia den bat, eta udako ilhunabarretan yuaiten zen ikhusterat nola yauzi egiten zuen ulitxen ondotik ur gainerat, osin guzia inharrosturik

Bethi aren ondotik zabiltzan, baina debaldetan. Behin, pertola haundi eta azkar bat egin zuen, artha berexiarekin, eta ilhunabar batez bota zuen, osin zolarat oroz-gainetik arrain yori hura beretu nahiz. Biharamunian goiz-goizik yuanik, harritua eta loriatua ohartzen du zerbait itzulipurdika eta zalapartan badailala urian. Zalhu buluzturik sartzen da osinian, eta igerika urpian, esku batez tinki lothurik pertola atheratzen du lehiorreraino, eta han ikhusten indarka eta buztan ukhaldika egundaino ikhusi ez duen heineko arraina, hiru zehe luzetasunekoa gutienik.

Kokotz erotua da bozkarioz, eta sasi batean untsa kalitua gorde ondoan, lehiakara yarraikitzen da berriz arraintzan, eta bulta baten burian yiten da amabi arrain ttipiekin. Hek, zareño batian sarturik eta haundia muthurretik dilindan, buztana khasik lurrean herrestan, sartzen da herriko karrikan, urguluz hantua, herritar guzien harriduran, laudorio haundienak entzunik.

Ostatu batean berehala erosten dakote eta haren sari ederrarekin hiru adixkideekin atsalaskari on bat nahi du egin egunaren ohoratzeko. Bainan aitzinetik antolamendu bat eginik. Kokotzek emain ditu hamabi arrainak eta besteek ezar dezatela ardoa eta ogi eta gazna. Guziak adostu ondoan atsalaskari alegera eta nasai bat egiten dute, ardoa ausarki kurriturik.

Buruak berotu ondoan, zer debru! bertze bi pinta yokatuz musian lotzen dira birazka. Erregiak eta battekoak, erdiak eta dobliak badabiltza han oihuka, eta azkenian ardoak yaidura tzarrak yatzarraziz, egundainoko zalapartan inharrosten dute ostatua, karrikako zakhurak erausika arrarazi artio.

Aherraren ithurburua zen, Kokotzek hogoita hamekarekin eskutik irabazi zuelakotz yokorat, eta hunen trufak eta ihakintzak galtzaleak ezin yasanez, hitz garratz eta larriekin itsuski laidostatzen du arraintzalia.

Bainan Kokotz gizon gaitzikorra eta minbera baita ohoreko eta omeneko zeretan, paso batez aurtikhitzen du lurrerat mustupilka. Herri zaina kalapitak sarrarazten du ostaturat, eta beste bi gizonen laguntzarekin eremaiten du indarka presundegirat, bizpahiru egun iragan ditzan han itzalian arraintzari suharrak.

Horra nola Kokotzek bere biziko egun ospatsuenean, berri guziaren goresmenak goizian entzun ondoan, iragan behar izan zuen gaua presundegi ilhunean «debru musulari kopeta-xar haren ganik» sudur zilotik odol.

(La Voz de Navarra, 1933/12/26)

AFARIAREN ONDOKOA

Gilen eiharazaina ezkontzen zen. Bethidanik ezkontzaren etsaia izanikan ere, zombait aldiz igurikatzen ez dena gerthatzen baita, horra nun gure donado burukoia berrogoi urthetan debru nexkato pollit batek bihotza guritzen dakon. Eta nola!, arrunt xoratua ezarri artio, haren gogotik neholere ezin baztertuz Maittipi-ren begitarte lilluragarria.

Poxiño bat ahalgetzen zen adixkideen aitzinean berari iduri zitzaikon ahulkeriaz, ustez eta haren gizontasuna aphaltzen zela. Bainan bihotzaren deiari, nola ihardoki, nola bihurri?

Gilenek nahi zuen bere donadogoko azken eguna ohoratu, eta oldoztu zuen adixkide mineneeri afari nasai baten emaita. Goizian eiharako nazan bizpahiru pertoletatik altxatu zituen arrain larri eder batzu atseko oturuntzarendako.

Ostatuan aphaindu zakoten diteken aphairurik ederrena.

Arrainkiak, xerrikiak, ollakiak eta errakiak ausarki. Gauaz leher eta zapart egiteko yakhi pizuenak; bainan zoazi tetelekeria horiekin zola gabeko sabeleri! Zahagi ardo gorriño bat ere han zuten aitzinetik ekharria eta hauta, gero, ez nolanahikoa.

Denak mahain luze bathean lerrokatu ondoan hasten dira klika lehiatsuarekin yakhien iresten eta ahamenak badoatzi barnerat zalukara, ardoz ihintztatuak, errexxiako lerra diten zintzurrian.

Afaria aitzinatzen den arau elhausturia ere badario ezpainetatik kalaka haundian eta azkenian errakiaren ondotik ikhustekoa zen zer harrabots eta zalapartan zabiltzan oiho, irri, ixtorio bipherdun, karkaila urragarrietan.

Kalapita hortan zirelarik sartzen da Frantses bat tresna batzuekin besapian eta erraiten du:

—Pardon Messieurs, le photographe veut vous faire un portrait.

—To, Gilen, erraiten dakote adixkideek, arras untsa zaizkiuk hori. Izain diauk gau huntako oroitzapen bat. Frantsesak hedatzen ditu bere tresnak eta hok landatu ondoan ohartzen dira nola heien gainean ezartzen dituen gathuluño bathian herrauts batzu.

—Zertako othe dira herrauts horiek?

—Nik dakita, dio Gilenek.

Etzakiten bathere, zozoek, gauaz lan hori egiteko behar zela argi bizi-bizi bat, magnesiun deitzen zena.

Anartean frantsesa etsitua zen yende hura etzaitekela kotz geldirik egonarazi. Denek nahi zuten atherarazi itxura bitxienetan. Azkenian Gilen lau hazkan, astoaren gisan ezarri zen, eta haren gainian zaldizko adixkide bat, baso bat arno eskian gaineraino bethea, besoa altxaturik.

Ordian, sartzen da ostatuko nausia eta botz lodi larderiatu batekin oiho egiten du:

—Alo, debru erhoak, nahi duzea ixilik eta geldirik egon?

—Ixo...!

—Baziztea?

—Baaaaa!!, ihardesten dute guziek batian.

Iduri atheratzaileak su emaiten du herrautsari, eta... bunba!!!...

Nola erran han gerthatu zena? Ihortziri bat erori bazen ere etzuen izidura haundiogorik sarraraziko gizon heien bihotzetan. Itsutiak, eta erdi ithoak, khe lodi

madarikatu batek zintzurrari behiti yuanik denak eztul zalapartan zauzkan, hatsa ezin hartuz. Ba eta gehiago dena, norbaitek gaixtakeriaz eta trufaz argi elektrika itzali zuen, eta han zauden ilhun beltzian, athea ezin hatzemanetz. Azkenian, ithotzeko pundian ardietsi zuten idokitzea.

Izigarriko kalapita hartan Gilenen gainian zenak hunen burian ixuri zuen basoko ardoa. Zonbait ere aldi-xartu ziren, denak nahasiak khe tzar haren ganik, eta eztul zalaparta haren ondorioz gohaindika eta okhaka gehienak kanpoan hustu zituzten sabelak... Frantsesak, itxura txarreko harramantza hura ikhusi zuelarik lekiak hustu zituen zalhukara, bere saria galdegin gabe.

Arras trenpe xarrian Gilen ohatu zen, eta sendagileak debekatu zakon yaikitzea bizpahiru egunez, sendagailu bat emanik barnea untsa garbitzeko.

Bere ezteia gibelatu zen, beraz, zonbait egunez.

—Debrien arima! urde kaskoin tzar hura ene eskien artean banu, itho nezakek, to, erraiten zakon adixkide bati Gilenek.

(La Voz de Navarra, 1934/1/13)

IRUÑEKO ITZULIA

Mañex gogoetan zagon aspalditik behar ziela Iruñeko hiria ikhusi. Hainbeste aldiz aditzen zuen halakoa eta holakoa zela, espantu haundietan eta nahi izan zien bere begiez frogatu erraiten zakotena, ustez ez othe ziren gezurtari batzu haundikeria horiek salatzen zituztenek.

Egun batez sos parrastaño bathekin barnekoaren sakelak bethe ondoan abiatzen da Iruñe alderat.

Mañexek ere bertze anitzek bezala Doniane Garazitik iphar alderat, eta Auritzetik hego alderat fitsik etzien ezagutzen mundua. Xoko horietarik sekula etzen athera.

Guazen ba, gu ere, erraiten zuen bere baitan, munduaren kurriztera. Ez nezatela hemendik aitzina orai artio bezala sudurrerat botha ahalgegarri hitz hauk.

—Asto pullo bat biz, bethi aphotzarra bezala zilotik ez urrundu nahiz. Gizona ez duk deus bere herritik ez bada lekhitzen. Sathorra ere hatsa hartzeko munhutsetik atheratzen duk noiztenka.

Ez, etzien gehiago yasainen holako trufa eta ihakintzak.

Iruñen sartu eta Mañex badoa karriketan barna begiak larrituak dena ikusten, ohartzen eta ikhertzen. Juan zen merkaturat eta han zagon lorian. Sekulako fruitu ederrenak elemeniaka metatuak baziren alderdi guzietan. Ze mahatsak, ahotik ezin utziak beren eztitasunez, iranyak, udariak, eta piko beltz haundi batzu, mami gorrizkoak. Aiei!, zein goxoak. Ze asea egin zuen Mañexek!

Gero ikhusi zien kuya meta haundi bat, eta harritua zagon zonbat erosle zen, eta ganibet batekin zerraka moztu eta zoin goxoki yaten zuten. Etzitzakon burian sartzen nola yan ahal ditaken kuya gordin bat. Uste zuen bere alhorretakoak bezalakoak zirela.

Hain errekesta haundia ikhustean, nahi izan zien yastatu Mañexek ere, eta zerra bat ezpainetarat hurbiltzean hain zukretua izanikan ere, utzi zuen, halako gustu bitxi bat kausitzen baitzakon.

Eta bizkitartean melon deitzen zuten kuya hura yende hek yaten zuten goxotasun haundian.

Merkatutik yuan zen Plaza del Castillo haundirat, eta ohartu zen nola yendea sartzen zen lur pian, eskaler bati behiti. Ze othe zuten han?

Mañex ere yausten da eta begiek etzien sinetsi nahi han ikhusi zuena. Debru hiritarrak, zer gauzak asmatzen dituzten! Egundaino ikhusi ez diren pixitegi ederrenak eta garbienak. Bainan, nolakoak! Baziren ere bizpahiru ganbera edo gela behar haundiagokoak eta premiatsuak egiteko.

Iruñerat helduzkioz Manexen tripak ere nahasixeak baitzauden, han sartu eta utzi zituen bere gorputzak atxiki nahi etzitzenak...

To, orai nuk, orai, arin eta gustian Zion gizonak.

Badoa aitzina plazan eta soinulariek duten atherbe ondoan zelarik eguerdi irian, ifernuko orro itsusi eta gaitz bat aditzen du, beharriak tutatzen dazkonak. Ikharagarritzko khexu luze hura entzutean egiazki izitu zen. Bainan, ze othe zen hura? Amerikano eskualdun batek erran zakon eguerdiko orduaren agintza zela, eta orro samin hura sirena deitu tresna batek egiten zuela.

—Ze izialdura eman daan tresna tzarrak, dio Mañexek.

Gero nahi zuen ikhusi xerrien merkatura, bainan urrunsko baitzen, amerikanoak

erran zakon nahi balinbazuen harekin yuain zela, eta erakutsiko zakola.

Han sartzean ikhusi zituen lau edo bost ehun zerri.

—Hau duzu, hau, gauza ederra, erraiten zakon amerikanoari. Ze borthakoak, zoin ederrak eta gizenak! Soizu, soizu, ze xingarrak ditien hunek. Anglés muthur bihurtu horietarik da: arraza hautakoa.

Bazkaiteko tenorea baitzen sartu ziren berehala Iruñen. Mañex badoa ostaturat eta untsa yan ondoan, kafia hartu eta berriz karrikaz gaindi ibili zen, denetaz ohartu nahiz.

Atsalde hartan berean itzuli zen etxerat. Herrirat heltzean erraiten dakote adixkidek:

—Alo, alo, Mañex, gustatu zaika Iruñe? Hea, hea zoin iduri zitzaikan han ikhusi gauzarik ederrena?

Manex ixildua zagon, ez ihardetsi nahiz. Bizpahiru aldiz adixkideek kitzikatu ondoan ausartatzen da erraiterat:

—To, gorphutzaren arintzeko tokiak...

—Ai urde zerri haundia!!! Hortako yuana hintzana Iruñerat?

(La Voz de Navarra, 1934/2/3).

MANDO PUTARKARIA

Pettan eta Betti negu heze eta hotz borthitzaren ondorioz, batek gerruntzian eta bertzeak belhaunian, zernahi pairatu zuten errumatismaz, eta laneko ezinduak zauden astian bizpahiru egunez, ohetik ezin higituz.

Azkenian yuan ziren Akizeko (Dax) uretarat, edo hobeki erraiteko, lohietarat, hango mainhu beroek mirakuluzko sendatzeak egiten baitzituzten.

Hamar bat egun han iragan ondoan osoki sendatu ziren eta min guziak itsabasiturik, iduriz sekulakotz lorian zauden. Eta handik etxeratekoan adostu ziren Baionan gelditzeko zonbait egunez, beren oinhazeen ondotik behar zutela yostatu, gogo hitsa bozkarian bilhakatzeko.

Eskualdun ostatu batetarat yuan ziren. Hotel des Basques deithua, eta han, eskualdunen arthean hain goxoki zauden, nun sekula etziren higituko beren etxeko lanek ez baluzte bortxatzen aitzurrari lotzea.

Bainan etxetik kanpo izanez geroz behar zuten bidenabar, mainhuen estakuruarekin, ederki iragan bizpahiru egunez Laphurdiko hiri nausian.

Bazkalondoan Miarritzeko itsas lehiorraren ikhusterat yuan ziren, eta harrituak zauden hango botiga, Casino eta yauregi ederrez, denak aberats okhituez betheak, eta sosa xahutzen dutenatarik ahurtaka barreatuz beren yostakerietan, hainbeste dohakabe eta errumesek doi-doia ahorat ahamen bat nekhez helarazten dutelarik...

Gero hurbildu ziren itsas hegirat eta han ikhusi zituzten yendeak erdi buluziak uhinen arthean, emazte ausartak bathere axolarik gabe beren buluztasunaz.

Atsalaskaria Bar batian egin ondoan Baionarat itzultzian ohartu ziren bazter guziak emokatuak zirela hitz larri batzuez, Cirque Français, Cirque Français alderdi guzietan.

Eskualdunari arras lakhet zaio Circo-ko yostakeriak eta Juanes, beren adixkideak Iruñen ikhusi zituen debrukeriak entzun ondoan gutizia phiztu zitzaizkoten. Afal ondoan badoatzi, beraz, Circo-rat, eta sartzean harritu ziren ikhustean barne haundi hura dena yendez koka-ahala mukhurru.

Ikhusliar oste guzia irri karkailan zagon. Circo-aren erdian baziren bi gizon zirtzil, soineko irringarri batzuekin yauntziak. Begitarteak irinez xurituak, ezpainak asto baten heinekoak, gorri gorriak, eta begi bat uspeldua edo lehertua itxuran, erdi hetsia. Paltoak hain zabal eta lazo zituzten, nun baten barnian kokatzen ahal ziren bien gorphutzak. Bulta luze bat zartaka ibili ondoan, batek agintzen du:

—Yaun anderiak. Oral atheratuko dugu mando putarkari eta izikor bat, eta norbaitek ardiesten balinbadu haren gainean egoitea ehun liberaz saristatua izanen da.

Bizpahiru gizon gazte, banazka, ausartatu ziren, bainan neholere etziteken hurbildu debru mando basa hari. Burla aphaldu eta izigarriko putarrak birazka bothatzen zituen airez aire, gizon baten buria xehakatzeko indarrezkoak.

Eta, futxo! beldurtiak zauden muthikoak.

Pettan hamar urthe egona zen Kalifornia-ko zelaietan zaldi basa hezten, eta geldia geldia zagon bere lekhian, irriño bat ezpainetan.

Azkenik badoa mandoarenganat izpirik durduzarik gabe, bainan emeki, begiak zorrotz, eta haren yauzi eta putarreri itzulia harturik gathu baten zalhutasunarekin besarkatzen da mandoaren lephoari, eta tinki lothurik han dago dilindan.

Mando basak zazpi ahalak egiten ditu phizu haundi hura aurthikitzeko, buria ezin

altxatuz. Eta lehertua maltotu delarik, Pettan, yauzi batez igaiten da bizkarrerat eta bere izter luziak triparen azpian kurutzaturik, lapharra bezala han dago lothua.

Oste guzia xutiturik esku zartaka goستن eta ohoratzen dute Pettan-en kalipua eta trebetasuna.

Eta Circo-aren nausiak begitarte ilhun doi batekin emaiten dako ehun liberako paper yoria.

(La Voz de Navarra, 1934/2/18)

PARISEN

Pellok bazien Parisen ahaide bat, lehen kusia, eta bethi ari zatzaikon yuan zaila harat, harekin zonbait egunen pasatzea.

Erraiten zakon azken aldian:

—Haugi hunat, ehiz enheatuko, baduk hemen nun yosta eta zer ikhus.

Pello abiatzen da Frantziako hiri eder nauslari buruz eta harat heltzian, treinetik yaustian han zagon Beñat, bere kusia, haren igurikan. Azkarki biak besarkatu eta badoatzi ahaidearen etxerat, eta askari hun bat egin ondoan hiriko edertasunen ikhusterat atheratzen dira.

Heldorra ahantxu ezpainetan, harritua eta zozotua zagon Pello, karrika nasai hetako haro, harramantza, eta yendeketa ikhusirik, denak urrats zalhutan.

—Debrien arima!, bainan errak, Beñat, bethi kalapita huntan bizi dea hemen yendea?

—Ba, gizona, eta berari yarrizkioz ez gituk ohartzen ere, eta loa ez diaukak kentzen.

—To, zion Pellok, nahiago diat, ba, gure bazterretxetako ixiltasuna. Lo zurrunga ederragoak egiten ditiauk han, seurki.

—Ago, ago, yarriko hiz hemengo biziari, ihardesten dako irriz Beñatek.

Karrika guziak autoez milaka estaliak badoatzi aitzina, eta heltzen dira Eiffel dorre aiphatuaren azpiraino.

Haren gohoratasunaz izitzen da Pello, eta erraiten dako bere ahaideari:

—To, arranoen kokatzeko lekhu hauta.

—Nauka igan giten kaskoraino?

—Atx! ni ez, seurik. Eliza eta yauregi ederrenak ikhusi ondoan, herriko etxea, deputatuen ganbera, eta holako bertze, yuaiten dira Jardin d'Acclimatation aiphatuaren ikhusterat.

—Hemen kausituko dituk Pello, gauza ederrak, mundian diren ihizi basa bitxi eta izigarrienak.

Han sartzian lehoinak ikharagarritzko orro marruman daude, eta futxo, Pellori bihotza dardarikatzen zaio, bainan geroago ikhustean burdinezko kaioletan beiratuak zirela, hatsa hartzen du, ba eta ausartatzen ere heieri hurbiltzea.

Eta nola ahoa zabaltzian erakhusten zituzten hortzak, eta aztaparretako azazkalak agertzen.

Pello urruntxago yuanik oihiu egiten dako Beñati.

—Haugi, haugi, soik, soik zer den hemen.

Eta hurbiltzian ikhusten dute koailako zokho ilhunenian egundaino ikhusi ez den ihizirik izigarriena. Zer othe da hau? Fourmilier deitzen du kaiola aitzineko izkirio batek.

Han zagon ukhurtua mamu itsusia, buztan gaitz bilhodun bat zabaldua, aztaparrak arras haundiak, eta sudurretik atheratzen zaiko halako buztan luze mehar eta buluzi baten itxurazko zerbait, bustia edo urindua iduri. Gauzarik gohaindigarriena!

—Ea dakika zertako dien sudur buztan zikhin hori? erraiten du Beñatek. Xinhurri harrepatzeko. Hori duk bere hazkurria.

—Debriek sardakio! ez litekek ase gure phentzatakoeekin, dio Pellok.

—Ba, ez dituk hemengoak bezalakoak. Hangoak, Africakoak gure kakamarloen

heinekoak dituk.

—Hala izaiteazkioz, baditekek.

Gero ikhusi zuten zaldiaren itxurako abere bat, bainan haren lephoko luzetasuna harrigarria zen, lau host berga izarikoa

—Gerezi aldaskak yateko ez dik nekhe haundirik, dio Pellok.

Debru ziminoak ere bazabiltzan bere karioletan garrasika eta yauzika.

Cinema ere behar zutela ikhusi, afal ondoan yuan ziren teatro haundi batetarat.

Ba eta etzien sekula Pellok hainbeste irririk egin.

Oihal xuri hartan agertu zen asto eder bat, eta Pelloz ohartu balitz bezala, hari so, beharriak zut zutak, hasi zen arrantzaka. Eta behakoa baztertu gabe ari zen orro eta orro barne guzia inharrosiz.

Pello irri karkaila urragarrietan lehertua, sahetsak minduak zituen, eta yende guzia hari so irri zalapartan zagon.

Handik atheratzian, oraino begiak bustiak irri nigarrez, erraiten zien Pellok, buruari inguruka:

—Bainan, nundik demuntre ezagutzen ahal nu asto debru horrek?

(La Voz de Navarra, 1934/3/6)

EHORTZE SAINDUA

Bazter guzietan badakite zer aiphu haundia dien Ortzirale Sainduz Iruñen egiten den prosesoina (sic). Jesusen oinhazeak eta heriotza itxuraraziz hain eite egiazkoan, nun iduriarazten dauzkute orduko gerthakariak ber berak, gure begien aitzinean iraganez, harrigarritzko edertasunarekin.

Ez da beraz handi zer yendeketa yiten den lehiatsuki herrietarik, holako gauza yori baten ikhusterat.

Ene herritik, hain urrun izanikan ere, ikhusi nitien yaz zonbait Iruñeko karriketan.

Kokatu ziren lekhurik hoberenian, untsa ikhusteko, denetarik ohartu nahiz, eta harrituak zauden, lephoak luzatuak, heien aitzinean iragaiten ziren gauza miresgarrietarik.

Lehenik agertu zen Yesusen Yerusalemen sartzea, yende oste haundi batekin denak bere aldaska erramuekin eskuetan, hossana, hossana, oihuka.

Gero Yesusen othoitza, belhaunikatua. Olibeteko baratzian. Handik landa, Afari saindua. Yesus bere apostoluekin mahai handi batian yarriak, eta heien arthean, Yudas, bere begitarte maltzur eta izunarekin.

Geroxago Yesusen bahitzea, soldado erromanoen arthean eramana.

Gero, Yesusen zigorratzea, estekatua, soldado burregoak hari zaharo ukhaldika.

Itxura horien ondotik, Yesus kurutzean altxatzea, emazteki sainduak oinhaze latzgarrian. Haren azpian, eta azkenian, heriotzatik landa, Yesusen gorphutza hedatua hobiaren gainian, diteken itxura ederrenian, hamabi gizonen, sorbaldetan eremana, eta ingurian yende multxo bat argiekin, soineko ederrenetan.

Eta azkenekotz, Yesusen Ama Saindua oinhazean. Itxura miresgarri hunek bihotz guziak hunkitzen ditu, ba eta zonbeit begi busthitzen ere.

Belhaunikatua dago, balusazkos mantelina beltz nasal batekin ohiala urrezko hari phiruez eta edergailuz aphaindua. Eskuak altxatuak, begiak zerurat irauliak eta nigarrez gorrituak, ez daiteke asma begitarte erdiragarrienik oinhaze latzgarrian bere Seme Yainkoa urkhabea hila ikhusirik...!

Itxura horren egileak iduri luke zerutikako argia yin zitzakola holako lana egin zuelarik.

Gure herritarrek etzakiten zer erran: tetelduak, zozotuak eta bihotzetan hunkituak, mututuak zauden, hitzik ahotik yalgi gabe, ezpainak yosirik.

Bultaño baten ondotik, bereratu zirelarik, erran ziaten,

—Soizu, Manezaundi, laudorio haundi, haundienak aditu ginintuen prosese huntaz, bainan erran guziak pilik ez dire gure begiek ikhusi dutenen ondoan.

Ordian ihardetsi nion:

—Osoki gustatu zauzie?

—Gizona! ezin sinetsizko gauzak dira. Eta gero bi mila gizon horiek, sahetsetan lerrokatuak, beren soineko luze beltz horiekin, denak ziho haundiekin eskutan.

—Ba eta aingeru multxo lilluragarri hura, hegal xuriekin, floka, xingola eta liliez aphainduak, Yondoni Yoane haurraren ondotik, eta huni yarraikitzen zen axuria, hezia izan balitz bezala?

—Eta soldado erromano hek, gorphutzak eta buriak gerizatuak burdinezko soineko disdirantekin?

—Hauze gauza miresgarriak! Bizi gireno ez ditugu nolanahi ahatziko; hitz dautzut.

—Bainan, errazu Manezaundi, buruari inguruka ari gira ezin asmatuz ze demuntre
othe zuten saskien barnian, zaldien gibeletik zoazin bi gizon hek, yatsak bizkarrian.

—Han? Abereen ungarriak...

—To!...?

(La Voz de Navarra, 1934/3/28)

GIZON PHERESTU BAT

Ellande, Bordaxuriko semia, Ameriketatik itzultzekoa zela, herri guziko ahotan zen, berria hedaturik suia lastoan bezain laster.

Batzuek erraiten zuten aberats okhitua, urrez hantua zela. Bertzeek, sos puska bat eginik, funts baten erosterat, eta emaztegai baten bilha heldu zela. Bekhaitzkorrek, aldiz, arditik ere etziela...

Horra mihian zabiltzan erran-merranak, zonbaitetan ahapetik, bertzeetan goraki eta deplauki.

Bazterretxetako eta karrikako nexkatoak inharrosiak zauden, eta etzuten beste solasik berri hori entzunezkioz.

Ametsetan zabiltzan arrakastarik izain othe zuten amerikanoaren begietan. Karrikakoak, lakrikunak eta aberastu nahiak, hasi ziren panpinatzen, ba eta ezpainak poxiño bat gorritzen ere arrotzaren behakoa finkarazi nahiz beren begitartean.

Eta horra nun udaberriko igande atsalde eder batez agerzen den herriko plazan, gazteria dantzan ari zelarik, gizon galant bat, gorphutza lerdan, berrogoi bat urthetakoa, xapelduna eta soineko ederretan.

Ostearen behakoak harenganat zoatzin, eta hea nor othe zen denak ari ziren galdeka.

Yin berria hurbiltzen da eiharazainari, gizon lodi bat, pipa ahoan, izterrak zabalduak, besoak kurutzatuak, dantzari so zagona.

Eskiak haren sorbaldetan ezarririk, erraiten dako, bat batian:

—Ez nuka ezagutzen, Piarrex?

—To, debrien arima! Ellande othe hiza? Erraiten dako eiharazainak.

—Ba, ba, ber-bera, ihardesten du besarkatzaileak.

—Baginakian, ba, yin beharra hintzala, bana hain yaundua ikhustean burutik ere ez nikan pasatuko nor hintzan.

—Ba, gizona, hemen nuk, eta bethikotz, ez itzultzekotan yina.

—To, haugi pinta baten edaterat, ze debru, hire agertzia behar diauk ohoratu.

Ostatutik itzultzian Ellandek, hogoita bi urthez ikhusi etzituen dantzak nahi izan zituen erreberritu eta Yantza yauzia hasi zelarik bera ere sartu zen lerroan, ba eta ederki yantzatu, herritik lekhitus ez balitz bezala, bere gazterian bezain trebe eta arinki.

Ellande hemezortzi urthetan yuana zen Argentinako zelaietarat, begiak nigarretan, eta Buenos-Aires-tik urrun sarthu zen artzain-muthil eskualdun Baigorriar batekin.

Muthiko pherestua eta langilea, ilhabethe bakotx altxatzen ahal zuen dirua bere ama gaixoari igortzen zakon, sekhula huts egin gabe.

Emeki, emeki, sos pilixta bat bildurik, arthalde baten yabe egin zen, eta gerla haundiaren denboran ardiak nahi zituen prezioan saldurik, itzultzen zen bere sort-xokorat, ez aberats okhitua, bana bizia aiserian iragaiteko doian, eta etxalde baten erosteko xedean, bere bethiko ametsa ardiesteko.

Bazen herrian bazterretxe baten ontasunak saltzekoak zirenak, yabeak biziaren gora-beberen ezinbertzeak lekhuarazten zituztenak, eta erosi zituen funts eder batzu, phentze eta alhor nasaiak, oihan puska bathekin, bazterretxe pollit bat erdian.

Ellande etzen bathere haundi-nahi horietarik, aitzitik, lañoa eta langilea, aitzurrari lotzeko losatzen etzina. Eta xapel hegalduna eta yaun soinekoak alde bat utzirik,

athorrahas, hasi zen bere funtsen lantzen eta zaintzen, ardi eta behi hazten larretan eta phentzetan, hur-bideak eginik hauen ontzeko eta edertzeko. Hots: Ameriketara ikhasi zituen erakaspenak yarraikiz.

Herri guziaz maitarazi zen, bana gure gizona etzen etxalde baten nausi bakharra izaiteko sorthua. Donadogoa hits zaio, eta huts bat khausitzen zuen bere inguruan, eta azkenian ohartu zen dohatsu izaiteko emazte bat behar ziela, etxea haren eskutan ezartzeko.

Eta hasi zen xede hortan emaztegai bathen bilha, bana etzien nolanahika berexi bere laguna.

Azkenian bere begiak finkatu zituen auzoko nextato adin bathetako plantako batian, langilea eta etxe baten xuxen ibilarazteko diteken emazte hauta.

Ezteiak ospe haundian egin zituzten, eta gain hartan kokatuak, Argainberriko bazterretxian, xuri, xuria, ithurriño bat sahetsian, intzaurrondo baten itzalian, phentze eta alhorren erdian, bere funts ederretan bizi dira senhar-emazteak (lohatsuki, Pariserat manatu etxeko premiaren igurikan...

(La Voz de Navarra, 1934/4/27)

PIARREXEN IZIALDURA

Herri ttipietan ere, hirietan bezala, badire yende gaixtarrot eta trufatzaileak. Irri egiteko, debruzko ihakintzak asmatzen dituzte zonbaitek.

Behin, bospasei adixkidek egin zuten afari on bat. Untsa yan-edan ondoan, eta gauza guzietarik mintzatuik, erori ziren sorgin., debru eta lamina solasian.

Trufatzen ziren gaizo zozo horietarik, itsuki sinhesten dutenatarik atso beltzak, yats batian zaldizko, ximindegia behiti sukhaldeetan sartzen direla.

Irri karkailetan zauden denak holako astokerietaz.

Adixkideetarik bat, Piarrex, gizon izikorra zen, bainan ahulkeria hori ez agerrarazteko, berak ere irri egiten zuen, barnian herabe izanikan ere.

Piarrex bizi zen herritik urrunxko, mendian, bazterretxe pollit batian.

Mahaitik xutitu eta erran zien adixkideeri:

—Uzten zituztet, emazteak ez nezan berantets. Egizie lo, eta bihar artio.

—Gauza bera, Piarrex-, ihardesten dute.

Etzakien gaizoak ze debrukeria zuten asmatua lagunek beraz trufatzeko. Nola sinets afaria xede hortan egina zutela?

Abiatzen da Piarrex mendiari goiti bide zehiarkatu eta sasitsu batian. Gaua ilhunenatarik zen. Hiru urrats aitzinago etzen bihirik ageri.

Buria aphaldia, ostatuko solasak gogoan, bazohan doi bat beldurtia, noiz eta bat-batian, brist, iragaiten zaio zerbait zangoen ondotik. Ilhun beltz hartan ezin ikhusiz xakhurño izitu bat zela, bihotzak punpa bat egiten dako.

Handik haraxago, bidearen bihurgune itsusienean entzuten du garrasi samin bat.

Gelditzen da Piarrex landatua, ikharatua.

Bertze bi urratsen ondotik berriz aditzen du ohu izigarri bat, lehenbizikoa baino ozena (sic).

... Eta haritz ondo lodi baten sahetsetik agertzen zaio egundaino ikhus ditek gaizarik ikharagarriena...!

Gizon edo debru alimale luze bat, burutik zangoetaraino mihise xuri batekin yauntzia, begitarte kukutua, argi bat eskian... Eta hobitik edo ifernutik atheratu botz itsusi batekin erraiten dako Piarrex:

—Arima herratia nuk, debru gorriak igortzen nik hiri yakinarazteko ifernukho suian kixkalduko hizala hogoi egunen burian bethiereko oinhazetan, ez balindaduk berehala itzultzen yabeari ebatsi hien zikhiro hura, Dominixeneko arthaldetik.

Eta Piarrexek, lurrari itzatua, ezin higituz, bihotza panpa zalapartan, ihardesten du botz mehe batekin:

—Baa, eginen dut zuk erraiten daazuna.

Bainan ordian, arima herratua, yauzi batez, mihisia zaflaka, besoak zabaldurik, aztaparrak idekiak, Piarrexen lephoari lotzeko eta ithotzekotan zohalarik, hau, (indarrak ez dakigu nola berriatuak), itzultzen da eta patarrari behera urtxintxaren zalhutasunian hartzen du herriko bidia, hats gaitzian, hasperen haundian.

Tupustan eta lehertua sartzen da ostatuan, eta erraiten dako etxeakoanderiari:

—Trenpe xartia niz, eta nahi nuke hemen iragan gaua.

—Bainan, zer duzu, ze gerthatu zauzu, Piarrex? Nahi duzia artu tea edo tisana bero bat?

—Ez, ez dut deuseren beharrik.

Eta emaztekiak ereman zuen ganbera baterat. Piarrex ohean hedatu zen zabal zabala, bihotza oraino yauzika.

Haren adixkideak kukutuak zauden beste ganbera batian, denak entzunik, irriz leher egiteko phundian.

Bulta baten ondotik, etxea ixiltasunian zelarik, atheratzen dira handik eta zango puntetan yuaiten Piarrexen atheko giltza xilotik soiterat. Arima herratia ere heiekin zen...

Piarrexek entzuten du berriz oixtian aditu garrasia. Gaizoari ordian argitzen zaio adimendua, eta dena ulertzen! Herra gorrian oihu egiten du:

-Urde zerriak, urde tresna tzarrak! !

Bainan etzen ohetik higitu. Phausuh luze baten beharrian zen.

Iruñen, 1934-an.

(RIEV XXV (1934), 272-273. or.)

MANEZ, THEMATSUA
(Benabarreko eskuaraz)

Bazterretxetarrek bere bizitze dohatsuan, etxaldeko lanetan goizetik arratseraino, batbere ez dute axolarik edo griñarik munduan gerthatzen diren gauzetarik, eta gero ez dituzte nolanahi sinhesten, zonbaitek, hiri haundietan izanikan, kondatzen balinbaduzte han ikhusi gauzak, eta gizonak asmatu dituzten tresna miresgarriak.

Beren azinda untsa haztea, funtsak lantzea; alhor eta phentzeek emaiten ahal dituzten uztak eta mozkinak bethi gogoan. Horra beren buru-hauste guziak.

Heien bizipidetarik kanpo tuntik ez dakite, eta ez nahi yakin ere. Zertako? Buria nahasteko?

Egia erran, hobe dute hitzik ez yakitea mundu okaztagarri huntaik.

Bainan noizian-behin, karrikarat yausten direnean menditik, eta ostatuan sartzen direlarik zintzurraren bustitzerat, kausitzen dute norbait, noiztenka, hiri haundi batian izan berria, espantu gaitzetan an dena haundikeriak kondatzen, hau eta hura ikhusi dituela, eta denak hari so daudenak tetelduak.

Manez Arnegiberrikkoa behin yin zen herrirat, ahete eder batekin, tratulant batek erosi zakona, eta haren sari yoria sakhelan sartu ondoan, ze demuntre, ahoa idortia baitzuen, sartu zen ostatuan haren leguntzeko.

Bere aspaldiko adixkide bat, Parisen zonbait egun egon berria, ari zen ozenki mintzatzen, Frantzia'ko hiri nausian ikhusi zituen gauzetarik eta gizon multxo bat bazen haren ingurian hari beha zagona, ahoak zabalduak eta begiak larrituak.

—Badakizea zoin den gizon yakhintsuek orai asmatu duten tresna miresgarria?, zion harrokeria batekin, Paris'etik ethorriak. Radio deitzen dena!!

—Eta zertako da hori? zioten guziek.

—Zertako!... gaizo pulloak!... Tresna sorgin horrekin hemen giren guziek, ostatu huntaik beretik, Bones-airesen, San Frantsiskon edo Paris'en arrabitas soinulari bat edo kantuz ala solasian ari direnak entzuten ahal ditugu, hementxe berian izan balite bezal-bezala...

Irri zalaparta bat egin ondoan, Manez'ek erraiten dako, trufa aire samin batekin:

—Bainan, errak, Paristar hanpatua, asto kankail batzu girela uste duka holako gezurrak iresteko?

—Ez nuk batbere gezurtaria, Manez, nik erraiten dutana egia duk, eta gero, mihi hori koropila zak...

—Baia? Alta, eni ez duk sinetsaraziko hori sekhulan. Ze, Paris'en kantuz ari den bat hemendik entzuten ahal dugula? Ago ixilik, burutik yuana othe hiza?

—Thematsu bat hiz, Manez, eta nahi balinbaduk zerbait yokatuko diauk hori xuritzeko.

—To, —ihardesten du Manezek— sakhelan dituan sos guziak yokatzen ditiat, ez dela hori egia.

—Ba, ba, zioten bestee, yoka zazie, bainan ez diruik, bazkari on bat daneentzat...

—To, sendagileak erosi dik berriki tresna hori, dio batek, eta guazen, han ikhusiko diauk egia denetz.

Guziak yuan ziren sendagilearen etxerat, eta erran zakoten ze eztabaia ukhan zuten ostatuan, Manezek ez sinetsi nahiz tresna horrekin entzuten dela nornahiren urrun denaren

botza.

Denak yarri zirelarik tresnaren aitzinian, sendagileak hunkitzen du botoin bat, eta «tarrat, tarrat, pin, pin» azantza bitxi batzuen ondotik, horra nun aditzen duten Pariseko teatro batian ari zen kantari baten botz ederra eta ozena.

—Sinisten duka orai, debru kasko gogorra? —erraiten dako Paris'en egonak...

...Hogoi lagunen bazkaria pagatu ondoan bazoan bero-beroa mendian goiti, gogoetan, ze gasaila phiztuko othe zakon etxekanderiak, ahetsaren salneurriaren erdia xahuturik bere burukoikeriaren hobenez.

—Debrien bisaia!, mundu madarikatu eta iguingarri hortan bano goxoago bizi nuk, to, artho yorratzen, zion berari gaizo Manezek...

Iruñen, 1935'ko Urtharrilan

(El Día, 1935/2/12)

IGANDE ATSALDEA

Garaziko eskualdean igande atsaldetan sekhula ez dute huts egiten gizonen hiru gauza haueri. Bezperak, pilota eta musa.

Eliza bethetzen da gizon eta emazteez, eta ohiduraren arau denek kantatzen dituzte bezperetako ofizioak.

Handik atheratzian, yendeak barreatzten dira, zaharrak ostaturat musian aitzerat, gazteak pilota plazarat, nexkatoak firletan yostatzera, eta atsoak multxoka bilduak, herriko berriak erran-merranetan ibiltzeko, ez, gero, ahapetik, bainan soberaxko agerian ezartzeko batzuen edo bertzeen hutsak, edo etxetako gora-beberetan sudurra sartzeko, mihian koropilorik gabe.

Pilota tokian bildu zen gizon andana bat, eta heien arthean lau ari ziren eztabaian, hi bahiz, ni banuk, birazka egin nahiz esku-huskako partida bat.

Elheketa luze baten ondotik adostu ziren.

Battit eta Erramun, Geaxan eta Piarrex-i. Lauak pilotari trebeak ziren, bainan azkenak zaharxagoak, bai eta axeriagoak ere...

Erramunek, harro, harroa, dio:

—Ze nahuzie yokatu, ehun, berrehun libera?

—Ez, gizona ez; gure moltsa ez duk hiria bezain okhitua, ihardetsi zuen Gexanek.

Aski diauk afari on bat yokatzea.

Hasi ziren karraskan, trenperik hoberenian, gazteak hastetik indar guziekin bermaturik, eta aitzinatu ziren zonbait phunduz.

Zaharrak gibeletik zoazin, baino hurbil, beren xixka eta zimarkunkeriez ihardokituz gazteen odol beruari, eta izter erneeri.

Azkenian berdintzen dira hogoita hamabost-na.

Ze esku zaflak eta oihuak zaharrentzat!

—Emak hor, Geaxan!

—Bitor ziek!

—Alo, heup, aitzina!

Undar bost kintzeak' suharki arizanik, horra nun Geaxan eta Piarrex nausitzen diren bi phonduz, azkena punpa aphal eta zehiar batez egina, paretari hurbil, ezin itzulizkoa.

Erramunen harrokeriak itzali ziren, nahigabe kirats bat yasanik, eta buria aphal badoa ostaturat athorraren aldatzerat, latsako askatik atheraia iduri.

Arratsian bildu ziren lau pilotariak bospasei lagunekin, yokhatu afanaren egiteko.

Beste mahi batian baziren hamar bat afaltiar, kantu eta kalapitan, arnoa ausarki kurriturik.

Heien arthetik xutitu zen gizon kankail bat, basoa eskian, gaineraino bethia, eta hurbiltzen da Erramun-i hurrats makhurrekin, ustez eta hura zela partidaren irabazlia.

—To, debrien arima! pilotari haundiak ohoratu behar ditiauk. Edak.

—Utz nezak bakhian, eta hadi hemendik, ihardesten dako Erramunek.

—Ez, futxo, hurrupaño bat yastatu gabe, dio bestiak. Eta mozkorrak, sobera hurbildurik, ustegabea, ixurtzen du basoaren erdia Erramunen bizkarrian.

Hunek, paso batez aurthikitzen du lurrerat, erroz-gohora.

Ze zalaparta eta gasaila phiztu zen!

Denak xutitu eta erasiaka hasi ziren, baina emeki, emeki, yaidurak eta hitz larriak ematu eta eztiturik, bakhian gelditu ziren, kontu izanikan batzuk eta bertzeek hordi bat ez dela zentzu osoan den gizon bat, eta egin dituen astokerietaz ez daitekela arrunt hobendun izan.

Eta gehiagoko ondoriorik gabe, gizon pherestuen arthean behar den bezala, handik athera ziren, bakhotxak bere etxeko bidia hartzeko.

Horra nola eskualdunen arthean, gehienetan xuritzen diren heien liphistak, zinkhurinak eta arrangurak. Herrakunderik gabe.

Iruñen, 1935-ko Errearoan.

(La Voz de Navarra, 1935/6/11)

TRESNA TXAR BAT

(Benabarreko eskuaraz)

Manex, etxeko nausia, irakurtzen ari zen «Eskualduna», bazkaitea zoalarik, lehia haundiarekin, mahi aitzinean yarria.

—Alo, utzak paper hori; salda hoztuko zaik!, erraiten dako etxekanderiak.

Eta Manexek, begitarte hits batekin, uzten du kaseta bat batian, nigarra kasik agerian, eta auhen baten ondotik, dio:

—Gizagaizoa!!, gaixo Battitt, hainbeste urthe ez yakhinik nuntsu zen ere, eta horra lehenbiziko berria. Dohakabea! Eta Gexinak, bere emazteak, herstura batekin galdetzen dako:

—Bana, zer duk, Manex, ze irakhurtu duk, nor hil da?

Senharrak emaiten dako «Eskualduna»:

—No, irakhur zan hori.

Eta Gexinak irakhurtzen ditu paperrian lerro hauk: «Ameriketako berriak. Nevada-ko eskualdunen artean dolumin haundia egin duaku yakitean Batixta Erramuzpe, hain ezagutua eta maitatua zen gizona, hil dela yuan den astean ixtripu baten ondotik. Beribil bathean zoalarik, bihurgune bat ez untsa harturik, pendoitz bati behera yuan da, eta han lehertua kausitu dute karrosa uzkaillduaren pean. Gizon langilea eta zuzena, ontasun haundiak egin zituen, eta bere bihotz hunak bazakien behardunen arthean eskia zabaltzen. Sortzez Ezterenzubikoa zen, Baxenabartarra».

—Gaizua...!! Horra zer giren, Manex, heriotzaren mehatxuak nun nahi barrandatzen gitik. Bana ez ginakikan bizi zenetz ere, eta hain aberatsa zela.

—Ze naun, Gexina, hogoita hamar urte harat yuana eta sekhula haren berriak yakin gabe. Hola zunan Battitt; gizon bildua eta uzkurra.

—Errak, Manex, zion emazteak, donadua izanki eta hi anai bakharra, legearen araberan hire eskutarat yinen zaizkik haren ontasun guziak. Ez dea hala? Behar diren urratsak in behar dituk berehala. Yinko maitia, nork erran behar zien ephe laburrik barne aberatsak izain ginela?

Eta Gexinak, Kattin, bere alaba pollitar erraiten zakon:

—Ene gaixo maitia, ze soineko ederrak izain dituxun! Andere panpina bat bilhakatuko xitut, eta xure esku pollitak ez dituxu andeatuko xurrutategian baxera ikhuzten.

Herri guzian yakin zuten berria, eta ahoz aho hedatu zen hilak utzi zituen aberatstasunak, denak Manexen eskutarat erortzekoak.

Bainan, ilhabethe bat pastu ondoan, horra nun egun batez berriz «Eskualdunan» zer irakhurtzen duen Manexek harritua eta balditua: «Juan den ilhabethean, Ameriketako berrien arthean ezarri ginien Nevadan hila izan zela ixtripu bathian Batixt Erramuzpe, bainan zorionez ez da egia. Osagarri hoberenian bizi da. Norbaitek helarazi zuen gure berriketariari berri faltsu hori».

Gogoetan ari zen Manex, nork eman othe zuen holako berria eta zer xedetan. Burutik etzitzakon kentzen herriko norbaiten yukutria zela, Ameriketako adixkide soryes zonbaiti igorria, «Eskualduna»-ren berriketariari sinetsarazteko.

Amak, bere alaba ainbeste balakatu ondoan aberastasunarekin, uste zuen Kattinek nahigabe haundi bat ukhain ziela, haren ametsak ezeztatzian.

Baina Kattin, aitzitik, arras kontent zen yakitean bere oseba gaixoa bizi zela, eta haren aberatstasunak bathere gutiziatu gabe, orai arteko lanetan biziko zela.

Behin, Manex, artho kukula moztan ari zelarik alhorrian, hurbiltzen zaio adixkide min bat eta erraiten dako:

—Badakik, Manex, bethidanik hire adixkide leiala nizala, eta maite hutala egiazki. Hitz emaiten badak ene izena ixilduko dukala, errain deiat nok igorri zien hemendik Ameriketarat hire anaiaren hiltzearen berria, agertarazteko «Eskualduna»-n.

Badakik ze tresna den Errekaluzeko Piarres. Badakik ere Kattinekin ezkondu nahi ziela, eta hunek, hire aholkuz, nola igorri zien «phorru landatzera...». Eta itsuskeria hon egin dik hitaz mendekatzeko eta trufatzeko.

—Esker mila, adixkidia, eta ago trankil; eztiat salhatuko hire izena, erran zion Manexek.

Hunek yakin zien Piarres iratze metatzen ari zela handik hurbil. Bere etxeko muthilarekin yuan zen harenganat, bakhotxa zaharo bat eskian.

—Urde gaixtakin tzarra! orai ikhusiko duk nor nizan ni!

Bien arthean kendu zazkoten arropak, eta athorra altxatu eta, bizkarretik beherago dugun haragi meta hartan, ze zigorrada, ze eho-aldia eman zakoten zaharo ukhaldika! Toki mamitsu hori zauritua eta odolztatua ezarri zakoten.

Utzi zutelarik, Piarres, ximixta bezala hurrundu zen handik. Eta ze itxuran! Athorra soineko bakharra, eta eskalapoinekin...

Bospasei zakhur erausika bazoazin haren ondolik, eta haur andana bat ere, trufaka eta irritan. Etxe batzutan atheak hesten zituzten, ustez eta erho errabiatu bat zela.

Ba eta bazterretxetar batek, zakhur kalapita hura entzutean, uste izan zuen erbi baten ganik zabiltzala, eta harma edo xixpa hartuta, lasterka yuan zen ihiziaren ondolik...

Azkenian lehertua sartu zen Piarres bere etxian.

Eta gero, ohian ahuspez etzana, garrasika ari zen: atx, atx, ai, ei! ai, ei!, gune zauritua gatz eta ozpinez borthizki torratzen zakotelarik...

Ze irriak egin zituzten herrian zortzi egunez!

Iruñen 1935'eko Ephailan.

(La Voz de Navarra, 1935/7/14).

OROITZAPEN ZAHARRAK (Benabarreko eskuaraz)

Ez dira segurki anitz oroitzen direnak ene herrian «Zimun kauterraz». Hiruetan hogoi urthetakoak goiti baditake, bainan adin gazteagokoak ez dut uste, zeren eta gure haur denboran hila baitzen.

Zimun kauterra biarnesa zen, eta urthian bi aldiz agertzen zen Luzaiden, bere tresna zaharrak bizkarrian zakhu batian, eta haren ondotik zakhur fidel beltza, gose hamikatua, hezurak agerian, dena larru.

Itxura bitxia zuen, eta adin haundikoa. Zapel hegal labur bat burian, Ameriketako «gauchoen» idurikoa, eta bilho harro zuriek beharriak erdizka estaltzen zituzten, bat bere petenta eraztunarekin, eta eskian bethi zabiltzan makhil lodi bat, urhatsen laguntzeko.

Herrirat helduzkioz, plazako xoko bat hautatzen zuen, haizetik gerizatzeko, eta han husten zituen zakuko tresna bitxienak. Kobre puskak, itziak, haixturak, trukesak, hari-burdina, mailuak, marteiluak, burdin-xuria, beruna, eta ungidias. Nik dakita zonbat errekaitu!

Eskolako haur guziak han biltzen ginen, bainan Zimun zaharrak baitzakien (zerbait ikhusirik bere bizi luzean), zein gaixtarrotak ginen muttikoak, bere lehenbiziko lana zen ungidia azkarki finkatzea lurrian, eta hari estekatzea bere xakhur fidela. Norbait ausartatzen bazen soberaxko hurbiltzera, zakhurrak, muthurra zimurturik, hortz zorrotz batzu erakhusten zituen, eta futxo, ez ginen haren peskizan ezartzen. Erausi guthi, bainan ausikias prest.

Nausia urruntzen zelarik uzten ahal zituen lantokiko tresnak haren gerizan. Etzen zaintzale hobeagokorik.

Zimun kauterra etxez-etxe ibili ondoan ekhartzen zituen bizpahiru pertza edo untzi disdirant, kobrezkoak. Langile biphila eta abila zen, eta berehala hasten zen panpa, panpa, mailu ukhaldika ungidiaren gainean, bertzaren uspelak leguntzeko edo ziloen estaltzen, heieri puska bat eratxikiz itzekin eta kobre urtuarekin.

Bainan, nork ikhusi ahal du lanpide hortako gizon bat, eta gehiago dena, biarnesa, Nafarroako ardo gorriari itsuki emana ez dena? Gaizo Zimunez sos multxo bat bildu ondoan ostatuan sartzen zen eta han edan ahala ari zen. Eta noizian behin bere biarnes mintzo herrebesian oihu egiten zuen; «Au diu biban; aqueste-plau».

Bainan gizon zuhurra zen, eta anitz ardo xurgatu ondoan ere etzuen sekula burua galtzen; zentzua argi zuen, eta bidia zehiarkatuz ere heltzen zen bere lan tokirat, eta han zakhurrari ogi puska batzu emanik, luze luzea etzaten, bere zaintzale fidelaren gerizan, philik axolarik gabe mundu huntako nahaskeria eta nahigabetarik, bere moldeko zorientasunak gizonik dohatsuena egiten baitzuen. Bertza anitz antolatzeke izanez geroz, etzuen deusere besterik gutiziatzen, eta han hemenka ibiltzea herriz herri, deneez ezagutua eta maitatua bere zuzentasunaz, bizitze goxoena zitzakon.

Gizon yakintsu eta adimendu handienekoek bethi erran daukute egiazko bizi dohatsua aphaltasunatik kanpo ez daitekela kausi.

«Zimun kauterra» gizon zuhurra zen beraz.

(El Día, 1935/7/21)

ALARGUNTSA EZKONGAI...

(Benabarreko eskuaraz)

Nik ez dut errain alarguntsa guziak doi bat arinak izan behar direla bigarren ezkontza egiteko zeren eta gehienak beharrez eta ezinbertzez bere haurren edo etxaldearentzat gizon baten landeria, zuhurtzia eta itzala bilhatzen dutelakotz.

Bainan badirela ere noizian behin zenbait alarguntsa kasko arin, edo koskak, beren senhar zenaren galtzeaz nigarretan eta auhenetan ithoak egon ondoan, soberaxko zalhu hasten direla panpinatzen eta aphaintzen, bere edertasuna ohartarazi nahiz..., hori ezin ukhatuzko egia da.

Holako bat ezagutu nuen aspaldixko, herri bathian Frantziako hiri haundi batian sehi egona yende aberats batzuekin, eta sos multxo bat eginik, horra nun ezkontzen den bera baino anitz urthez adindua zen gizon batekhin; bainan...aberatsa.

Bethidanik, goguan itzatua zeukan amets ederra, andere lerroraino heltzea, ardietsi zuen azkenian.

Soineko ederrenak, eraztun yoriak, eta edergailu mota guzikoeri lehiatu zen. Yakhina, autoa ahatzi gabe.

Lau bost urtheren buruan galtzen du bere senhar zaharra.

Hogoita hamar urthe zituen alargundu zelarik. Adin ederrenian.

Eta egun bathez gogoratzen zaio, aberats berri anitzeri bururatzen zaiotena. Bere sortherrirat yuaitea, han ikhus dezaten nola bilhakatu zen andere haundi bat, herritik lekhuu nexka xoil hura. Eta ba ere parabisuaren bakhea goxatzeko, hiriko kalapitetaik urrundurik.

Herriko hotelian hartu zuen ganbera ederrena.

Yakiña, ostatuatarat heltzen dira nun-nahiko yendeak, bainan amultsuak eta yendakinak balin badira, ostalierren arthian adixkidantza zalhu sortzen da, guziz herri ttipietan.

Eta hala gerthatu zen han sartu berri yaun haundi itxurako gizon bathekin, galanta, bizpahiru egun alarguntsaren ondotik yina.

Yateko gelan sarthu zelarik berehala bere behakoak anderearenganat zoatzen, eta ohartu zen nola lakrikunkeriaz soinekoak aphainduak zituen. Lephoa eta besoak agerian, eta zintzur eta erietan harribizi ausarki.

Mundu anitz kurriturik, axeri zaharra baitzen, hauteman zuen berehala etzuela lan haundirik izanen gaixo biligarro haren liluratzeko... Eta gero baitzakien emazte sosduna zela, eta alarguntsa, egin ahalak egin zituen bere sareak hedatzeko eta heietan biltzeko, zimarkundez eta maltzurkeriez, eskurat heldu zitzakon xori eder hura.

Solasian sarthu ondoan zalhu adixkidetu ziren.

Alarguntsa egun batzuen buruko xoratua zen holako yaun haundi baten molde berexi eta eztiakin. Ezin gehiagoko arrakasta ukhan zuten bere gogo-bihotzian. Izanahala gixakoa zen, haren iduriz.

Adixkidantzako solasak laster bilhakatu ziren amodiozko elhe ez tietan... Mundu zabalian etzen hura baino emazte dohatsurik, ezkontzatik mintzatu zitzakolarik...

Eta, egun hits bathez, ganberan sartzean ohartzen da lephoko harri bizizko lokharria, eraztun yoriak, eta urrezko edergailuak, hain arthoski beiratuak zituenak, gakho

azpian... denak ebatsi zazkotela.

Bainan, nor othe zitaken ohoina?

Eta bihotza urhatua yakhin zuen haren alegiazko senhar-gaia, yaun haundi hura, oixteñuan berian herritik lekhutu zela, zalhukara... sekhula ez itzultzekotan...

Yaunputze tzar bat zen, alarguntsaren ontasunak usmaturik yukutriaren egiteko yina.

Eta emaztekia hipa-ka eta ahuenka ari zelarik «herritar» batek erraiten dako, «Debru astaña, mendikoak ez gitun hain pulloak»...

Iruñen, 1935'ko Urrian.(El Día, 1935/11/9)

ERRAMUN DONOSTIN
(Benabarreko eskuaraz)

—Errak, Beñat, zautzen duka Donostia?

—Zer da hori?...

—Pitzuna!... Donostia duk izan diteken hiri ederrena, erderaz San Sebastian deitzen dutena.

—To, entzun ditiat, ba, Erramun, hiri hortaz laudorio haundiak, bainan ez niakikan holako eskuarazko izen pollita baziela.

—Yuan den astian han izan nindukan, eta seurki etziak dolutu.

—Aspaldi gogorata nikan hiri xoragarri hura ikhustea, eta badakik, Beñat, Auritzeko ferian nola saldu nitien bi behi eder hek. Eta ordian phensatu nikan. To, ezpahiz oraikoan yuaiten Erramun, sekhula ez duk ikhusiko.

Barneko sakhelan diru paperrak untsa gorde eta abiatu nindukan, beraz, bospasei egun goxoki han iragaiterat.

Gizona! han sartu nintzalaik harritu nindukan. Ze yauregiak, ze karrikak, ze elizak. Eta dena zilharra bezain garbi.

Han eztuk, ez, ikhusiko, Beñat, xerrien eta astoen zikhinkerik.

—To, asto bat hasten balinbada buztana emeki, emeki goititzen... berehala han duk herriko-etxeko muthil bat saski bathekin... eta lurrerat heldu baino lehen, han biltzen ditik.

—Debrien arima, Erramun, hori uk hori, garbitasuna, ez hemen bezala dena... ziztorrez bethea...

—Itsas-hegi hura bezalakoik, dena ariña, legun leguna eta zelaia, harri koxkor bat gabe, ez omen duk nihon ere.

Han maiñatzen den yendeketa udan! Ba eta gero ahantxu buluziak gehienak. Trapuño bat gerrian, eta besterik ez.

—Baiñan errak, Erramun, emaztiak ere?

—Ba, gizona, ba, eta luze luzeak etzanak, eta gizonekin nahastekatuak. Zerriak ixtiletan bezala han ihaloskatzen dituk denak.

—Debru emazteak! zoin ausartak diren zonbait, gorde behar denaren erakhusteko. Han banintz, Erramun, eskian dutan zaharo hunekin, ze zafraldiak nik dakitan tokietan!...

—Haratxago baduk itsas bazterrian mendixka pollit bat. Igeldo deitzen dutena. Ze debrukeriak asmatzen dituzten hiri horietan!

Nola uste duk, Beñat, iraiten dela yendia gain hartaraino?

—To, yakina, bidez; berebilan edo huñez. Bestenaz ez ditekek, Erramun.

—Ai urde astua, ageri duk, ba, ehizala athera zilho huntaik!

Burdin bide bat egin die mendi kaskoraino, bainan ez zehiarka. Patarrari goiti, xuxen xuxena eta xut-xuta. To, Undarlako zubitik Udiri-eneko gain hartarat bezala.

—Gizona, bainan nola diteke, hori, Erramun?

—Nola? to, tiraka, soka bathekin iraiten die karrosa.

—Eta, ausartatu hinzana han sartzerat?

—Debrien arima! ez nindukan, ez, fidatzen. Bihotza ikharan abiatu nindukan azkenian, othoitz bat eginikan Andre-dena Mariari.

—Yinko maitia, phentsatzen nikan Beñat, soka hori hausten balinbada behere hartan, porroskatua, zintzirikatua bilduko hute, Erramun, saski bathian, haragi

phusketan!!.

Behitikoan, atx!, ez nindukan, ez, tresna hartan yautsi. Huñez eta goxoki.

Donostian badituk hain gauza ederrak eta ikhusgarriak, Beñat! Heietarik bat duk, «Paseo del mar» deitzen duten erregebide zabal bat, itsas hegian. Ze izigarriko lanak eta sosak ez dira gostatuko holako lan gaitza egiteko harroken gainian; itsasoko zalapartak ikusteko!

Egun batez, nahasia eta marruma gaitzian zukan itsasua, eta yuan nindukan ikhusteat. Sekulan ez nikan sinhetsiko ze indarrak dituen hurak!

Uhinak heltzen dituk, mendiak bezala, lerroka, aitzinatzen eta hurbiltzen. Bat bathian, burrunban leher eta zaphart egiten die harrokan bidiari hurbil, eta izigarriko gohoratasunerat altxaturik, dena hagunez xuritua, uhasate batek bezala bazterrak estaltzen ditik. Debrien bisaia! ze bustialdia yasan nien!

Sobera hurbildurik, eta ustegabea, bunba!!, harrigarriko hur meta batek busti nindikan, burustan (sic), hezurretaraino. Eta yendiak, irri karkailan, erraitean zitean, nitaz trufatzeko, «el jebo, jebo!!...»

Berehala yuan nindukan ostaturat, soinekoen aldatzeat.

Gose hamikatua bainintzan, borthu ondoko yateko etxe batian sarthu eta yan ninditikan bi gauza sekhula yastatu ez nitienak, bainan anitz aldiz entzuna nuela biziki goxoak zirela. «Xipiroiak» eta «angulak» deitzen ditie han, arrainki horiek.

—Eta nolakoak ziren, Erramun?

—Itxuraz arras itsusiak, Beñat, bainan ahotik ezin utziak. Xipiroiak beltz beltzak dituk, eta angulak... to zizariak bezelakoak, berdin berdinak, zuri-zuriak.

—Eta gohaindirik gabe yan hintiena?

—Uste nitek, eta ezpainak milikatu ere, sagarno goxo bathekin lagunduz. Sekhula ez nindukan itsasoan ibili eta bazkal ondoan egin nikan itzuliño bat. Eta hitzemeiten diat enizala berriz ibiliko.

Debru itsasu barren harat-hunatak eta goiti-behitiak arrunt nahasi nindikan, eta berehala hasi nindukan barnekoa bota nahiz... uhup!...uhup!...izerdi hotz bat kopetan...

Eta ikhusi behar hinuke, Beñat, ze zizare meta athera zen ahotik!...

—To, eni etziak, ez, holakorik gerthatuko, Erramun, Donostirat yuain nizalaik.

Iruñen, 1935'eko Hazilan

Donostiako «El Día»-tik

(La Voz de Navarra, 1935/11/26)

DONIANE GARAZIN
(Benabarreko eskuaraz)

Agorrilaren 15-an, Andre-dena Mari egunian dira Doniane-Garaziko besthak, aiphu haundikuak Donaphaleutik Luzaiderraino eta Baigorritik Xuberorat.

Donian darrek gauzatik (sic) untsa egiten dituzte, eta besthetako yostetek baduzte bethi eskualdun usain hutsa. Pilota partida ederrak mendiz bi alderdietako pilotari hoberenen arthian, yantza eskualdunak, phertsularien zoin-geiagokak, eta holako beste arratsalde goxo bathen phasatzerat. Plaza zabal hartan Cafe-ak koka-ahala betheak ziren, eta mahi batetik besterat ari ziren yendiak. Esku zartaka saristatzen zituzten hoberenak. Heien arthian kausitzen ziren Luhusoko Errekalde aita-semiak, phertsulari hautak, Garaziko herrietan hain ezagutuak direnak.

Handik denak yuan ginen Eihara-berriko pilota-tokirat, eta partida eder bat ikhusi ondoan, hasten da phertsularien artheko zoin-geiagokak (sic).

Irri onik egin ginitien, Alkateak eta zinautziek ezarri zazkotelaik bortxazko gai hauk. 1.º Batek behar zuen gorets, ezkontza, eta besteak donadogoa. 2.º Bat mintzatu behar zuen arnoaren alde, eta bestea huraren abantailez.

Eta entzutekoak ziren, biak ihardesteka, ze oharrak, ze atheraldiak, xixtak, eta zimikoak yalgi ziren heien ahotik, bere adimendu zorrotzek emanahala eginik, yendiak irriz lehertaraziz! Ze oihuak eta esku zartak!

Adixkide batzuk erran zaaten gero,

—Nahuzia yuan giten circo-rat?

—Guazen ba, ihardetsi nion.

«Place Floquet» ondoko phentze gain hartan zen Circo-a, eta harat hurbiltzian entzuten ginituen lehoinen ikharagarritzko orroak, hartzak marruma itsusian, ziminoak garrasika, astuak arrantzaka, egundainoko kalapitan eta aharran.

—Debrien bisaia, dio batek, segur othe girea hemen?

—Ba, gizona, ez duka ikhusten burdinezko kayoletan direla?

—Hum!... mehexkoak iduri zizkiak burdin horiek. Handik atheratzian erraiten daat Bordaxuriko Manexek.

—Badakizia zertaz harritu nizan gehienik?

—Zertaz ba?

—To, mahi gainian ibili den debru gizon hortaz. Izigarri da nola bihurtzen dien gorphutza, suge batek bezala. Horrek eztuke bizkar-hezurrik, ez eta izter eta besoen lokharriak guk bezela lothiak gorphutzari. Eta bizkar alderat bihurturik, borobildua, buria athera zielaik ixapapetik aitzineko alderat? Miresgarri zen, bana halako ikhara bat egiten ziren bihotzak, beldurrez barneko zerbaite lehertuko zitzakola.

Ez dut seurki berriz ikhusi nahi.

—Eta alimaleen arthian, ze gustatu zaik?

—Ori, ximino haren itzuliphurdiak eta lasterkak, soldado soinekoekin yauntzia, xixpa bat bizkarrian. Debru apho tresna irringarria! Eta gero firrindan bizikleta hartan, ze xixtian zohan!... Bana sekhula ez nien ikusi beste alimale errekaitu itsusi higuigarri hura, erdi arrainki, erdi abere, bustia, urinez thorratua iduri, zangorik gabe, herrestan ibiltzen dena...

Eta bizkitartian, futxo, hain abila eta hardita!

Harrigarri zen nola lephoa goiti luzaturik ibiltzen zuen muthurrarekin, punpaka, airezko pilota gorri haundi hura, gizon bathen trebetasunarekin!

Eta gero, orroka, zoin goxoki hesten zitien, nausiak phererekaka emaiten zazkon xardinak!

—Eta nun bizi dira horiek?

—Mundian diren lekhu hotzenetan, eremu karroinduetan. Hur pian ibiltzen dituk, eta hatsa hartzeko muthurra atheratzen die noiztenka.

—Ze nahuzu, Manezaundi, mendi gain horietan bizi girenek phikorrik ez dakigu mundutik; gizagaizuak!

—Ez behar ere, Mañex. Hire etxealdearen yabe, funts ederrekin, gizonen nahaskeriak eta yaidura txarrak ezagutu gabe, errege bat hiz gain hartan, bakherik ederrenian.

Iruñen, 1935-eko Abenduan

(La Voz de Navarra, 1935/12/20)

AIREZ AIRE...

(Baxenabarreko eskuaraz)

—Nun haila, Petan?

—To, Ustaritzetik heldu nuk, arthaldia in ikhusten izanikan. Aurthen alhapide heetan bazka ederrak dituk, eta ardietan ere ezautzen duk, mustra ederra die.

Aireplan bathian ere ibilia nuk, Ellande, arranoak baino gohorago.

—Ago ixilik, Pettan, hi tresna hortan ibilia hizala? Burutik yuana ote hiza?

—Bayetz, gizona; bainan, debrien arima, hitzemaiten diat lehen eta azken aldikotz izan nizala. Ez nuk berriz menturatuko holako bulta xar bathen phasteak.

—Eta, nola demuntre ausartatu hiz balentria horren iteko?

—Badakik, Ellande, Ustaritzeko phenze zelhai eta nasal heetan egun hootan ibili direla aireplanak, han eraikirik beren atherbiak, yendeez ikhusarazteko tresna horietan ibiltzeak ez diela hirriskurik, eta hortarat yar diton heraberik gabe. Eta hogoi libera saritu eta pidaiaño bat iten ahal zukan hegaztinen eremutan...

Anitz yende bazukan han ibili nahia, bainan, ni, atx! ez nindukan ez, fida, kaiola hartan sartzen, zer gertha ere...

Ene lagunak trufatzen zitukan nitaz, irrika:

—Ai urde pultrun tzarra, emaztiak baño izikorra hiza? Andere eta nexkatoek iten dutenaz hi izitzen? nun duk gizontasuna? Gizon galtzeen orde zaiak behar hinuzke yauntzi. Ehiza ahalgetzen?

Gero nexka frantximent batzuk erraiten zitean:

—«Le pauvre campagnard, il a peur», halako irriño xuri gaitzikor bathekin...

To, azkenian trufa hek ezin yasanez eta bihotza korropilatua sarthu nindukan tresna hartan, zeinatu ondoan, eta erraiten nielaik, Yinko hunak nahi diena gertha dailala.

Debru mekanika hura hasten duk izigarriko burrunba gaitzian, dena inharrosten eta dardarikatzen, ene gorputza ikharan. Zelhai hartan lerratu ondoan hegaldatzon duk gero eta gohorago.

Gain hartaik ikhusten nitikan etxiak ttitta xuri eta gorri idurikoak, eta yendiak kukusoen heinekoak...

Eta bat-bathian eztikiat ze gerthatu zen, Aireplana xutitzen duk, eta buruz-behera inguru osoa eginik, holako bizpahiru itzuliphurdika iten ditik... Uhalekin ez banintz estekatia izan phentsemak, Ellande, norat yuain zen ene gorphutza!

Nahasia, bihotza yauzika, zainak trenkatzeko phundian, erdi hila, izialdura garratzenian, Yinkoari otoitzka ari nindukan, ustez eta ene azken tenoria heldia zela!

Gero ohartu nindukan urde gidari hura irri iten ari zela ene izialduraz, eta behar-bada nitaz trufatzeko in zitiela izigarriko itzulipurdi hek.

Debrien arima! lurrean finkatu zelaik tarrapatan laxatu ninditikan uhalak eta yauzi in phentzeak, mustupilka eroririk.

Ba eta gero hurratsak ezin xuxen in, dena ene burian inguruka, xoratia, erhotia bezala!

Arras trenpe xarrian sartu nindukan ondoko ostatu bathian, eta... barnia hustu eta, tisana bero bat harturik etzaterat yuan nindukan.

Holako bulta xarrik egundaino ene bizian ez nikan phastu. Bana hago trankil, Ellande, ez nie, ez, berriz hatzemain tresna madarikatu hartan estekatia, eremanikan ere...

Ze, oono irri iten duka? Hail, hail, yasta zak airezko pidaiaño hori; yuain zaizkit irri iteko gutiziak.

—Ehaila samur Pettan, bana gaitzitu gabe barkha nezak, erraiten badut hik kondatu ditukan gauzak irriz leher in gabe ez ditezkel aitzen ahal.

-Debru pitauna! Nahi nitek, to, ikhusi hire kalipu eta bihotza ene lekhian izan bahintz gain hartan, buruz-behiti eta hertziak zintzurrian!... Aphal litezkek, ba, zalhu hire harrokeriak.

(La Voz de Navarra, 1936/4/23)

II. ATALA

GIZON OSPETSUAK

CAMPION YAUNARI

Bere goresmeneko egunean

Ohore, zuri gure erakusle yakintsu zaharra. Ohore Napartarren argitzaile eta iratzartzaileari!

Zagutzen ez dena, ez da maitatzen ahal. Zuri esker, beraz, daskigu zein haundia eta aipatua zen aitzineko mendetarik geroz gure Naparroa. Zuri esker piztu zaizkigu (sic) bihotzeko garra.

Zure bihotz suharra eta zure yakitate haundia Naparroaren eta Eskualherri guziaren amodioz lan harrigarriari lothu ziren, liburu eta paper zaharren ikertzea eta argitzea. Berrogoita hamar urthez, bururik altxatu gabe, bermatu zira, dremendenik lotsatu eta etsitu gabe, bihotza sutsu, eta gogoa xut. Ohore zuri!

Jaintsu egiazkoen arau, baño eta umilki iges egin duzu bethidanik etxetik kanpoko balakatze bideeri: eta ixilki zure xokoan yarraiki zira kartsuki idazki mamitsuetan, deneeri ezagutarazteko eta maitarazteko Naparroaren eta Eskualerri guziaren haizutasuna.

Gorets dezagun Campion haundia eta maitagarria.

(La Voz de Navarra, 1931/11/28)

UDAKO OIHARTZUNAK

Erraiten ohi dute idazti pollitenak eta sarkorrenak direla bihotzetik atheratzen zaizkigunak; ez adimendutik eta burutik zentzuz eta zuhurki agerrarazten ditugunak.

Hauk baditake funtsezkoak izan ditezken baina bihotzetikakoek ere badute halako lilura zerbait, eta barnerat heldzen zaizkigu gure izaitearen zolaraino, arimaren baitatik sortiak direlarik.

Nik errain dituanak gauza xumeak litezke, baina utz dezagun bihotza mintzatzerat.

Behin, egun batez, Luzaiden nintzalaik, yuan den Agorrilan, ethorri zen mendiz-mendi eta huñez ni nindagon etxerat Baigorri-ko Belexi hauzoko gizon kankail bat, adindua eta meharra. Etxekoandieriaren ahaidea zen eta han bazkaldu zuen.

Aphairuan, yaki puska batez ahoa koka ahala betia zielarik galdegin nakon hea noizbait aditu othe zien Boryel phertsulariaren izena, Luzaideko seme aiphatia. Izen hori entzun eta bat-batian, ahamena zaluki iretsirik, begiak phiztu zitzaizkon.

Gizona! (erraiten daat), nekez, arras nekez holako phertsularirik khausi ahal ditekela Eskual-herrian. Baigorri eta Alduden, Garazin ala Amikuzen, Baxenabarre osoan, ba eta ere Laphurdin eta Xuberon biziki ezaguta zen. Nok ez dazki haren phertsuak?

Eta berehala arno hurrupa batekin zintzurra garbiturik hasten zait Boryel-en kopladerrenak ozenki kantatzen. Eta nola!

Ni loriatua nindagon hari entzutean, zer amodio eta eztitasunarekin atheratzen zaizkion bihotzetik phertsu pollitenak, eskualdun menditar hutsek ezin erranezko aireaz erraiten dituztenarekin.

Ori, yauna, ihardesten du; ene herrian, Baigorri, hauzo eta bazterretxetan, zahar ala gazteak igande arratsetan adituko dituzu Boryel-en koplak, irrintzinez landa.

Irakurleak: erdaldun eskualde hautan ez dakizie zer heineraino menditarren barneak inharrosten ditien phertsulariak. Eskualduna ez ditake eskualdun izan ez balu phertsularientzat then amodio suharra, eta ez balazki gogoz haren phertsu aiphatuenak, bihotzetikako oinhazetan ala bozkariozko egunetan bere barneari mintzarazteko.

Zer omen eta aiphu haundikoak diren hiru izen hauk mendiez bertze aldekoen artean! Boryel, Baxenabartarra (Luzaidekoa); Otxalde Laphurtarra, eta Etxahun, Xuberotarra, Barkotzekoa. Izen iraunkorrak, ahoz-aho dabiltzanak phesta eta bazkhari ondoetan, herrien bozkariotan, hain aspaldikoak izanikan ere.

Bertze egun batez mintzatu beharra niz Boryel-ez, ene herritar haundiaz, hemengoer ezagutarazteko nor eta nolakoa zen.

(La Voz de Navarra, 1933/10/17)

GURE GIZONAK MARTIN AZPILIKUETA

Hiru idazti eman ditut Nafarroa behialako denboretako gora-beheretaz mintzaturik. Gure gizon yakhintsu eta larrienetaz ere nahi dut zerbait erran laburzki, bereziki gehienez gutisko ezagutuak direnetarik.

Hautarik bat da Martin Azpilikueta, Doctor Navarro izenarekin ezagutua.

Nafarroa-ko etxe berexienetarik zen, aitorensemea, San Frantsisko-ren ahaide urbila, Barasoain-go yauregiaren yabea, eta han sortua 1491-an. Eskualduna zen, zeren eta denbora hartan ez baitzen, zorionez, oraino sartua erdara lekhu horietan.

Espainitarrek bethidanik mihia latza, bathere leguna izan dute beren erresumatik kanpoko izenen ikasteko.

Hamazazpi gisaz (dio Hermilio Oloriz-ek) deitzen zuten Espainiarrek gure yakintsua: Pizcueta, Pazcueta, Pilazcueta, eta holako izen bihurtu eta herrebesekin, ezin xuxenki erranez haren deithura!...

Eta azkenian, buru hausterik ez ukhaiteko, deitzen zuten El Doctor Navarro, eta izen horrekin hedatu zen haren omen haundia bazter guzietan.

Azpilikueta, denbora hetako gizon yakhintsu larrienen arthekoa zen, Europa guzian aiphatua.

Lehenikan Orriagako abatia izana zen, ordian Elizako kargu haundia, Apezpikuaren ondokoa.

Gero Nafarroatik lekhutu zen, eta bere yakitate haundiaz, Frantzian, Cahors eta Toulouseko eskol-etxe nagusietan erakasle egona, bai eta Salamankan eta Portugaleko Coimbran eskol-etxe buruzagia.

Berantago Roma-rat yuan zen, eta han ere kargu haundienak ukhan zituen.

Aita Sainduak kenka nekeetan erabaki zuhurrak hartu behar zituelarik, bethi nahi zuen Azpilikuetaaren aholkua aditu, eta berarenganat deitzen zuen, eta hunen xedeak, oharrak eta gogoetak entzuten. Eta zonbait aldiz hunek emanikako argitasunak adituzkioz, aitzinetik asmatu zituen erabakiak aldatzen, Azpilikuetaaren oharren arabera yarraitzeko.

Hortakotz deithua zen Aita Sainduaren Aholkularia.

Eta Aita Sainduak maite zuen hanbatetaraino, nun sekhula ikhusi etzena ordu artio, Azpilikueta eri gaizki egon zelarik, haren etxe lañorat yuan zen, bere begiez ikhusi nahiz. Gure yakhintsua, bere harriduran belhaunikatzera zohalarik, Aita Sanduak larderiaz, bainan eztiki, debekatu zakon ohetik higitzea.

Nehok etzuen holako ohore haundia ukhan, eta Roma guzian hedatu zen ezin sinetsizko berria.

Eta halere gure gizon haundia etzen dremendenik urguluntzitu, hanpurutu, harrotu.

Yarraiki zuen bethi bezala bere baitako aphaltasuna. Zer ikhasbide edderra haundinahientzat, hain errexxi hantzen direnentzat!

Hortan berean ageri da haren adimenduaren egiazko haunditasuna.

Roman hil zen 1586-an, eta hango Eliza batian du bere hobi ederra eta haren harrizko iduriarekin.

Eta ikhustekoa zen ze begitarte eskualduna zuen...!

Buria adinak ukhurtua. Sudurra luzea eta eroria, begiak urdinak eta biziak, ttipiak, bainan phindardunak. Ahoa mehia, ezpain xokoetan irriño doi batekin; kokotza meharra eta aitzinatua, sudurrari hurbildu nahia.

Matel hezurak hertsia, buru-sahetsak zabalak, kopeta nasaia...

Hea badenetz eskualdun itxura egiazkorik!

Nik egin nuen behin haren iduria (hori da nere lanpidea, irakurleak), goxoa baitzitzaitan eta ene neurri xumearen heinean ohoratzeko oroitzapen horrekin gure gizon haundia. Ze kharrarekin lothu nintzan lanari!

Eta Diputazioneak erosirik, han dago yauregiko gela batian nahi duenaren agerian.

(La Voz de Navarra, 1934/4/11)

GURE GIZONAK:
BERNAT DETXEPAIRE

Arras gogotik mintzatzen niz gizon huntaz zeren eta ahantxu ene herritarra delakotz.

Ehiaralarren sortua zen. Luzaidetik hurbil, eskuaraz lehenbiziko liburua idatzi zuenak, Linguae Vasconum primitiae deithua.

Ehiaralarre (frantsesez Saint Michel), Doniane Garazitik hiru kilometra urrundua da, hego alderat, ditakeneko toki pollitenian yarria, xoko liluragarri batian, oihan eta phentze ederren artian. Eskualherriko aurkhintza miresgarrienian.

Holako lekhu goxoan sorthu beharra zen gure gizona! Handik athera beharra zen bihotz eskualdun suhar bat, erhoki gure elhea maite zuena, eta liburuaren egiteko xedea aitzina eremaiteko bere helbururaino ezindua izanikan, etsitu gabe, azkenian hatzemaiten du gizon dirudun bat bere laguntza emaiten dakona, moltsa idekirik!

Detxeparek, bihotza arras hunkitua holako dohain yoriaz, goresmen haundiak egiten ditu bere phertsuetan gizon hortaz, esker amultsuenak emainik, Bernat Lehet laguntzaile Garaztarrari.

Eta 1545-an Bordeleko hitz moldetegi batian agerrarazi zuen.

Nafartar bat beraz izan da idazle lehena gure mintzaira ederrean eta handizki ohoratzen gitu gure arthean sorthu zen gizonak.

Zonbat eta zonbat ez da idatzi eta mintzatu liburu hortaz, mintzaira zaharren argitzen eta ikhertzen ari diren yakintsuenetz Europan!

Hor ditugu Vinson, Ulhenbeck, L. Luciano Bonaparte, Schuchardt eta bertze, mintzaietaren zeretan gehiago dakitenak, denak eskualtzale suharrak, miatzaile burukoia.

Detxepareren liburu hori irakhurtu nuenian, badakizea zerk harritu ninduan oroz gainetik? Ikhustea, ohartzea, miresturik, Garazin orai mintzatzen den eskuara Detxeparen denborakoa dela salbu hitz bakhar batzu.

Lau ehun urthe iraganik, eskuara ez da aldatu, baztertu edo bihurtu bere bidetik eskualdunen arthean Garazi aldean. Hea ez denetz gauza harrigarria!

Oraiko Espainiako edo Frantziako yende xhekek irakhurri nahi balukete lau ehun urthe aitzineko beren mintzaira, erdizka bezik ez lezakete ulhertu. Hain dira aldatuak gerozkioz.

Eta guk Akademiarik gabe, eta doidoia astian behin irakurtuz elizako liburuak, atxiki dugu mirakuluz behialako edertasunian, garbiki, gure arbasoek mintzatzen zuten bezala. Eskuararen ithurburuak ez ditugu galdu. Gure elhea mendietako ur-xirripa kotsu gabeko ithurrietan edan dugu, bathere yautsi gabe ur-haundi edo ibaietarat, hok ardurenik garbitasuna galtzen ditutelakotz heien ganat doatzin zikhinkieriaz nahastekaturik.

Mirakuluzko garbitasun hori, holako dohain yoria, nundik heldu zauku? Miresgarrizko emaitza hori norenganik dugu? Menditarrerik esker.

Horiek dira gure academico hoberenak; heien ganat yuan beharrak dira eskualtzale yakhintsuenak, zerbait argi nahi balin badute.

Gure gizon miresgarri horiek atxiki eta beiratu dauzkute eskuararen ithurburuak, garbiki eta kotsurik gabe.

Detxepare (edo berak eskualdunki erraiten duen bezala Etxeparekoak) ageri da Doniane Garaziko khasik auzokoa dela, zeren eta bere phertsuetan ibiltzen du, ez dizit,

artu nizin, ez dut, artu nuen, ordeztu.

Guk, Luzaiden, xu-ka ari girelaik baxharrik erraiten dugu ez dixit, artu nixin.

Oraiko egunetako phertsulari eta koplakariet, Detxeparek bezala erraiten dute akhuluia, mirakuluia, akhulu eta mirakulu ordeztu. Bainan hori kopletan baxharrik sori da. Sekulan, mintzatzian. Haizutasun hori zilhegi da phertsuaren neurthitza borobiltzeko, eta beraren soinuak beharriaren goxatzeko.

Gure herriko kantu zaharretan orai ere ibiltzen da diraden, diren ordeztu, Detxepareren arau.

«Linguae Vasconum primitiae» liburuan badira ere zonbait (arras guti) hitz Xuberotar.

Eta berriz ere erran behar dugu zoin harrigarri den ikhustea nola lau ehun urthez ez den bathere aldatu gure mintzaira miresgarria.

Ba eta gauza bera gerthatzen da Axular-ekin: hunen eskuara irakhurtzean iduri zauku egungoa, oraikoa dela.

Gogorat yiten zait, oraiko idazleak, gutiz gehienak eskualdun berriak, nola ari diren hitz bihurtu eta herrebesez (beren adimendutik atheraiak), eskuara emokatzen, kotsatzen eta ilhuntzen, gure eskualdun hutsek ezin ulhertzeko heineraino...

(La Voz de Navarra, 1934/4/24)

GURE GIZONAK: JUAN DE HUARTE

Baxenabartar yakhintsu hau Doniane Garazin sorthua zen 1530-an.

Mendiz hunaindiko Nafarroa Espainiarrek menperatu ondoan, 1512-an, lauetan hogoi urthez oraino iraun zuen gure erresumak edo nazioneak, nahiz ttipitua, mendiz haraindiko aldean, Frantziari eratziki gabe.

Beraz, gure yakhintsua etzen Espainiarra, nahi dutena erranikan ere Ebro-tik beste aldekoek, eta etziren ere San Frantsisko Xabierrekoa eta Martin Azpilikuetakoa, hiruak sorthuak Nafarroako erresuma xutik zelarik.

Erdaraz eskolatuak zirela eta Nafarroa-tik kanpo hilak?

Horrek deus ez zuen erran nahi, eta ez zuen ezeztatzen erraiten duguna.

Juan de Huarte (Juanes Uhartekoa) etzen bakharrik denbora hetako mediku aiphatuenetarik bat, bana asmatzaile gaitza, gizonaren adimenduko eta arimako zolan barnago sartu zena, gure gogoaren ikhertzaile eta ohartzale haundia, bihotzaren ezagutzaile zorrotza eta argia.

Bere gogoeta eta oharmen horietaz egin zuen liburu bat, Examen de Ingenios deithua, eta hain aiphu eta omen haundia ukhan zuen, nun Frantzian, Angleterran, Alemanian eta Italian berehala itzuli zuten bere hitzkuntzetar, eta Europa guzian hedatu zen gure Huarteren yakitate haundia.

Uharte, Doniane Garazi-tik (ez dakigu nola eta zer inguruz) yuan zen Huesca-ko hirirat, Aragonen, eta diotenez, medikuntza han ikhasirik, eskol-nausian erakasle izendatu omen zuten. Bainan berri hok ilhunskoak dire.

Denbora hartan, Baeza, Andalucia-ko hirian, izurrite izigarri batek yendeak xahutzen zituen, eta neholere kotsuaren hedadura etzezaketen garhaitu edo atxiki bere zedarrietan eta bazter guzietarat berduratzen zen herioa sarraski haundiak eginik.

Ordian Espainiako erregeak erabaki zuen harat igortzea mediku aiphatuena, eta hautatu egin zuen gure yakhintsu au.

Eta Uhartek, egin ahalak eginik, emeki emeki eritasunak bakhandu zituen, eta azkenian hiria izurritetik garbitu.

Linares-eko hirian hil omen zen, eta diote hango eliza batian ehortzia dela, nahiz oraino ez den ori argiki yakina.

Oixtian erran dugun bezala, Uhartek oldozpen eta oharmen sarkhorrak utzi dauzkigu bere liburuan.

Luze, arras luze liteke hemen aiphatzea, lau hitzez ere, ze goresmen eta laudorio haundiak egin dituzten Espainiako eta Europako gizon yakhintsuenek gure Uhartez.

Bana erran dezagun denek aithortzen dutela bere adimenduaren ohartze zorrotzen ausartasunez eta bere oldozpen eta erakaspen argi eta barnakorrenganik, hiru edo lau ehun urthez aitzinatu zela haren denborako gizonen artekoetik, ez bakharrik Espainian, bana Europa guzian.

Holako gure gizon haundiaz oroitu gira azkenian, uzkurtasuna inharrosirik. Yuan den Urrian ospatu dugu Iruñen haren izena. Marañón mediku aiphatua yin zen Madrid-etik eta Ateneo Navarro delako batasunian mintzaldi eder bat egin zuen haren ohoretan. Eta geroago, berriki, Doniane Garazin, bere sortlekian, egin dituzte ospe haundiko bestak, harrizko oroitzapen bat eraikirik haren iduriarekin. Tenore zen holako zerbaiten egitea.

Eta zonbat Nafarroako seme haundi ditugun arrunt ahatziak!
Huna Uhartan erran batzu, eskuararat itzultzen ditudanak:
«Yakhintsuen liburuen irakhurtzeak argitzen du ernearen adimendua, baina
mutzitzen du gizon ilhunarena».
«Haur phestuntziak sekula ez du ikhasiko bere amaren altzoan. Yakhitateak
derama berekin nekheak eta pairamenak, eta etxetik lekhutu behar da deus onik egiteko».
«Ikhas zak untsa liburu baten mamia, eta ehizala sar liburu anitzetan, adimendua
trabatuko zaik. Hazia bota zak ildoan, ez besainka barreatuz. Bestenaz, ura saskian bezala
litekek».

(La Voz de Navarra, 1934/5/1)

GURE GIZONAK: AXULAR

Ze nahuzie, irakurleak, erran dezan gizon huntaz, hainbeste eskualtzale yakhintsuek erran duten ondotik, deus berririk yakinarazteko?

Bizkitartean ausartatzen niz ene ohar xumeen idazterat, asmatzean oraino badirela anitz eskaldun hitzik ere ez dakitela nor zen gure Axular haundia.

Barkha nezatela, beraz, dakitenek, hemen emaita xehetasun ezagutuak.

Pedro de Axular Urdazubin (Urdax) sorthua zen 1556-an.

Aphezgoa ikhasi zuen Iruñen, Lérida-n eta Tarbes-en.

Azken hiri huntako Diharce, Aphezpiku eskualdunak, apheztu zuen berrogoi urthetan. Gero Sarako erretor izendatu zuten, eta kargu hortan hil zen 1644-an.

Utzi dauku eskuaraz libururik den ederrena eta yoria, Geroko Gero miresgarria, zointan denek kausitzen ditugun eskuararen ikhasteko erakaspén argienak, eta ithurburu garbienak gure mintzaiaren mamia yakiteko; yoskera eta egindurak, itzulikak eta aditza hain eskualdunki eginak, nun begietatik eta gogotik ez dezakegu utzi, liluratuak, liburu hori gure eskutan behin erorizkioz.

Edozein hegaletatik idek dezagun, bethi kausitzen dugu hitzaldi eder bat, bizpahiru aldiz goxoki irakurtzen duguna sekula enheatzen edo akhitzen ahal ez gituztenak: aitzitik, bethi loriatzen ginuztenak.

Ze eskuara ederra, trebea, leguna, eta gurbila!

Eni, Detxepareren Lingue Vasconum primitiae baino hobeagoa zait, eta erran dezagun berriz ere, zoin harritzeko den ikhustea denbora hartako mintzaira orai Benabarren mintzatzen den ber-berekoa dela.

Badakit anitzek errain dutela (osoki ezagutzen ez dutenak) Axularren eskuara Laphurdikoa zela, ez Benabarrekoa.

Behar duta erran aldi batez oraino, biak gauza bera direla? Gan, yuan ordeztarraiteak, eta hori ez bethi, ez du ezeztatzen ene aithormena. Nehok ukhatzen ahal ez duena hau da. Dakizuen bezala ni Luzaidekoa niz, eta Axularren eskuara gure herrian eta Garazi guzian ez lezake ezagun handik kanpoko eskuara dela, haren denborako zonbait hitz alde bat utzirik.

Eta bada hauzi huntan gauza bat harrigarria.

Nik ez dakit nola eta zergatik ze mugak edo zedarriak bethidanik izan diren Benabarre eta Laphurdi, eta Espainia aldeko Nafarroa eta Gipuzkoa arthean.

Sarako eskuara Luzaidekoa bezalakoa da, bere hache-kin, bi herriak hain urrunduak izanikan ere.

Bizkitartean, Etxalar Sara-tik hain hurbil izanik edo Irún Endaia-tik iduri luke horien arthean badela phezoin edo leize haundi bat. Hain dira desberdinak eskuarak!

Luzaidekoek Etxalarrekoak erdizka ulertzen dugu, eta Sarakoa arrunt guria bezala.

Eta oraino harrigarriagoa da ohartzea gaitz hori ez dela oraiko mendekoa, bainan bethidanikoa dela, Decheparek, Axularrek eta beste behialako idazleek frogatzen daukun arau.

Nehork, orai artio, ez du eman hortaz argitasun bat.

Nola diteke bi herri auzoen arthean holako berextasuna? Ihardets dezatela yakhintsuek. Horren xuritzeak balio luke zerbait.

Urdazubiko eskuara ez dut ezagutzen, baina Axular berrogoita zortzi urtez Saran egonikan, haren mintzaira etzela bere sortherrikoa ez daiteke ukha. Sarakoa du, hutshutsa.

Mendiz bertze aldeko idazleak dira zaharrenak eta hoberenatarik. Mendiburu eta Larramendi gipuzkoarrak ere bai.

Duvoisin-ek, ene ustez, egin du lanik haundiena hemeretzigarren mendearen erditsuan. Testamentu zaharra eta berria bost zathi edo liburu larrietan.

Lan gaitza, ez bakharrak bere hedaduraz, baina bere eskuara ederraz. Aitzineko idazleek dabilzaten erdal hitzak khendurik, eta heien ordainez gure elhekoak ibiliz, egin zuen eskuara bat arrotz kotsurik gabekoa.

Baina Axularrek anitz hitz erdaldun ibilikan ere, behialako idazleen arau, bethi izain da haren Gero miresgarria eskuara eskualdunki yakiteko alhapide ederrena eta aberatsena, gure hazkurri eta ikhasbide beharrena arbasoen elhe zaharra garbiki ikhasteko, bere erroen eta mamian.

Bego Axular.

* * *

Atzo, tinkatu nintuen Kanpion yakhintsuaren eskiak, bere lauetan hogoi urthe bethetze egunian.

Adin haundiaren berexak ez dire ageri Kanpionen gorphutzan. Begiak izpi bat lanhotuak, doi bat elkorra eta urratsak poxi bat hurri. Deus besterik.

Adimendua ez du bathere ahuldua. Aitzitik, harrigarri dena, bere gazterian bezain argi eta suharra du.

Nork sinets lezake adin hortan oraino ari dela azkarki lanian, bizpahiru liburu mamitsu agerrarazteko xedean ephe laburrik barne? Eta bizkitartean hala da.

Yinkoak iraunaraz dezala anitz urthez eta osagarri onean bere bizitze yoria, Eskualherriaren ohorez eta zorionez.

(La Voz de Navarra, 1934/5/8)

GURE GIZONAK: AITA MORET

Ospegarri aphez yakhintsu hau Iruñen sorthua zen 1615-an, eta hemengo yesuiten erretora izana zen.

Bere yakitate haundiaz Nafarroako gauzetaz, izendatu zuten Cronista de Navarra, Nafarroako gertakari idazlaria.

Lan gaitz bat idatzi zuen hamabi liburu zathitan, Anales de Navarra deithua, eta denek ezagutzen duguna.

Nafarroako denbora urrunduenetarik hasi eta, behialako gerthakariak mendez-mende eta urratsez-urrats yakinarazten dauzkigu, hamazazpigarren mendearen erditsuraino.

Nafarroako eta bertze lekuetako liburutegietan ikhertu eta miatu ondoan artoski paper zaharrenak, idatzi zuen liburu bat deithua Investigaciones historicas de las antigüedades del Reino de Navarra.

Liburu yori eta mamitsu hortan bildu zituen ekheiekin orhatu zuen geroago bere Anales de Navarra aiphatua.

Moret-en ganik dakigu, beraz, idazle zaharren arthean, gure erresumaren hastapenak, eskualdunek oraino erregerik etzutelarik baizik eta zonbait gudulari eta aitzindari fierrak, ausartak eta zailak, gizon osteak heieri yarraikitzen zirenak aizkora eta azkonekin gure eremutan sartzen ziren etsaieri.

Eta geroago hautatu zuten lehen erregea, heien arthean zen gizonik kalipudunena eta biphila. Iñigo Aritza izenarekin ezagutua dena.

Moret-ek ezagutarazten dauzkigu hortik landa ukhan ginituen erregeak eta denbora hetako gora-beherak, xeheki emanik, bereziki errege aiphatuenenak. Sancho el Mayor, Sancho el Fuerte, Theobalt hiruak, Carlos II, Carlos III eta Juan d'Albret, gure azken errege dohakabea, Espainiarrek mendiz hunaindiko erresuma beretu zakotena.

Gaitza da Moret-ek egin zuen lana, ez bakharrik bere yakitate mamitsuaz, baina bere hedadura haundiaz, liburu eta paper zaharren arthean denbora luzez egon ondoan, khar eta lehia suharrarekin bere Nafarroaren amodioaren ganik. Hain zuen maite oroz-gainetik bere sortherria!

Nafarroako aitzineko zeretaz gutizia miko bat dutenak ez du bururik altxatuko Anales de Navarra irakhurtzen behin hasizkioz.

Ene xedea lerro hauk idaztian ez da xehetasunik emaita, baina lau hitzez eta laburzki yakinaraztea gure mintzairan nor zen eta zer herrunkan den Moret Nafarroako gizon haundien arthean.

Nornahik khausituko ditu, yakina, huts haundiak sail huntan, nihauk ere badazkitenak baina ene lerroak ez luzatzeko ixiltzen ditutanak.

Heriotzat itsabasitu zuen 1687-an bere lana arrunt bururatu gabe, baina geroago Aita Aleson-ek (hau ere yesuita), eta hura bezala Cronista de Navarra, yarraikitu zuen haren hutsa bethetzeko.

Moret-ek ere yakinarazi dauku noraino hedatua zen eskuara haren denboran, Nafarroan.

Hego aldeko mugako herri zonbait bakharrik mintzatzen ziren erdaraz. Eta handik goitiago bertze herri parrasta bat erdara, ta eskuara aldizkatuz mintzatzen zirenak. Beste

guziak eskuara garbiz. Erran nahi baita, hego aldeko zonbait herriz kanpo, Nafartar guziak eskualdun hutsak zirela.

Ba eta Moret-en lekhukotasuna egiztatzen du urthe gutiz geroxagoko paper zahar batek, 1590-koa. Gazteizko Seminarioko liburutegian berriki agertua.

Paper hortan ekhartzen ditu Nafarroako aphezpikugoko ordian ziren herri eskualdunak, eta berdintsu Moret-en denborakoak dira.

Ze bide hitsa egin duen geroztik erdararen hedadurak! Bilduma murriz huntan eman dauziet, irakurleak, Moreten zonbait berri labur, kontu izanikan idazti laburrak aiseago iresten ditugula, ezenez luzeak; eta hortakotz izari edo neurri xumean idatzi ditut ene lerroak.

(La Voz de Navarra, 1934/5/30)

GURE GIZONAK:
ARTHUR CAMPION

Ene goresmen haundienak xumeak litezke gizon hunek merexi dituen neurrirat heltzeko.

Nik ez dut uste egundaino Eskualherrian izan den gizon bat Kanpionen idurikoa, berrogoita hamar urthez lanian arizan denik gogo-bihotzak oso osoak ezarri dituenak yaidura suharrarekin eskuararen eta Eskualherriaren alde.

Aita-ama aberatsen semia, aiserian eta buru hausterik gabe bizitzen ahal zena, hogoita hamar urthetan, gazteriaren harrokeriak, arinkeriak eta yostetak alde bat utzirik, gure yakhintsu haundia, Eskualdun baten bihotzian alha diteken khar saminarekin lehiatzen da liburutegietan ikhertzen aitzineko paper zaharretan diren Nafarroako eta Eskualherriko berri guziak, gure ithurburuetaraino miatzen.

Hogoita hamar urthetan etzakien eskuara, bainan bere yite burukoia eta adimendu ahaltsu eta argia bihotz khartsuari elgarturik, lotzen da ikhasterat gure arbasoen elhea.

Eta, harrigarri dena! Sei urtheren buruko agertarazi zuen denek ezagutzen dugun liburu aiphu haundikua, Gramática de los cuatro dialectos vascos (sic), deithua.

Ze izigarriko lanak etzituen yasan holako liburu baten idazteko, lau mota eskuara horietarik ikhasteko eta yabetzeko! Eta hain ephe laburrian.

Eta hainbertze urthe iraganikan ere haren denborako agertzetik geroz, oraino, egungo egunian, bertze holako liburu agertuen arthean, Kanpion-en Gramática-k bethi atxikitzen du bere lehen herrunkako tokia.

Gizon miresgarria!

Lerro labur hauetan ez dut eremurik xeheki aiphatzeko Kanpion-ek idatzi dituen liburu multxo haundia, hain ezagutuak eta hedatuak direnak Eskualherriko zeretan yarraikitzen direnen arthean.

Aipha dezagun haren libururik mamitsuena, zointan agertzen eta erakhusten daukun noraino heltzen den Kanpionen yakitate haundia.

Celtas, iberos y eúskaros deitzen da liburu hau.

Lan gaitz hori idazteko behar izan ditu yakhin zortzi edo hamar hitzkuntza zaharrak, urruneko mendeetan itzaliak direnak; sánsripto, copto, ibero, celta, aquitano, etrusco eta holako bertze: Greco eta latinez bertzalde.

Eta lan horiek oro eskuararen eta eskualdunen ithurburuak yakinarazteko.

Hortik asmatzen ahal duzie, irakhurleak, nolako burla duen, ze adimendu gaitza alhatzen duen barnian.

Ba eta bihotza ere hein ber-berekoa du, sekhula itzaltzen ahal den gar batekin, eta handik atheratzen diren argiak eta phindarrak Eskualherriaren amodioaren ganik hedatzen ditu, bere erakasperenen dohainak emaiten dauzku.

Harrigarri da Kanpion-ek agertarazi dituen paper zaharrak Cámara de Comptos eta Archivo de Navarra-ko liburutegietan ikherkhin nahiaren gosea asetzeko, eta Nafarta-[...], sekhula kordokatu gabe, mia eta mia, bere yakhin nahiaren gosea asetzeko, eta Nafartarrerri yakinarazteko liburu Euskarianas ederrekin zer ginen aitzineko mendeetan.

Paper horietan, milazka ikhertuak, badira erakusten dauzkutenak egunez-egun erregeren eta Nafarroako erresumaren xahutzeen xehetasunak. Guduen gostatzeak, yauregi eta gazteluen antolamenduak edo eraikitzeak, bizigailuen saneurriak,

othuruntzetako konduak, langileen eta sehien alokairuak, gaixtakinen salatarien sariak... Hots, denbora hetako xahubide eta gerthakari larri ala xeheak tiletez-tilet emanak, eta ezagutarazten dauzkutenak orduko bizitzea argitasun haundiarekin.

Eta Kanpion hain da gizon langilea, nun adin haundian izanikan ere, dremendenik ez da etsitzen, ez enheatzen, ez eta akhitzen ere; aitzitik, goxotasunian ari da, eta ariko azken hatsaren tenorearaino, bururik altxatu gabe, gazteriaren khar berarekin.

Nork erran lezake, orai berian, lauetan hogoi urthetan, agertzekotan dituela hiru liburu, moldetegirat eremaiteko prest?

Yakhintsu haundiek adimenduko lanak, bizi direno, ez dituzte uzten ahal. Helen gogoko hazkurriaren gaiak yanhariak bezain baitezpadakoak dira beren biziari.

Bizkitartean, dolumin hitsarekin behar dugu aithortu gure gizon haundiari ez dazkotela denek egin merexi dituen goresmenak. Politikako yaidura tzarrek itsuturik, ukhatu dazkote zonbaitek, edo bederen ahatzi, holako gizon ohorengarri bati dohazkon laudorioak.

Gorets dezagun gure Kanpion haundia, eta Yinkuak iraunaraz dezala anitz urthez.

Ihardesten

«Biperrenbordako Piarres» izen ordezkorekin agertu da egunkari huntan idazki bat «Axular oraino» buruarekin, eskuara arras eder batez egina.

Berriz ere erraiteko beharrian niz nitaz aiphatzen duenari ihardesteko, burukoia izanikan ere. Etxalarreko eskuara anitzez baztertzen dela Sarakotik, eta hau Luzaidekoa bezalakoa dela, salbu hitz bakhar batzu.

Ni eniz izan Etxalarren. Mintzo niz bakharrik herri huntako idaztiak irakhurtu ondoan, eta lekhukotasun horri lotzen niz.

Aithortzen duzu Endayakoa eta Irungoa desberdinak direla, bainan (diozu) hango yende gehienak mugazain kumeak direlaketz.

Deithoragarri eta damugarri da, bainan egiari zor dugu erraitea, gauza hitsa izanikan ere, muga hortan badela bethidanik phezoin bat bi aldetako hitzkuntzak berexten dituenak.

Barkha nezazu, bainan ni eniz kordokatzen ahal ustekeria hoitaik, frogak agerian direlarik.

Zure eskuarak badu Luzaidekoarekin ahaidego arras hurbil bat. Piarres hori gure herriko eta bestealdeko izena da.

Nahiz ez dezaken nehok ezagut, mendiz hunaindiko eskualdun bat othe zirea, eta eskualdun berria?

Hala balinbada, ohore zuri, zeren eta arras nekhez, zozo xuri bat bezain nekhez, kausi ahal ditake sortzez ez den eskualdun batek hain ederki eta errexxi ibiltzea gure elhea.

(La Voz de Navarra, 1934/6/14)

«BORYEL» PHERTSULARIA (Benabarreko eskuaraz)

Espainia aldeko eskualdunek eztute ezagutzen pertsulari haundi hau, ez eta bere izena sekula entzun ere, naski.

Eta bizkitartean Espainiako zen... Bana argitasun bat behar dugu eman hortaz.

Nere herrikoa zen, Luzaide-koa, bainan gu Espainiari eratzikiak edo lothuak izanikan ere, Benabartarrak, Garazikoak gira, muga egileen gainetik...

Eta horra zergatik «Manezaundi» izengoitiarekin idazten dituen lerro hauk mintzatzen den hango eskuaraz, Napartarra izanikan ere... zeren eta gure eskuara, gure dantzak, gure ohidura eta aztura guziak, ba eta odoleko lokharriak ere, mendiz bertze aldekoak diralekotz. Iphar aldekoak girelaketz.

Eta nun da herri hori?, galdeginen dute gehienek.

Har zazue Nafarroako «mapa» bat, eta iphar aldeko muga ikhusiko duzie eremu mehar bat, mendiz haraindi Benabarren barne sartzen dena. Eta puntta puntta hartan kausituko duzie izen arrotz bat arras bihurria eskualdunentzat: Valcarlos...

Hangoa zen «Boryel», gure phertsulari haundia, Bordelenekoa, bazterretx eder eta aberats batetakoa. Bere izena zen, Manez Echamendi.

Otxalde, Etxaun eta Boryel ziren mendiz bertze aldeko hiru phertsulari aiphatuenak. Lehen bizikoa, Laphurtarra, bigarrena, Zuberotarra; eta azkena, Baxenabartarra: hiruak hilak; Boryel 1870'an, 80 urthetan.

Diteken gizonik izaite eta yite ezti eta berexikoa zen, eta eskual kantak eta neurtitzak bihotzian errotik sarthuak zituen. Bainan erran behar dut Benabarren, eta uste dut Laphurdin ere, phertsularia eta koblakaria ez direla gauza bera. Lehenbizikoak dira etxian phertsuak egiten dutenak, eta kantua berari emaiten dakotenak.

Bigarrenak, koblak egiten dituztenak oste baten aitzinian, edo beste batekin ari dena gai bati buruz ihardesteka.

Lehenbizikoetarik zen «Boryel», nahiz koblakari ona izanikan ere.

Omen haundia zuen Benabarren eta Laphurdin. Ehunka utzi dauzkigu bere phertsuak ezin gehiago ederrak.

Nork ez du ezagutzen hango Eskual herrian bere kanta miresgarria «Lur pian sar nindaiteke»?

Baztango «Oinazez» abestiaren parekoa da, eta bere histura ezti bihotz zolaraino sartzen dena, amodioaren pairamenak erakusten dauzkatena, bere bihotz zauritua agerian ezaririk.

Carlos V'ren gerlan, Zumalakarregi-ren denboran, Luzaide-tik ereman zituzten bortxaz, ahari arthalde bat bezala bahituak muthiko gazte andana bat Donostirat, eta heien artean zen «Boryel».

Ez dakigu nola eta zergatik La Mota deithu gazteluan sarthu zituzten hobendunak bezala lurpeko gela beltz batian.

Eta toki hits, ilhun eta heze hartako nekheak ezin yasanez, egun batez ausartatzen dira handik atheratzerat. Eta gaztelu lurpeko ixurgingen bidia harturik, ukhurtuak eta kasik herrestan lekhu okaztagarri hartan ardiesten dute kanporat heltzea.

Bainan, zorigaitzez, han berean eskuratzen dituzte, eta berehala aitzindariak erabaki zuten gaztigu borthitz bat emaita.

Bakotxari ehun makhil ukhaldi bizkarrian...

Eta hemen agertu zen nolako bihotza zien gure «Boryel» phertsulariak. Bere anaia ere harekin zen, hobendunen arthean, bainan osagarri xarrear eta sukharrarekin izanik, Boryelek ezagutu zien izagarriko zigorrada haren ondotik etzela bizirik atherako gaixo anaia.

Ordian galdetzen du aitzindarier othoi utz dezaten berak hartzea anaiaren ordainak, eta baimena ardietsirik, bere bizkar buluzian emaiten dazkote berrehun makhil ukhaldi...

Erdi hila, odolztatua, sarraskitua, ereman zuten eritegirat, eta heriotzarekin borroka ibili ondoan, mirakuluz sendatu zen.

Eta gerthakari latzgarri horiek guziak idatzi zituen phertsu luzeetan.

Oixtian erran dugun bezala, mendiz haraindikoek denek ezagutzen dituzte «Boryelen» phertsuak eta kankak. Othuruntzetan, phestetan, ostatuan, nun nahi adituko dituzie oraiko egunetan ere.

Nere herritar phertsulari hau ene luma xumeak nahi izan du argitaratu hemengo eskualdunen arthean.

Iruñen, 1935'ko Otsailan.

(El Día, 1935/2/24)

III. ATALA POLITIKAZKOAK

ETORKIZUNARI BEHA
(Baxenabarrako mintzairaz)

Espainiako inharrosi izigarri huntarik landa, errepublikako gobernu berriak, hitz emaiten du Eskualherriko mintzaira, ohidurak eta bere legeak, onhartzen dituela, lehenagoko moldetan.

Agintza ederra, hori: bainan hitzak ez baitira beti egiteak, gauden Eskualdunak goait eta begia zorrotz.

Zerbait nahi balinbadugu ardietsi, behar dugu mendietarik hunaindiko eskualdunek elgartu. Bizkaia, Alaba, Gipuzkoa eta Naparroa danak bat egin, eta lotuak egon lokharririk azkarrenean. Berexirik, deusere eztugu ardietsiko. Elgertasunean eta batasunean da indarra.

Aitzineko urthetan gure mintzaira ederra, gure ohantzeko lehen ele maitea debekatzen zuten borthitzki, eraztun okaztagarria eskoletako haurren erietan ezarritz, higingarri itsuskeria baten hobenduna bezala. Mintzo apha, zikin eta ohoregabekoa gure etsai errabiatuen araberan, aiherkunderiz itsutuak.

Altxa ditzagun beraz, gure mintzaira, gure ohidurak eta legeak, bainan anartean egon giten, beti berme eta xut, etsaia begitik utzi gabe.

(La Voz de Navarra, 1931/5/6)

BIHARKO BILKURA HAUNDIA

Eskual herriko egun haundiena izan daiteke biharko bilkuratik atheratzen balinbada guziek igurikatzen duguna, ESTATUTO VASCO delakoaren onhartzea, Naparroako herri gehienengorik. Zer ondorio eder eta liluragarriak ez ditu ekartzen ahal holako gerthakari haundiak!

Hamairu garren mendetik oraino arte eskualdunak berexirik egon gira. Bizkaia, Gipuzkoa eta Alaba alde batetik, gu bertzetik; eta bihar onhartzen balinbadugu ESTATUTO VASCO hori, berriz denak elkarturik besarkatuko gira gure haurridekin bihotzeko bozkario saminenean.

Laurak bat! gure bethiko amets xoragarria, gogoan dugun nahi khartsuena, ardietsiko othe dugu azkenian?

Segurki hola izain da, bilkura hortan denek atehatzen balinbadute goraki eta gizonki beren bihotza eta bere gogoia.

(La Voz de Navarra, 1931/8/9)

GURE ESTATUTOAZ

Nafartarrak, iduriz, axola haundirik gabe gaude, uzkur, nagitasunean lokhartuak, Estatutoaren buruz.

Anartean, gure anaiak Bizkaitar, Gipuzkoar eta Arabarrak ari dira bermatzen suharki, hiri, herri, herriska, auzo, eta baserri urrunduetaraino helarazten eta hedatzen, bazter eta gune guzietan ikhasarazten zer ondorio ederrak dauzkan Eskualherriarentzat Estatuto delako horrek.

Eta gu hemen? Hemen... ari gira liphistan lothuak gorriak eta xuriak, arras minbera eta bekhaitzkor bea ez denetz politikaren edo erreligionaren kaltean Estatuto hori. Azkenek badakikete yadanik Gazteizko Apezpikuak yakinarazi duela Estatutoaren alde boz emateak ez duela gaitz dremendenik egiten Elizari. Beraz bere boza emaiten ahal du lotsa izpirik gabe.

Ezkerrekoek, aldiz, uste dute beren politika suntsitzailea litekeela Estatutoa, orain arte bederen hain itsutuak ziren, hitzik ere ez entzun nahiz Bizkaiko eta Gipuzkoko beren kidekoer, hauk nahi zituztelarik bereganatu, adimenduko itsutasuna argiaraziz.

Burdina hain gogorra izanik ere azkenian guritzen baita, horra nun Gobernuoko Azaña buruzagiaren mintzaldi ederra irakurtu ondoan, begiak idekitzen dituzten, emeki, emeki. Agian gure alde, hobeki erraiteko Nafarroaren alde, izanen ditugu, egiazki maite balinbadute Eskualherriko ona.

Bainan Estatuto hori zer da? diote, bere begitartea teteldua anitz eta anitzek, halako gauza bitxi eta nihundik ezin ulertua izan balitz bezala. Holakoer ele guti eta larriak.

Bethidanik etziztea arizan oihuka, fueroak nahi ditugu!? Hor dituzue ausarki (Estatutoan), ausarki eta nasaiki zuen fuero-ren gosea asetzeko, erran nahi baita, guhauren legeak, gure moldearen heinean eginak direnak.

Adi zazue, Nafar egiazko itsutuak, ala, alegiazko itsutuak, (denetarik baitira, gero). Zergatik eta norenganik ditugu Nafarroan hainbeste ontasun eta bake, hainbeste eskola, hainbeste bide eder, eta bertze? Gure fueroari esker. Atxiki hori gogoan, ez ahantz zuen votua emaiteko egunean.

Eta azkenekotz berri zoriongarri bat aita-amentzat. Estatuto horrekin zuen seme maiteek beren soldadogoa hemen eginen dute, Nafarroatik yali gabe, etxeari hurbil. Zer da ederragokorik gaixo ameentzat?

(La Voz de Navarra, 1932/6/7)

AGUR, GURE ANAIERI, AGUR

Odolaren deiak bilarazten gitu Iruñeko hiri zahar huntan Eskual-erro bazter haurrideak.

Hamairu garren mendetik geroz, berexutuak, baztertuak, bizi izan gira: Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba alde batetik; Naparroa bestetik; eta hortakotz egungo bilkura da gerthakari haundiena eta ospatsuena, denak berriz elkartu nahiz anaitasun ederrenean Gernikako zuhaitzaren itzalaz geriztuak. Aitzineko mendeetan denen artean bat eginik erresuma edo aberri oro eta azkarra, helduak ginen Añamendiko eta Astobizkarko bi alderdietan, ipharraldean eta hegoaldean, Ebro eta Adur ibaien artean.

Bai, odolaren deiak berriz elkartarazten gitu. Badea bihotzaren oihua baino haundiagorik, saminenik, suharrenik?

Gure ohidurak, mintzaira eta legeak nahi ditugu errepiztu, baina oraiko bizi moldearen heinerat zuzenduak, aitzineko gauza onak ahortzi eta baztertu gabe, zeren eta hek bitara eskualdunaren manua, bere izaitearen errokoak, ezin kenduak gure menetik, gure baitatik, lokharri azkarrenekin lothuak.

Ospe haundiko bilkura hortan ditugu gure gogoa eta bihotza zuen erabakiaren igurikan, beretik yalgiko baita Eskual-herria-ren zoriona edo nahigabea, bozkarioa edo tristura.

Yainkoak argi ditzala zuen adimenduak baitezpadako kenka hortan.

Auzapez, eskudun eta mezulari guzier gure ongiethorri kartsuena.

(La Voz de Navarra, 1932/6/9)

BIDEAK ETA ANAITASUNA

Nafarroak baditu sei erregebide edo karretera mendiz bertzealderat doazinak, eta gure anaiekin lokharri azkarrak hedatzen dituztenak. Bera-tik Doniane Loitzunerat eta beste bat Behobirat. Etxalar-tik Sararat. Elizondo-tik Ainoarat. Errazu-tik Baigorriat. Eta Auritze-tik Doniane Garazirat.

Ba eta beste bi erregebide oraino egitekotan dira. Batian ari dira lanian, Eugi-ko mendiari goiti, Urepelerat helarazteko. Bestia Izabatik Santa Grazirat, (Xuberoko herri pollita), egin nahiz, biltzen dire ardura hango eta hemengo auzapezak eta deputatuak. Ari dira ere Aezkoako bidia luzatzen Otxagabiraino. Halaber Uztarrotz-tik Itzaltzuraino. Ez dute, (yakina da, eta ez erran beharra), España mugako probintziek hainbeste bide Frantziar. Gehienak biga edo hiru ditu, doidoia.

Horra ba, Eskualherriko eremu eta eskualde eder horiek elgartuak bide ederrez, eskuak emanik Xubero, Baxenabarre eta Laphurdiko anaier.

Eta zer toki xoragarriak, zer aurkintza miresgarriak!

Dena edertasun lilluragarriez galkatua. Mendiak, oihanak, errekek, ur xirripak, herri pollitak, etxe xuriak; pentziak eta mendi mazelak arthaldez betheak. Nola ez maite gure Eskual Herria? Nun othe da holako toki ederrik? Nafarroa maitatzeko behar dugu lehenik untsa ezagutu, eta ardura edo usuki yuan ikhusterat iphar aldeko eskualde horiek, damuz, hain guti ezagutuak gehienez. Ezagutzen ez dena ez da maitatzen ahal.

«Ezagutzetik sortzen da amodioa» dio erran zaharrak. Iratzar zitezte, ohil zuen gogotik eta biotzetik uzkurtasuna; gure bethiko zorigaitzak hor du ithurburua. Nagi eta uzkur diren herriak bethi egonen dira besten zangopetan, heien manuen azpian, arrotzaren sehi. Horra zer ethorkizuna duten herri lokhartuek. Gure herriaren amodioa iraungiz, itzaliz, yin gira oraiko egunetarat, ezin gehiago hitsak.

Gu, gu bakarrik gira hobendunak yasaiten ditugun oinhazez: Gure zorigaitzak hemen berean sortu dire, gure artean, bethi liphistan, herrakundez eta bekhaitzkundez lothuak egonik.

Anartean etsaiak bere lana errexxi egin du, eta gutaz yabetu.

Eskual idazleer

Zer ari zizte hor, ixil-ixilak, Irular, Iru lagunak, Alexander, Aguerre eta beste eskual idazleak? Ez duzea astean behin bederen asti izpiño bat lau lerro igortzeko izparringi huntarat, zuen eskuara pollitean? Egiazko eskualtzaleak, ene ustean, hori behar luke egin, ahal bezanbat idatzi eskuaraz, irakurtzaleak ikhus eta ikhas dezan bere mintzoa erderazko lerroen artean.

Hitz hauk ez dira zuretzat, Artia adixkidea: badakit zer lan haundiak dituzun goizetik arratseraino egun guziez. Eta halere aski ardura ikhusten ditugu zure eskual idazti pollitak.

Alo ba: berma hor, eskuaraz idazten dakiten guziek. Utz aLde baterat uzkurtasuna eta nagitasuna. Eskual herriaren alde.

(La Voz de Navarra, 1932/11/1)

MENDIEZ HARAINDIKOAK

Alderdi edo eskualde eder hartako anaiak hasi zitzaizkigu iatzartzen Eskualherria xutitu nahiz, ez bakarrik bere ohidura eta mintzaiari doazkonetan, baina gobernutik aitzinagoko Eskualherriko ele zaharrenetarik zonbaiten ardiesteko xedean.

Denek dakiguna da, nola 1870-ko erreboluzio artio, Laphurdi, Baxenabarre eta Xuberok zituzten bere legeak, gure fuero idurikoak, eta izigarriko inharrosi odolztatu hartan arrunt xahutuak izan ziren, Eskualherria berdinduz bertze Frantziako departamenduen heinean lerokaturik. Gernikako haritzaren gerizan biltzen ziren Bizkaitar lege-egileak bezala, Ustaritzen ere zuhaitz baten azpian egiten zituzten beren bilkurak edo batzarrak, Biltzarrak deituak, Laphurdiko gizon argituenek, legeen erabakitzeke. Herri eder hori zen hiri-nagusia.

Eta harrigarri eta miresgarri dena, inharroste gaitz harek Eskualherriko ohidurak eta legeak arrunt xahutu eta barreatu ondoan, yats hits bat iduri, izigarriko gerthakari latzak ikhusirik... halere izpirik etzen kordokatu beren fedea eta eskualdun goa, hain ttipia izanik ere hango Eskualherriko eremua, arrotzez ithoa.

Eskualdun goak bihotzian arras barna sartuak dituelarik erroak, nekez, biziki nekez ohilduko ditu bere baitatik eskualdun egiazkoak yendaki edo arrazaren zerak, bere izaitearekin bat egiten baitute, eta lokharri horiek ezin ditezke ahuldu, zer nahi eginikan, edo nun-nahi egonikan ere.

Horra nun dugun ikhusbide ederrena, zer eta nolakoa den eskualdun hutsa, arrotzkerietarik ezin kotsatuzkoa.

Bainan erran dezagun, kiratski deitoraturik, zoin bitxi den hemen hatzemaitea holako gizon bat. Eskualdun horietarik kausitzeko mendiez bertze alderat behar ginuke yuan.

Hemen arrotza errexxi nausitzen da bere mintzairaz, ohidurez eta elez, denak hari so teteldurik, perttolikeriak erranikan ere, bere ahotik elhausturia burrustan badariolarik. Arrotz bilakatzen dira hemen legunki eta zaluki.

Aniz bozkariotzen niz ipharaldeko eskualdun anai suharren xede ederrez, eta igurikatzen ahal dugu ondorio ederrak heien lanetarik, zeren eta kartsuki lehiatuko direlarik Eskualherriaren xutitzerat eta goasterat. Berma hor, anai maiteak; hemen gira behan zuen ondorioren aiduru, eta gogo-bihotzetik igortzen dautzuet goresmen beroenak.

(La Voz de Navarra, 1933/1/6)

IZENDATZE OHOREGARRIA

Euzkadi Buru Batzarraren buruzagi izendatu daukute Jesús Doxandabaratx, gure adixkide maitea.

Hautu hobeagokorik ez dezakete egin, zeren eta abertzale sutsuenetarik baita, adimendu argikoa, eta bere khar biziaren heinekoa Eskualherrian nekez kausi ditakeen gizonik delakotz.

Nafartarreentzat ohore haundia ere. Bertze eskualdeko abertzaleek frogatu nahi izan daukute beren anai amultsutasuna, gure ahaidegoa, eta odolaren estekamenduak tinkatzeko, heiekilan hertsiki batetaratuz.

Doxandabaratx adixkideak, sendagile aipatuak, onhets ditzala gure goresmen [...], gure bihotzeko bozkarioa, bere izendatze ohoregarriaz. Anitz urthez.

(La Voz de Navarra, 1933/4/5)

YATZARTZE EDERRA

Eskual-herria bi zathitan berexturik-geroz, batzuk Frantziaren menpean, bertzeak Espainiaren manu azpian, mende bat egon da lokhartua, ezinbertzean uzkurtua, nagitasunean eroria, indarrak ahulduak, etsitua.

Hego aldeko Eskualdunak 1839-ko lege biguina yo zituen hain azkarki, nun bere lege ederrak, Espainiako gobernuak hitzeman ondoan berak gerizatuko zituela, khendu zitzaikon, pilik axolarik gabe hitzari ukho egiteaz.

1839-garren artio baginituen Nafarroek edozein erresumak dituen legeak, eta Espainiarekin ez ginuen lokharri bat beizik. Errege bera bi erresumerentzat. Deus besterik. Gure mugak nun, herri arrotzen mozkinak sartzean legarrak edo zergak pagatzen zituztenak; gure gudulariak; gure dirua guhauk egina; eta hots, erresuma baten beste lege guziak.

Horiek oro lege tzar madarikatu harek arrunt kendu zitzaizkun eta geroztik burua aphaldua oinhaze latzan ezinduak, zigorraren mehatxuan ixilduak ginauden.

Bainan zorionez azkenian gure herabe eta uzkurtasunaren garhaitzen hasi gira, eta horra egungo egunean zertaraino yin giren, ikhusten dugun iatzartze huntaraino.

Bazter guzietara hedatzen da Eskualdungoa: mintzaira eta ohidurak errepizten eta goresten.

Behinere ikusi duguia holakorik? Ez, eiki. Eta egunez-egun indar haundiago hartzen du iatzartze samin hunek, bere hedaduraren zedarriak gero eta zabalago eta urrunago doatzi. Eskual-herriko xoko kukutuetaraino heltzen.

Gizona oinhazeak beretzen duelarik, haren ukhaldi gaixtoaren azpian delarik, uste zaio bethikotz hortan egoitekoa dela, bainan minak, hain gaitza izanikan ere, badu bere ephea, bere muga. Denborak luzarat bihotzmina epheltzen eta eztitzen du, eta barneko zauriak eta pairamenak sendatzen azkenian.

Zerbait holatsu gerthatu zaio eskualdunari. Gaitzari ihardokitu da eta inharroste bat eginik berriz xutitu arin eta erne eginbide baitezpadakoari yarraitzeko.

Eta eskualdunaren eginbide hertsiena da eskualdunki bizitzea. Zorigaitzez gure hitzkuntza ez dakitenek oroz gainetik behar lukete ikhasi, zeren eta mintzai arrotzarekin bakarrik ez da egiazko eskualdungorik; bihotza eta gogoa bereganatzen du elhe arrotzak.

Ondikotz, ez dira anitz suharki ikhasterat lotzen direnak. Eta bizkitartean ez da hain gauza ezinezkoa eta nekezkoa nahikunde khartsu bat bihotzean alhatzen delarik.

Ikhusbide edo etsenplu miresgarriak ikhusten ditugu zonbaitetan, orai lau-bost urthe doi-doia hasiak murduskatzen, hitzik etzakitenak, eta hain errexki eta garbiki orai mintzatzen direnak. Zer goresmenak ez dute merexi holako gizonen! Eta entzuten ditutalarik asmatzen dut noraino nahiak eremaiten ahal duen gizona helbururat heltzeko, bere baitan itzatu zaiolarik xede bat, eta egin-ahalak oro egiten dituelarik hartarat bururatzeko eta ardiesteko.

Nahikundearen bothereak ez du neurririk, ez zedarririk. Ez da deus ederragorik nola bakhotxak bere yendaki edo arrazaren hitzkuntza yakitea. Enetzat bederen hori daukat ohore haundiena, bai eta ere ene izenondokoak edo apellido guziak eskualdun hutsak izaitiaz, arrotz odol xortarik gabe.

(La Voz de Navarra, 1933/5/24)

ZER GINEN ETA ZER GIREN

Nik erraiterat noana denez arras ezagutua da, baina Nafarroako gauzak, aitzineko denboretako gora-beherak, bethi erdaraz erranak izan dira: eta uste dut eskuaraz ere behar direla yakinarazi, nahiz laburzki. Hau da nere xedea.

Nafarroako erresumaz mintzatzen direlarik anitzek uste ohi dute gu Espaina-ri elgatu ginela gure nahikundez. Union hitz hori hola ulertzen dute gehienek. Eta hori ez da bathere egia.

Espainiarrak hamasei garren lehenbiziko urthetan, xuxenki 1512-an, galdegin zuten Nafartarrerri Frantziarekin gudukatu behar zutelako estakuruan utz ditzan Nafarroan gaindi iragaiterat bere gudulariak.

Espainarrek bazuten bere lurretarik Frantzian sartzeko bertze bide bat, baina hemendik nahi zuten, yakina.

Nafartarrek ihardetsi zuten ezetz, debekatzen zituztela hemen sartzea.

Zer egin zuen ordian Fernando el catolico heien erregeak?

Aita Sainduaren mezu izun batekin mehatxatuz yakinarazi zuen Nafartarrerri Elizatik ohilduak edo iraziak izain zirela, zeren eta gure erregeak adixkide adostuak baitziren Frantziako erregeekin, eta hok Aita Sainduaren etsaiak izanez geroz, herrunka edo lerro berean ezartzen zutela. Eta beraz, harek guduz ardietsiko zuela Nafarroako erresuma. Yinkoaren izenian.

Espainiarren erregeak baitzakien zoin minberak ziren Nafartarrak bere girixtasunean uste izan zuen zimardika horrekin bidia legun leguna izain zuela hemen sartzeko eta gutaz yabetzeko.

Nafartarrek etzuten osoki sinetsi Aita Sainduaren alegiazko mezu hartan eta egin ahalak egin zituzten etsaiari ihardokitzeko eta garaitzeko gure lurretan sartu zelarik. Baina gure indarrak heienak baino ahulagoak izanik izigarriko gudu latz eta borthitz baten ondotik, eta desmasia eta hiltze haundienak eginik azkenian yabetu ziren bethikotz gure erresuma dohakabeaz.

Horra nola eratxiki ginuzten bere uztarrari Espainiarrek. Borrokaldi gaitz eta latz bat pairatu ondoan.

Ohointza hori mendiez hunaindiko alderdian egin zuten, baina ez harandiko edo Frantzia aldeko Nafarroan, Benabarran. Denek dakigun bezala Adur-eko uraundiraino hedatzen ziren gure eremuak, eta hango hiri nagusia zen Doniane Garazi. Oraino laueta hogeitaz urtez iraun zuen Nafarroako puska harek. Azkenian hura ere Frantziak ereman zuen, baina ez nolanahi, azkarki ihardoki ondoan.

Nafarroa behialako denboretan eskualdun guztien erresuma zen. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba gurekin zeuden, guziak batetatuak, odolaldekoekin elgartuak. Emeki emeki autarik berextu eta Espainiari eratxiki ziren beren nahikundez.

Nafarroa Adin-erdia deitzen zen denboran erresuma azkar bat zen eta Europako gisan moldatua. Denbora heietan Europatarra edo girixtinoa gauza bera zen, izen beraz deithuak ziren.

Eta nun ziren hameka garren menderaino Europako edo girixtasunaren mugak, Frantziatik behiti? Nafarroako hego aldeko zedarrietan. Handik harat deitzen zuten tierra de moros: moru Afrikatarren lurak.

Nafarroa bethidanik girixtino khartsua izanik, hamahirugarren mendean

Frantziarekin elgartu eta yuan zen Yerusaleme eta bertze Lekhu sainduen beretzerat, zeren eta Turko-en eskuetan baitziren, heien aztaparretatik kendu nahiz.

Izigarriko bide luzeak eta nekheak iragan ondoan itsasoz eta leihorrez hurbildu ziren eremu hetarat. Nafartarrek harat heltzeko beren errege Theobalt burian, borroka gudu gaitz bat izan zuten turkoekin Tauro mendiaren azpian, eta aitzina yuan ziren.

Bainan azkenian Frantses eta Nafarrak etsituak, etsaia ezin garaituz, itzuli ziren, sinets ez ditaken oinhaze pairatu ondoan. Gosete, egarrite, sukharrak, eta ezin erranezko latzkeria guzietarik.

Bigarren pidaia bat ere egin zuten berantago, bainan deus ardietsi gabe, eta itzultzian hil zen han Nafarroako erregea, Theobalt bigarrena.

Pidaia huntan, Nafartarrak, etxeratekoan, Grecia-n sarthu ziren eta han egon berrogoita hamar urthe, Atenas hiri nagusitik yabetu ondoan.

Hamairu garren mendearen hastapenean girixtinotasuna Espainian hedatu zelarik, eta moruak ohildu nahi zituztelarik, Nafartarren laguntza galdegin zuten; eta gu Andaluciako lurretaraino yuan ginen heien laguntzan bizpahiru aldiz.

Las navas deithu borrokaldian Nafartarrek, Sancho el Fuerte gure erregea buru, garaitu eta xahutu zituzten moruak.

Moruen erregea eta bere aitzindariak burdinezko gathina hesi baten barnean zauden gerizatuak, bainan gureek hautsi zituzten gathinak, eta han yauzi eginik harrigarritzko sarraski bat egin ondoan, erhautsi.

Berantago, Frantziako París hiri nagusia Anglesek inguratua eta sethiatua zutelarik (hamalau garren mendea), Nafartarrek beren errege Carlos bigarrenaz kudeatuak, garaitu zituzten Anglesak eta hiri gosetuaren atheak idoki.

Paristarrek, Nafartarren sartzeari ospe haundiak egin zituzten, eta gure ikhurrinak edo banderak alderdi guzietan landatu hango karriketan, gerthakariaren ohoratzeko.

Nafartarrek Normandian ere baginituen lurak, eta Cherbourg itsas bazterreko hiri aiphatua gure menekoa zen; eta hango kanoi eta bertze gudako tresnak hemen egiten ginituen.

Horra bilduma labur huntan Nafarroako gerthakari larrienak hitz gutiz erranak, ene saila ez luzatzeko.

Zein ahaltsua zen eta ze kalipu suharrak zituen Nafarroak, bere laguntzak hedatzeko herritik kanpo, Frantzian, Yerusaleme eta Lur Sainduetan. Grezian, eta Espainian gaindi!!!

Horra zer ginen 1512 garrenaren artio.

Espainiarrek bereganatu ginituztenian utzi zitzaikun gure fueroak edo lege zaharrak. Bainan 1839 garren urthian khendu zitzauzkuten. Berantago, 1841-an autalamendu bat eginik zonbait lege zahar, puska ardietsi ginituen.

Bainan zimiko bat hemendik, eta ausiki bat handik, emeki emeki arrunt edo ahanxu buluzi gituzte gure behialako lege zahar ederretarik.

Eta ephe laburrik barne Espainiako edozein probintziaren lerroan ezarriko gituzte azkarki uztartuak. Horra zertaratu gituzten. Huna zer giren oraiko egunean.

(La Voz de Navarra, 1934/2/13)

ZER GINEN ETA ZER GIREN (Bigarren aldiz)

Idazti buru huntako hitz bereekin oitzinian, egin nuen orai duela zonbait egun sail bat gure Nafarroa behialako gerthakari larrienaz mintzatuz laburzki.

Oraiko lantto huntan nahi dut yarraiki gauza beraz, irakurleek onhartuko dutelako ustean.

Erraiten nuen lehengo aldian nola Espainiarrek garhaitu eta menperatu ginituzten gudu garratz baten ondotik.

Denbora hetan bazen Espainian gizon bat mundu guzian aiphu haundikoa; Cisneros kardenalea.

Fraidea zen. Yite suharra eta kalipuduna, ba eta burukoia ere. Yakitate haundikoa eta adimendu argia. Xede bat bururatuzkioz etzen sekula hartaik kantitzen eta harek asmatua egin behar zen, nahi ala ez.

Hain zen gizon larria nun erregea bera baino manatzailea zen, eta haren eskupian atxikia zuen. Bazakien orotarik: eskol-emaile haundia, gudulari eta politikako gizona gain gainetik. Argelia, Afrikako eskualderat moruen aitzia yuan zirelarik Espainiarrak, Cisneros fraidea gudularien buruzagi zen.

Bainan egiari zor dugu erraitea ere gizon lañoa eta aphala zela bere bizitzan. Hain ahaltsua izanikan ere, nahi zituen aberatstasunak bere eskuetan, halere bizkitartean, edozein fraide gisan, ganbera edo gela hertsia eta xirtxil batian iragaiten zituen gauak.

Eta zorigaitzez holako gizon hori ginuen Nafarroako etsai gorriena.

Bere herrakunde latzan nahi izan zituen Nafartar guziak ereman Andalucia-ko eremuetarat, eta hunarat ekharrarazi hango yendeak gure erresuma dohakabeaz arrunt eta errotik bethikotz yabetzeko. Bainan zorionez xede garratz hori etzuen bururatu. Cisneros etzen sekula fida Nafartarrez, eta asaldatzeko eta etsaiari ihardokitzeko bideak ezeztatu nahiz gure gudu-gaztelu ederrenak eta azkarrenak suntsiarazi zituen, erroraino aurthikiz, harririk xutik utzi gabe. Izigarriko desmasiak egin zituen.

Nolakoak ziren yakiteko guk egin ginituen gazteluak hor dira oraino mirakuluz utziak Artajona-ko harrisu gaitzak, herriaren gerizatzeke eraikiak. Hor daude oraino xutik bere dorre eta phezoinekin, yendeen harritzeko. Denbora hetan Artajonak garrantzi haundia zuen hego aldeko etsaien bidea gerizatzeke eta zaintzeke.

Nafarroa haizu edo azkatua zelarik Europa erresuma aitzinatuen lerroan zen bethi.

Gutenberg alemanak moldezko hitzak asmatu eta argiarazi zituelarik berehala Nafarroan hedatu ziren hitz moldetegiak.

Baginituen Iruñen, Lizarran, Tudelan, Sanguesan, Tafallan, Corellan, Irachen, Irantzun eta bertze lekhituan.

Iruñen egiten ziren Greko eta Latin behialako idazle aiphatuenen liburuak, Homero-ren Iliada, Virgilioren Eneida, eta holako bertzen mundian liburu aiphatuenak.

Oixtian mintzatu giren Cisneros horrek, Alcalá de Henares-eko eskol-etxe nagusia eraiki zuelarik eginarazi zuen denbora hetan libururik aiphatuenetarik bat, Biblia poliglota deithua, erran nahi baitu, Liburu saindua bospasei hizkuntzetan idaztia.

Lan berexi hortako xekatu zuen hitz moldatzaile hoberena eta treberena. Eta Espainiako bazter guziak miatu ondoan haren bilha azkenian hautatu zuen Iruñeko bat, Arnaldo Brumario deithua, alemana sortzez, bainan hunarat ethorria bere lanpide edo

ofizioko lanak hemen ausarki kausitzen zituelakotz. Haren alaba bat ezkondu zen Lizarrako Egia, liburu egilearekin.

Hortarik ageri da Nafarroan yakitatea arras hedatua zela eta yende argitua eta eskolatua bazela.

Eta sail huni sobera hedadura ez emateko ez ditut hemen aipatu nahi Nafarroak eman zituen seme haundiak yakitate mota guzietan, bai eta ere gudularien arthean.

Bego hori beste aldi batetarako.

Theobalt lehenbizikoa, (Sancho el Fuerte-ren iloba) Nafartarrek errege izendatu zutelarik, ospe haundiarekin, Champagne, bere sor-lekhutik ekharri zituen hango laborantzako molde aitzinatuenak, zuhaitzentzat, landarentzat, baratzekarientzat; ongailu, ereintza, hazi eta lurgintzako zer guziendako. Hots, Nafarroako lurra aberatstu zuen.

Eta oraiko denboretatik mintzatzen balin bagira erakutsarazteko Nafarroa bethi Espainia baino aitzinago doala (eta gauza bera erran daiteke Eskual-herri guzitik) hor ditugu gure eskolak.

Baditugu zazpi ehun eta berrogoita hamar eskola (750), eta horietarik bost ehunez goiti berriak, eraikiak hamalau azken urthetan. Eta ze etxe ederrak!: denak beren errinta eta errintsa egoitzekin.

Horrek erran nahi du badugula bost ehun Nafartar bakhotxarentzat eskola bat. Ba eta eskola berri horiek denak eginak herrien nahikundez eta beren diruarekin.

Zoazte, zoazte holakorik ikhustea Ebro-tik bertze aldeko behere hetarat...

Eta erregebidetatik zer erran?

Espainiak egin izan behar balitu gure erregebideak, ukhain ginituena ora ditugunak, 2.600 kilometro hurbil, eta heien arthean sei mendiz bertzaldeko Eskual-herrian sartzen direnak? Atx, ze aphentzia!

Eta halako bertze xehetasunik anitz gauzetan ez ditut emaiten, irakurlea ez akhitzeko.

Erran dezagun berriz ere: gure eskuetan balin baginitu behar ditugun ahalak lehengo denboretan bezala gure legeen arau bizitzeko, ethorkizun ederra igurika ginezake gure herri maitearentzat.

Bainan damuz, arrotzari estekatuak girenen ber ez gira higitzen ahal gure xedeak helbururat helarazteko.

(La Voz de Navarra, 1934/3/14)

ZER GINEN ETA ZER GIREN (Hirugarrena)

Aitzineko ene bi sailetan mintzatu nintzan Nafarroak zer bide hitsa ereman duen bere haizutasuna edo azkatasuna galduzkioz, oraiko denboretaraino, patarrari behiti erreka zolaraino yuanik.

Eta ondikotz, hein berean yautsi da ere gure mintzairan.

Zein izigarriki ihes egin duen eskuarak behereko zelaietatik ipharraldeko mendietaraino, hor kukutzeko, ahalgetua izan balitz bezala!

Bana zorigaitzez, xoko gerizatu horietarat ere ethorri da uhin beltza: sekula etzitzakeen asmatu lekhuetararat ere yin zauku izurritea. Erdararen kotsua hedatu da bazter guzietarat, legena bezala.

Nik ez dakit badenetz eskualdunentzat zorigaitz haundiagokorik, deithoragarriorik. Dena den, ixtripu garratzena zait, nere iduriz bederen.

Erraiten dute odoleko mintzaira galtzen duenari arima bertzelakatzen zaiola, eta mintzo berriaren idurikoa eta heinekoa bilhakatzen dela, zeren eta mintzaira delakotz gure baitaren elhea. Beraz, hola izanezkioz ez da handi, erdaldunduak nola gutiesten duen eskuara. Ez da adosten bere yite eta izaitearekin: arrotz elhea iduri zaio, eta ukho egiten dako.

Horra zer ondorio izigarriak ekhartzen dituen eskuararen galtzeak. Ahanzkor bakhotxan phizten da etsai bat.

Berrogoi azken urthetan ikhusi dugun aldatzea, neholere etzitzaikegun sinetsaraziko gure gazterian hain ephe laburrian leize hortaraino yautsiko ginela. Orai berrogoi urthe Iruñen etzen botiga edo denda bat nun eskuara mintzatzen etzenik. Eskualdun baten beharra zuten, eroslearekin mintzatzeko. Zonbait etxetan hamar erosleatarik zortzi eskualdunak ziren, Ultzamarrak, Eugi-koak, Erroibar-koak eta bertze.

Badakigu Aita Moret-ek bere Anales de Navarra liburuan zer erraiten daukun eskuaraz haren denboran hamaseigarren mendearen erdian. Nola hedatua zen, Erriberako herri hegoaldekoetaraino.

Eta berriki Gazteizko seminarioko liburutegian agerthu da paper zapar bat zointan ekhartzen daukun Iruñeko aphezpikugoko herri eskualdunak, Nafarroan, 1590-garren urthean. Eskuararen mugak ordian horra noraraino heltzen ziren, Acedo, Ayegui, Estella, Oteiza, Mendigorria, Artajona, Tafalla, Olite, Beire, Pitillas, Murillo el Fruto, Carcastillo. Denak arrunt eskualdunak. Garés-en (Puente la Reina) 1860 garren urthean mintzatzen zen eskuaraz.

Hortatik ikhusten dugu denbora hartan, Nafarroen hegoaldeko puska bat bakarrik zela erdalduna.

Egin du bide geroztik elhe arrotzak!

Eta zer erran Luis Luciano Bonapartek 1860-eko urthean eskuararen mugak finkatu zituelaik oraiko egunetaraino? Ez dea erdiragarri eta ahalgegarri?

Zerbaitek edo norbaitek erderaren uhaste horri ez balinbadu zalhukara oraidanik zedarri azkar batekin ihardokitzen, ephe laburrik barne xahutuko eta suntsituko da gure eskuara maitia.

Nola bihurri holako gaitzari, nola berma ixtripu izigarri horren ezeztatzeko, edo bederen ttipitzeko?

Hori, gu bano adimenduko argiek asmatzekoa da: yakintsuena, Eskualtzale batasunena.

Nafartasunaren eta eskualdongoaren amodia galduzkioz, ez du bakhotxak bere baitez deusere eginen. Barnian oraino dukeen phindar erdi itzalia, bertze batek behar dako bukhatu, hura phitz dadin, eta garra yalgiazteko. Su erdi hilak behar du hauskoa haren phitzarazteko.

Horra eskualdun suharraren egin bidea erdaldunduen arthean. Hauskuaren lana egin behar du. Buhatu eta sustatu. Yatzarrarazi barrnan dukeen phindar gordea.

Eta nola hori? Adimendu uzcurrari yakinaraziz zer ginen aitzineko denboretan, guhauren yabe, gure lege zuhurrekin, Europako erresumek hain goretsiak: nola etsaiak uztartu ginusten. Erakatsiz gure yendakia edo arraza bai eta gure mintzaira ere denetarik zaharrenak direla. Nola munduko bazter guzietan giren goretsiak eskualdunak gure zuhurtasunaz eta leialtasunaz, ba eta ere gure gogo argiaz.

Hitz batez: lokhartua denari yatzartu behar da. Eskualdun suhar bakhotxak lan hori egin baleza, seurki uzta ederrak ardiets lezazke.

Nik dituan heineko indarrekin egin lanak eman daute beren mozkinak. Gizon uzkur zonbait inharrosi ditut, eta begiak idokiarazi, geroago gutarra bilhakatzeko. Erna hor, eskualtzaleak!

(La Voz de Navarra, 1934/3/21)

ZER GINEN ETA ZER GIREN: BENABARRA (Benabarreko eskuaraz)

Denek badakizie, irakhurleak, Espainiak Nafarroa gahaitu zuelarik 1512'an mendiz hego aldekoa bakarrik menperatu zuela, baina ez Benabarre, gure mendiz haraindiko eskualdea. Beraz, Nafarroako erresuma, arras thipitua izanikan ere, oraino xutik zagon, bere errege eta gorthearekin.

Biarno gure erregearen menekoa zelakotz Pauen finkatu zen, eta han eraiki ginuen «Parlamento de Navarra, deitu yauregia, deputatuen bilkhuretako, egungo egunean oraino ikhusten ahal dena, zahartua.

Yakhinarazi behar dugu hango nafartarrak suharrenak eta leialenak izan zirela denen arthean.

Lauetan hogoi urthe egon ziren bere erresuma xumeari khartsuki atxikiak, neholere ez frantsestu nahiz. Eta ohartzekoa da Campion yakhintsunak erran daukuna, Nafarroako aithorenseme gehienak, argituenak eta fidelenak hangoak zirela. Gure Carlos III erregeak ere, 1435'an, hango ehun etxe haundi alxatu zituan aithorensemeko mailerat, «infanzones» izendaturik.

Duque de Alba, Espainiko gudularien buruzagia ibilli zen ere eremu hetan, Garaziko aldean, eta Donianen eta Monyolosen, sarraski, ohointza eta itsuskeri zernahi egin ondoan, azkenian lekhuak hustu zituen eta haia-haia, mendi haundiez gaindi Auritzerat itzuli.

Henri de Navarre, gure azken erregeak, Frantziako errege izendatu zutelarik, nahi izan zuen deitu izan zain «Roi de Navarre et de France», baina frantsesek etzuten yasan heien erresuma handiaren izena Nafarroa ñimiñoaren ondotik ezartzea, zuzena zen bezala. Geroztik, hango erregeak deitzen ziren «Roi de France et de Navarre», Luis XVI azkeneraino. Eta Frantziako zigiluari eratziki zazkoten Nafarroako gathinak, eta oraiko egunetan oraino ikhusten ahal dira Versailles, Fontainebleau eta beste erregeren yauregi aiphatuenetan.

Baina etzazuela uste Benabarra Frantziari elgartu zelakotz bere legeak galdu zituela. Ez, beren erregea Frantziakoa aldiz izanikan ere, Benabarra bere lege ber berekin gelditu zen, arthoski zaindiak, erresuma berexi bat bezala.

Hots, gu bezalatsu, Espainiari estekatu ginituzten ondotik.

Eta ikhustekoa zen nola asaldatu ziren Erreboluzione denboran khendu nahi izan zazkotelarik, bertze Frantziako eskualde guzietako lerro berean ezarri nahiz, borthitzki yokaturik.

Pariserat igorri zituzten mezulari batzu yakhinarazteko Benabarrak etzuela hori sekula yasain, baina erraiten ohi den bezala arrain haundiak ttipia iresten du, eta gudua phizteko mehatxuen ondotik, amor emaita bortxatuak izan ziren, Benabartar dohakabeak.

Gauza bera gerthatu zaukun guri ere 1839'an, berrogoi bat urthe berantago. Horra nola ahaltsuek ezeztatzen dituzten ahulen zuzenak.

Zenbat yauregi diren oraino xutik Benabarra maithagarri hortan, lehengo denboretako Nafarroaren haunditasunaren lekhukotasunak! Baigorri, Donazarren, Buzunaitzen, Garron, Lakharren, Donaphaleun, eta beste lekhu anitzetan. Nafarroako aitorsemeren gaztelu eta egoitza ederrak, ze hitstura sendiarazten dituzten zerbait irakhurtu duanari, zien aitzipean gelditzen girelarik, behakoa landatua eta bihotza ilhundua, gogoa

oroitzapenez bethea gure behialako Nafarroaz, eta orai ikhustean berexia, phuskatua, arrotztua bere semeak odolaren deiari ukho egiten dutenak, aitzinekoekin dituzten lokharriak urraturik! !

Eta denak bat ginela haurrideak, hor ditugu ausarki frogak berme.

Azparren, Etxarri, Uharte, Azkarate, Lekunberri, Azketa, Zabalza, Anoz (Anhau), Askoz (Occos), hango eta hemengo herri izen berekoak.

Ortzaiz, Isturiz, Irisarri, Sueskun, Mongelos, Buzunariz, Izpura, Lasa, Zaro. Ustaritz, Etxaleku, Etxepare, Irigoyen, Yatsu (Jaso), Intxauspe, Garro, Osinaga, Garbayo, Oyarbide, Goñi ta holako anitz, Nafarroako eta Benabarreko deiturak edo «apelliduak».

Eta gogorat heldu zait, egun batez, (Yainkoak ez dezala nahi) phitz baladi gudu bat Espainia eta Frantziaren arthean, Luzaide'koak eta Arnegi'koek behar lutekela borrokatu eta sarraskitu heien arthean, hauzo anaiak direlarik...

Irringarri liteke ez balitz gauza hitsa.

Iruñen, 1934'ko Hazillan.
(El Día, 1935/1/26)

ZER GINEN ETA ZER GIREN: NAFARROAREN ERORTZEA

Ene eskutan duten liburu zahar batetarik atheratzen dut idazki honen gaia. Liburu hori da «La conquista de Navarra», Correa, Duque de Alba gudulari buruzagiaren idazlariak edo «cronistak» egina.

Hunek bere begiez ikhusi zituen gerthakarien gora-beherak aski ongisko kondatzen ditu, baina azkenian etsaia baten berriak dira.

«Fernando el Catolico» erregeak aspaldidanik gogoan zaukan Naparroaren menperatzea eta bereganatzea.

1512'an galdegin zakon gure Juan II erregeari bere baimena Naparroan barna utsteko haren gudularien iragaitea, Frantzian sarthu eta hango erregeari behar zuelakoan gudukatu.

Gure erregeak ukhatu zakon baimena, eta ihardetsi zuen hori etzela sori, ez eta ere zillhegi. Egitate itsusi hori sekhula etzuela eginen bere Frantziako errege adixkidearen kaltean.

Bainan Fernando bazakien aitzinetik Naparroako erregeak ukhatuko zuela haren galdea. Debeku hori nahi zuen, estakuru bat ukhaiteko hemen sartzeko, zeren eta Frantziako erregea Aita Sainduak elizatik kanpo ezarri zuenez-geroz, haren etsai edo aurka ez uzteak emaiten zakola Naparroaren menpetzeko zuzena...

Yhardeste hori bialdu zakon «Fernando el Catolico» maltzur eta soryesak gure erregeari!...

Halere Napartarrek etzakoten kasuik egin, baina berehala hasi ginen gudu tresnak eta gudulari biltzen, baiginakien etsaiak hurbiltzen ari zela.

Eta, zer asmatu zuen ordian Fernando bihurriak? Eginarazi zuen Aita Sainduaren mezu edo «Bula» faltsu bat zointan yakinarazten zaukun Napartarrak elizatik ohilduak ginela, eta gure erresumatik yabetzearen baimena emaiten zakola, giristino arnegatuak ginelakotz!...

Naparroako gizon argituenez etzuten sinetsi «Bula» hori egiazkoa zela, eta yarraiki ziren gudako gizon eta tresna prestatzen.

Denez yakina da denbora hartako gudulari ahaltsuenak eta hoberenak Espainiarrak zirela, Europa guzian.

Gu, aldiz, aspaldidanik ari ginen gure arthean izigarriko gasailetan, bereziak bi zathitan. Batzu, Agramont-tarrak; besteak Beaumont-tarrak. Lehenbizikoak, Napartar hutsak, bigarrenak Espainiako alderat lerratzen zirenak. Hauen buru zen, Pierres de Peralta, Conde de Lerin, izan diteken gizonik gaixtoena guretzat, eta bere omen okhaztagarria oraino itzalia ez dena egiazko Napartarren arthean.

Denbora hetan Europan baziren gudutik bizipide edo ofizio bat egiten zituzten gizonak, alhakairu baten truk. Deitzen ziren «condotteri eta lansquenet».

Nafarroa arras ahuldua izanki, Espainearreri ihardokitzeko, gure erregeak hartu zituen bere meneko hogoi bat mila «lansquenet» horietarik gehienak Alemanak.

Bainan horiek ethorri baino leheen, Espainiarrak, Duque de Alba buruzagi, sartu ziren Naparroan Gazteiz'ko bidetik, Altsasua eta Arakil'eko ibarrian barna.

Correa idazlariak emaiten dauzku xehetasun guziak nolako ospe haundian ethorri zen elemeniako gudulari ostea, andana bakhotxaren aitzindarien izenak emanik, denak

Espainiako aithorenseme aiphatuenak, «conde», «marqués», «duque», eta holako burdinezko yauntzi disdirantetan zaldizko eta herrixka guziak beldurtzen eta ikharatzen zituztenak, inobrezko yendeketa hura ikhustean, bazter guziak inharrosirik beren turuta ozenekin.

Iruñe berehala hartu zuten, gudulari guti baiginuen barnian. Bilduma laburhutan ez ditut emaiten ahal xehetasunik, idazkia sobera ez luzatzeko, bainan erran dezagun lau hitzez gerthakari larrienak.

Gurek Iruñeko Arrotxapeako hauzun bildu ziren, eta han egon ilhabethe bat, inahalak eginik iriaz yabetzeko, bainan etzuten ardietsi, barneko etsaiek kanoi eta gudu tresna ausarki baitzituzten, eta gero, harrisu edo «murallekin» untsa gerizatuak zirelaketz.

Anarthean Espainiarrek ekharri zuten Logroño'tik harmada haundi bat, bainan ezin ihardokiz oste gaitz hari, eta gero «lansquenet»-ak ere ihes yuaiten zirelaketz, azkenian gathaska odolztatu baten ondotik, gureak borthitzki garhaituak yuan ziren Baztan'go alderat.

Bainan Belate'ko mendian gureen barrandan zauden beste anitz etsai gordeak oihanetan. Napartarrak, etsituak, nahas-mahas, lerroak ezin atxikiz erreka bide mehar hetan, aitzindarien larderia ahuldua, sarraskitu zituzten garratzki, eta hotzez eta gosez ere ehunka erori ziren negu borthitz hartan.

Eta gauza erdiragarria!! Gure etsai horiek eskualdunak ziren!!... Gipuzkoarrak eta Bizkaitarrak, Espainiari elgartuak...

Handik bizi athera zirenak yuan ziren aitzina, Amayureko gazteluaren gerizatzeko, gure azken lur phuska beiratzeko.

Eta han ere garhaituak izan ginen, odola ausarki ixuri ondoan. Hil etziranak Izpegiko lephoan gaindi yuan ziren Baigorri-rat, Benabarrerat.

Zonbait urthe berantago Benabartarrek Frantziaren laguntzarekin bizpahiru aldiz nahi izan zuten Naparroa bereganatu, bainan etzuten erdietsi, Noain'go gathaskan izigarriko galtzeak ukhan ondoan. Hor ere gipuzkoarrak eta bizkaitarrak gure aitzi edo aurka yokatu ziren zorigaitzez.

Horra nola erori zen gure Naparra dohakabea! Eta erran dezagun goraki Bizkaia, Gipuzkoa ea Araba ez balire gutarik baztertu hamahiru eta hamalau garren mendeetan; euskaldun guziak [...] ezin ukhatua liteke ez ginela oraiko egunetan uztartuak izain, ez Espainari, ez Frantziari.

Iruñen, 1935'ko Otsailan.
(El Día, 1935/2/7)

AGUR, ANAIAK, AGUR

Eskual-herri guziko semeak biltzen dira egun ospetsu huntan Iruñeko hiri zaharrean, gurekin besarkatzeko.

Aitzineko denboretan ere, denak bat girelarik Naparroako aberrian bilduak, Iruñe zen Eskual-herri guziko hiri nagusia.

Geroago berexi eta baztertu ziren Gipuzkoarrak, Bizkaitarrak eta Arabarrak, ba eta Benabartarrak, Laphurtarrak eta Xuberotarrak ere, batzuk bere oldez eta nahikundez, bertzeak bortxaz, odola ixurturik gudu borthitzetan.

Bainan zorionez gure adimenduko ilhundurak argitzen hasiak dira, eta orai ikhusten dugu ze kalteak ekharri dauzkun baztertasun horrek. Gure hutsak nahi ditugu xuxendu.

Arthalde barreiatua berriz sartzen da bere saroian, eta bilkhura eder huntan odoleko lokharriak azkartuko ditugu. Erein dezagun eskualdungoa bihotzetan, geroago uzta nasaiak biltzeko, eta Eskual-herriarentzat ardiesteko denek amesten dugun ethorkizuna.

Agur amultsuenak anai guzieri. Ongi ethorriak.

«GAMAZADA-KO» OROITZAPENAK (Benabarreko eskuaraz)

Izen horrekin ezagutzen den gerthakari haundi hartaz nahi ditut erran zonbait hitz bilduma labur bathian. Eta nik emain ditutan berriak lekhuko batenak dira, zeren eta zorionez, ene begiez ikhusi nuen Nafarroako abertzaletasunaren inharroste suhar hura, gogotik sekhula itzaltzen ahal den oritzapena.

Gamazo, orduko Ministro de Hacienda, gizon haidorra eta burukoia zen. Erabaki bat hartuzkioz, sekhula hartaik etzen kantiezen.

Nahi izan zuen Nafarroako fueroak erhautsi eta khendu errotik behin-bethikotz.

Nafarroa guzia, lau alderdietarik, oso osoa xutitu zen Gamazo'ren aitzi edo kontra, eta gure diputatuak denak Nafartar suharrak eta lehialak ziren. Nik dakita ze eztabaiak ukhan zituzten Gobernuarekin, bizpahiru ilhabethez, bainan, sekhula, gureek hurrats bat ere amor emanik.

Anartean, Nafarroako herri guziak inharrosi ziren, eta anitz tokitan yende gazteak ari ziren guduan hasteko hurratzen ikhasten. Un, dos...; un, dos...; un, dos. Su hura goiti eta goiti zoan. Eta egun batez, Gares-eko herrian altxatu ziren hamar bat gizon gazte, eta bere xixpa edo harmekin yuan ziren mendirat ta han oihukatu zuten Nafarroaren azkatasuna. Heien aitzindari zen Zabalegi sargentoa, Nafartarra oroz gainetik.

Hiltzerat kondenatzekoa zen, bainan orduko karlista yaun zuzen eta aberats batek ardietsi zuen Frantzian sar araztea. Yaun horrek berarekin ereman zuen treinean Hendaya-raino, aphez soinekoekin yauntzia gure Zabalegi gizagaizoa...

Espainia guzian uste izan zuten Nafarroa osoa asaldata zela, denak mendietarat yuana zirela gudukatzerat.

Sagasta, ministro buruzagia, izitu zen, eta galdegin zuen gure Diputazionea yuan zain Madrid'erat harekin mintzatzeko. Eta, badakizea ze erran zuten gure diputatuek gobernuari? «Solamente por deferencia a su invitación hemos acudido. Pero Navarra, a la que representamos, nos ha negado poderes para alterar en lo más mínimo nuestro régimen foral y no podemos discutir sobre este punto».

Nafarroan yakin zutelarik bere diputatuen ihardeste kalipuduna, bazter guziak inharrosi ziren bozkarioz.

Azkenian lurrerat botarazi ginuen Sagasta'ren gobernu, eta harekin batean Gamazo, Nafarroaren etsai gorria.

Gure diputatuak itzuli zirelarik gerthatu zena ez daiteke sinetsi ikhusi gabe...

Igandea zen. Larunbat arratsean Iruñeko alkateak manatu zuen kafe guziak idekiak izan ziten gau hartan zeren eta igandean goiz goizetik atheratzen zirelakotz trein berexiak Kastejon'erat, (Nafarroa mugako lehenbiziko herria), harat heldu beharrak baitziren diputatuak Madrid'etik hamar ordutako.

Arrats orhoitagarri hartan, Kanpion eta Oloriz, ordian gazteak, arizan ziren yendeen sustatzen beren mintzaldi beroekin, kafetako mahi gainetan xutituak.

Biharamunian gure diputatuak ethorri zirelarik Kastejon'erat larre zabal batian prestatua zen aldarea, mezaren entzuteko.

Berrogeita hamar mila entzule bildu ziren meza hartan. Bizkaitik ethorri zen abertzale oste haundi bat, eta heien buru, Arana eta Goiri'tar Sabin. Lehenbiziko aldiz han hedatu zuen Euzkadiko ikhurrina. Ni gelditu nintzan Iruñen diputatuen sartzea ikhusteko,

arratsaldean. Eta Iruñeko geltoki edo estazionean ginelarik ethortzen dira bi treinetan, gipuzkoarrak eta arabatarak, «Gernikako arbola» denak abesten dugu nigarretan, eta guziak besarkatzen gira bihotzak urtuak.

Bat batian entzuten dugu diputatuak heldu diren treinen xixtu bizia.

—Ze ikhusi ginuen ordian?

Bi kilometro aitzinago, Biurdana'ko zubiraino, burdin bideko sahetsak yendez leherra betheak ziren, ezker eta eskuin.

Eta ikhusten dugu lehenbiziko treina diputatuekin, dena yendeez «estalia». Igaiteko mailak, bagonen gainak, makina, dena arrunt yende molkoz brokatua, kukutua!!

Ikhurrinak, oihuak, kantuak, beso inharosiak, izigarriko marruman eta harramantzan, denak erhotuak...

Harrigarriko oste haundi hura ez lehertzeko eta bagonen gainian zirenak ez erortzeko, sartu zen treina hain emeki, nun makinaren aitzinian heldu ziren, huñez, hamar «guardia civil»...

Ethorri zen yendeketarekin eta geldi tokian girenekin, asmatzen ahal duzie, irakhurleak, ze othe zen hura!!

Gure deputatoak karriketan pasatzian, eriak eta xahar ezinduak atheratzen zituzten lehioetarat, beren galdez, bere begiez ikhusteko, bihotzak dardaran, Nafarroaren iratzartze izigarri hura.

Bost ehun ikhurrin, Nafarroako bazter guzietarik ekharriak bazoazin Diputazionaren ondotik. Eta heien arthean zen Benabarrekoa, Doniane Garazikoeekin, mezu suhar bat heiekin ekharriarik.

Gero, elemeniako yendeketa hura bildu zen Nafarroako Yauregiaren aitzinian. Bost ehun ikhurrinak hedatu ziren yauregiko sohailutan.

Eta azkenian agertu zen Eseberri, Diputatoen buruzagia...Nafarroako zigiluaren gathina egiazkoak eskutan, herriari yakin arazteko Nafartarrek LasNavas-eko gathaskan moruak garhaitu zituzten bezala, ordian ere garhaituko zituztela gure etsaiak, burdin hek bezain azkarrak izanikan ere...

Hitz horien ondotik entzun ginintuen esku zaflak, oihuak, haroak, eta gorak oraino, berrogoi urtheren buruan burrunbak ez dira arrunt itzali ene beharrietan... Ez itzaliko ere, bizi nizen.

Ze garrantzi inobrea eman zakoten Espaiñian gerthakari haundi hari, erraiterat noanarekin ukhain duzie, irakhurleak, haren izaria.

Madrid-eko kaseta edo izparringi gehienek igorri (bidali) zituzten Iruñerat beren ordezeko idazleak eta «Heraldo de Madrid»-ek ekharri zituen «milla eta bost ehun hitz», telegrafoz igorriak: lehenbiziko orrialdea arrunt bethea eta bigarrenaren erdia.

Eta kontu izan behar dugu denbora hetan periodikuek telegrama gutxi ekhartzen zituztela.

Nafarroaren etsai samina zen «El Imparcial», eta Iruñerat heltzen ziren guziak, meta bathian ezarri eta, denak erretzen zituzten. Hogoi urthez etzen saldu periodiku hori Nafarran...

Horra nolakoak ginen lehengoak. Nafar suharrak. Oraikoak, nagitasunian eta axolagabea leirutzen dira hain goxoki...

Iruñen, 1935'eko Urrian.(El Día, 1935/10/10)

MORUEN ODOLA

(Baxenabarreko eskuaran)

Espainian gerthatzen diren izigarrikeriez baldituak daude Europa'n.

Rusia eta Espainia Europa'ko bazterretan edo mugetan dira. Lehenbizikoek auzo dituzte Asiati'koak; bigarrenak, Afrikanoak.

Moruak Espainian egonak dira zortzi mende, zortzi ehun urte!! eta heien odola nasaiki dabila Espainiarren zainetan.

Gero erdiek baino gehiago ez dakite ez irakhurtzen, ez idazten. Jaén, Alicante, Murcia eta beste zonbait tokitan ehunetarik hiruetan hogoita hamarrak ez dira eskolatuak. Lurrak eta ontasunak esku bakhar batzutan dira. Beste guziek nekhez daramate bizitza.

Holako yendeekin, eta beren odol beroarekin ez da bathere harritzeko gerthatzen diren basakeriak.

Eskualduna sekhula ez da fidatu yende erdaldunez. Bethidanik izan du halako beldur bat heiekin nahastekatzea, eta ahal bezanbat baztertzen da.

Oroituko niz bethi orai hogoi urthe Lekunberri'n ikhusi nuenaz. Hango ostatuan igande guziz mozkortzen zen inguruko herri bathetako gizon bat. Arratsian hordi-arraila yuaiten zen bere etxerat, eta harat yuaiteko phasatzen zen mendiko bide batetik. Gehienetan, loak bereturik, han etzaten zen eta gaua phasten. Bainan bethi bazuen sakhelan diru anitz, bizpahiru milla pezeta.

Eta egun bathez erdaldun bathek ostatuan erraiten dako:

—Ten cuidado que algún día te van a robar cuando estés dormido.

Eta gure gizonak, erdara murduskatu bathian ihardesten du:

—Ba, yo no dormir, no, carretera; monte sí, carretera pasar castellano...

Nik ezagutzen dutan herri eskualdun batherat ereman zituzten behin ehun bat langille kanpotiar ur-bide edo kanal haundi baten egiteko, eta heien arthian baziren hogoi eskualdun.

Lan-tokiak herritik urrun baitziren, bazterretxetan nahi zituzten gauak phastu. Eta baserritarrek eskualdunak bakharrik hartu zituzten, erdaldunak ez. Etziren fidatzen.

Horra bi ikhusbide proгатzen daukutenak nola arrotz erdaldunetarik baztertzen den eskualduna, eta ez bihotz gogorra duelakotz, seurki, bainan..., bethi hego aldetik ethortzen dira eskale itsusi eta itxura txarrekoak, bazterretxetan ibiltzen direnak, zernahi yukutzia egiteko prest idurikoak, bere begitarte ilhun eta bizar beltzeekin; eta futxo, holakoekin ez dute adixkidantzarik nahi, zer gertha ere...

Ohart zitezte, irakurleak, oraiko nahaskeri eta bihurrikaldi izigarrienak Espainia behe hartan gerthatzen direla gehienak, Afrikatik ez urrun...

Eskual-herria Europaren idurikoa da, eta gure arthian ez daiteke gertha holako basakeriarik.

Handik ihes ethorri dira gutartera anitz yende, Iruñerat eta Baztan alderat, hemen bakhian bizitzeko, baitakite hemengoak ez girela Badajoz-ekoak edo Murcia-koak bezala.

Calvo Sotelo'ren kideko horiek, Eskual-herria hainbeste laidostatu eta gutietsi ondoan, beren lur maitiak utzirik zoin goxoki bizi diren hemen!

Eta Bizkaia'ko eta Gipuzkoa'ko lantegi edo ola handietan ere balinbadira eskualdun nahasleak, hego aldeko langilleek kotsatu dituzte, handik ekharririk izurritearen pozoina.

Horra ze kalte izigarriak ekhartzen dituen «industrialismo»ak, elemeniaka sartzen

direlakotz gure arthean langille arrotzak.

Eta anitzek uste dute «industriarik» gabe ez dela bizitzen ahal Eskual-herria.

Baxenabarre, Zuberoa eta Laphurdin (Boucau lantegia kanpo), ez eta Baztan'en eta Bidasoko errekan, ez da industriarik. Eta hea Eskual-herriko toki horietan ze bizitze ederra deramaten, laborariak bakhotxa bere etxearen yabe gehienak eta denak edo kasik guziak sakhelan diru pharrastaño bathekin. Etxe garbi ederrekin untsa yanak, untsa yauntziak, eta Elizondo bere bospasei Banco etxe-kidekoekin, herri ttipia izanikan ere.

Ene ustez Eskualherriko dohatsutasuna lurgintzan eta kabale eta azinden haztean ditake, Frantzia'ko anitz tokitan eta Suizan bezala. Eskual-herriak bazka hautak eta toki egokienak ditu zaldientzat eta behientzat.

Bainan hortakotz behar ginuke erresuma edo nazione aitzinatuen erakaspenak eta moldeak hartu, gure aberatstasunaren emendatzeko. Lantegi haundiek badute bi kalte. Aberastasuna, dirua, metatzen da zonbait eskutan bakharrrik, eta gero ekhartzen dauzkite milaka eta milaka hego aldeko yendiak, gutartean hedatzeko heien erakaspen bihurriak eta itsusiak.

Iruñen, 1936'eko Ostaroan.

(El Día, 1936/5/16)

ABERRI SOLAS (Baxenabarreko eskuaran)

Ehun aldiz errana da egia haundi bat. Elhea dela arimaren mintzaira. Eta arraza batek bere hitzkuntza ahazten balinbadu edo sekhula yakhin ez badu, eta arrotza ibiltzen, arrunt bertzelakatzen da.

Mintzairak arima eta gogo-bihotzak bereganatzen ditu.

Hain du indar gaitza, nun erran daiteke eskuara ez dakien eskualdunak ez dela gutarra. Odola gurea du, baina bere yitea eta adimendua bihurtu dira eta arrotz bilhakatu.

Horra egia huts-hutsa, borthitza eta hitsa.

Baina kenka txar hortan diranen arthean, eskuararik gabe, abertzaletasuna izan ditakea, phizten ahal dea?

Anitzek erraiten dute ezetz. Nik ihardesten dut baietz.

Eta erraiten dutanaren egiztatzeko baditugu progak ausarki.

Eta oraino ausartatzen niz erraiterat Eskual herriaren abertzaletasuna phiztu dutenek, gehienak erdaldunak zirela, hitzik eskuararik etzakitenek.

Arana-Goiri berak hogoi urthetan etzakien eskuara, eta gauza bera gerthatzen zitzakon Campion-i.

Denek dakigu abertzaletasuna yende argitu eta yakhintsuen arthean phiztu dela, ez baxharrik Eskual herrian, baina aberri edo erresuma menperatu eta uztartu guzietan. Gehiago eskolatua da gizon bat eta gehiago phizten zaio abertzaletasuna... bihotza ez balinbadu usteldua.

Ikhasen du zer ginen behialako denboretan eta zer giren oraiko egunetan nola etsaiak emeki emeki khendu dauzkiun gure legeak eta beren zangopetan ezarri gituzten arthalde bat bezala artzainaren manuz ibiltzeko.

Jende xeheek, damurik, ez dute izan axola edo griña haundirik gauza horietan, eskualdun hitsak izanikan ere ez baitakite zer ginen, nola galdu ditugun gure lege eder eta zuhurrak.

Behar dituzte kudeatu, akhulatu, sustatu, barnian duten suhazia eta phindarra buhatu bihotzeko garra phitzarazteko eta hedatzeko.

Horra ze ondorio ederrak dituen yakitateak, Eskual herriaren iratzartzeko, bihotzaren altxatzeko, adimenduaren argitzeko, ilhunbetan direneez begiak idekitzeko.

Ezagut dezagun gure herria gure edestia edo historia eta gure hitzkuntza paregabekoa. Ezagutzatik sorthuko da maitetasuna. Ezagutzen ez dena ez da maitatzen ahal.

Ze kalte izigarriak ekharri dauzkigun gure itsutasunak, gure ez-axolak, gure lazokeriak!! Noraino yautsi giren mailez-mail erreka zolaraino, gutaz nausi izanikan, sehi bathen heineraino!!

Baina ez dugu etsitu behar, zeruko ilhundura hasi da argitzen, odei beltzak suntsitzen ari dira kutsia, eta Madrid'eko diputadu ganbaran oraiko xixtian yuaiten balin badira gure Estatutoaren gogoa beherak, udako argi ederrarekin bathian yinen zauku gure haizutasunaren zathi bat.

Ez gure zuzenaren araberan behar ginukena eta zor daukena, baina phuska eder bat gure bihotzen bozkariotzeko.

Gauzak ez daitela makhur, eta ethor daidala lehen bailehen. Ze hatsperena ardiesten balin badugu!!

Eta gu Napartar dohakabeak, gure anaietatik baztertuak!

Naparroako nausiek, «bloque de derechas» delakoek, neholere ez dute nahi elgartu zuekin, higuintzen dute Estatuto Vasco'a. «La Constancia» bezain etsai gorriak dira.

Bainan ikhusi dutelaik mantxegoek berek ere nahi dutela Estatutoa, alderdi guzietan ez dela bertze solasik, zerbait egiteko (alegiaz), bilkhura bat asmatu dute «Consejeros forales» delakoen arthean, «Estatuto navarro»tik mintzatzeko...

Beldur dira egun bathez herriak erran dezan ez dutela bere eginbidea bethe, eta axola izpirik gabe Nafarroa utzi dutela errekarat erortzera.

Eta gathulu salda fluxa hori emain dakote herriari, sinetsarazteko zerbait egin dutela «Estatuto navarro» hortaz mintzaturik.

Eta gaizo herri sinetskorrak hurrupaka iretsiko gezurño hori...

Iruñen, 1936'ko ostaroan.

(El Día, 1936/5/31)

IV. ATALA PAISAIK

UDATIK UDAZKENERAT

Gure udako itzulia eginik, hemen gira berriz, irakurle maiteak. Udak egin du bere aldia, lekua utzirik udazkenari.

Bi sasoin horietarik, zoin da ederragoa? Udak badu bere iguzki dirdiranta eta samina, eta bazter guziak bethetzen ditu bere argi biziarekin, bainan udazkenak ere badu eztitasun goxo bat, eta aro ephelarekin errexkiago ibilarazten gitu mendietako bide mehar zehiarretan, izerdirik gabe.

Eta gero, zer kolore ederrak; mendi mazeletan iratziak gorrituak, gaztain ondoen mokotsak eta artho buruen kugulustak horituak; ardiak eta behiak gainetako alhapidetatik yautsirik phentziak bethetzen dituzte titta xuri eta gorrailez, loriatuak bazka goxoetan, bere xilintxa eta yuare ozenekin.

Urria ilhabete ezia, ihiztarien loria; xixpak bere erdoilduraz garbiturik eta urinduak, hor dira haize hegoaren beha. Usoak, biligarroak, uzkinazoak, pikalaportak, zozuak, apezxoriak, papogorriak, hots, hegaztin mota guzietarik milaka eta milaka iraganen dira errekarri goiti, mendi lephoen buruz, pago eta haritz ezkurrez betherik, beren papoa nasaki ase ondoan. Euntzaro, Ehialepho, Matxarde, Lindux!! gaixo xoriak, itsutuak doatzi beren eriotzerat.

Zoin oroitzapen ezin ahantzizkoak gure egun iraganetarik hain goxoki, han, gure sor-lekian, Luzaide maitian.

Euntzaroko-lephoa, mendi ederra! zer ikhusmen xoragarriak hire kaskotik! Zer bazkari goxoa hire pagodi itzalean gerizaturik, ithurriño hotz haren sahetsian, xahakoa urian sarturik!... Gure azpian, alde batetik, erreka zola beherean, Banka eta Urepeleko bazterretxe xuriak, han hemenka hedatuak, bere hegats gorriekin. Beste aldetik, Aitzurreko auzoa, eta urrunago Undarlako bazterretxiak, Udiri, Pelloinea, Bernatenia, Ortxaix, Gailurru... Eta oraino urrunago, mendi urdin gaitz baten kaskoa. Astobizkar! Astobizkarko kantua! La chanson de Roland! Mendi horren azpietan oraino aditzen da gerthakari haundiaren ohiartzuna, eskualdunek zortzigarren mendean Karlomagnoen gudarier izigarriko zafraldiaz emanikako oihuak eta garrasiak.

Gure aitzinian Mendimotx, Adartza. Bainan izerdiak eta akhidurak lotsaturik ez nintzan menturatu gain hetaraino abiatzea, ezin yarraikiz ene lagun gazteer, izterrak ez baitira gero zail gure adinean.

Zorionez eskuara ez da hanbat galtzen. Ikhusmekoa zen igandetean nola bazterretxetako muttikoñoak ari ziren denak gure mintzaira ederrean. Beraz, ez da berehalakoan galduko. Iraunen du luzexko. Agian ba!

(La Voz de Navarra, 1932/9/27)

ARO SOLAS

Neguak beretarik egin behar ditu.

Agertu zauku azkenian elhur demuntre hori, danba, danba yauts-ahala erortzen zerutik, oro estaliz mihise xuri batekin, bere xuritasun biziak gure begiak itsutzen dituenak.

Gure gela berotik, berinatarik barne, pollit da ikhustea nola lili xuri horiek dena estaltzen eta kukutzen dituen. Bainan oroitzen gira gaixo murruxoriez bere bazkañoa ezin hatzemanek nihondik, eta gero gosetuak arratsa iragan behar hotz ikharan hegatsen azpian.

Han dira, teillatu hegian barrandan hea noiz ikhusiko dutenez bere begiño biziakin hazkurri ezpiño bat; eta ikhustekoa da nola zimizta bezain zalhu yausten diren, norbaitek, urrikaldurik, botatzen balinbadu ogi porroska ahurtara bat, eta zein lehiakara iresten dituzten aphurak.

Eta zer erran basahuntz, basurde, azeri, otso, azkona eta bertzez, han oiha eta mendi kaskoetan bizi direnak elhurrez inguratuak bizpahiru ilhabete, ezin haziz, arras nekez sabelaren galdeari arau eman beharra dena ardietsiz.

Negu beltz eta borthitza denentzat pairamena da; mundu guziko izaiteentzat. Laborariak diote arras ona dela elhurra eta hotza bere denboran, lugintzako mozkinak hobekitzen dituela, zeren eta bere etsai haundienak, mamutxas ñimiño kaltekor horiek denak funditzen dituelakotz.

Baditeke, ba. Bainan hirietan bizi girenentzat, sasoin hitsa da debru negu hau; eta zonbat gehiago enetzat bederen, gaztetasunak aspaldi ihes egin duelakotz gutarik; eta yakina da adinak odola epeltzearekin hozperak bilhakatzen gitu. Ni seurik ba. Hitz dautzuet.

Bainan, bego, bego negua, egin ditzala beretarik, kurri dezala bere bidea, geroxago bere ilhundurak garhaituko ditu udaberri disdirantak, argiz eta edertasunez hedatuz bazter guziak, epeltasun ezian. Anartean gauden supazter xokoan gure bizkarrak zizeluaren gerizan.

(La Voz de Navarra, 1933/1/18)

UDABERRIARI BURUZ

Aroa ari zitzaigu hobekitzen, hotz borthitzak ihes eginik, iduriz, heldu den urthe artio. Agian ba. Iguzkia ere samintzen zauku, bere piruak beroxkoak dira.

Lertsunak lerro lerro iragan dire garrasika ipharraalderat, udako bazka lekuatarat. Gutxi egunen buruko hemen ditugu ainharak, hego aldeko eremu urrunduetarik yinak, beren ohandeak eraikitzeke hegatsetan; hok ere hazkurriaren bilha, airian diren ulitza guziak iresteke, mokoa zabaldurik heien ondolik, eta geroxago eremateke beren umeeri behar duten yanaria. Mamutxak errepizten dira alderdi guzietan. Zuhaitzak ozitzen hasiak, heldu den ilhabetea galkatzeko aldaska ederrez beren abarrak, eta berantago emateko itzal goxoaren dohaina, unhatueren eta izerdituerentzat.

Hots, beroak pitzarazten eta iratzartzen du lurreko izaite guzien bizia, eta edertasunak nasaiki hedatzen, begien eta bihotzen xoratzeko.

Udaberri hastapenaren igurikan gaude, eremu lilluragarriak maite ditugunek zorionez loriatzeko.

Ba, bagoatzi sasoin ederrari buruz, neguko ilhunbe itsusietarik yalirik, denbora argi eta eztiaren alde.

Udaberriak ere oroitarazten gitu haur denboretako yostetaz. Sasoin hortan muttikoek xirulak egiten ginituen busuntsa zaharoekin. Horra egiteko moldea. Hautatu behar da lehenik busuntsa gazteetan zaharo mehe eta legun bat, izerdian delarik. Zaharoan moztan da axala, xirula nahi dugun luzetasunaren izarian edo neurrian, ganibet batekin ingurukatzu makila, eta gero mihia dukeen lekuan ozka bat eginik xirulek duten itxurazkoa. Ordian ganibet giderrarekin yo behar da makila kolpe eztika, axalean, inguru eta eremu guzian, zuretik berexteko. Bulta baten ondoan esku batekin atxik tinki makila, xirula ez den gunetik, eta beste eskuarekin lot axala, eta indarka bihurtaraz, krask egin artio, zerek erran nahi baitu axala zuretik berextu dela. Ordian motz zaharoa edo makila, mihia duen alderditik, eta hunen itxura emanik muthurrari, bai eta xirularen xiloak eginik aitzinetik.

Axala errecki atheratzen da oso osoa, zuretik hustua.

Horiek guziak egin ondoan aurkhituko duzie xirula eder bat, nahi duzien luzetasunezkoa, eta soinu ozen eta garbikoa, hautatzen balinbaduzie gai eder bat zuhaitzen izerdi denboran.

Barka, ene irakurleak, funtsez-gabeko xehekeria hautarik, zuen adimendua eta astia atxikaraziz holako perttolikerietan.

(La Voz de Navarra, 1933/3/18)

MENDIKO OIHARZUNAK

Kabalak negu luzeko bazka idorrez unhatuak, borda barnean haziak, bizia haize kotsatuetan iragonik, athera dira pentzeetarat aro disdirant eta eztiarekin, hazkurri musker goxuari lothurik lehia saminenarekin.

Axuriak edo bildotxak yauzi eta yauzi lau ixterrak airian, buztantto xuriak inharrosiak, darkarika altxatuak, badabiltza lasterka bere oiuhu eztiakin, haur yostetako itxuran.

Aretxak ere bere mutur pollitekin, begiak zabalduak, beharriak hedatuak, harrikorrak, zalapartan ari dira bozkarioa ezin atxikiz. Hots, argiak, haiziak eta bazka berri goxoek erhotzen dituzte, bai umeak bai amak.

Loriatuak daude heldu den ilhabetheari igurikan. Ostarro ederrari mendi gainetako larretarat abiatzeko ephe hurranaren aiduru.

Ordian dira, ordian, behien kalapitak eta harramantzak barrukian beren lephoetan artzainek ezartzen dituztelarik uztai zabaletatik dilindan yuare eta khaska ozenak!

Kabalek bere ezagutza zorrotzarekin baitakite horrekilan biharamun goizian badoatzila mendiari buruz, Ehialepho, Adartza, Mendimotz, eta bertze kaskoetako alhapide gizenetarat, uda eta udazkenaren iragaiterat haizutasun ederrenean.

Badoatzi bide gorri zehiarrez gohora, artzaina makila eskian, pipa ezpainetan, hixtu saminak eta oiuhu garratzak mendiz-mendi oiharzunak errepikatuz, arthaldeak bere baitarik lasterbide meharrerri yarraikiak.

Artzainaren etxolako tresnak astaña batek daramazkio, zamukak gaineraino galkatuak, eltze, duphin, zartain, gerren, gophor, kotxu eta oheestalgiz, zahagi bat ardo ahanzi gabe, gero, ba eta xahakoa ere, noiztenka zintzurraren leguntzeko. Astañaren ondotik badoa bere pulloa ile harro eta beltzez yauntzia, beharriak xut, eta begitartea ilhun noizian behin ausikiño bat eginik belhar goxoeneri, bide sahetsetan.

Irakurleak, udaminean menturatzan bazirezte igaiterat gain hetaraino adituko ditutzie Eskual-herriko kanta pollitenak, Garazi aldeko artzainak eskualdongo zer horietan arras trebe direlaketz. Eta eskuararen mintzatzen ere ez dira nolanahikoak, berexiki Bankarrak, ene herriko auzokoak.

Huna zer dion Oxobi idazle aiphatuak:

«Yauna, balinbaduzu sinisterik nitan»

«Eskualdunen Eskuara yakitekotz plantan»

«Artzain yarriko zira lau bortz urthe Bankan».

(La Voz de Navarra, 1933/4/19)

AGUR IRAKURLEAK

Udako itzulia eginik, huna hemen berriz, zien artean solaskari eskualduna, luzesko urrundua egon ondoan. Sailari lotzeko xedean yina edo ethorria niz, bakharrik dakitan mintzairan, Baxenabartarrean, irakurleen barkamenduaikin.

Bi ilhabete eta goxoki iraganak gure sortherri maitian ez dira nolanahi ahaztekoak, ene herritarreri hain atxikia izanikan, eta eskualdunagoak erro azkarrak bihotzian ditiarenentzat.

Bake eder hartan, miresgarritzko leku eta aurkintza heien artean, mendiz goiti eta behiti, oihan eta phentze kurritzen. Noranahi gure begiek behakoa finkatzen diteken alderdietarat, nun nahi, bazter guzietan kausitzen ginuen edertasun xoragarria. Begien loria, bihotzaren bozkarioa, arimaren xaramela!

Hego aldeko herrialdetan idorteak eta bero izigarriek bazterrak agortu eta kixkaldu omen zituen udaminean. Luzaiden, haatik, phentziak doi-doia horitu ziren, bainan ez guziak gero; iguzkiak egun guzia yotzen zituztenetan bakarrik. Bertzeak, udaberrian bezalatsu, pherde bizi-biziak zauden. Ikhustekoak ziren Aitzurreko errekaoko pentziak!

Eta ze erran hango uretatik? Marimatteneko bordako ithurriño hartakoak, ahoan kasik ezin atxikia bere hotzetasunaz, bazien errekesta, bero sapha haundietan! Itzal goxo hartan, haritzen pian biltzen ginen alfer egarrituak.

Hitz dautziet, irakurleak, ase hun bat egin dutala gure hitzkuntza maitetik; bethi solasian, bethi kalakan, eta noizian-behin hitz zahar bat ikhasten, damurik ahatzia, haren ordezt hitz arrotza ibiltzen dutelakotz.

Gauzarik harrigarriena da ikhustea nola igandetan gaingainetako bazterretxe urrunduenetarik yausten diren goizmezaren entzutera gizon eta emazte xaharrak, adin haundikoak, zonbait lauetan hogoi urtheakoak eta gehiago. Eta gero, etxeratekoan, patar lotsagarriari goiti, hats gaitzian, izerdituak, gaixuak. Balio du zerbait heien mezak!

Ez bazituztet enheatzen, eta nagitasunak ez banu beretzen, noiztenka agertuko dira ene lerroak, norbaitek egin beharko baitu lantto hori, zeren eta ohartzen niz aspaldidanik arrunt ixilik daudela eskual idazle guziak, ezpainak yosirik.

(La Voz de Navarra, 1933/10/10)

SASOIN ELHEKETAK

Udazkeneko iguzki ephelaren phiruak goxo zaizkigu eta udamineko samindura ezituri pherekatzen gituzte.

Iruñeko inguru-bazterrak ere edertu dire. Udako kixkalduraren ondotik, erreak zaudelarik, ikhustekoak dira orai bide sahetsak, iphuruak eta sorophilak bere pherdetasun bizian, udazkeneko euriek untsa ihintztatu ondoan.

Sasoin hunek, hain ederra izanikan ere, doi bat hasten du gure gogoa, zeren eta negu borthitzari buruz goatzila agintzen baitauku. Nik ez dezaket sinets, nun ez den eroa, badaiteken gizon bat negua lakhet eta goxoa zaionik. Uli, mamutxa eta kabale xeheen heriotza da. Denak suntsitzen ditu hotz madarikatuak.

Horrek berak, ez daukuia erakusten negua sasoin higuingarria dela? Atsotiz zaharrak dion bezala; elhurra xuria izanikan ere, beltza da. Ondorioak bederen hala ditu. Ihardets dezatela yende behardunek.

Xizpa edo harmak, urinduak eta disdirantak, sorbaldetik dilindan, badoatzi ihiztariak mendi gainetako usotegietarat barrandatzera hea noiz ikhusiko ahal dituzten usoak errekarri goiti multzo haundian. Eta gaixo hegaztinak heien leku kukutuatarat helduzkioz izigarriko tiro zalapartek inharrosten eta erhotzen dituzte, barreatiak, ikharatiak ezin yakinez bere nahasmendian zer egin edo norat yoan. Bizirik atheratzen direnak urrunago elgartzen dira, beldurtiak beste etsai baten herabez, lotsa izigarrian.

Horra gizonak zer sarraskiak egiten dituzten gaixo usuekin, gehienetan bathere oldoztu edo gogoratu gabe zer itsuskeri garratzak deramaten xori dohakabeekin, pairamenetan edo oinhazetan gure heinekoak eta berdinak direnez geroz.

Bainan badakigu gure hitzak izpirik bihotzetarat heldu gabe haize zirimolak otso xumeak barreutzen eta eremaiten dituen bezala, halatsu yuain direla, zeren eta ihiztaria nihondik ez da kordakatuko bere yosteta lehiatsu eta latz hortarik. Ez dea hala, yaunak? Begozte, beraz.

Denak dakitena da haurrek bihotz gogorskoa dutela, eta guk ere denbora heetan latzkeria zonbait egiten ginituen xoriekin. Urrian, sasoin huntan, gure loria zen xederen prestatzea. Xedera da xori harrapatzeko tresna bat, zointan ezartzen diren zaldien buztaneko zurdez eginikako eraztun itxura zabal batzu. Xoriak tresna hortan finkatzen direnean eta gero hegaldatzean, zurdak bere khoropilo lerrakorrarekin eraztuna hertsatuz urkhatzen ditu lephotik harturik.

Eta haurrek zer bozkarioarekin ikhusten ginintuen ithoak, dilindan! Haurrak bethi gaixtarrot.

To, ohoitzen hiza, hi B..., edo J.-P..., nola yuaiten ginen goizian xederen miatzeat, eta gero zonbat biphiltzen ginintuen, bazkarian yateko, hexurrak eta oro porroskaturik?...

(La Voz de Navarra, 1933/10/31)

ARO GOXOAZ

Udaberria aitzinatu zaukuia? Hala iduri luke hamar egun huntako denbora miresgarria ikhusiz geroz.

Bainan ez giten fida ondikotz. Ikhusi behar ditugu oraino hotz eta heze, iguzki disdiranta lanho eta hedoeiez estalia ephe luzeez.

Negu itsusi borthitzaren ondotik, karroin edo horma egun beltz hetaren oroitzapena gure gogoan alhatzen delarik, oraiko egun ederrak ederragoak zaizkigu, zerutikako dohainik xoragarriena.

Gaztetasunetatik aspaldisko urrunduk girenek hotzari arras minbera gira, eta nekheak iragaiten ditugu negu hitsean, bethi marranta mehatxuaren azpian. Hortakotz oraiko egun eder hauk gazteek baino gehiago goxatzen ditugu.

Gazteek ez dute den gutieneko axolarik aroaz; berdin zaizkote hotz, bero ala heze. Beren odol beroak eta yite suharrak ez du griñarik holako xehekerietaz...

Zoin goxoki pherekatzen gituzten iguzkiaren urrezko phiruek, eta nola edertzen dituen bazterrak bere argi biziarekin, bozkarioa hedatuz alderdi guzietarat.

Zuhaitzak ozitu nahiak daude, eta liliak pinpirinatzen hasiak, geroago emaiteko beren edertasuna gure begien lilluratzeko, eta usain goxoaz gure usma loriatzeko.

Iguzkia! Argia eta beroa! Horra lurreko izaite guzien phitzgailua sustengoa eta geriza.

Oilo kolokak bere hegapeko beroarekin bizitza emaiten du arroltzen barnean diren xita gaierei, eta hok tarrotzen direnian, kuskua hautsi eta agertzen dira, eta berehala lotzen hazkurriaren bilha. Beroaren miresgarritzko botherea!

Beroa da bizitza eta hotza herioa. Negu latzak izaite xume guziak, uli, mamutxa eta bertze, funditzen eta ezeztatzen ditu, bazter guzietan herioa hedatzen hitstura bihotzean eta ilundura adimenean sarrarazten. Hotz ikharak nagitzen eta uzkuertzen gitu. Hots: supazter bero bat ez dugun ber deusetako ez gira hun.

Eta erresumek eta behardunek ez balinbaduzte baitezpadako bero eta hazkurria ezinduak, nola bihurri negu garratzari?

Iraganak iragan, gauden udaberriaren igurikan, eta nahiz aro txarrak beretarik eginen dituen oraino, ez gitu lotsatuko negu borthitzaren heinean.

Udaberriak badu larrazkenak ez duen alderdi on bat. Han negu beltzari buruz doa. Hura udaren alde, sasoin eder eta egun luzeen agintza da.

Zoriona ez baitha deneentzat batian eta hein berean ethortzen diote laborariak arras khexu direla, aroa sobera idorra doala, ereintzako biziki kaltekorra dela, bi ilhabethez bederen gibelatua dagola, eta beraz yaz baino uzta eta mozkin ahulagoak izain dituztela. Eta holako arrangura eta zinkurinak entzuten ditugu.

Egia erran, bethidanik badakigu laborarien beltzuri horiek ez ditazkela osoki sinhets ardurenik, zeren eta dremenden makhurak iduri zitzaizko nahigabe haundi baten heinekoak.

Lerro hauk idatzi ondoan denbora ilhundu eta yin zauku euria. Laborariak, egarri zauden dohainaren igurikan, hor dute beren lurren ihintztadura. Busti ditzala heien nahiaren neurrian, guzien onean.

(La Voz de Navarra, 1934/2/27)

UDABERRIARI AGUR

Heldu hiz hire yauntzi ederrekin aphaindia, nextato panpina bat iduri, dena edergailu, dena edertasun gure begien liluratzeko, eta gure bihotzian bozkarioa sarrarazteko.

Haugi, ongi ethorri khartsu bat oihukatzen diaun hire agertzeari, besoak zabaldurik.

Hi hiz udaren agintzaria eta mezularia. Hire edertasunak agintzen diaun ondoko uda: uda beroa, uzta nasaien sasoina, laborarien selhauruak bethetzen dituenak hik eman dohain eta izantza ausarkiez.

Hire agertzeaz ihes, beharriak aphaldurik yuan dun negu itsusia, ilhuna eta latzgarria, izoite guzien pairamena, deneez okhaztatua eta higuindua.

Hail: urrun hadi gutarik, sekula ez hadila ager, oinhazearen eta heriotzaren langile madarikatua!

Udaberria! Egun luzeak, gau eztiak, argi disdiranta; zuhaitzen eta lilien aldaskatzea eta pinpirinatzea.

Baratzeak liliez inaurri, kolore eta usain xoragarriek gure begi eta usmaren loriatzeko.

Eta urrexiñolak sasietan bere kantu ezti eta ozenekin amodioaren galdez, geroxago ohantzearen eraikitzeke xoko gorde eta kukutuenian.

Ainharak ere, bere hegal mehar eta arinekin, histu saminetan badabiltza airian inguruka mamutxa iresten, eta ixtiletan lohiz mokoa betherik kabiaren egiteko hegats petan.

Bizitza errephizten da bazter guzietan, eta edertasuna orotara hedatzen. Agur, udaberri liluragarria, agur.

(La Voz de Navarra, 1934/3/22)

GURE AURKHINTZAK

Nafarroako ipharraldeak lekhu ederrak badituela, asma ditaken edertasunez brokhatuak, guziek dakiguna da.

Oren erdi bat Iruñetik goiti yuanezkioz hasten zaizkigu ikhusmenak edertzen, mendiak oihantzen, etxeak xuritzen, koloreak bizitzen, garbitasuna agertzen.

Begiak eta bihotza bozkariotzen zaizkigu.

Aurkhintza menditsuek eta euritsuek berekin deramate edertasuna, zeren eta hezea landare guzien hazkurria eta bizigailua delakotz; gizonarendako hatsa edo yanharia bezain baitezpadakoa.

Eremu zelai eta idorretan, ura dutenezkioz, zerukoa ala ur-bidekoak, lurak aberatsagoak eta gizenagoak dira, bainan begienganako edertasunak ukho egiten du.

Eta bizkitartean orotarik behar dugu, bizitzaren beharrer ihardokitzeko.

Egin dezagun, irakurleak, zuekin, gure yar alkitik higitu gabe, alegiazko pidaia bat Nafarroako xoko batetarat, Oroz-Betelu eta Garraldan gaindi.

Agoitzetik haratago, Itoiz-en, hasten da errege-bide berri bat Oroz-Betelu-raino doana. Zonbait kilometra phastu ondoan agertzen zauzkigu mendi arkhaitzak eta ezpeldunak. Bidia gero eta haratago sartzan da mendi arthetan eta azkenian izigarriko yintzur mehargune hertsu batián gira, ohian beltzaz estalia, sahetsak pathar xutak, eta gohoratasun haundikoak. Zuen aitzinian ikhusten duzie zokho ilhun bat, neholere inondik bidia iragaiten ahal dena iduri zautzuela; athe gabekoa.

Eta sorgin edo ifernuko erreka beltz eta hits hartan doa Irati-ko ibaia edo ur-haundia!

Errege-bidea eta ibaia elgar zehiarkaka doatzi bi xingola mehar idurikoak, eta doi-doia iragaiteko lekhua dutenak.

Lehenbiziko aldiz ikhusi nuenian ene harriduran landatu nintzan, handik ez higitu nahiz. Bethikotz bihotzian eta gogoan sartzan dena, sekhula ahanzten ez dena, aurkhintza miresgarri hura!

Phendoitz izigarri eta beltz heietan hain dire xut sahetsak, nun gainari soiteko buria arrunt goititu behar da. Eta han, arkhaitz kaskoko muthurretan dabilta arranoak beren kafien edo oihantzen ondoan hegaldaka, inguruka, zerbait hiliki barrandatzen. Hango erregeak dira, egiazki, hegaztin itsusi horiek.

Artheka ilhun hartarik athera ondoan, emeki emeki eremuak zabaltzen eta ezitzen dira itsasoko hasarre ondorik uhinak ematen diren bezala.

Geroxeago agertzen zauku zelaiño batián, Oroz-Beteluko herri pollita.

Guazen aitzina eta horra nun khausitzen dugun paper olako hauzoa, lantegi eder batzuekin, eta etxe xuri ederrak ingurian. Han ere badira mendi zuhaitzdunak, eta gain zabal bat bere naza haundiarekin, olako tresnak higitzen dituenak. Toki arras ederra eta goxoa.

Abia giten Garralda alderat, eta berehala sartuko gira Nafarroan den haritzdoi ederrenian, erraiten dutenez.

Asma zazie nolakoa ditekén oihan hura. Haritz ondo gazteak, denak adin berekoak, hagak bezain xuxen eta lerdén, gohoratasun haundikoak. Iduri du norbaitek zaindu dituela ondoz ondo, baratze bathetako landareak bezala. Ba eta oren bat behar da huñez oihana phasatzeko.

Azkenian, bihurgune baten ondotik landa, izigarriko phendoitz baten gainian gira.
Han, lotsagarri behere hartan, ageri da Irati ibaiaren zilarrezko xingola, xumea.

Urrunago ikhusten dugu Aribeko herrixka eta eskuin aldian Orhyko kasko zuria
lanhoz erdi estalia.

Utz dezagun Aribeko bidia eta sar giten Garraldan gainti, hor phausu bateginik
behako bat emaitako herri eder horri, xuria eta eliza eder batekin.

Eta hemendik Arrobi-ko bordetaraino den ordoki luze eta mehar hura, mendien
arthean, ez duzea ikhusi? Altaa, lekhu ederrenetarik da, seurki.

Phentze eder hetan daude alhan behorak multxoka, bazka goxo gizenetan hazten
eta edertzen direnak, geroxago Auritzeko feira aiphatuetan saneurri edo prezio onetan
saltzeko.

Horra irakhurleak, nola egin dugun itzuli bat, bathere etxetik yalgi gabe Nafarroa
ipharraldean den xoko eder batetarat.

Eta zonbat holako ditugun!

Ene luma ez bazait erdoiltzen, bertze pidaiaño bat ere egingen dugu mendiz gainti.

(La Voz de Navarra, 1934/5/23)

GURE AURKHINTZAK

Nik ikhusi ditut Eskualherrian toki eder anitz, bainan Luzaiden, ene herrian, Aitzurreko-erreka deithu aurkhintza bezalakorik ez dira nunnahi kausitzen, bere edertasunaz.

Damuz, erregebidetik ez da ageri, mendixka batek kukutzen duelakotz.

Ermita-ko larretik ikhusliarrak lehenbiziko aldiz ohartzen direlarik harritzen dira beren aitzinian duten lekhu miresgarriaz. Begien loria da parabisu hura!

Eta nok erran lezake Luzaiden hain menditsua izanik, badela bi kilometra luzetasuneko bide zelai bat, Aitzurre deithu zokhoraino? Hala da, bizkitartean.

Ermita-tik ageri den ikhusmena, xoragarria da.

Beherian, erreka zola, eta bertze aldetik, handik goiti, mendi mazelan, zure aitzinian, Azoleta eta Lezta hauzoetako bazterretxe ederrak, xuri xuriak, eta bakhotxaren sahetsian, zonbait urratsez baztertuak, bere borda xurituak, zeren eta gure herrian, Benabarre gisan, aberiak etxetik kanpo atxikitzen dituzte. Ungarri usainak ez dituzte yasaiten etxe barnari, eta gero garbitasunaz arras minbera dira, behar den bezala yendeen arthean.

Phentze eta alhorren ondotik, gaineke mendi mazelak alhapide aberatsak dira, eta behi eta ardiek alegeratzen dute mendia titta gorri eta xuriez, udaberritik negu aitzineraino.

Handik landa, ezkerreko alderat, dugu Aitzurreko hauzoa, beste bazterretxe multxo betekin.

Ze oihanak eta phentziak! Bidea doa urbide edo kanale baten sahetsian, urruneko mendi zokhotik heldu dena Luzaideraino, phentzeen ihinzatzeko.

Bide luze eta zelhai hori dena estalia da oihanez, zuhaitz ederrez, gaztain, haritz eta phago ondo, heien azpian sekhula iguzkia sartzen ez dena. Eta noizian behin, itzal goxo hartan ithurriño hotz bat. Hots, udako parabisua!

Yazko uda bero eta idorrian, Iruñeko bazterrak agortuak eta kixkalduak zirelarik, Aitzurreko erreka phentziak (urbide gaineakoak ere) pherde edo musker bizi-biziak zauden, egun guzietan euri egin balu bezala. Lekhu itzaltsu hartan iguzkia ezta ahantxu agertzen.

Ze bulta goxoak iragan ditutan lekhu liluragarri hartan, eta Uztailaren lehenbizikotik aitzina iragan behar ditutanak ere aurthen, osagarri balin badugu!

Eskuin aldeko mendiek berexten dituzte Luzaideko eta Banka-ko eremuak, eta oren batez heltzen gira mugaraino, Euntzaro-ko lephorat, eta handik behera, gure aitzinian ditugu hedatuak Banka-ko bazterretxiak bere hegats gorriekin, eta urrunago Urepelekoak eta Aldudekoak.

Eta gain hartan, beren etxolan aurkhituko dituzie bethi karabineruak; bainan Bankako mugazainak nihun ez dira ageri...

A, ze bazkari goxoa egin ginuen behin kasko hartan, ithurri baten ondoan, xahatoa urian ezarririk, arnoa karroina bezain hotza edateko!

Nola yakhinaraz, nola erran, irakhurleak, handik begiztatu ginintuen ikhusmen miresgarriak?

Urrunerat ikhusteko tresneekin hauteman ginintuen Aya-ko mendi-muthur arkhaitzak, urdin urdinak, doi-doia zeruan ageri zirenak. Hain urrun ziren gutarik, ezen bada bide handik Gipuzkoako mugaraino, hogoi ixtape baino gehiagoxo... Gain hartarik

botha bagineza harri haundi bat Aitzurreko alderat, zalhu hel litake erreka zolarat. Hain da patar hura xut-xuta nun behiak, behorak eta ardiak ez ditzen eror larre lerrakor hartan, egin dituzte hesolak, sasiak eta hari-burdinezko hesiak.

Ene pidaiaiko lagun gazteek irri onik egin zituzten nitaz. Asto haundi eta zahar batian egin nuen pidaia, bainan huñez bano nekhe haundiagoak ukhan nintuen.

Astoak iduri zuen inguru hetako abere-uli guziak bildu zituela. Bazituen ehunka; eta ni, abar aldaskatu bat eskian, ari nintzan yo eta yo uli madarikatuen ohiltzeko. Eta ardura ene eskutan eta begitartean xixtatzen ninduten borthitzki uli tzarrek.

Azkenian asto bandil eta afer hura etzan zen, edo hobeki erraiteko, belhaunikatu, haur thematsu bat bezala, eskolarat ez nahi duelaik yuan. Eta zalhukara yauzi bat eginik xutik gelditu nintzan, gehiagoko makhurrik gabe. Zaharo ukhaldika xutiarazi ginuen abere etzankorra.

Asma zazie ze irriak eta ihakintzak aditu eta yasan nintuen ene lagunenganik!

Barkha poxi bat baztertu baniz hastapeneko xedetik. Luzaiderat yuaiten direnak ez ditela itzul Aitzurreko erreka ikhusi gabe.

Artola, Etxalarrekoari

Esker beroenak emaiten dauzkizut zure amultsutasunaz, ene idazkiak soberaxko begi onez goresten dituzulakotz.

Ni mintzatzen niz lañoki ene herriko eta Garaziko elhean; eta idazten dutalaik, ahal bezanbat molde arthoski batekin, erdaraz deitzen den, forma literaria emaiteko. Hori da guzia; eta es da anitz.

Ez dakit irakhurtu duzun untsa nik erran nuena eskuaraz, Axularrez mintzatu nintzalaik. Ez nuen erran zuen eskuara, Etxalarrekoa, Luzaidekoarekin iduriago zela, ezenez Axularrekoarekin.

Ez. Aitzitik erran nuen Axularrena eta Luzaidekoa berberak zirela, eta Etxalarrekoa (hain hurbil izanikan ere Saratik) haundizki baztertzen zela.

Barkha nezazu, eta milesker berriz.

(La Voz de Navarra, 1934/6/6)

GURE BAZTERRETXEAK

Jinkoak eta gizonak egin dute Eskual-herriaz asmatzen ahal diteken parabisu liluragarriena.

Gure aurkhintza miresgarriak, gizonak edertu eta osatu ditu, bere egoitza ederrak han-hemenka eginik, mendi mazeletan, begien loriatzeko. Bere xuritasunak urrunetik agintzen dauku eskualdun baten etxaldea. Han bizi dela gure arrazako gizon arrotz-kotsu gabeko bat, bere kidekoekin.

Eta nun kausi ditake eskualdun baten etxe ederra bezalakorik? Lurretik bizi direnen arthean nekhez ikhusten ahal da Europan holako etxerik.

Ze bazterretxe ederrak! Haundiak, garbiak, nasaiak, urthe guziz xurituak eta thindatuak gehienak eta barnian establu edo barrukirik ez. Etxeari hurbil borda bat abereentzat (behi, ardi, behor eta urde), bainan sekhula etxearen barnian.

Ilhunabarrian sukhaldetan ikhusiko duzie lahatzetik dilindan bertza haundi bat. Ur bero hartan gizonak lanetik ethortzian, denek egun guziz ikhuzten dituzte zangoak. Garbitasuna, oroz-gainetik, hortan eta denetan.

Beren baratzetan, hortensia, krisanthemo urdinak, dalia, eta lili ederrenetarik ausarki, eta etxetan nun-nahi lili-untzitan. Edertasunari arras minbera dira. Zamora'n bezelatsu...

Ni mintzatzen niz ezagutzen dituanetik bakharrik.

Holakoak dira mendiez beste alderdian, Luzaide, Arnegi, Lasa, Uharte, Garazin, ba eta Kanbo, Itsasu, eta Ustaritzekoak ere, Laphurdin. Bainan Laphurdi itsas aldekoak ez dire hain ederrak eta garbiak. Tipiangoak eta aphaagoak dira, teillatuak ez bain gorriak, eta landa eta larreak ez dira musker biziak.

Uda, uda ederra! Ene gogoan hiz negu beltz huntan. Ametsetan nuk noix helduko hizan hire eguzki phiru disdirantekin edertasunaren hedatzera, eta ene sortherrian iragaiteko urtheke ilhabethe goxoenak.

Iruñen, 1935 Otsailan.
(El Día, 1935/2/26)

NEGIAN GIREA?

Negu beltza heldu zauzkigu tarrapatan, hurrats haundiekin, aurthen yaz baño goiziarago.

Langarrak, izotzak, lantzurdak, karroinak, elhurak. Horra negiak ekhartzen dauzkigun dohain hitsak, zazpi ilhabethez haren mehatxuen azpian egoiteko.

Urriaren hogoian gira, eta yadanik Iruñeko inguruetako mendi guziak beren mihise xuriarekin estaliak dira.

Lertsunak beren garrasi borthitzekin badoatzi lerro-lerro, hegoalderat, ipharraldeko eremuetarik ihes eginik, lur ephelen bilha, beren neguko bazka lekhuetarat, itsasoz gaindi Afrikaraino.

Usiak ere, trumilka, Belate-ko eta Ibañeta-ko mendiz barna bide bera deramate, toki horietako oihanetan, papoak ezkurrez untsa bethe ondoan phagodi eta haritztegietan.

Hegaztin mota guzikoak badoatzi, lekhu beroetarat, eta gu, gaizo gizonak, anarthean hemen egon beharko hotz ikharan, ezinbertzez bortxaturik, lanarekin bizi behar dugunek.

Zoazte, zoazte, xori dohatsuak, zien yuaiteak hitsten gituzte, negiaren agintza zireztelakotz. Sei-zazpi hilabete egoin gira zuen itzuliaren beha, denbora ederraren mezulariak izain zirezte, zeren eta sasoin arrigarria ekharriko duzielakoz gure biotzaren bozkariotzeko.

Bainan hemen gelditzen girenek zer nekheak iragan bebar ditugun aro atzgarriari ihardokitzeko. Sudurrak eta beharriak gorrituak, eriak gogortuak eta mutzituak, gorphutzak ikharan, hortzak klakaka, zangoak karroindiak...

Eta bizkitartean bada yende negia maite dutenak.

Atx! ez dute nere odola, seurki. Hotzak uzkhurtzen nu, su xokotik ezin baztertuz, eta han ere ilezko soineko lodiekin gerizatua kanpoko haize mehetik, hezurretan sartzen den hortaik...

Negia da lurreko izaite xumeen eta yende ahul eta errumesen heriotza, eritasunen sasoina.

Eztulak, marrantak, birietako minak, errumatismak, eta osagarriaren etsai guziak mehatxuka.

Sasoin tzarra, hail, hail; pasa hadi zalhu, kalte haundirik egin gabe.

Hasia nuk yadanik mokanes bustitzen, urtzintzaka...

1935-eko Urrian.

(La Voz de Navarra, 1935/10/23)

GAZTAIN SASOINA (Benabarreko eskuaraz)

Eskual-herrian zuhaitz hedatuenetarik bat da gaztain ondoa.

Hazten da lekhu aphaletan hotz borthitzik egiten ez duen tokitan, phagodietaik beherago, lakhet zaiolakotz eremu ephelak.

Zuhaitz ederra, larrazkenian ikhusten dugularik mokhotsez brokhatua, ihaurri; horituak eta zohituak, mihauriak ahanxu agerian, erortzeko phundian, eta haize hego zirimolekin lurrerat doatzinak... xerriak gosea asetzeko.

Gaztaina hazkurri saluta eta indartsua da, diotenez, eta eskualdunek anitz maite dute. Gero, xerrien hazteko eta gizentzeko bazka hoberenentarik da, eta sasoin hortan berehala loditzen dira.

Abereek, bere ezagutz zorrotzarekin badakite noiz den gaztain sasoina, eta badoatzi gaztaindegi oihanetarat, eta han, musurkaka mokhotsatik atheratzen dituzte mihauriak. Eta ez uste hok axalarekin iresten dituztela. Ez, khentzen dazkote, ez bakharrik axala, bainan haren peko mintza ere, eta gero garbi-garbia mamia yaten, etxekoandere bathek arthoski garbitzen dituen bezala erreximenta egiteko.

Alaintso! moko finak dituzte gero, urdeek...

Bazterretxetan gau guziz ikhusiko duzie padera lahatzetik dilindan, eta giderretik firurikan dabilate, gaztainak berdinerat erre ditene, bainan lehenik pikhor bakhotxari piko edo ozka bat eginik, zaphart ez dezaten egin.

Zopa-salda edo baratzekari zerbait, gaztain erre ausarki, mailu bathekin zaphatuak, xabal-xabalak, eta gophor haundi bat talo ta esnez gaineraino, hau harriburdinekin egosia, eta hain gustu goxoa emaiten dakona.

Horra gehienetan bazterretxetar baten afaria. Eta, futxo, hazkurri indarrekoa eta sanhoa.

Gaztain uzta biltzeko denbora delarik gizon gazteak iraiten dira zuhaitzetarat haga luze batzuekin, eta aldaskak azkarki inharrosten eta zafratzen dituzte. Mokhotsak erortzen dira burrustaka, erhauntsi bat bezala eta zuhaitz pian dabilta etxekoak bere kakotxekin hartzen eta botatzen marrega haundi hedatu batzuetarat.

Pikhor anitz barreatzen baita, han hurbil dabilta xerriak kurrinkaka mokhotsen ondotik. Ba eta ardura zaharo ukhaldika urrunduarazi behar, zeren eta mokhotsak zaphatzen dituztelakotz mihaurien atheratzeko.

Mihise eta marregak koropilaturik, astoekin karraiatzen dituzte etxeko ganerretarat

Gero, etxeko beharren gaineratikoak eremaiten dituzte merkatuetara, eta sos pilixta pollitak biltzen ere.

Ze orhoitzapen eztiak eta iraunkorrak ditutan ene aspaldiko haur denboratik, gaztaindegietarat yuaiten ginelaik, Azoleta, Lezta eta Aitzurreko hauzoetarat, bethi haurrentzat edozoin gauza yostagailu estakuru delakotz.

Ba, egun alegerak, seurki, eta damurik, itzuliko ez direnak.

Bainan halere etzait gogoa histen, adin bakhotxak badielakotz bere biziaren iragaiteko molde goxoak, osagarri huna dugun ber.

Eta Yinkuak iraunaraz nezala holo-hola.

(La Voz de Navarra, 1935/11/14)

AURITZEKO ZELHAIA (Benabarreko eskuaraz)

Eskual-herriko aurkintza ederrenetarik da Auritzeko zelhai zabala, itsasotik 900 metra gohorako toki batian yarra. Ze lekhu loriagarria!

Dena phentze ederrez estalia, behi xuri eta behorrez betheak, alhapide aberatsetan bazkatzen direnak udaberritik larrazkenaraino. Harat eremaiten dituzte Baztango, Ultzamako eta Benabarreko arthaldeak.

Gero zelhai hura dena inguratua da mendi oihantsuez, eta erdi-erdian Auritzeko herri pollit eta garbia, bospasei hotelekin. Teillatuak xut-xutak dira, elhurak yautsarazteko, zeren eta hango elhurteak noiz-nahi negu borthitzetan zortzi zehe loditasunekoak egiten ditu.

Handik agerian eta hurbil dugu Astobizkarko kaskua, Eskual-herriko mendi orhoitzapen haundikoa, 1.500 metra gohoratasunekoa.

Gero Auritzeko Orriaga-rako erregebidea, phagodi ilhun eta itzaltsuen arthian. Ze parabisu xoragarria! amets diteken tokirik ederrena!

Eta Orriaga-tik haratahago eta goitixago, lau ixtapetako bidia egin ondoan, bethi oihan beltzen erditik, han dugu Ibañetako lephoa, aiphu haundiko tokia.

Gure aitzinian, iphar alderat dugun ikhusmena, ez da nola-nahi ahaztekoa behin ikhusizkioz.

Zazpi ehun eta berrogoita hamar metra beherago, izigarriko erreka haren zolan, dena pendoitz eta oihan, urrunerat ikhusten ditugu Luzaideko bazterretxiak, ttitta xuri batzu disdirantak phentzeen sahetsetan.

Eta haratago, Garaziko eta Benabarreko eremuak, urruntasunak urdinuak, begiek hel ahala.

Zonbat aldiz ez nizan egon gain miresgarri hartan, xoratua Eskual-herriaren edertasunaz!

Eta Ibañetatik ezker eta eskuin yuaiten balinbagira? Bainan itzul giten berriz Auritzerat, lerro hauen hastapenerat eta xederat.

Aurthen baziren herri xilar hortan, udaminean, ez bakharrik Espainia barneko yendiak, bainan, Frantsesak, Anglesak, Alemanak, eta beste erresumetakoak.

Eta denak loriatuak omen zauden lekhu goxo hartaz, ba eta yendeez eta yateaz ere. Eta gero yende horier lakhet baitzaiote mendietan ibiltzea, egun batez yuan ziren multxo bat Irati-ko oihan gaitzaren ikhusterat, eta han egin duten harrigarriko nazal, ibaiaren hurak biltzeko. Erran omen zuten holako edertasunak nekhez ikhusten direla.

Auritze gero eta gehiago doa herriaren aphaintzen eta edertzen; eta aurthen baten yendez leherra.

Haren omena hedatzen ari da, zeren eta zelhai paregabeko hura gohoratasun hartan, sasoin beroaren phasatzeko eta osagarriarentzat lekhu hauta delakotz.

Bainan, Auriztar eskualtzaleak, egin zazie inahalak eskuararen atxikitzeke eta hedatzeko, hea berriz heltzen ahal den horgo eskualdungoa nik gante denboran ezagutu nuen heineraino.

Ordian denak mintzatzen zinezten gure mintzo ederrian. Eta orai? Ahantxu nehor.

(La Voz de Navarra, 1935/11/21)

V. ATALA
BURUTAPENAK

UDABERRI

Urtheko sasoin ederrenean sartuak gira. Alderdi guzietarik edertasunak inguratzen gitu. Zugaitzak aldaskatzen, lili usainak gure uzna loriatzen, xorien kantu xamelek gure beharriak balakatzen.

Ainharak badabiltza zalhu airian erreka sahetsetan eta ixtiletan bere mokoa lohiz betheturik, ohantzearen egiteko hegats azpitan. Iguzki eztiak perekatzen gitu bere urrezko piruekin.

Ostaroa! Udaberri! Izaite guzien erreberritzea. Gazteriaren bozkarioa.

Iruñe aldeko inguruak egunez-egun edertzen dire. Toki lakhetak bide ederrez galkatuak, eta heien zedarrak zugaitzez lerrokatuak. Alkiak guneka, bidekari unhatuaren pausatzeko, etxe-berri pollitak naharoki, bere lili-baratze ihaurriekin.

Bainan damugarri da, deithoragarri, hiritar gehienak karriketarik ez ditzen ilkitzen, alde bat utzirik iguruetako aurkhintza goxoak. Beren bihotzak ez dituzte hunkitzen. Hanbat gaixto berentzat, ikusmen xoragarri horiek ezin hautemanez, eta ondorioz ezin maitatuz itsueren araberean.

Gizonari kentzen balinbadugu asmoko zorion eta atseginak, bizitzea arras hutsa eta idorra liteke. Dirutik eta yatetik kanpo bada bertzerik. Gizonak bere izaitez, bere yitez, badu arimako eta adimenduko dohain bat, eta horri esker gure bizi borthitzaren oinhazeak eta pairamenak hobeki yasaiten ditugu, ezitzen baititu, arintzen nasaiki.

Basa-gizonak adimendua ilhunbetan izanik-geroz ez da ohartzen ahal eta erdeinu egiten du bere inguruko edertasunez. Hazkurritik kanpo ez du bertze asmorik eta axolarik, nahiz ardurenik eremu ederrenetan bizi denez. Bainan gizon argituak badu bere baitan, ariman, gogoan, zer bat, bizia goxatzen dakona, eta ezin ditakela ukho egin bere deiari. Udabearriari, gure ongi-ethorri suharrena.

(La Voz de Navarra, 1932/5/7)

NOLA EZ MAITE?

Diote, eta hala da, Eskualdunek oroz gain gainetik bihotz xokoan alha dutela amodio suhar bat, eta gogoeta gehienak hortan itzatiak dituztela. Lehia bizi hori da beren sortherria, Eskualherria.

Nun-nahi eta urruneneko eremuetan kausitzen den Eskualdun bat bere gogo-bihotzak sor lekuan ditu, haur edo gazte denboretako oroitzapenez betheak. Dela Kalifornian, dela Argentinan ala Chilen, edo bertze edozein erresumetan biltzen dira eta moldatzen dituzte batasunak eta Eskualetxeak eraikitzen, denak bilkuran hurbildurik. Eskualherri maitetik beste solasik ez da. Han gure kantu eztiak, gure ohidura eta ohikuntza solasak. Pilotari aiphatuenen izenak ahoz-ahoz; yantzari trebeenen oroitzapenak mihietan; koplakari bipherdunen atheraldiak ezpainetan, irri karkailak burrustan atheraazten dituztenak, edo bihotzeko oinhazeek begiak bustitzen dituenak. Hots, gure xokoko zerak han oro errepiztuak, eskualdungoa khar bizi batekin inharrosia eta sustatua.

Eta ohartzekoa da nola Kalifornian, Baxenabartar, Xuberotar eta Nafar menditarrez galkatua, harat artzaingorat doatzinez, Baxenabartarrak nausi direla beren sorleku ohiduren phizten eta hedatzen.

Zonbat Nafargaintar han egonak ez ditut aditu Luzaideko, Baigorriko eta Bankako kantutan ari zirenak, eta ene oharrari ihardesten zuten Baxenabartarreer ikhasi zituztela Kalifornian. Anitz Amerikano Erro ibarkoak, Saraitzukoak eta Ahetzak entzun ditut kantu horietan mendiez haraindiko eskualduneer adituak.

Bainan zer du Eskual-herriak hola maitatzeko? Galde huni aise da ihardestea. Turista horiek zalapartan bere auto ederretan iragaiten direlarik gure eremuetan gaindi, heien behako batek guk baino gehiago erraiten ahal duguna erraiten daute, bere begitartea loriatua, ahoa zabaldurik, aurkhintza hain miresgarriak ikhustean.

Oihanak eta phentziak ferdetasun ederrenean, ura zurrustaka bide sahetseko erreketan, uraminaren erdian; mendi kaskoak eta mazalak arthalde xuri eta gorriz brokatuak, berriki ikhuziak iduri. Eta herriak hain aphainduak eta garbiak; bazterretxeak han hemenka kokatuak, mihisiak bezain xuri.

Eta zer erran yendakiaren zuzentasunaz eta omenaz mundu bazter guzietan hedatua?

Ez Frantzian, ez Inghaterran ez Italian, nehonere ez dute laborariek Eskualdunen etxea bezalakorik, hain haundia, ederra eta nasaia; gure paregabeko Bazterretxea edo Baserria. Horrek erran nahi du eskualduna zoin atxikia den bere arbasoeri eta haurrideeri, here kidekoeri; eta lanari yarraikia etxaldearen goreseteko eta ohoratzeko oroz-gainetik.

Nun da nun hatzeman zorionaren ithurburua hortarik kanpo? Hortan da herrialde guzien asentua edo alhia. Etxaldean.

Nola ez maite, beraz, gure herri miresgarria, arrotzak berak ikhusten ditugularik baldituak bere edertasunaz eta yendakiaren zuzentasunaz?

(La Voz de Navarra, 1933/2/15)

BAXENABARRE AHANTZIA

Erran zaharrak dio amodioaren ithurburuak zagutzatasunian duela bere hastapena. Ezagutzen ez dena ez da maitatzen ahal.

Egi xume hunen mamia izan daiteken gizon zozoak etaitsuak laster ikhusiko du. Ez dea hala?

Yarraik giten gure xederat.

Aspaldidanik ari dira Espainia aldeko eskualtzaleak karraskan gure hitzkuntza eta ohiduren errepizten, lehiatsuki lothuak, alderdi guzietako eskualdunen anaitasuna bathetaratu nahiz, guhauren ezagutza hedatzen bazter guzietan, laborariak bere alhorrean hazia ahurtaraka ereintzen duen bezala iduriz. Eta ez daiteke ukha ereintza horrek uzta nasaiak emaiten dituela, zorionez.

Egia ederra hori. Ba, baina badu halere alderdi hits bat. Gure ezagutzaren hedadura mendiz hemengoan artetik ez da yalitzen edo atheratzen. Mendiz bertze aldekoak erdizka ahantziak dituzte. Benabarre berexiki arrunt ahantzia. Arras guti dakite hemen zer eta nolakoak diren; munduko herrialde urrundu baten idurikoak dituzte, naski.

Bizpahiru aldiz erran dut hemen berean nola harritua nintzan ikhustean Gipuzkoarrek eta Bizkaitarrek frantziaren azpian dauden eskualdunetz mintzatzean ez zuten bathere aipatzen Baxenabarre edo Benabarre.

Eta huts deithoragarri hortan erortzen balinbadira yende argituak eta eskolatuak, idazleak eta mintzatzaileak, zer asmatu behar dugu yende arrunta eta xehez? Gaineoak, berexiak, erakasleak, bide zehiar eta makhurretan badabiltzanik-geroz ez da harritzeko entzutea hainbeste eta hainbeste arinkeria nola aditzen ditugun, ez normahiri, baina plantako yaun batzueri, hangoen ezagutza doi bat yakiteaz bortxatuak direneri, gure ustean.

Eta ez niz ni bakharra ohar hunen hautamaiteko. Huna zer dion Revista Internacional de Estudios vascos delakoan idazle batek, Elo izengoitiarekin azpian.

«He dicho siete provincias vascas, porque hay mucha gente que al citar las provincias vascas que radican en territorio francés olvidan la existencia de Benabarre que tiene casi tanta extensión, 1.500 kilómetros, como juntas Laburdi con sus 777 kilometros, y Zuberoa con sus 823 kilómetros, según cifras tomadas del P. B. Estella».

Damugarri da gibel-asmurik gabe, ustegabea, holako erdeinu kiratsa egitea Eskualherriko eremu den eder eta nasaiari, ez yakitearen dohazkon ondoriozganik.

Horra zer heineko hutsetarat erorrazten dituen yendeak beren artekoen ezagutzak ukho egiten duelarik.

Ba eta gero, huts hori, hain larria izanik nola ez daiteken sinets ere, badu oraino bere alderdi bitxia eta izpi bat irringarria.

Laphurdin yauzi bat eginikan eta Benabarre, eskualde zabala, ixtapean utzirik, gutietsia, erortzen dira Zuberoko eremu ttipian.

Baina zer debru sarthu zaiote buru kaskoan holako harriarriko itzulipurdia egiteko? Ixterrak zail eta luze behar dituzte, futxo, egundainoko yauzi hortarat heltzeko. Ba eta gero buria arin eta huts, aztak edo pizuak poxelu ez egiteko.

Eta, nola eta zergatikan ixiltasun hori Benabarreko eskualdeaz? Galde horri ihardets ginezake, baina... ixo; bego hortan, samur ez dituen hobendunak.

Eskual-herriak hedadura murrizta izanki eta oraino gutisko ezagutzen balinbagira

gure artean, zertako, bada hainbeste oihu, irrintzina, xirula, dantza eta harrabots?
Igandetan yostatzeko?

Lehen lehenik ezagut giten. Hori da lan beharrena, baitezpadakoa, lehenbizikoa.
Gero yinen dira ondorioak; yin behar direnak oro.

Zer nahuzue, irakurleak; nik aldi bakotx ikhusten nuelarik «Laburdi y Zuberoa»
motz motza, hangoez mintzatzean, halako ukhaldi latz eta hits bat emaiten zauztan
bihotzian, eta arrunt etsitzen nintzan, begitarte goibeldua.

Ilhuntasun hortan bizi gireno gutarteko ezagutzaz, zonbeitek igurikatzen duten
ethorkizuna urrunxko dela eta nekez ardiestekoa iduritzen zaizkigu.

(La Voz de Navarra, 1933/5/24)

ESKUAL SOLASALDI

Ene amodio suharra, eskuararenzat hain da samina, nun ez naiteke egon aste bat ixilik; eta gure hitzkuntz maitia hedatu nahiz usuki hartzen dut luma eskuetan. Hortakotz irakurle maitiak, zien barkhamendua eskatuz abiatzen niz aintzina, etziztela sobera enheatuko ustean.

Gure Eskualherri miresgarria uda haste huntarat helduzkioz yauntzi eta edergailu ederrenetarik brokatzen da, nexkato panpina eta lakrikun bat iduri. Zuhaitzen ostotzea, phentzeen belharrez galkhatzea, liliak bazter guzietan ihaurri, beren usain xoragarriek gure uztza goxatzen dutena, eta begiak loriatzen heien kolore hauta biziek.

Sasoin ederra hasiz-geroz hemen gaindi badabiltza parrastaka yende arrotzak, bereziki anglesak eta frantsesak, beribil edo auto haundietan, aurkintza, eremu eta gune ederrenak kurritzen. Han ikher, hemen núa (sic), iduritzen zaizkoten gauza bitxienak hautemaiten, eta oihan, mendi zelai edo ordoki nasaietan beren edertasunak ohartzen eta goستن dituztenak. Hain da mundu guzian hedatua Eskualherriaren edertasuna, hain du omen haundia bazter guzietan, nun nunnahitik ethortzen dira kanpotiarrak multzoka gure eremu miresgarrien goxatzerat. Zer bidaia xoragarria Baztandik Luzaideraino, Iruñen gaindi! Otsondo-ko lephotik eta Belateko bizkarretik zer ikhusmen lilluragarriak, herri eta basherri xuriak bazter guzietan. Gero Iruñeko zelai nasaia, eta hemen ditugun aitzineko mendetako oritzapenak eliza zaharrak, gure lehengo erresumako paperrak eta liburuak, beiratuak liburutegi ederretan; eta bertze holako.

Eta gero, arratsaldeko, Auritze eta Orriagarat; Ibañetako lephoan, Astobizkar mendiaren azpian, ikhus diteken ikhusmen ederrena. Ipharraldean han, urrun, behereko erreka zolan, Luzaide, xuri xuria; eta azkenian, Pekotxetako zubi-muga, Arnegirat sartzeko, Domaneko bideari abiatzeko. Han sorthuak gireneri eta hain untsa ezagutzen dituguneri xoko maitagarri hek orok, bihotza hunkitzen daizkigu oroitzapenek. Toki pollitak eta lakhetak eratxikitzen gitu.

Osagarriak balinbadugu heldu den ilhabetea ase on bat eginen dugu leku hetarik. Ahuntza mendiari aihar da, buhamia ohointzari, eta biphia oihalari. Halaber gu ere sorlekhuari.

(La Voz de Navarra, 1933/6/4)

YENDE ARROTZA

Adin puska bat dugunek, Iruñeko lehengo bizitzetik oroitzen girelarik, balditzen gira ikhustan nola egungo egunean bertzelakatuak eta aldatuak diren aitzineko ohidurak eta eskualdun yitea.

Ez niz mintzo, ez, hiriaren haunditzeak sor-arazi dituen aberastasunetatik, gizonak ernatzen eta bermatzen diren aran lanak eta sal-erospenak hadatzean gero eta gehiago.

Nik erran nahi dutana da nola arrotzez ithoa den orai gure Iruñe maite zaharra. Hiriaren haunditzeak eta aberasteak milaka eta milaka ekharrarazi ditu kanpotiarrak, eta denak hego aldetik ethorriak, zeren eta yende behardunak iges doatzi bethi bere etxetarik hiri aberatsetarat lanaren bilha, gosearen itzaltzeko xedean. Eta denek dakiguna da Nafarroa anitzez aberatsagoa dela ezenez hego aldeko eskualde agortu eta itsusi horiek. Gauza ber-bera gerthatu da Bilbaon eta Donostin. Duela hogoi urthe Iruñeko hiriak hogoiita hamar mila arima zituen. Orai baditu berrogeita bost mila hurbil Eta, zer gerthatu da, zer ondorioak ekharri daizkigu hamabost mila arrotz horiek gure auzo bilhakaturik? Gure eskualdunagoaren itsabazitzea, ithotzea, suntsitzea.

Egundaino ez ditugu ikhusi hainbeste izen ondoko edo apellido Espainiar nola oraiko egunetan.

Beha zazue Instituto delako ikhastetxe eskolan orai hogoi urtheiko hango paperetan ikhertuak diren izenetan baziren ehunetarik lauetan hogoiita hamabost (95) eskualdunak, eta bost erdaldunak.

Eta orai? Orai erdizkatuak dira. Berrogoita hamar erdaldun, eta beste-hainbeste eskualdun. Egin du bide, futxo, arrotzak ephe labur hortan berrogoita hamarretarat heltzeko.

Ba eta berdintsu gerthatu bide da Escuela de Artes y Oficios delako eskolan, eta haur Eskoletan ere, dutan xehetasunaren arabera. Izen arrotzak hein berean goiti doatzi. Odola nahasia, eskualdunagoa itzalia. Horra zertarat yin giren. Badea zerbait kiratsagorik Eskualdunentzat? Egiazkoentzat, erran nahi dut, ez axola gabekoentzat, bere sabelaren bethetzeatik kanpo irringarri zaioteneri adimendu eta bihotzeko xehekeria horiek. Ergelak, xori buru zentzugabekoak gituzketeneri, gure erdeinu osoa. Begozte.

Ohar zitezte, irakurleak, nola emeki, zonbait urtheren buruko Iruñe arrunt bertzelakatuko den, arrotzaren idurikoak bilhakatuak.

Oraiko gazteek zahartu baino lehen ikhusiko dute ephe horren barne Nafarroako hiri nagusiak nola galduko dituen eskualdunago erro guziak, gure arbasoekin ditugun lokharriak urraturik, odolaren nahasmenduan suntsituak. Eta abiadura lerrakor hortan yarraikirik azkenian arrotza arrunt nausituko da gutaz. Horra gure ethorkizun hitsa.

Gure Nafarroa dohakabean ikhusiko ez denik ez da.

Iraganak iragan, deusetarik ez gira balditzen.

(La Voz de Navarra, 1933/6/11)

ANAITASUNA

Azken urthe hautan gauzarik haundienena egin dena da Eskualherri alderdi guziko eskualduneri anaitasunaren errepiztea.

Gure mintzaira ederraren hedatzea hain gauza haundia eta baitaezpadakoa izanikan ere, nik ez dakit ez danetz oraino ederragoa eta beharragoa anaitasunaren hedatzea.

Orai artio erran diteke eskualdunak barreatuak egon girela gure artean. Bizkaitarrek ez ginuzten ezagutzen osoki, eta guk ere ez hek, halaber. Gauza bera halatsu gerthatzen zen Gipuzkoar eta Nafartarren artean. Izan diteken makhurkeri kaltekor haundiena zen orai zonbait urthe artio iraun duen berexkundera, Vascos y navarros, izen izunarekin, anai odol berekoak oro ez baginen bezala.

Eta nor da hobendun holako gaitzaz? Nor? Azken egunetan hemen berean erraiten ginuen. Gure uzkurtasuna eta nagitasuna. Ba eta ere etxen berean sartuak ditugun etsaiak.

Min horrek atxiki gitu denak ilhunbe deitoragarrienean, eta guharen artean baginituen mugak eta zedarriak, phentze eta alhorren berexteko diren hesola, harrisu, edo sasien idurikoak.

Bainan yendea iratzartu eta ernatu da, lehiatu da yakitaterat eta ikhasterat eta orduzkioz begi eta adimendu aitzinian ginituen ilhundurak erhautsi ditugu eta argitu gira, ohartuz azkenian zainetan odol ber-bera dugula denek, izan ditezken iphar edo hego aldekoak, ala iguzkialdekoak edo astiri aldekoak. Anaitasuna! Badea zerbait ederragokorik?

Nik ez dakit zer dugun eskualdunek, zer atzikimendu eta lokharri miresgarriak ditugun guharen odoleko direnentzat, bainan arrotz herrietan edo eskualdun herri erdaldunetan gure mintzo ederra entzuten dugularik norbaiti, bihotza zabaltzen zaizkigu eta holako kilikaño goxo batek inharrosten dauku, gure adixkide mina edo haurride izan balitz bezala. Eta berehala hari emaiten gira, eta gure barnea idokitzen dakegu deplauki, leialki, bathere gibel-asmurik gabe baikigu eskualduna izanezkioz ez bakharrik gutartekoa dela bainan gizon zuzen, ohorezkoa eta bihotzdun baten aitzinian girela gehien-gehienetan.

Eta Euzkadietik arras urrun girelarik oraino handiagoa da anaitasuna eskualdunen artean. Odolaren deia.

Ezagutzen dutan americano yaun batek erraiten zatan Kaliforniarat yuan zelarik eta nihundik lana ezin atzemanetz, ostatu batean zela eta sakelak hutsak, ereman zuen diru philixta arrunt xahuturik. Berrogoita hamar egunen burian han iraganik arditik pagatu gabe ahalge gaitzian aithortzen dako ostalierrari zer nahigabe hitsian zagon.

Bainan ostatuaren yabea eskualduna zen Aldudekoa eta ihardesten dako gure gaizo gizonari, bere bizkarrian esku panpaño amultsu bat emanik: «Zaude trankil, etzitela arrangura, yinen zauzu lana azkenian, eta khausitzen ez duzueno, mahaina eta ohea ukhain duzu hemen, orai artio bezala».

Horra nolakoak diren eskualdunak.

Anaitasuna oroz-gainetik.

* * *

Atsegin haundiarekin ikhusten dugu nola emeki, emeki agertzen idazle berriak. Aritza Iruritako horrek ageri du trebeki dakiela eskuara, amaren bulharretan ikhasia duela.

Emazu hor, azkarki eta usuki, zeren eta denen beharra baitugu eskuararen xokoaren bethetzeko, Voz de Navarran idoki daukuten lekian. Saraitzu eskuara pollita ere agertu dauku Iru lagunek. Ba eta Bipimi yaun argituaren erdarazko untsa dakizunaz geroz. Alo, alo, bagira idazle multxo bat. Aizina, jaunak, eta deneeri esker beroenak.

(La Voz de Navarra, 1933/11/21)

ABERATS BERRI YAUNDUAK

Denek dakigu eskualduna ez dela bere izaitez, urguluntzia; bainan xumea eta lañoa, bathere haundi-nahia.

Halere noizian behin, (arras gutitan, zorionez), agertzen zauku Kalifornian sos parrasta eginikako amerikano bat, bere sorherrirat yoana herritarren harritzerat, ustez eta bere diruketez denak azpiratuko dituela, sehien herrunkakoak iduri zaiolakotz sosdun ez diren guziak. Gaizo pulloa!... Artzaingorat yoana Kaliforniako mendietarat, eremu hits heietan iragan ondoan anitz urthez artzain-muthil lehenik, berantago, emeki, emeki ardi arthalde baten yabe bilhakutzen da.

Azkeneko gudu haundiko urthetan amets ez zitzakeen prezio altxatueta saldu zituen ardi guziak, gerlako beharrenganik harrapaka erosten baitzituzten amerikanoek azindak, zernahi pagatuz.

Horra, ba, gure gizona bat-batian aberatstua eta, futxo, soberaxko laster yaundua, nola itzultzen den bere herrirat, soineko ederretan yauntzia, eta karrikari goiti eta behiti badea, bere eriak eraztunez bethiak, harri bizi distirantekin.

Eta eskuak altxatzen ditu norbait hurbiltzen zaiolarik, kokotza perekatuz, untsa ikhus ditzen haren edergailu yoriak.

Noizian behin bere gazte denborako lagun batek besarkatzen du eta erraiten dako:

— To, ohoitzen hiza, Pello, ze marrakukiak yaten ginitien hain goxoki mendi kasko hartan artzain ginelarik? Debrien arima! ez ginitikan ordian ibiltzen hik orai ditukan zapata eder horiek. Altaa, segur nuk, ba, orai ere ibil hitekela goxoago eskalapuin eta galtza-mox heekin. Ez dea hala, Pello?

Amerikanoa gaizkitzen da gauza horien oroitarazteaz eta ihardesten dako halako beltzuri larderiadun batekin:

— Utzikik, utzikik alde bat oroitzapen itsusi horiek. Ez nuk gauza horien aditzerat yina.

Eskuara gutiesten du (hori erran gabe doa) iduri zaiolakotz yende arrunta eta eskola gabekoen hizkuntza dela, eta sekula ez da mintzatzen, beharrak ez balinbadu bortxatzen.

Holako gizon argituak, nola ibil ilhunbetan direnen elhea?

Eta bazinakite, irakurleak, zer gisan murduskatzen duten erdara! Zer hitz eta itzulika irringarriak atheratzen zaizkoten ahotik, bathere ohartu gabe bere itsutasunian nola entzuleek tinkatzen dituzten ezpainak irria ez dadin ilki burrustaka.

Holako hanpurutsu bati xume zaio herria, eta bizpahiru aste iragan ondoan lekiak husten ditu eta badoa bizitzerat haren aberatstasunari iduri zitzaikon behar heineko hiri batetarat. Aitzinetik erran dutan araberan nekez ikhusten da eskualdun harro hautarik Ameriketatik aberats okhitsuak itzultzen direnean. Gehien-gehien xedea da harat abiatzean sos puska baten egitea, burutik sekula baztertu gabe amets ederrena, beren sorlekhu goxo eta maitaturat itzultzea, han bizitzeko dohatsuki, berekoen artean, philik urgulurik gabe, lañoa, bakhe eztian.

Damugarri da urguluntzi kasko harro zonbaitek egiten dutena, hiri haundietarat bizitzerat yuaitea, ustez eta han yaun haundi batzu izain direla, bathere gogoratu gabe zuhurki zoin ederki bizi ahal ditezken bere herrian, adixkide eta lagun artean guziez maitatua eta gorestua.

Gogoan behar lukete atxiki yaundu berri horiek erran zaharrak diona: «Ziminoa

goitiago eta uzkia ageriago».

(La Voz de Navarra, 1934/1/2).

ABERATSA BANINTZ...

Eskualduna arras atxikia dela bere xokoari, nihun ez dela lakhetzen hain goxoki nola bere herrialdean. Ametsetan dagola bethi berekoen arterat yoaitea Eskual-herritik urrundua delarik.

Ukha ez ditazken egiak dire horiek oro. Sortherritik lekhutzen denean sekhula itzaltzen ahal ez den amodio suhar bat alhatzen zaio bihotz zolan. Eta nun nahi egonikan, eta zer nahi gertha diteken bizitzearen gora-beheretan, barneko su phindar hori han dago tente eta berme.

Eta ez da bathere harritzeko eskualdunaren khar bizi hori. Zertako da eskualduna hain lehiatsu bere sortherriaz? Lehenikan gizon bihotz duna delakotz, eta gero Eskual-herria bezalako toki ederrik nekhez mundian khausitzen ahal ditenetarik baita.

Zonbait aldiz ez ditut entzun Angles eta bertze kanpoko yendeeri laudorio eta goresmen haundienak gure Eskualherriko edertasunez. Ez dutea deitzen parabisua Ustaritzeko eta Kanboko xoko miresgarri horri?

Ba eta Angles horiek munduko eskualde guziak kurritzen dituztenetarik dire. Horien lekhukotasunak zerbait balio du.

Yende horiek hor dabilta. Benabarren eta Laphurdin sasoin guzietan, udaberrian ala udan, udazkenian edo neguan; hots, urthe guzian, goxotasunaz loriatuak.

Behin, Luzaiden aditu nintuen bi andere adindu Angleseri, Vosgues eta Auvernia eskualdetatik berriki ethorriak, Orriagatik Luzaiderraineko ikhusmen ederragorik etzituztela nihun ikhusi.

Yakina da ez dutela guziek holako arima eta izaite eztia eta minbera edertasunari ohartzeko eta bihotzaren hunkiarazteko; yende arrunta ere baita mundu huntan, sabeletik kanpo griñarik gabekoak.

Bainan eskualdunari, gutiz gehieneri, eskolatuak ez izanikan ere, edertasunek barnea hunkitzen dako. Hola da bere yitez eta izaitez.

Eta hori egia dela frogatzen ahal da ikhustean nola zaintzen duen bere etxea, xuritzen eta thindatzen urthe guziz, zoin maite dituen liliak, nola aphaintzen dituen hilerriak, hobietan direneer orhoitzapena itzali gabe, eta ze begitarte okhaztatua ezartzen duen herrialde agortu eta itsusietarat yuaiten delarik.

Hitz dautzuet, irakhurleak, ni sosduna banintz banakikela nun eraiki egoitza eder bat eskualdun etxe itxurazkoa, han iragaiteko ene biziaren azken urtheak.

Bainan hori ez izanikan, urthian hiru ilhabethe bederen nehok ez dait khentzen, osagarria duguno, ene sortherrian egoiteaz urtheke sasoin ederrenian. Bada zerbait.

Nafarroako ipharraldeak zer aurkintza xoragarriak dituen!

Nahi balinbaduzie lekhu arkhaitz eta phendoitzdunak hor duzie Erronkariko harana bere harroka haundiekin eta pino oihanekin. Eztixagoko eremuak lakhetago bazauzie zoazte Saraitzuko eskualderat, haritztegi eta phagodiez betheak.

Parabisuaren eztitasuna eta bihotzaren phausua eta bakhea nahaigo duenak yuan daila Baztango alderat, Auritzeko ordokietarat edo Luzaideko lekhu ederretarat, phentzez

estaliak.

Eta hor ditugu oraino Aezkua, Larraun, Araitz eta Ultzamako ibarrak. Bidasoko erreka eta bertze toki ederrak. Ze aurkhintza miresgarriak!

Bihotz idorra eta adimendu gogorra izan behar da holako edertasunek barnea ez hunkitzeko. Hanbat gaixto itsuak direnentzat, bihotzaren ordainez iztupa puska bat dutenerentzat.

(La Voz de Navarra, 1934/4/3)

IPHAR ALDEKO ESKUALDUNAK (Benabarreko eskuaraz)

Ez nuke nahi, irakurleek uste dezaten itsuki ari nizala mendiz haraindiko eskualdunen goستن.

Nik uste dut hango eta hemengoen ezagutza hedatu behar dugula gutartean, eskualdun guziek yakin dezagun nolakoak giren eskualde guzitakoak, zeren eta ezagutzetik sortzen delakotz amodioa eta anaitasuna.

Hangoek eskualdungoa errotik sartua dutela gogo bihotzian, ez daiteke ukha, eta frogak baditugu ausarki.

Handik athera dira aitzineko eskualdun idazle lehenak, Detxepare. Leizarraga, Axular, Etxeberri, Oihenart, eta beste anitz.

Eskuarazko astekari zaharrena, Baionako «Eskualduna» da, bere hamabi mila irakurleekin, orai berrogoita zazpi urthe agerthua.

Eta hedadura hori haundiagoa da phentsatzen dugularik ehun eta berrogoita hamar mila arima bezik ez direla Laphurdin, Benabarren, eta Xuberon denen arthean.

Hango herriko etxetako paperretan badira anitz eskuaraz idaztiak zenbait herritan.

Hilerrietan hobietako harriak eskuaraz dira ere idaztiak nahiz orai sartzen hasi den erdara hor ere. Luzaiden eta zonbait Zugarramurdin, dira bakharrak Espainia aldeko hilerrietan eskuaraz ezarriak.

Bainan bada bertze gauza bat harrigarria, eta erakusten daukuna noraino lothuak diren hangoak eskuarari eta eskualdungori. Orai ehun urthe ziren toki ber berian daude gure egunetan eskuararen mugak. Ez du geroztik urrats bat ere ihes egin eskuarak. Lekhu berean dago higitu gabe. Eta oraino gehiago dena, Xubero aldetik hedatu da gure elhea Biarnoko zonbait herrietarat.

Laphurdin, itsasoko eskualdean, galdu da zerbait, bainan ez ukhakorrek eta etsikorrek uste duten bezanbat, ene ustez.

Zonbat aldiz ez dut entzun Doniane Garazin eskuara galdua zela, eta frantsesa bezik etzela mintzatzen. Eta hori ez da bathere egia. Ni haurra nintzalaik han bizi nizan sei edo zazpi urthe, eta orai berdintsu ordian bezala mintzatzen dira eskuaraz. Egiari zor dugu hori aithortzea.

Hango mugazainak, sendagileak, errintak, notariak, lege gizonak, gehienak eskualdunak dira, eta gero yende larriak ez dira ahalgetzen, hemen bezala, eskuaraz mintzatzea.

Badea gauza ahalgegarriorik Nafarroan eskuararekin gerthatzen denaz? Luis Luciano Bonapartek eginikako «mapa» hartan eskuararen mugak, nun dira orai Nafarroan?

Elizondon gerthatzen dena erdiragarria, okhartagarria da. Denak erdaraz! Berrogei urthetako gizonak ez dakite eskuara. Ze ahalgea!!

Ze ikhusbide edo etsenplua emaiten daukuten mendiez bertze aldeko eskualdunek.

Hangoak eremu ttipi bathian, eta hainbeste arrotz heien arthean, eta bethi eskualdun. Hemen zonbait karabinero, sendagilia eta errinta aski dira herri bat erdaldun bilhakatzeko.

Han, aitzitik, arrotzak eskualduntzen dia, zuzen den bezala. Doniane Garazin ezagutzen ditut anitz izen frantsesak dituztenak, bainan guziak eskualdun hutsak. Barbier

idazle aiphatua zena ere Doniandarra zen, eta haren anaia ere, koblakari ezagutua, yaz hil izana.

Hor dugu Duvoisin, omen haundiko idazlea, Testamentu zahar eta berriaren egilea, bost zathi haunditan, eta eskuara hitz arrotzez garbitu zuenak.

Hor dira ere oraikoen artean Lafitte, Blazi, Moulier (Oxobi), erotik eskualdunak, eta ze idazleak! eta horien guzien aitak edo aitzinekoak frantsesak ziren, eta beren ondokoak Eskual herrian eskualdundu dira.

Horra zer gerthatzen den arrotzarekin iphar aldekoen arthean. Han, izenek ere eskualdunduak dira. Manez, Manex, Yuanes, Ellande, Eñaut, Kayet, Beñat, Battitt, Betthi, Pettan. Geaxan, Peyo, gizonetan. Mayi, Katin, Moñiño, Juaniño, Gaxuxa, Gexina eta holako anitz emazteetan.

Badakikezue etxe bakotxatik badirela bizpahiru Ameriketara. Eta letra edo karta guziak bethi eskuaraz idazten dituzte.

Eliza bathian sartzen bazizte ikhusiko dituzie gizon gehienak bere liburu eskualdunetan othoitz egiten. Hortakotz saltzen dira han (Benabarren bederen) hainbeste eliza liburu eskualdun. Ene herrian, Luzaiden, yakina, gauza bera gerthatzen dela. Ez da etxe bat nun ez dituzien ikhusiko eliza liburu eskualdunak. Eta ze ondorioak ateratzen ahal dira nik ezarri dituan oharren hauetarik?

Bakotxa bethi bere eskualdearen alde lerratzen da, eta ez nahi nuke gaitzetsi hemengo eskualdunak emaiten balinbadut hangoak iduri zitzaiztala izaitez eta yitez eskualdun hutsagoak. Emaiten ditutan oharren horietan dituzte nere erranen egiztatzeko lekukotasunak.

Eta mintza giten orai bertze garrantzi haundiko gauza batez. Han ez da ezagutzen maizterra. Mintzo niz bakharrik Garazi aldetik, eta uste dut hango Eskual herri guzian berdintsu gerthatzen dela. Laboraria edo lurgintzaria bizi da «bere etxean».

Bazterretxetarra bizi den etxaldearen yabea da; etxe eta funtsak bereak dira. Luzaiden badira ehun eta bi bazterretxe, eta denak heietan bizi direnen yabegoa.

Eta badira zonbait, oraikoen arbasoak etxe bereko yabeak zirela hamalau eta hamabostgarren mendean.

Hango laborariak hemengoak baino hobeki bizi dira, eta horregatik ikhusten ditugu nola zaintzen eta edertzen dituzten etxeak, zeren eta beren yabeak direlaketz.

Aspaldidanik ari dira Bizkaian eta Gipuzkoan asmatzen nola bilhakutzen ahal dituzketen baserritarrak etxearen yabe.

Mendiz arateko Eskual herrian badute ikhusbide eder bat. Eta nola ardietsi dute hangoek yabetasuna?

Hori ez da errex ihardestea lerro hauetan. Luzexko litake. Ez othe da Bizkaiko eta Gipuzkoako baserritarren maiztergoaren ithurburua Espaiñiatik sarthua? Hamahiru garren mendean eratxikis ziren Espaiñiari eta aithorensameak bizi ziren Castillan, bere erregearen inguruan; eta badakigu hauk nola erraiten zituzten beren lausengatzaileeri eta gudutan laguntzaileeri herriak, lurak eta etxeak, dohanik.

Hona ene ustez nun diteken maiztergoaren ithurbura, (alderdi batena bederen), Gipuzkoan eta Bizkaian.

Nafarroako erresuman bazen ere holako zerbait, bainan ez hainbeste, eta horregatik baserritar gehienak bizi diren etheen yabeak dira Baztanen eta Bidasoko erreka guzian.

Bainan zer gauza hitsa edo tristia ikhustea baserritar bat besten etxean bizitzea. Ez dela xoria bezala, bere kabiaren yabe, bazterretxea Eskual herriaren erroa izanikan ere!!

Eta oixtian erran dutanez, gutartean ezagutu behar ginela maitasuna sor arazteko, gogorat heldu zait orai aspaldidanik ohartu nintzan gauza batez, zoinek erakutsarazten daukun zein guthi eta arinki ezagutzen duten zonbaitek (eta ez nornahik, gero) mendiz haraindiko Eskual herria.

Handik mintzatzen direnean sekhula ez dute aiphatzen Benabarre, bethi, Laburdi y Zuberoa»; «nuestros hermanos de Laburdi y Zuberoa».

Eta bizkitartean Benabarre da hango eskualde haundiena. Idazle horiek yauzi egiten dute Laphurditik, Xubero ttipirat, Benabarre ixtapian utzirik ahatzia...

Bertze norbait ere ohartu da hortaz. Horra zer irakhurtu nien behin «Revista Internacional de Estudios» delakoan (Oct. Dic. 1932).

«He dicho siete provincias, porque hay mucha gente que al citar las provincias vascas que radican en territorio francés, olvidan la existencia de Benabarre, que tiene casi tanta extensión, 1500 ks. como juntas Laburdi con sus 823 ks. y Zuberoa con sus 777 ks.» «Laburdi y Zuberoa» Segi, segi yaun idazleak, eta «radioz» mintzatzen direnak ere...

Irakhurle maitiak, barkha idazlanen hedadura.

Iruñen, 1935'eko Yorrailan.

(El Día, 1935/4/16)

NERE SORT-HERRITIK (Benabarreko eskuaraz)

Urthe guziz bezala ethorri niz aurthen ere sorthu nintzan xoko maitagarri huntarat, uda goxoki iragaiteko ene herritarren arthean, eta goizetik arratseraino mintzatzeko amaren altzoan ikhasi nuen elhe miresgarrian.

Nik gogo bihotzian ez dut yaidura bat bezik; eskuara, bethi eskuara! Gehiago ikhertzen ditut eskuararen erroak eta zoko mokoak, eta gehiago ohartzen niz bere edertasunaz eta aberastasunaz.

Sakhelan bethi deramat liburuxka bat, eta nere solasetan bazterretxetarrekin ohartzen badut zerbait itzulika, edo aditza molde zaharrak, paperrian ezartzen ditut, eta oharmen anitz baditut bilduak.

Benabarreko eskuaran, edo hobeki erraiteko, Garaziko alderdi huntan, baditugu aditza molde ederrak, eta nere ustez bertze tokitan ezagutuak ez direnak.

Huna ikhusbide batzu «Eman dikekoie» (le han debido de dar). «Hor duzkek» (deben de estar ahí). «Eman baiteztee» (porque les han dado).

Ohar zitezte, irakurleak, guk bi hitzez erraiten dugunarentzat, erdarak behar dituela lau edo bost, gauza beraren erraiteko.

Benabarreko eskuaran, ba eta Laphurdikoan eta Xuberokoan ere, anitz ibiltzen dugu aditza edo berboaren «indeterminado»a. Eska zazua (pedid); ikus diteke (se puede ver); ikhas zazu (aprenda usted); har dezatela (que cojan); ukha baleza (si negara); irakur zak (lee); ez dezala gal (que no pierda); eta holako bertze.

Ze aurkhintzak eta ikhusmen xoragarriak hedatzen diren ni bizi nizan etxe aitzinian!

Berrehun metro gure menperatzaileek ezarri zuten mugaraino.

Beste aldetik, Ondarlako hauzoa, dena bazterretxe xuriz bethea, izen pollitekoak. Udiri, Zeztan, Pelloenia, Ortxaiz, Gallurria, Behorlegi, Aldabe, Bixkai... pentze eta alhorren arthean.

Goitiago mendi mazelan, oihañak eta alhapideak, eta ardi eta behi arthaldeak hedatuk han-hemenka.

Eskuineko alderat, urrun, Astobizkarra kaskua eta Ibañetako lephoa, urdinak. Ezkerretik, Arnegiko erreka, eta haratago Uharte Garaziko bazterretxiak.

Yuan den egunian izan ginen Uharte ondoko bixkar batian, handik ikhusteko Doniane Garaziko ibarra edo harana.

Bizi nizeño ez dut ahatziko toki hartatik, ikhusi nintuen edertasun miresgarriak. Bazter guziak etxe eta etxez betheak, lau edo bost herrixka agerian, Izpura, Donazaharre, Azkarate, Uharte, Lasa eta beren eliza dorre xuri eta xorrotzak zerurat goititzen zirenak. Eta deneen hiri nausia, Doniane Garazi, hauzo ederrez inguratua, gudu gazteluaren azpian yaria, Benabarreko hiri burua, Naparroako seme suharrenak, benabaztarrak, 1512'an Duque de Alba'ren gudulariak zaphatu eta ohildu zituztenak, beharriak aphal itzularaziz Orriaga'ko mendietarat.

Eskuara ere, zorigaitzez, hasia da galtzen, haurretan, Luzaiden. Nahiz ez duten ahazten, lerratzen dira erdararat.

Bainan, badakizea zonbat karabinero ditugun herri ttipi huntan? Berrogoi! Eta orai, «guerra de tarifas aduaneras» horrekin, beste hamar berriak ekharri dituzte. Eta zubitik

harateko aldian, Arnegi'n? Zortzi, eta horietarik sei eskualdun...

Berrogoita hamar karabinero horiek, beren sendi edo familiekin; eta gero aduanako enplegatuak, poliziak eta beren emazte, biltzen direla hiru ehun arrotz, hurbil. Hea ze kalte izigarriak egiten dituzten eskuarari!

Bainan erran behar dut ere badela karabinero horien arthean, bat, nafar eskualduna, eta bere emaztea ere, lau hurrekin, denak etxian eskuaraz mintzatzen direnak. Berak erraiten zan egin ahalak eginen zituela bere haurrek ez dezaten gal eskuara. Ze gauza ederra holako ikhusbide edo etsenplua ikhustea!

Muga huntan gerthatzen diren gauzak nihun ez dira ikhusten. Ondaria'ko hauzua Frantziakoa da... bainan hemen, Luzaiden, bataiatzen eta ezkontzen dira, bai eta ehortzen ere. Gure hil errian dituzte bere hobiak, eta hil harriak, eskuaraz idaztiak, guk bezala.

Iruñeko aphezpikugokoak dira. Eta baditugu Luzaiden bi bazterretxe Baionako aphezpikoaren menekoak.

Hemengo aphezak (Luzaidekoak), horra nola ikhertzen dituen liburuan Undar'ako sortzeak, ezkontzak edo eriotzak; «de mi feligresía de Valcarlos»...

Eta Lasa'ko aphezak, aldiz, gure bi bazterretxe azkenak deitzen ditu «de ma paroisse»...

Horra ze nahaskeriak eta ondorioak sor arazi dituen arrotzek ezarri zituzten mugek.

Luzaide'n, 1935'eko Agorrilan.

(El Día, 1935/8/25)

EMAZTE KOSKAK (Benabarreko eskuaraz)

Lerro hautan errain dutana emazteez ez nuke irakurleek uste dezaten guziak lerro edo herrunka berean ezartzen ditutala. Yinkuak beira nezala holako ustekeriaz.

Ez. Hori etzait gogoratu ere, zeren eta baitakit emazte anitz gutiz-gehienak, zorionez, ez direla nik hemen mintzatu nahi dituenetarik.

Bainan badirela ere beste anitz eta anitz, arinak eta axola gabekoak, oraiko moda lizuneri aiherrak direla, hori itsu ez direnek ez dute ukhatzen ahal, frogak agerian eta berme ditugulakotz gure erranaren egiztatzeko.

Emazte horiek iduri dute debruak barnian deramatzela, gizonaren kitzikatzeko eta bere lizunkeriaren iratzararazteko eta sustatzeko.

Besoak eta lephoa bulharreraino eta bizkarreraino buluziak, bilhoa horitua eta izurra, bekhainak eta bethezpalak izunak. Soineko arinak eta behar ez diren lekhotan tinkatuak, barneko mamiak agerrarazteko.

Hots, erdi buluz-gorriak. Ba eta, bethi ari dira aitzina, zerbait debrukeria berri phentsatzen.

Aurthengo udan, zer uste duzie asmatu dutela? Zaia urratua, frantsesez jupe fendue deitzen dutena...

Eta zer da hori? Zer den hori! To, zaia aitzinetik, erdi erditik pikatia, idokia... azpi erditsuraino, nun ez den goitixago ere...

Debru sorginak! Badakite, ba, ibilzian eta belhauna aitzinatzen, buluzia agertzen delarik, gizonak han finkatuko diela behakoa, eta gero bere baithan errain, noraino heltzen othe da urradura hori?, ustez eta dena hola doala aitzina, hala ez izanikan ere, yakina.

Emazte koskeek horra zer lizunkeriak gogoratzen dituzten gizonaren gutizia tzarrak phitzarazteko.

Bainan, harrigarri dena, ez uste gero emazte horiek oro ahalgea arrunt galdua duten horietarik direla, sosian truk nornahiri emaiten direnetarik gorputza mozkin salgai eginik.

Ez; eta hau da deithoragarriena. Badira ere familia ohoregarritzakoak, nahiz aita-ama larderia gabekoak eta arinak, bere alabeer sobera haizutasun emaiten dazkotenak, moda itsusi horien ibiltzeko.

Eta nolakoak diren haatik emazte horiek!

Aphezek, aphezpikuek, eta Aita Saindua bera ari zaizkote erraiten soineko ahalgegarri horiek Elizak debekatzen dituela, gizonaren bekhatuzko bidea phizten dutela, behar den bezalako emazte girixtino batendako desohoregarri dela buluztasun higuigarri hortan ibiltzea, bekhatu gaitzian erortzen direla, eta nik dakita zonbat holako manu, aholku eta mehatxu.

Bainan denak debaldetan!!

Emazte horiek arraren kitzikatzeko nahia hain dute gogo-bihotzian errotik sarthua, nun Elizako mehatxunak eta beren ohorearen zangopilatzeak ez ditu dremendenik ere lotsatzen, eta bere bidetik baztertzen.

Horra zer den emazte koska, kraixturik gabe uzten dutelarik, eta bere biziaren kudeatzeko eskubidea haizu duelarik.

Ez dakit nork erraiten zuen holako emazteek gizonaren haizutatasuna balute, zuhaitzetarat igan behar ginukela hetaik ihes egiteko.

Hitz gordinak, bainan ez direla egiaatik urrun.

(La Voz de Navarra, 1935/11/7)

ESPAINIAN IBILIA (Benabarreko eskuaraz)

Geaxan, Eiharaberriko semia soldadogoaren egiterat ereman zuten, amaren besoetatik poiramen garratzenetan bazterturik, Espaiña barnian den hiri urrundu eta itsusi batetarat, izenez Albacete...

Auritzetik hego alderat etzien fitsik ezagutzen, eta lau egun gostatu zitzakon harat heltzea, Espainia guzia ibili ondoan.

Bi urthe hits han iraganik itzuli zen bere sortleku maiterat. Iduri zitzakon sorgin amets itsusi batetik iratzartzen zela.

Bere adixkideek, haren itzultziaren ohoratzeko egin zuten aparti eder bat ostatuan.

Untsa yan-edan ondoan, Geaxan, mahi buruan yarria, ari zen ihardesten adixkideen galdeeri, hea ze eskualdeak kurritu zituen, nolako yendeak ziren, eta beste xehetasuneri.

— To, erraiten dako batek, ohartzen nuk han beltzatu hizala.

— Eztuk bathere harritzeko, hango bero izigarriek lama kixkaltzen die.

Trenetik yautsi nintzalaik yendiak ari zitukan saltzen izigarriko ganibet batzu bi zehe luzetasunekoak, oihuka, «Navajas y puñales de Albacete»... eta idekitzean, karrask! egiten zitean.

Eta, futxo!, izitu nindukan ustez eta han denak ari zirela ganibet ukhaldika tripa lehertzen, eta tresna tzar hori ezinbertzezko beharrekoa zela yende heien arthian ibiltzeko.

Badakizie, gero, erdi moruak direla odolez, eta ohidurez.

— Eta bestenaz, hiri ederra dea, Geaxan, Ahalbatzete hori...?

— Arras itsusia eta zikhina. Sekhula ez dik eurik egiten, dena herrautsez estalia duk, karrika zolak lurrezkoak dituk gehienak.

Phentsatzen ahal duk ze garbitasuna izan ahal diteken hurik gabe.

Etxe aitzinetan yarriak, karrikan, erraztatzen dituk emazteak, ba eta bere haurren burutan ihizin... ibiltzen ere...

Hots, hemengo buhamiak bezalatsu.

To, behin ze irriak egin nitien eskola batheko haurrak ikhustean! Bazitean maiñu baten beharra! Soinekoak, phildetan: orthotxik, eta begitarteak, urthian behin ikhuziak.

Orhoitzen nindukan ba, gure bazterretxetako hurrez, menditik yausten direlarik eskolarat, hain garbiki yauntziak eta ikhuziak.

Bainan, hail, hail, holakorik han ikhustea...

Espainia barne hura ikhusi nuelaik harritu nindukan.

Han eztuk zuhaitzik nihonere ageri, ez eta phentzeik. Mendiek iduri die herrauts metak. Begiek hel-ahala, alderdi guzietan idortasuna eta idortasuna.

Nik etxikiat nola debru lakhetzen ahal den yendia eremu hetan.

Eta hango herriak ere araberrakoa dituk, beltz-beltzak, eta garbitasuna entzutez bakharrik ezautzen die...

Debrien bisaia! handik urrundu nintzalaik eta gure lurretan sartzian iduri zitzaitan ifernutik athera eta parabisuan sarthu nintzala.

Eskualdun guziek ikhus balezazte eskualde horiek, gehiago maite luzketek, ba, gure Eskual-herri miresgarria. Han dituk, han phizten eskualdungoaren phindarrak.

Hori litekek phitzgailu hoberena zonbait eskualdunen bihotzeko hotzetasunaren

suntsitzeko. Gure menperatzaileen eremu eta herri tzarpail horien ikhustea.

— To, hala uk, ba, Geaxan, ederki mintzo hiz, eta gauza berak entzun ditiat hego aldeko arrotz herrietaik itzuli diren eskualdun guzieri.

Alo, alo!, edan eta kanta dezagun Geaxanen eta Eskualherriaren ohoretan.

Eta basoak eskutan hasi ziren...

«Urzo xuria, errazu,

Norat yoaiten zira zu...»

Iruñen.

(El Día, 1935/12/22)

GAIZO ERRAMUN
(Benabarreko eskuaraz)

— Ze ari hiz hor, Pettan?

— To zohi atheratzen hurbide bat egiteko. Phentze behere horrek ez dik sorho hunik emaiten, eta busti-aldi bat behar dikoat eman.

— Ziek bethi gibelatiak! Aitzurtzen ari zizte, lehertiak, aberiak bezala lanian. Ameriketako laboraria ez duk izerditzen, ez eta eskiak zikhintzen ere. Lan guziak mekanika tresnek iten die. Gaizuak ziek bethi asto!

Debru fantesuntzia, Ehialepoko kaskuan, artzaian hindabilanian, marrakuku yaten, ez hintzan urguluz hain hanpotua! Kalifornian ibili zireztenek uste duzie gu harpetan bizi girela, behialako basa-gizonak bezala.

Ohoit adi hitaz, urde kasko harroa. Gain hartako etxolan artzain hintzalaik hirauk iten hintien taluak, athorak latsatzen, eta muthurra noizian behin bakharririk ikhuzten, yenderik ikhusi gabe.

Eta orai horiek dituka? Alaintso, ze puthiko yaundua yin zitzaukun lehengo artzain zirtzil eta xoil hura!

Enetako eta deneendako, hire soineko ederrekin, bethi izain hiz Errekagain-eko Erramun, artzaingoan biruna bizkarrian ibiltzen zena, arratsetan lastuntzi eta mihise gabeko ofian etzaten zena. Bana, errak, eta zer hintzan Kaliforniako mendietan hire arthaldia saldu artio? To, Luzaidekotan ez hien seurki han bezain bizitze salbaia ibili. Hemen bederen herritik hurran hintzan.

Denek badikiau, Erramun, ze ifernuko bizia deramaten Kaliforniako artzainek. Alhapiak urrundak, lau bost egunen bidia herri hurbilenetik haraano yuaiteko, arimarik sekulan ikhusi gabe, mortuan bezala. Hots, hik hire sortherriko bizitza hainbeste gutiesten dukan baino anitzez borthitzagoa.

Eta noizbait arthaldia saltzen balin baduzie, ah! ordian!

Juaiten zizte hirirat, eta han, soineko ederrak, xapela eta eraztunak erosirik, iduri zauzie yaun haundi bilhakatu ziztela, tarrapatan, goizetik arratserat.

Gizagaizo Erramun, ago hire heinean, utzik alde bat haundikeria horiek, eta bizi hadi lañoki, urgulutan sartu gabe.

Bestenaz, maltzurrek eta faltsuek lausengatuko eta balhakatuko hute, gero hitaik baztertu bezain laster trufaka erraiteko heen lagunuen arthian.

— To, sekulan ezinikan sinhetsiko ze heineraino harrotu den gaizo pullo hori. Ai, urde zorri-phiztia, noizbait nahi ez ditienak entzunen ditik, eta lehergarriko irriak inen ditiauk haren gain.

Beharbada borthitzki eta soberaxko deblauki mintzatu nuk, Erramun, bainan gure haurdanikako adixkidantzak mihiaren laztzerat bortxatu nik, ez bainezake yasan hitaz in dezaten errakaitu irringarri bat, deneen yostagailu.

Nahi balinbaduk bizia bakhian iragan, ago hire lerroan, eta izarian, eta guziek maitatuko hute.

Barkatzen dituka ene hitz ausartak?

— To, ekharzik bost horiek, egiazko adixkide bat hiz, Pettan, eta hire aholku zuhurak yarraikiko ditiat bizi nizen.

Holako elheketa funtsezkoek zintzurra idortu baitaukek, gauazen arno zahar

buxuinatua dutan bathetaik xortaño bat yastatzerat. Hauta duk, eta bihotza altxatzen dik.
— Guazen ba, Erramun. Sosduna hortan ageri duk, to!

(La Voz de Navarra, 1936/1/29)

VI. ATALA
EUSKARARI BURUZKOAK

NAFARROKO MINTZOIRAZ

Barka nezazie, irakurle onak. Baxenabarrako eskuaraz idazti lerro hauk, baina Eskualherriko bertze mintzoetan trebe ez izanik bakotxak ez du emaiten ahal berak dakienatik kanpo.

Eta gero ere ez othe zen Iruñen leheneko denboretan Baxenabarreko hizkuntza mintzatzen? Nik bederen hori uste dut, zeren eta gelditu diren hatzak eta hitzak hala sinetstaratzen gaitu. Mihi, ttipi, yaundone, mukurru, gaitzuru, eta holako bertze. Baina lan hori utz dezagun gizon argitu eta yakintsuenen eskuetan eta goazen aitzina gure asmuan.

Denek dakigun bezala azkeneko sei zazpi urthetan debekatua ginuen ezpañetatik yalitzea gure aita amen mintzaira, gure sor elea, baina orai gobernuak lazoago uzten du uztia eta poxi bat mintzatzen ahal gira haizutasunarekin. Iraun dezala bethikotz.

Izigarri da nola suntsitzen ari den gure eskuara ederra. Patar behera legun batean bezala badoa, ikharagarriko zalutasunean, denek bazterturik, alde bat utzirik, gupida eta amodiorik gabe holako mintzaiari, hain haundizki goretsia gizon yakintsuenaz. Bai, hori da egi borthitza, latzgarriena, hitsena gure herriarentzat, zeren eta mintzaia gogoaren miralla balinbada, hura galduz geroz guhaur gure etxean arrotzak izanen gira. Ba ote da ahalgegarrikorik?

Zorionez, bozkario izpi bat heldu zaizkigu hertsura huntan. Gizon Eskualdun huts batzu, batasun bat eginik Euskeraren adiskideak deitua, iratzartus dire eta barneko suharra ezin atxikiz alferretan, hor ditugu lan ederretan abiatuak gure eskuara maitea piztu eta hedatu nahiz.

Uste dugu aurthen ere yazko eta aitzineko urtetan bezala zerbait eginen dutela herrixka horietan gure mintzaira eta ohiduren alde.

Alo, berma hor, yaunak, gu hemen gira zuen laguntzeko poxi bat gure ilabeteko sariarekin.

(La Voz de Navarra, 1930/6/15)

LIZARRAKO ESKUALTZALEAK (Benabarreko eskuaraz)

Gerthakari dohatsua eskualdunen eta Eskual herriarentzat Lizarran erabaki duten yaunek Eskualtzale Batasun bat eraikitzea. (Patronato Vasco deitua), beren arbasoen mintzai ederra ikhasteko, altxatzeko eta hedatzeko eskualde hartan.

Ikusbide miresgarria gure ariako aslai horiek emaiten dautena, azkenian iratzarturik bere nagitasunetarik, yarraikitzeke kartsuki eskuararen alde, bere odoleko mintzoa errepiztu nahiz. Guziek dakigun bezala, behialako denboretan, aitzineko mendetan, Lizartar guziak eskualdunak ziren, beren deiturak eta beren eremuetako izenak frogatzen dituguzten (sic) bezala.

Bainan ni ausartatzen niz erraiterat eskualtzaile suhar horier ikas dezaten Naparroako mintzoa. Ez beste eskualdeko batetakoa, anitz ikasle berriek egiten dutena.

Nahiz Naparra barnean berean badiren zonbait motako mintzairak, hor dugu Ulzamakoa, hain ederra, hain hutsa, eta hain gurea. Baita ere Esteribar, Erro ibarkoa, edo Baztangoa. Bainan ez giten ilki gure etxetik guhauren artean dugunaren xekatzea.

(La Voz de Navarra, 1932/2/3)

EUSKEL-SOLASA:
BERRIZ, HIRU LAGUNER

Lehenik nahi dut aithortu zuen Sararaitzuko (sic) mintzaira pollita arras maite dutala, nahiz zonbait hitz eta inguru ez dutan ulertzen. Eta hori gerthatzen zait zuen idazkian nere heinean hitzetik mintzo zireztelarik. Ez dut ulertu ahal.

Mintza giten zuen goiztar eta egin hortarik. Guk erraiten dugu, Hi mintza hadi eskuaraz; ez, I, egin eskuaraz. Egin, hacer, gure artean. Zuek goiztar egin duzu. Guk: zalhu egin duzu, (zalhu, pronto) Zuek: zer goiztar yaikitzen zade. Guk: zein goizik yaikitzen zira. Zer hori erdaratik hartua iduri du. Benabarren erraiten dugu: Zein goiztiarra ziren, que madrugador es V. Lusagar goiztiarra, patata temprana.

Nere paperan idatzi nuen, mintzatzen den araberan, ez arabean agertu zen bezala. Arabera, segun, conforme. Arabeala ez dut sekula aditu.

Nik etzituztet xehakatu (yinkoak beira nitzala, ez eta ere makil ukhaldika umatu. Zuen xixtari ihardokitzeko nik ere hartu dut nere akuloa. Bakotxa yazartzen da ahal duen moldez.

Ez dea gathua ere erroz-gora etzanik oldartzen bere azazkal zorrotzekin kitzikatzen dutelarik? Nik ere berdintsu egin dut zuen zimikoari, baina samurtu gabe.

Nere eskualkide onak, ulertu ahal dukekizue ere hitzak lañoki erran ditutala, herrarik gabe amultsuki, halako alegia puxka batekin bezala.

Lerro hauk urhentzerat noa, eta ohartzen niz, gogotik yoanik, enizala mintzo zuen Yakitun-kideetarik: ahanzkorra bainiz, eta buru ahula.

Yakitun, Bizkaiko hitza da. Zuek diozute Yakitun-kideak, sabios erran nahi duela. Gure artean Yakintsu erraiten dugu. Zertako yoan kanporat etxean dugunaren bila?

Barka, yaunak, laidostatu bazituztet ezinustean.

(La Voz de Navarra 1932/5/12)

ZUBEROKO ESKUARA

Zonbat aldiz ez dugu entzun Xuberoko eskuara arras nekez ulertzen dela. Eta guk bederen aste guziz irakurtzean Baionako Eskualdunan eskualde hortako idaztiak, ikusten dugu zoin arinki ezarria eta hedatia den omen edo fama hori. Bai; nola ukha badituela hitz batzu, haboro (gehiena), heben (beren), arra (berriz), egartu (yasan), eta holako bertze zonbait guri bitxi zizkigunak. Bainan mintzaiaren mamiak, inguruak, erroak eta ithurburuak baxenabartarrekoak dira huts-hutsak. Guk Luzaidekoek, garaztarrek eta aldudarrek errexki ulertzen dugu; eta hemen berean, Iruñen, ari niz egun guzietz solasian xuberotar batekin, biak buruz buru, bathere nekerik gabe, legunki, trebeki.

Ba eta, futxo! etzait gauza bera gerthatzen gipuzkoarrarekin, erdizka baizik ezin ulertuz. Eta Naparroan, hain eskuara ederra izanik ere, Iruñarrak ari dira gipuzkoarraren ikasten!

Orai yiten zait gogorat, zer egi haundia erran zien Mr. Lacombe-ek «Revista Internacional de Estudios Vascos» delakoaren zuzendariak, solas batean, Iruñeko eskualtzale batekin. Yaun horrek erran zakon huni Frantzia aldeko eskuara mota guziak Napartarrak zirela. Laphurtar, Xuberotar eta Baxenabartar, denak bat, guziak ama berekoak, ohantze berdinekoak, seaska batekoak.

Lakonbe-n aitzinetik beste eskualzale barri (sic) batek omen haundiko gizona eskuarazko lan horietan, Mr. Saroihandy-k (damuz, berriki hila) erran zien etzela bathere ta lapurthar mintzorik, zeren eta horgo mintzaira Napartar hutsa zelakotz. Ba eta hori normahik frogatzen ahal du «Eskualdunan» irakurtzean Laphurdiko idaztiak. Hitzez-hitz Baxenapartar ber-bera da.

Horra ba, mendiz haundiko, Bidasoz bertze aldeko eskualde guzietako eskuara dena bat, Xuberotarreko hitz zonbait alde utzirik. Beste ohar bat ere egin behar dugu, erranez zer irudi haundikoak diren Erronkariko eta Saraitzuko eskuarak gure Baxenabarrekoarekin eta Xuberotarrarekin. Behin agertu zen VOZ DE NAVARRA huntan berean, Orontz, Saraitzuko herrixka bateko idazti bat, eta harritu nintzan zer eite haundizkoa zen Luzaidekoarekin, eta loriatua nagon iduri hortaz.

Azkenekotz lerro hautan nahi dut, beraz, oharrarazi zer hedadura nasaia duen Naparroako eskuarak, Laphurdi, Xuberoa, Baxenabarre, Erronkari, Saraitzu, Aezkoa, Ultzama, Basaburua, Baztán, Esteribar, Erroibar, Artzibar; guziak erro berekoak.

Ba... bainan Iruñarrak gipuzkoarra ikhasten, eta nahiz, goitiago erraten dugun bezala, erdia ere ez dugun ulertzen, zonbait aldiz, hitzak banazka yakinak izanik ere, asmatzen dugu zer debru erran nahi izan othe duen eskualdun berriak. Bizpahiru aldiz irakurtzen dut, eta ezin argirik athera, edo biziki nekez.

Burua gogorra baitut, naski.

(La Voz de Navarra, 1932/10/18)

ESKUARA ERREKARAT?

Deithoragarri da herri eskualdunetan ikhusten duguna. Erdara, arrotz mintzoa, nagusitzen ari da egunez egun, erdeinu eginik gure mintzaira ederrari.

Odoleko deiari ukho egiten da eta nolanahi erortzen dira arrotzen azturetan eta mintzoan. Gazteriak, eta bereziki nexkatoak, beren herrietan ikhusiz andere kanpotiarrak azken modazko yauntzietan, lilurutzen eta xoratzen dira aphaindura eder baten aitzinean. Edergailuak, lephoa eta besoak buluziak, biloa motz, zaiak labur; horra herrietako nexkeen begiak larrituak, zerbait miresgarri balitz bezala. Eta gero, futxo, nola ez heier yarraiki urrats eta ele guzietan, nola mintza gure ele arruntean, arrotza ikhusirik bere ahotik badariola elhausturia burrustan, zaluki eta legunki? Ez, diote, eskuara sukhaldeetik kanpo ez daike athera. Bego han, supazterrian, atsoentzat, zaharrentzat. Horra nor diren egiazko eta lehenbiziko hobendunak gure eskuararen galtzeaz. Nexkatoak.

Emakumeak, zer lan ederra egiten ahal duzien gaitzari ihardokitzeke, zien ikusbide edo exempluarekin!

Muthikoetan ere holako zerbaitu gertatzen da, bethi kanpotiarrari atxikia, heien eleak eta hitzak nahiz ikhasi, zozokerian tetelduak, ustez arrotzak baduela munduko yakitate haundia, eta berek, herritarrek, adimendu itsua dutela, ilhunbetan bizirik. Ez da beraz, haundi eskuara gutietstea, bere solasetarik ohilduz, baztertuz, zerbait okaztagarri eta higuigarritik urruntzen giren bezala.

Eta harritzeko da nola herrixka batetarat lau, sei arrotz yinez geroz, berehala gazteria guzia beretzen duten, heieri so, ahoa zabaldurik.

Ba eta gero, zertako ez aipha ere aphezek zein guti axolarik duten eskuararen ganik, beren elizako predikutan erdarari lothurik herri arras eskualdunetan, guhaurek ikhusi dugunez asko aldiz? Eta, zertako hori? O! hiruzpalau entzuliari erdaldu elizan badirelarik. Eta herritarrek, gehienak, han daude aphezari so, hitzik ulertu gabe.

Errientak edo maestroak ere hobendun haundiak dire eskuararen iraungiaz, guziz gehienak etsai gorriak baitire. Eskolatik kanpo, karrikan, haur ttipi ala tarrotuer debekatzen dituzte eskuaraz mintzatzea hau ere gure begiez ikhusia dugu. Lekuko gira.

Eskuara itsabasitzetik beiratzeko, ene ustez, lan hoberena ditake gizon eskolatuak, eta halaber andere gazteak, mintza ditene bethi eskuaraz herritarrekin, zeren eta ikhusbide hori ikusiz ahalgea eta lotsa yuain zaizkote, eta berehala lothuko dira eskuarari. Zonbat aldiz ez gira ohartu hortaz, guk gauza bera eginik.

Emakumeak, emazue hor, lanari; mintza herri eta herrixketan eskuaraz nexkatoeri; ohil zazue heien herabea, goraki atxikiz eta hedatuz gure mintzaiaren edertasuna. Ohakoako mintzoa ahanzten edo baztertzen duenak, bere gogoa, bere baita, bere izaitea bertzelakatzen du, eta arrotz bilhakatzen da bere kidekoen artean. Horra eskuara ahantztearen ondorio hitsak.

Gauden eskualdun Eskualherrian.

(La Voz de Navarra, 1932/11/10)

IKHAS GURE MINTZOA

Usuki ikhusten dugu eskual herriko seme erdaldunak, eskuararik hitzik ez dakitenek, eta bizkitartean bethi ari zaizkit aithortzen zein haundia den beren amodioa gure mintzairi, goresmenik bizienak eginik bere edertasunaz. Bainan hitzak haiziak eremaiten ditu eta ele pollit horiek mihitik barne ez dira sartzen, ezpaineak kartsuki erranak izanikan ere. Nun ditugu amodio horren frogak?

Egiazko eskualdunarentzat eginbide baitez padakoa behar liteke izan gure mintzaiaren ikhastea, oroz gainetik, berari leihaturik gogo eta bihotzeko khar beroarekin. Ordian bakharrik sinets ginezake heien amodioan. Anartean, beren hitzak, hain ederrak ahoan, alegiazkoak eta funtsezgabekoak iduri zaizkigu.

Ez dira, ez, denak nagi eskuarari buruz. Ezagutzen ditugu Iruñar zonbait, lehen hitzik ez yakinikan, eta sutsuki berari bermatu ondoan zoin polliki eta errexxi mintzatzen diren eskuaraz. Ohore heieri! Eskual-herriko seme erdaldun guziek lan hori bera egin balute, zer itzulika eman dezaken gure herriak, zer ondorioak gure ethorkizunarentzat! Bainan aithor dezagun, halere ez girela etsitzen, ez girela arrunt umikorrak, ikhusiak-ikhusiz, nola oraiko egunetan gure mintzaiari lehiatzen diren, egundaino ikhusi ez dugun neurrian; eta ethorkizun eder bat igurikatzen ahal dugu ephe laburrik barne. Urthetik urthe ari dira emendatzen ikhasleak eta erakhasleak. Haurrak eta gazteria tarroa badoa trumilka eskual eskoletarat. Bost ehunetaraino abiatu omen dira aurthen. Ikhusi othe duguia sekula holakorik?

Ene urgulo eta yaidura haundiena da gure arraza edo ariako mintzaiaren yakitea, eta nihauk ere anitz ahantzia izanik, hainbeste urthe Iruñen egon onduan, yarraiki nintzan arraberritzerat eta zalusko ardietsi nuen, zeren eta eskualdun herri hutsetan sorthu girenek ez dugu lan haundirik egin behar hortarat helzeko. Badugu barne zokoan zerbait gure haur denboretan ikhasia duguna eta ez dela oraino arras itzalia, hautsaren pian den pindar kukutuan, iduri sua errepizten dena, barreatzen eta buhatzen balinbadugu doi bat.

Egiazko eskualdunak oroz-gainetik behar du yakin bere mintzoa, eta egin-ahalak egin asmo eder horren ardiesteko.

(La Voz de Navarra, 1932/11/18)

ESKUALDUNA

Bethi eskuararen goreseteko eta hedatzeko xedean baigira, erran dezagun hitz batzu Baionako Eskualduna astekariaz.

Badu berrogoitabost urthe agertua dela, ez baita atzo, eta adin hortaraino heldu izan bada, beren zuzendari eta idazle argitu eta khartsueri esker du here bizi luze eta osagarri hunezkoa.

Hain da ederki moldatua eta idaztia, idazle hoberenatarik nun ez daike eskutik utzi, eta ez da harritzeko bere hedadura haundiaz irakurleak igan diren hamabost mileraino.

Baina oraino harriarriago dena, irakurle oste haundi hori eskualde tipi hartakoak dira gutiz gehienak, ezen yakina da, Laphurdi, Baxenabarre eta Xubero, Eskualherriko laurden zatia dela, han nunbait.

Zer ikhusbidea mendiz hunaindiko eskualdunentzat!

Gipuzkoa eta Bizkaia alde bat utzirik, zein gibelatuak giren, hemen, Nafarroan, eskuararen errepizteari doatzikon lanetan.

Kaseta edo izparringi baten botherea edo ahala ain da haundia nun ez daiteken neurritu zer mirakuluak egiten ahal dituen eskuararen beiratzeko, atxikitzeke, eta hedatzeko.

Baserritarrak eta herritarrak bere eskuetan izanez-geroz kaseta eskualduna, ez du batere erdeldun izaki beharrik munduko berriak eta lurgintzako gora-beherak yakiteko. Hori da, beraz, phezoin azkarrena eta baitezpadakoa eskuarako etsaiari ihardokitzeko; kaseta eskualdun bat. Horra eskuararen egiazko zaintzalea, sekula ez ahantzteko eta betiko iraunarazteko.

O! Asma dezagun poxi bat, orai ehun urthe, eskuara Nafarroan hain hedatua zen denboretan izan baginu egunkari eskualdun bat zer ondorio miresgarriak ez ginezazke ikhus oraiko egunetan.

Berrehun herri erdaldun, eskuara arrunt galdua dutenak, oraino eskualdun hutsak litezke, zeren bere kaseta eskualdunarekin ez lukete batere behar arrotz mintzorik mundu guziko berriak yakiteko eta errelisioe, lurgintza eta bizi moldeko ikhasbideak yarraikitzeke. Hori da Baionako Eskualdunak egiten duen lana. Luzaiden (ene sortherria) bazterretxe geihenetan, bai eta ere karrikan, irakurtzen dute Eskualduna, eta hortakotz batere ez dute beharrik kaseta erdaldunak, harekin baitakite behar dituzten guziak. Beren Ameriketako haurride, seme edo ahaideri bethi eskuaraz idazten dute, berari biziki trebetiak baitire.

Horra nola ez duten eskuara galduko; irakurtzeari esker.

Ene ustez Nafarroan lan hoberena ditake haurren artean, eta eskolak eraikiz, beren eskuetan ezarriz, tarrotuak direnean, kaseta eskualdun bat, lakhet ditene irakurtzeari beren mintzairan eta hartan khausi dezaten erakaspen guziak.

Eta ohar bat yiten zait gogorat. Zertako ez bateratu Nafarroako mintzaira guziak, eta zertako ikhasarazten dugu gipuzkoarra, hain ederra dugularik etxean, kanporat yuan gabe?

Nafartarrek untsa yakin nahi balinbadute eskuara, irakur dezatela Baionako Eskualduna, mintzaira ederrenean eta garbienean idatzia hango idazle hoberenez.

(La Voz de Navarra, 1932/11/29)

ENE ADIXKIDEERI

Irur lagunak, Aguerre tar Anastasi, Mendixuri, eta Campion yakintsunak, alde batetik; horra berriz Gibel-aundi Xerroxin, eta Irular, galdegiten daukutenak yarraik nadin ene sailetan gure mintzairaren alde. Milesker deneri bihotz zolatik.

Nola atxik ene hitza izparringi huntan gehiago ez idaztekotan?

Zuen oneziak eta amultsutasunak garhaitu nute, eta berriz abiaraziko naute eskuarazko lanttoetan, orai artio bezala.

Ez nakien bathere eskualdun berri mulxo bat bazela gordetua, barrandan bere zokotik, ahierkunder bezheak, harrigarriko neurriraino gaizkorrak, akhulu zizta baten gutizian.

Zer erran nien ene idazki hartan heien bihurria minberatzeko, beren yaidura tzarra sumintzeko? Eskualdun berriek badutela bortxaz beren mintzaira eta idaztietan, halako gogortasun bat eta haren leguntzeko eta eztitzeko yuan behar luketela urthe-bakhotx denbora baten iragaiterat herri eskualdun batean, eta berehala ikhusiko luzketela ondorio miresgarriak. Yende horiendako afrunt gaitza, hori!!

Nihauk erran dut bizpahiru aldiz hemen berean, zertako dauden ixilduak eskualdun berriak, beren idaztiak agertu gabe. Eta nehor ez da bozkariotzen ni bezala norbait abiatzen delarik idaztio batekin. Atsegin goxoenarekin ikhusi ditut lehenbiziko aldiz Gibel-aundi eta Xerroxin, beren idazti arras pollitexan.

Bainan ohar amultsu bat ez da herra eta oldar gorriarekin ihardoki behar, hitz larriak oihukatuz, eta egia ez diren gauzak erranez eta hedatuz. Eta gehiago dena, hek beren izenak kukutuak izengoitiaren gerizan, eta ene izena yakinikan, ni agerian, beren pezoinetik hirristu dremendenik gabe harri ukhaldika, eskua gordeturik.

Yauntto horiek yoko pollit horri esker nahi izan dute deneer yakinarazi gizon urguluntzi-hanpurutsu bat nizala, eta idazti azpiko hitzak ezartzen dituztala yendearen harritzeko... ba eta ere ene mintzaira yitu edo buhame eleak direla!!

Zer pertolikeriak, itsuskeriak... eta gezurrak ez dituen erranarazten ahierkundeak, liphistan ari direlarik yende gaitzikorrak! !

Ene adixkideeri nere esker beroenak, eta samurtu gabe ar giten guziak lanean gure eskuararen xutitzeko sailetan, bakhotxa bere heineko ahalaren arau, denak bake eta laguntasun hoberenean, gaitzitu gabe eta gibel-asmurik gabe, deplauki eta leialki mintzatuz.

Guazen beraz aitzina, sathorrak utzirik bere munutsetan...

(La Voz de Navarra, 1933/2/28)

LIBURUXKA YORI BAT

Erraiten ohi da liburu ttipietan haundietan baino gehiago ikhasten dela, zeren eta lodiegi direlarik nagitasun eta izidura poxi batek nausitzen gitu, ustez eneatuko girela, ahamen haundiskoa delakotz. Bainan, ñimiñoak direlarik, errexki iresten ditugu.

Yateko gutizia haundirik ez duenari berdintsu gerthatzen zaio, aphairu haundi bat ikhusten duelarik mahain gainean, asmatuz yaki hek guziak iretsi behar dituela. Eta gosea ttipitzen edo itzaltzen zaio, nun ez duen iguintzen eta okhaztatzen begi aitzinean dituen hazkurriak. Bizkitartean, zati poxika bat bestearen ondotik emanik, handik izpi bat, hemendik bertze miko bat, azkenian yaten du uste ahal zuen baino gehiago.

Horra zer gertha ahal ditaken irakurle nagieri Eskualdunen Loretegia-rekin, Pierre Lafitte jaun aphezak, Ustaritzeko apezgaitegiko eskuara erakasle aiphatuak idaztia.

Hauxe da liburuño goxua eta mamitsua! Eskuetatik ez daiteke utzi, hain da ederra bere eskuara, eta gero zathi guziak aitzineko denboretako eskual idazle hoberenatarik hartuak, bakotxa Lafitten ohar argituak azpian.

Hasten zauku Bernat Detxepare-kin, eskual idazleen artean lehenik abiatu zena gure mintzaiaren hedatzen liburutan. Bere Linguae Vasconum Primitiae da lehenbiziko liburu eskualduna, 1545-ean argitaratua. Nafarroentzat ohore haundia, ezen gutarra baitzen, Benabarrekoa, Ehiaralarren sortua. (Ene sor-herritik hurbil, auzokoa erran ditake).

Axular haundiaz ere mintzo da, nola ez? behialako eskual idazle hoberena, aiphu haundikoa, eta denek haren Gero miresgarrian ikhusbide eta ikhasbide hutsenak eta garbienak aurkitzen dituztenak eskualtzale yakintsunek. Hau ere Nafartarra, Urdazubin sortua, bere aphezgoa Iruñen egina, nahiz bizi gehiena Saran iragana zuen, hango elizako erretorgoan. Huna Axularren egi hits bat, «Baldin egiten balitz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, frantzesez edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere, eta baldin hala ezpada euskaldunek, berek dute falta, eta ez euskarak».

Bethidanik eskualdunak bere mintzaira gutiesten!

Alo, eskualtzaleak, lehia zitezte liburutto eder horren eroaterat: hor kausituko dituzie erakaspén ederrenak zathi laburretan, eta ez eneatzeko gisan eginak.

Lafitte jaunari goresmen bizienak igorri ondoan, hemen gaude aiduru noiz agertaraziko othe duen Euskaldunen Loretegia-ren bigarren zathia, lehiakara erosteko, eta haren sail mamitsuetan goxatzeko eta loriatzeko. Yin daila zalhu.

(La Voz de Navarra, 1933/3/12)

ORAIKO ESKUARA

Nor nahiri galdegiten balinbadugu (alde bat utzirik gure mintzaiaren gora-beheretan yarraikiak direnak) hea noiz uste duen eskuara garbikiago idazti den, lehengoen artean edo oraikoetan, ezbairik gabe ihardetsiko daukute aitzinekoak hobeagoak zirela.

Eta bizkitartean ausartatzen gira erraiterat ez dela hala, nahiz erran hunen sinetsaraztea arras neke ditaken gehienentzat.

Guk erran nahi duguna da, lehengoek hitz arrotzak nasaiki ibiltzen zituztela bere idaztietan, eskuarazko hitzak ukhanikan ere bere xede eta asmoren argitzeko, alde bat utzirik gureak.

Eta hain eskualdun garbiak izanik behialako idazliak, zertako ibiltzen zituzten hainbeste hitz erdarazkoak? Ohar huni ihardesteko luzexko beharginezake mintzatu; bainan erran dezagun laburzki, latin, frantses eta espainiako mintzaira erdareri, arras lothuak eta atxikiak zirela denbora hetan ustez eta pollitagoak ziren hitz arrotz horiek. Orai ere hortaik bada zerbait.

Axular-ek berak, garbiena izanikan ere denen artean, zonbat hitz erdaldun ez ditu bere Gero aiphatuan, yakinikan ere berak bazirela gauza bereko eskuarazko hitzak.

Trabailua, borondate, mantenua, lengoaia, intencione, lana, onezia, hazia edo hazkurria, mintzaira eta xedea-ren ordeztu ibili zituen ausarki. Deithoragarri da bainan egia ere lehengo idazliak hobendun direla eskuarar eratzikiarazteaz hainbeste eta hainbeste hitz kanpotiar gure mintzaira ederra emokatuz ilhunduraz bere garbitasun disdiranta.

Ni aspaldidanik ohartu nintzan hortaz, eta horra nun gauza bera erraiten daukun Lafitte yaun aphezak, eskual idazle miresgarriak, bere Eskualdunen loretegi liburutto ederrean. Ohar hori argitarazteko emaiten dauku liburu hortan parrez-par Leizarraga eta Duvoisin-en Evangelioaren zathi bat eskuararat itzulua, bakotxak bere moldean; ikhusarazteko, berak dion bezala, nolako bidea egin duen eskuarak hamaseigarren mendetik hunat.

Bainan horrek erran nahi ahal du behialako edo aitzineko idazleak gutietsi behar ditugula? Neholere.

Idazti eder horietan, bereziki Axularren, kausitzen edo aurkitzen ditugu ere anitz hitz galduak edo baztertuak direnak, bai eta ere inguru ederrenak eta hutsenak mintzaiaren mami berekoak, trebeki eta legunki erranak, dakienaren nausitasun eta aisetasunean.

Eta harritzeko da nola hamaseigarren mendetik geroztik zoin guthi aldatu edo bertzelakatu den eskuara. Etxepare edo Axularren mintzaira oraiko ber-bera iduri zitzaigu, Garazi aldeko edozoin atso ezpainetatik atheratzen dena, elhausturia ahotik burustian badariolarik... miko! No soberaxe xurgatu ondoan.

(La Voz de Navarra, 1933/3/25)

ODOLAREN LOKHARRIAK

Azken egun horietarik batez bidaia labur bat egin nuen bazkalondoan, autobus batian lekia harturik, eta kausitu nintuen ene ondoan bidaiant lagun, bi eskualdun: bat gipuzkoarra, aspaldian Nafarroako ipharraldean bizi dena, eta bestea baztandarra. Heien eskuara solasian sartu nintzan berehala, eta gizonak bozkariatu ziren ikhustean nola señoritoak ere badabiltzala eskuararen alde, bathere gutietsi gabe gure mintzo ederra, bainan goresteketan garraitia berari.

Nik bi eskualdun kausitzen ditutalarik bere mintzoan eleka, berehala lotzen niz heiekin solasian, hori baita ene atsegin goxoena. Eta aldi huntan ere hala nahasi nintzan beren solasaldian.

Horra beraz, hiruak danba, danba, eskuaraz; ni bethi bezala ikhusarazten gure elearen edertasuna eta bere hitzketa nasaia. Europako hizkuntzen artean nasaiena bere baitako hitzetan.

Eta ikhustekoa zen nola hiruak elgartaratu ginen, bihotzak haizu utzirik, anaitasun hunkigarrian. Bainan, zer du gure minzairak, gure yendaki edo arrazak, gutarrekin aurkitzen girelarik berehala gure baita erakusten dugula, gure barneko atheak zabal-zabalak idokitzen, yitea eta izaitea agerian ezarririk?

Odolaren deia! Zer indartasun neurrigabekoa duen, zer lokharri azkarrek dituen eskualdunagoak, hain tinki atxikarazteko gutarteko estekamenduak!

Ene bidaia laburreko gaizo lagunak harrituak eta loriatuak zauden entzuteaz ene laudorio haundiak eskuarari eta gure arrazari; eta berek erraiten zauten: Ba, ba; eskuara bezalakorik ez da eta eskualdarrak munduko gizon adoredunenetarik, lehenbiziko herrunkakoak.

Doi bat eskolatuak giren eskualdunek behar ginezake asmatu zer ikhusbide eta ondorio ederrak eman dezazkeen yaun edo señorito baten mintzatzeak kartsuki eta suharki yende xeheen artean, gure mintzai ederrean, zeren eta hek ikhustean yaunek gohoratzen eta onhesten dutela, asmatzen dute aldiz ez ditakela hain gutiestekoa nola sobera ardura aditzen duten bezala zonbait yendexkilen artean.

Hitz batez. Eskuararen gohoratzea eta hedatzea hiri aundietarik abiatu behar dituke. Herriak eta herriak etzuketean gordeko eskuara, ustez eta artzainen elea bakarrik denetz, eta guri yarraikiko ziren. Ikhus dezatela ohore haundian dugula gure hitzkuntzaren mintzatzea, kopeta xut urgulluz, ez burua aphaldurik bihotz xumeen arabera.

Hori eginez pitzaraziko dugu odolaren deia, den lokharri azkarrena zernahiren ardiesteko.

(La Voz da Navarra, 1933/3/28)

LARREKO ADIXKIDEARI

Atseginekin irakhurtu dut zure atzoko idaztia zointan erraiten zinuen nola norbaitek ohartarazi zintuen nik ibiltzen dutala laborari hitza nekazariaren ordeztu, bekhatu itsusi baten hobendun izan banitz bezela.

Badakizu eskuararat doi-doiak abiatuak direnak (ez othoi uste zure ohartzaleaz mintzo nizala) arras minbera direla eskuararen garbitasunarengatik. Eta horiek ez dutela ene eskuara arrunt ulertzen, zeren eta ikasle berriak izanik, oraino mendiz haraindiko mintzoa gutiago ulertzen ahal dute, eta hortakotz bethi oharka ari dire.

Baina zer nahuzu, halere ausartatzen niz ene luma haizu ibilaraztea, heien barkamenduarekin, eskuararen amodioz.

Gure artean nekazari hitzak deus besterik ez du hau beizik erran nahi, erderarat itzulirik. Dificultador...

Baditeke laborari, guk ibiltzen duguna, latinezkoa denetz, ezen hala iduri du, bainan guk hitz hori utzizkioz bertze bat ibil ginezake. Lurgintzaria.

Labore, labe eta orhe-tik egin edo osatua dela diozu, eta hala iduri du, doi bat oldoztu ondoan. Bainan emazteki harrek erran zielarik «gaur laboreak ditugu», ez othe zuen erran bahi «gaur lanak ditugu»?

Eta, nola bertzalde, eratziki, nola elgartaratu labeko lanak lurgintzako lanekin? Onhart ditzazu ene agur amultsuenak.

(La Voz de Navarra, 1933/3/31)

ESKUARAREN IDAZTEAZ

Lerro hauk abiatu baino lehen yuan dalla aitzinetik aithormen bat, deblauki errana, gaitzikorrek ez dezaten uste heien makhur xuxentzaile edo kitzikatzailea nizala bakharrik.

Aithortzen dut nik ere denen araberan badituala nere hutsak, eta ene herriko baserritarren ondoan, mintzaiari doazkon trebetasunetan anitz ikhastekotan nizala; bai eta ere heien artean yakintsun hoberenarekin baino gehiago argitzen dutala ilhuntasun zonbait balinbadut.

Anitzek uste dute eskuara entsa idazteko aski dutela hitztegietako hitz guziak yakinez gogoz edo apuñatik. Eta ez da bathere hala.

Ene ustez hitzen ikhastea bezain beharrezkoa da aditza edo verboa, egindura, eta itzuliak eskualdunki ibiltzea, zeren eta hitz batek hitzaldi batean erran nahi duena, beste batean, bera, lekhuaz kanpo da, funtserik gabekoa.

Ikhusbide anitz ezar nezazke hemen, bainan irakhurleak enhea ez ditzen herabez ez ditut lerro hauk luzatu nahi hedadura haundiskoa emanik ene oharreri.

Buru-hausteak izan ditut zonbait aldiz idazti batean hitzaldi bat ezin arras ulertuz, bere itzuliaren ilhundura ezin argitaratuz, xuxenki yakiteko zer erran nahi othe zuen, eta ardurenik azti batek bezala bere mamia athera beharrez.

Hortakotz erran dezagun berriz ere, behin bethikotz, baitezpadako eta ezin utzizko beharra dela urthe guziz iragaitea ahal den ephe luzeena herri eskualdun huts batean, baserritarren solaseari garraikirik, eskuara garbi, trebe, eta gurbil ikhasi nahi duenak. Liburuaren ikhasgaien eta errint-erakasleen ondolik hori behar lukete egin guziek, urthean behin.

Zer mirakuluzko ophutzak, zer mozkin nasaia ez lezazkete bil! Uzta ederragorik ez dezakete ametstu.

Nihauri gerthatu zautana erraiten dautzuet irakurleak; eta ene ikhusbidea yarraikirik zihauerek frogaz zinezkete nik erranak.

Eta lerro hoon ondolik erran behar dut aspaldian gogoan ninduana, Irular gure adixkide idazleaz. Bere eskuara arras lakhet zait; garbia, ernea eta bakhuna, hain gisa goxokoa eta argia, nun mendiez bi aldetako eskualdunek ulertzen ahal dutena errexi, dremendenik neketasunik gabe.

Eta harrigarriago dena; eskuara ikhasi omen du, ez amaren besoetan, bainan muttiko tarrotua zelarik. Ez daiteke sinhets bere elheketa eta idaztieri oharturik, ez dela haren sor mintzoa.

Barkha nezazu, Irular, zure matelak gorriarazi baditut izpiño bat, bainan egia erran behar da oroiz gainetik, lausenguak alde bat utzirik.

Nolako aita, halako semea.

(La Voz de Navarra, 1933/4/9)

LABORARI ETA LURGINTZARI

Larreko adixkideak galdegin dako yaun bati eskuaraz anitz dakiena, omen, bai eta latin, greco, eta hebreoa ere, hea argi dezan laborari hitzaren ithurburuak.

Nik ez garbiki ulerturikan ere xuxenki zer erran nahi duen, argi doi bat athera dut lurgintzari hitzari lothu denean.

(«Norbaitek uste du lurgintzari erran» (?) «Ez du ordea adiaztuko: lurgina, zer da?» ... dio yaun horrek.

Norbait hori ni bainiz, ihardetsi behar dut nik ez dutala ezagutzen lurgina, baina lurgintza bai (=labranza) Benabarre eta Laphurdin ezagutua. Eta lurgintzatik lurgintzaria deitzea lurreko lanetan ari denari perttolikeria bat othe da?, Haundiagorik ez balitz!...

(La Voz de Navarra, 1933/4/24)

DEUNA EDO DONEA

Euskel-batzarkide izenarekin azpian, atzo agertu idaztian galdegiten dauku eskualtzale batek hea zoin ditaken eskual garbiago, donea ala deuna, santo hitzaren ordezkia.

Nik ez ditut liphistarik pitzarazi nahi, ez eta ere burukoi agertu baten edo bertzearen alde, bainan bakharrik nahi nuke argitasun doi bat emaitako xedean, agerrarazi zonbeit berri izen horri buruz, bederen Nafarroan eta Benabarren ibiliak, lehen eta oraiko egunetan.

Erran dezagun aitzinetik XVI-garren mendean Iruñeko paper zaharrek erakhusten daukutena. Denbora hortan oraiko San Saturnino eliza deitzen zuten «Iglesia de Jaun done Satordi». San Gregorio-ko dorreari «la torre de Don Gergori».

Ohartzekoa da Benabarren, Laphurdin eta Xuberon nola deitzen duten Santiago eguna. Yandenaki, (Yaundone Yaki = santo seor Yako).

Ene sortherrian (Luzaide) galdegiten balinbaduzue noiz diren herriko bestak ihardetsiko dauzutue (sic): «Yandenakitan» (Santiagotan). Ikhusten dugun bezala mendiez beste aldekoek, (eta bai ere Iruñekoek lehengo denboretan), bethi yaun ezartzen zuten done aitzinetik.

Huna bertze eskuarazko saindu batzuen izenak oraiko egunetan deitzen dituztenerekin.

Yandone Petri, San Pedro. Yandone Mikelan, San Miguel. Yandenani (yaun done Joani), San Juan.

Barkha nezazu Euskel-batzarkide yauna, nik ez dautzut emaiten ahal argitasun gehiagorik, zeren eta ez bainiz bathere maisu bat zuk hain amultsuki eta bihotz onekin uste duzun bezala.

Bainan halere barne zolatik agerrarazten daizkitzut esker saminenak zure onheziak ene eskual sail xumeetan ikhasarazi dauzkitzun gai goresgarriak.

(La Voz de Navarra, 1933/6/10)

ESKUARAREN IKHASTEAZ

Ez dezazuela asma, irakurleak, nik erranak baduela den gutieneko hanpuras erakasnahia, zeren eta eskualdunen azken lerroan edo herrunkan nizalakotz. Bainan halere bakhotxa haizu baita bere gogoetak agerrarazteko, ausartatzen niz erraiterat zoin diteken ene ustez bide errexena eta hoberena eskuara untsa ikhasteko. Erran nahi dut. Académico eta yakintsunena, ala menditar eskualdun hutsen solasena.

Nik ikhasten hasi behar banuke dremendenik durduzarik gabe hauta nezake eskualdun menditarren solasaldiak, academicoaren orde. Bainan aithormen hunek behar du argitasun bat. Academikoak edo yakintsunak eskuara sortzetik ikhasia balinbadu: ohakoan, amaren bularretan, errainten ohi den bezala, ordian ezbaierik gabe hori ditake bide hoberena, zeren eta mintzaiaren yabetasunari elgartzen zaiolakotz yakintasuna.

Yakintsuna eskualdun berria balinbada nihondik (yakin dezala nahi duena), ez da mintzatuko menditarraren trebetasunarekin; eta egindura, itzulikak eta aditza harek baino erneago eta garbiago ibiliko ditu, nahi ala ez.

Nahiz anitzek kausituko duten poxi bat arradoa edo ausarta ene sineste hau, ni xede hortarik ez niz kantitzen ez eta kordokatzen, gogoan atxikitzen dutalakotz erakaspen haundiko ohar hau.

Eskual idazle yakhintsun guziek eskuarari lothu direnean, bere liburu eta hitztegi ederren moldatzeko, zoin ithurrietan edan dute beren yakitatea, nun bildu dituzte gaiak, nori eskatu diote argitasunak, nun alhatu beren adimendua eta gogo? Hitz batez, Norat yuan dira eskuararen ikhasterat? Menditarren ganat, eta heien artean zaharrenetarat, aitaxo eta atsoen ganat. Horra eskualtzaleen yakitasunaren egiazko ithurburuak.

Luciano Bonaparte berak ez balitz egon hamalau urthe eskualdun herrietan bethi solasian menditarrekin, egin ahal luzkea egin dituen lan ederrak? Ez, eiki.

Yakina da, liburuetarik eta erakasleetarik baitezpadako beharra dutela eskuara ez dakitenek eta eskualdunekin mintzatzen ahal ez direnak. Bestenaz, nola abia, nola begiak idok, nola ikhasten has? Itsuak kudeatzaile eta akulatzaile gaberik ez du urratserik eginen.

Bainan erran dezagun ere. Denek, ohakotik dakigunek ala geroago ikhasi dutenek, bethi irakurtu behar ginuke, ahalaz, sortzez eskualdun direnen idaztiak.

Mendiko ithurri zurrustatik goxoago zaikigu edatea ezenez etxean bildua dugun untziko uretik. Ez dea hala?

(La Voz de Navarra, 1933/6/21)

ESKUAL IDAZTEAK

Ohartu niz VOZ DE NAVARRA-k leku bat berexi diela bere orrietan eskual idaztiendako, EUZKADI-k eta EL DIA-k egiten duten bezala. Arras untsa da hori, zeren eta gure mintzaira irakurtu nahi duenak egun guziz, badaki nun hatzeman edo aurkitu bere gutiziaren ardiestea.

Eta neri iduritzen zait ez dela sobera hedadura haundia eman behar anitz idazti egunian ezarririk. Aski da oraiko heinean emaiten dituenak, bertzenaz orri bat oso-osoa ikhusirik irakurleak utz lezake geroxeagoko, eta azkenian, ahantzirik, bathere irakurtu gabe geldi litake. Ez giten athera oraiko neurritik, hastapenean bederen. Etzauzea berdin iduri, idazle lagunak?

Mahain baten gainean yakiak sobera nasaiki ikhustean gosea aphaltzen omen da, hek denak iretsi behar ditugula asmatzean. Beraz, irakurleari bazka edo hazkurria eman behar zako poxika, ahamenka, ez dadin haste-hastetik ase. Emeki, emeki yan dezala gohaindirik gabe.

Nafarroako ipharraldean baditezke seurki anitz eskualdun garbi ederki idazten ahal dutenak, bainan herabeak ea uzkurtasunak lotsaizun ditu zonbaitek izitzen dira beren izena, alegiazkoa izanikan ere, moldetako letran ikhustea.

Ba eta anitzek uste dute beren idaztien agerrarazteko behar dituztela aphainduraz eta edergailuz bethetu, ustez eta hola ederragokoak izain diren. Eta ez da bathere hola, yaunak.

Idazti behar da giren herriko bakhotxaren mintzaia gisa berean, laoki, aphaindura bortxatuatarik ihes eginik. Hori da eskuara ederrena, ba eta lakhetagoa, goxoagoa eta hobeki ulertzen dena.

Berehala ezagutzen dira lehenbiziko lerroetarik landa, idazti herrebesak, nahas-mahas handik eta hemendik harrapatu hitzak, metatuak alderdi guzitakoak, eta hain beste buru-hauste emaiten dauzkigunak ezin garbiki ulertuz zer debru xuxenki erran nahi othe duen.

Alde bat utzi behar dira nahasmendu horiek, zeren eta idaztiak edertu nahiz itsuten dituzte; eta gerthatzen zaiote nexkato lakrikuneer bezala: beren ezpainak gorriturik eta begi ondoak ilhundurik, ustez eta pollitagoak direnez, beren egiazko edertasuna kukutzen, higatzen eta andeatzen dute.

Mintza giten beraz garbi eta lañoki gure ait-ametataik ikhasi ginuen mintzai ber-berean.

(La Voz de Navarra, 1933/11/8)

BENABARREKO ESKUARA

Bakotxari, yakina da, iduritzen zaiko bere herrialdeko eskuara dela ederrena eta garbiena, goxoago zitzaiolakotz.

Eta, zertako ez erran? ni ere ahulkeria hortan eroria niz, bainan ez itsuki, ene ustez, zeren eta gauzak argi eta berme ditugulakotz gure ustekeriaren finkatzeko, hein batian bederen.

Mendiz bertze aldeko eskualdunen arthean bethidanik izan ditu errekesta eta goresmen haundienak Benabarreko eskuarak.

Eta ez da bathere harritzeko.

Dakizuen bezala, irakurleak, Benabarre hango eskualherriaren erdian da kokatua, eta eremu haundienekoa ere.

Beraz, ez da kotsatua Biarno-ko eta itsas aldeko arrotzkerietatik, Xubero eta Laphurdi bezala.

Bere zedarriak edo mugak, Gipuzkoari gerthatzen zakon araberan Espainiako aldean, inguratuak eta gerizatuak ditu eskualdunetz.

Baionako astekari Eskualduna-k bere aurthengo Almanakan eraiki du zoingehiagoka bat koblakarien arthean, eta lehenbiziko sei sarituak Benabartarrak izan dira.

Lehen saria irabazi du E. Erramouspe aphez-gaiak, Bankarra «Arranoa» bere lan ederrarekin.

Ez da harrigarri Banka-ko seme batian. Bazakien zerbait horgo eskuaraz, «Oxobi» idazle aiphatuak orai hogoi urthe phertsu batian Paris-tar eskualtzale bati erraiten zakolaik eskuara nahi bazien untsa ikhasi egon zeila artzain lau bortz urthe Bankan.

Ba, Luzaide-tik ere gauza bera erran daiteke, gure auzokoak baitira Bankarrak. Bi herrien eremuak zedarri berak berexten ditu.

Bigarren saria Baigorriar batentzat. Hirugarren saritua Ezterenzubi-koa. Laugarrena, berriz, Erramouspe Bankarrarentzat. Bostgarrena, Irulegi-koa; eta seigarrena Eiharalarrekoa. Detxepare lehenbiziko liburu eskualdun egilearen herrikoa, 1545-an agertua.

Ageri da berriz ere Garaztarrek beren eskualdungoaren omena ez dutela arinki eta funtsegabez ardietsia.

Bozkario eta atsegin haundiarekin ikhusi ditut ene herriaren auzoko horien sarizatzea. Gora ziek, Benabartarrak!!

Baigorri, Banka, Irulegi, Eiharalarre, Ezterenzubi!, zer xoko miresgarritan zizten kokatuak, zer mendi ederrak zien bazterretan, zer ordoki pollitak!

Zaudezte bethi eskualdun, arrotz galgarri ohidurak ez daiztela sekula sar; ihes egin zizte kanpotiar kotsutik.

Eiharalarre, Banka eta Ezterenzubiko erreka xoko hohietarat ez dira hedatuko ez arrotz ohidurak. Mendiak gerizatzen zituzte: lekhu lillugarri horietan zirezte gordeak zoriontasun goxoenean.

Zuen bakhetasuna eta aiseria ezagutzeko eta gehiago maitatzeko behar zinukete doi bat ikhusi bertze herrialdetako biziaren nekhetasunak, pairamenak, oinhazeak eta hertsurak.

Oraiko gizon adimendu argikoenek erraiten daukute, ikhusiak ikhusi, mundu

huntan ardiets ditaken zorientasunik egiazkoena lurrian bakarrik kausi ditekeela. Erran nahi dute: lurgintzan edo laborarigoan.

Zaudezte beraz, hor, etxaldeari lothuak eta yarraikiak, eskualdunhoa izpirik galdu gabe mundu higuigarria alde bat utzirik.

Donabartarrak, Garaztarrak ez gal, othoi, gure eskuara maitea.

(La Voz de Navarra, 1934/1/30)

ESKUARA GARBIAZ (Benabarreko eskuaraz)

«Kai-alde» Mutriko'tar idazle baten oharra irakhurtu ditut EL DIA'ko Euskal gaietan «erri-izkerari buruz», idazburuarekin agertuak.

Erraiten duzu, «Kai-alde» yauna, herrietako mintzaira erdaraz nahastekatua dela, hitz arrotzez bethea, eta eskuara hori ez daitekela onetsi, garbitu behar dela.

Hala balitz Eskual-herri guzian, zurekin nindaiteke, baina barkhatuko nuzu ausartatzen baniz zonbait oharren egiterat, egia bere tokian egon dadin.

Benabarren eta Laphurdin hitz arrotz guthi ibiltzen dute, aintzez Espainia aldeko Eskual-herrian baiño gutiago.

Nik idazten dutan eskuara herritarrena da, huts-hutsa. Ez dakit bertzerik. Ene herritarrek ulhertzen dituzte hitzez-hitz nik idazten ditutan lanak, heien elhe ber-bera delakotz. Eta halere noizian behin bakharrik ibiltzen ditut hitz arrotzak.

Baiona'ko «Eskualduna» astekariaren mintzaira ere herritarrena da, eta hitz bat ere ez du ibiltzen heiek ezagutzen ez dutenetik.

Ene sortherrian, Frantzia aldeko Eskual-herrian bezala ibiltzen dituzte zonbait hitz frantses, baina guti, eta nik bazterten ditut, eta heien orde ezartzen eskualdunak, «bainan berek ezagutzen dituztenak».

Zuk emaiten dituzun ikhusbideak eskuara erdaldunduaz, gauza hitsak edo tristiak dira.

Eskualdunak bethidanik lerratu dira hitz erdalduneri, bereek eskuarazkoak yakhinikan ere, eta gero ahazten dituzte, eta azkenian galtzen dira. Zonbat holako gerthatu den!

Axularrek berak idazten du «mantenua», eta lerro batzu beherago «hazkurria». Zertako ibiltzen du lehenbizikoa erderaz, eta bigarrena eskuaraz, gauza beraren erraiteko?

Eta erran dezagun azkenian, nehonek edo iñork ez duela egin lan haundiagorik nola Duvoisin-ek, bere «Testamendu zaharra eta berria»n, bi liburu haunditan idatzia, eskuararen garbitzeko. Axular, Leizarraga, Haraneder eta beste idazle haundien eskuarak dituen hitz erdaldun gehienak eskualdunak ditu, eta ez nolanahika, ez berak asmatu hitz berriak, baina menditar eskualdun zaharren arthean bilhatu, erdi galduak zirenak argirat emanik.

Hots: ithurri garbietan edanik.

Eta hango eskualdunek ulertzen dugu Duvoisin'en eskuara errexa.

Erran nahi dut, beraz, herritarrek liburuetako mintzaira berdintsua ibiltzen dutela, Frantzia'n edo Espainian bezala.

(El Día, 1935/10/18)

ESKUARAREN ABERASTASUNA

Anitz yendek uste dute hitzkuntza bat aberatsa dela hitz anitz dituelarik. Hortan bakharrik daukate frangok aberatstasunaren izaria edo neurria. Eta hori ez da osoki eta arrunt egia.

Yakhina, hitzez xuhur eta murriz balinbada hitzkuntza ez daiteke adimenduan ditugun oldozmen eta gogoetak garbiki eta xeheki adiaraz.

Diote mintzaitan sartuak diren yakhintsuek hitzkuntzaren erroan eta aditzan dela bere egiazko aberatstasuna. Eta badakigu ze goresmen eta laudorioak egin dituzten yakhintsun horiek, phundu hortaz, denen arthian eskuara lehenbiziko lerroan eta hazkan ezarririk. Hitzkuntzak aberasten eta emendatzen dira gizonak yakhitatian aitzinatzen eta argitzen diren araberan.

Gehiago daki gizonak eta gehiago behar ditu hitz berriak sarthu bere elhean. Ikertzetan ikhasten dituen argientzat behar ditu asmatu ezagutza berrieri dohazkon hitz egokiak.

Horra zertako erresuma gibelatueta, yakhitatearen hurratsetan uzkur eta hurri ibili direnak, bere hitzkuntzak ere hein berean doatzin.

Eskualherrian izan ditugu behialako denboretan, ta oraikotan ere baditugu, nun-nahi bezanbat gizon argituak eta yakhintsunak, baina denak zorigaitzez mintzaira arrotzetan eskolatu dira, beren hitzkuntza guthietsirik.

Bainan aithor dezagun ere ez direla gizon argitu horiek hobendun bakharrak eskuaratik ihes egin balinbadute.

Eskualdun guzien hobena izan da, zeren eta Eskual-herrian bethidanik ez dugu den gutieneko axolarik izan gure mintzaiaren altxatzeaz eta goressteaz. Aitzitik, zangopilatu dugu guhaurek. Ez dugu sekhulan griñarik izan Eskual herrian eraikitzeako haur-eskolak, ikhastetxeak, eskola nausiak: hots, gure mintzaira besteen lerroan ezartzeko yakhitate mota guzietan erdararen herrunkerat helarazteko.

Bainan mail hortarat altxatzeko ezinbertzeko beharra litake gure mintzairan sarraraztea greko-tik eta latin-etik behar diren hitz berriak bertze hitzkuntza guzietan egin duten bezala.

Eta hitz horiek, ene ustez, ez ditake tarrapatan eta tupustan eskuararat bihurtu, «uzkurtza» eta «urrutizkiña», erreligioa eta telefonaren orde bezala. Ez: aski da, oraikotz, hitz arrotzak «eskualduntzea» erran nahi dut, eskualdun eite poxi bat emaita.

Bertzenaz izigarriko nahaskeria litake «quimica» edo holako zerbait ikhasteko... Ikhasliak enhea litazke, etsituak bethikotz, beren buria erle kofoin bat bilhakaturik...

Hasi niz mintzatzen eskuararen aberatstasunaz, eta yarraik giten.

Eskualdun gehienek uste dugun baino anitzez hitz gehiago baditugu gure eskuaran. Elementiaka badira ezagutzen ez ditugunak eskualdun guziek. Frango tokitan hitz arrotzaz ibiltzen dituzte, eskuarazkorik ez direlako ustean.

Bainan gerthatzen da herri edo eskualde bathian ez dutenak bertze lekhotan khausitzen direla. Eta ze hitz ederrak eta egokiak!

Zonbat eta zonbat ezagutzen ez direnak! Harrigarri da inobreka hedatuak eta barreatuak daudenak Eskual-herriko xoko bazter guzietan. Zer lan ederra litaken hitz horien xekatzeta, biltzeta eta hedatzeta, denek ezagut ditzaten!

Zonbat etzen edertuko, aberatstuko eta batetaratuko gure eskuara zaharra!

Behialako gure idazle haundien liburuan eta Azkue jaunaren hitztegi ederrian

ehunka kausitzen dira ez ezagutuak, ahatziak edo baztertuak diran hitz horietarik, bereziki Duvoisin-en idazkietan, hau izan baita eskualtzaleen arthian huts eta garbiena, ene ustez.
(La Voz de Navarra, 1936/3/3)

VII. ATALA HISTORIKOAK

ORRIAGA-KO GATHASKA

Ilhabete hunen hamabostian da aiphu haundiko gerthakari horren urthe bethetzea, eskualdunek Karloman-eri eman zakoten zafraldiarena, Europako enperadore ahaltsuenari buria aphalaraziz.

Egun hautan bi lan irakhurtu ditut gathaska hortaz mintzo direnak. Bat Baionako Eskualdunian Pierre Laffitte eskualtzale yakhintsuaren lumakoa, diteken eskuara ederrenian idatzia. Bertzea, Donostiko El Día egunkarian idazlariaren izenik gabekoa.

Eta nik ere nahi nuke zerbait erran gauza beraz, ez gero hitz bat ere xuxentzeko hek hain ederki eman daukuten argitasunak beren lerroetan.

Barkhatuko duzie, irakhurleak, Astobizkarko erreka seme bati, lerro hauk idazten ari den gelako lehiotik mendi horren kaskua ikhusten duenari...; hots, Luzaideko semeari, hitz batzu erran ditzan gathaska-sarraski hortaz.

Nahi dut bakharrik mintzatu Luzaideko erreka althan gerthatu zen borrokaldiaz.

Aitzineko denbora urrindu hetan eremuen izenak, herrietako zedarriak, beren hedadurak, etziren oraiko egunetan bezain xuxenki, argiki eta xeheki ezagutuak.

Espainiako ala Frantziako idazle guziak, bai eta Eghinart, Karlomanen idazlaria bera ere, mintzatzen dira Orriagako gathaskaz, ez baitzakiten segurki nun ziren Orriagako zedarriak.

Guziek erraiten daukute nola eskualdunek mendi gaineko harrokak bothatzen zituzten, eta maldari beheiti oldar gaitzian erreka zolaraino yuanik, han xahutzen zituztela Karlomanen gudullariak mehargune batian iragaiten zirelarik.

Eta holako tokirik ez ditake kausi ez Auritzeko zelaian, ezta ere Orriaga gainian.

Denek dakigu nola eskualdunek Ibañetako lephoan moztu zuten bi zathitan enperadorearen armada.

Batzu borrokatu ziren Auritzeko ordokian. Besteak, aitzineko zathikoak, Ibañetatik beherakoan, Luzaideko alderat yaustian, Garaziko bidean buruz zoatzilarik.

Eta orai ohar bat.

Ibañetatik yaustian Luzaidetat heldu baino lehenxoño, badira toki batzu (bat Artxurieta deithua, eta izenak berak zerbait erraiten daukuna) eho-aldi baten emaiteko egokienak direnak.

Huna nolakoa den hautarik bat.

Mehargune hertsia, erreka xumetik ezker eta eskuin malda xutak eta legunak, harri xehe eta legartsuak. Eta gainak harkhaitzez brokatuak, doi-doia xutik egoiten ahal direnak iduri. Han dabiltzan ahuntzek erorarazten dituzte oraiko egunetan, noizian behin, harri puskak, firrindaka doatzinak lekhu lerrakor hartan errekaraino.

Hea ez denetz toki hauta gure aitzinekoek berexi zutena, yakinki eta etsaiek etzutela beste ihes-biderik Garazi alderat yausteko, Ibañetatik behera abiatuzkioz.

Eta Karlomanen hiruetan hogoi mila gudulariak denbora hetan bortxatiak ziren iblltzea bide meharretan, eta hortaik asmatzen ahal da ze luzetasuna zukeen holako oste haundiak, banazka edo birazka iragan beharrak mehargunetan.

Frankoek bere desohorea mendratu nahiz, ezin yasanez menditar xoilek eman zakoten zafraldia izigarriki sarraskiturik, erran zuten eskualdunek moruen laguntza ukhan zutela.

Espainarrek, aldiz, gutaz bekhaiztiak hek ezpaitzuten garhaitu ahal Karloman ahaltsua, asmatu zuten ixtorio pollit bat, zointan erraiten daukute Bernardo el Carpio

ezpataren bothereak eta bere gudulariak abarrikatu zituztela frankoak...

Kondaira gezurti bezain irringarria.

Hegoaldekoak bethi urguluntzi ohore goseak.

(La Voz de Navarra, 1934-8-15)

NAPOLEONEN BIDIA (Benabarreko eskuaraz)

Garazitik Orreaga-rako zintzurak eta errekek bethidanik izan dira gudularien eta beilarien bidia Espainian sartzeko, behialakoen arthean.

Erromanoen denboran egin zuten yadanik Orreaga eta Benabarren gaindi, Iruñetik Bordele-raino, bide eder eta zabal bat, harriztatua. Eta oraino zenbait lekhotan, han hemenka, agertzen dira haren hatzak.

Eta lekhu horiek hautatu zituzten, zeren eta Espainia eta Frantziaren arthean diren mendietako lepho aphalenak eta egokienak direlaketz, Pirineos deithuenetan.

Hamabi eta hamahiru garren medeetan elemeniaka zoatzilaik beilariak Europa guzitik Yondoni Iaki Compostelarat, hori zuten bide laburrena eta errexa leihorrez.

Osteak hain ziren haundiak, nun Benabarren anitz tokitan bazituzten phausu lekhuak. Eta Orreagan bazen eritegi edo ospitale bat, bai eta hilerri bat ere heientzat, oraiño ikhusten ahal direnak.

Batzuk pasten ziren (gehienak) Luzaideko errekan barna. Besteak mendiz gaindi, Orreaga, Eihalarre eta Doniane Garazi artean diren bideak harturik, Bentarteako ondoan.

Horiek ziren ere Karloman-en bideak eskualdunek Astobizkarren eta Orreagako zelaietan zafraldi ederra eman zakotenean.

Duque de Alba deithuak ere bide hori hartu zuen, haratekoan behitkoa eta hunatekoan gainekoa, 1512'an iphar aldeko Naparroa (Benabarra) menperatu nahi izan zuelarik, bainan Auritzerat itzuli zena, buztana ixtapian eta beharriak aphal.

Mintza giten azkenekotz „Napoleon'en erregebideaz».

Napoleon gizon adimendu haundikoa zela, ausarta eta kalipuduna anitz egitatetan ezagutzen da.

Espainiaren beretzeko, Orreagatik sartu zen. Bainan etzuen Luzaideko bidia artu, zeren eta erreka hertsu hura iragan eta Ibañetako lephorat igaiteko toki egokia zelaketz etsairentzat; gain behera mehargune hartan kenka xar baten beldurrez.

Gogoratzen zaio bide zabal baten egitea Doniane Garazitik, Eihalarren gaindi, kasik zelaia, maldarik gabe, Astobizkar mendi ondoraino. Eta horrarat helduz geroz, ...«yautsi» zen Ibañetako lephoraino, eta handik beti Orreagarat.

Axeri zaharrak etsaiaren lurretan sartzeko etzuen maldarik igan nahi izan. Ez petik gora, bainan gain behiti sartu zen uholde bat bezala Auritzeko zelai nasai hartan.

Eta ze bidia harek egin ziena! Oraiko erregebideak bezain ederra eta zabala da. Eta oraino ikhusten ahal da guti andeatua.

Bere kanoi handiak, gudulari osteak eta gudu tresna guziak handik pastu ziren nekhe izpirik gabe.

Bidia, yakina, belhar eta sorhopilez estalia da orai bainan behor, behi, eta ardientzat ze alhapide ederrak ze bazka goxoak han dabiltzan arthaldeentzat!

Bide hori ikhusten dutenek, hogoita hamar kilometra luzetasunekoa, harritzen dira ze burua zuen Napoleonek eta ze gizonak zituen bere ondoan, orai ehun eta hogoi urthe, holako lan gaitz baten egiteko.

«Mendigaintzaleek» behar lukete pidaia eder hori egin. Ibañetatik oren erdi batez igaiten ahal da bide hortaraiño, eta handik Doniane Garaziraino aldaparik gabe.

Nexkato batzuk orai bi urthe egin zutena, gizon gazteek ez othe dutea kalipurik gauza bera egiteko?

Iruñen, 1935'ko Urtharrilan.
(El Día, 1935/3/26)

HIRU BEHIEN ZERGA (Benabarreko eskuaraz)

Nafarroan ditugun ohidura zarrenetarik bat da Erronkari-koek Frantziako mugan egiten duten bilkura urthe guziz. Baretous, Biarnés herrikoekin.

Nafarroako Ipharraldeko mugetan bethidanik izan dituzte eztabaidak bertze aldekoekin, Xubero eta Biarnesekin, azinden bazkatzeaz. Helen arthean badituzte legeak, antolamanduak eta hautsi-mautsiak haratekoek hemengo aldian, eta hunatekoek hangoan, behiak, ardiak eta behorak bazkatzeko bi alderdietako alhapidetan.

Ez dakigu xuxen hortik phiztu othe zen aitzineko denboretan gudu bat heien arthean, eta gero Erronkarikoak nausiturik, Baretous-ekoak bortxatuak izan othe ziren hemengoek ezarri zazkoten zergak pagatzea.

Bethire, urthe guziz hangoek Uztailaren 14'an behar dituzte eman Erronkarikoeri hiru behi, eta mugan egiten dute bilkura hori heien emaitza hartzeko.

Bi alderdietako yende multxo bat biltzen da han «piedra de San Martín» deithu zedarriaren inguruan, turistak ere huts egin gabe, harat heltzeko bospasei ordu mendiz ibilikan.

Erronkariko alkatea eta zinautziak beren karguko soineko berexiekin, biziki pollitak, eta albaiteruarekin yuaiten dira, herriko ikhurrina aitzinian.

Baretous-ekoak ere halaber biltzen dira, eta ekhartzen dituzte hamar bat behi heien arthetik hauta dezaten hiru Erronkarikoek. Behi horiek berdin-berdinak izan behar dira, adinez, adarrez eta kolorez, hautua eginikan albaiteruak artha haundiarekin, untsa ikhertu eta izartu ondoan.

Gero, oixtian aiphatu San Martin-eko zedarrian biltzen dira denak. Frantsesek ezartzen dute esku bat harrian, eta Erronkarikoek berea haren gainan; gero berriz frantsesek, eta heien ondotik Erronkarikoek, eta hola aldizkatu ondoan, metaren gainian azkenik hemengoek.

Ordian denek batian oihu egiten dute: «pax avant, pax avant», bakhearenganik zin eginik aitzinetik.

Orai zonbait urthe artio Erronkarikoek bothatzen zituzten tiro andana bat Frantzia alderat, bainan ohidura itsusi hori debekatua izan da, zorionez, frantsesak ez gaitzitzeko.

Gero denek, bakhetasun ederrenian, bazkari nasai bat egiten dute. Baretous-eko eta Erronkariko auzapezak eta zinautziak mahai bathian; eta besteak, turistak, yartzen dira lurrian, han hemenka bildurik, multxoka, bizkarrian zare eta saretan ekharri dituzten yakiak «klikatzeko».

Erran gabe doa umore onean direla denak, eta bazkal ondoan dantzak ere egiten ditu beretarik, xirulek eta armonikek bazterrak bozkarioturik.

Arratsaldian goizik abiatzen dira zoin bere etxetarat hain urrunetik ethorri diren lekutarat tenore onean heltzeko. Batzuk eta bertzeek agurrak bihurtu ondoan heien arthean, urruntzen dira lekhu hetarik, beste urthian toki berean berriz egiteko ohidura zaharraren bilkura.

Eta erran behar dugu sekhula ez dela han phizten dremenden eztabaia edo liphista; aitzitik, adixkidantza osoan egiten dituztela gauzak, samurtu gabe.

Nehork ez daki noiztik heldu den, nola eta zergatik sorthu den ohidura hori; bainan aburu hedatuena da zerbait borrokaldi edo gudu bathetik (Erronkarikoak nausiturik),

ukhana heien arthean duela bere ithurburua, azinden bazkatzetik phiztua.

Saraizuko ibarrak edo haranak, bai eta Aezkoakoek ere urthe guziz egiten dituzte antolamendu eta hautsi-mautsiak Baxenabarrekoekin, heien eta hemengoen alhapidetan azinden bazkatzeko. Eta antolomendu horietan xuritzen dute zonbat pagatu behar dien buru bakotxak.

Garazi eskualdeko hogoita hiru herriek urthe guziz eremaiten dituzte ardiak, behiak eta behorrak Aezkoa'ko sorhoetarat, mugako mendietan, eta han alhatzen dira Udaberritik Udazkeneraino.

Luzaidetik ere negu minean igortzen dituzte ardiak Benabarreko zelaietarat eta Laphurdiko zonbait alhapidetarat.

(El Día, 1935/5/24)

OLITE-KO GAZTELUA

(Benabarreko eskuaraz)

Zer ginen aitzineko denboretan, Nafarroa erresuma berexi bat zelarik, Olite-ko gaztelu ederrak emaiten dauku lekukotasun bat.

Karlos II eta Karlos III, gure erregeek, eraiki zuten hamabost garren mendean.

Bainan Olite-ko gaztelua ez da hainbeste gaztelu eder ikhusten diren horietarik bat. Xuxenki erraiteko ere etzen gaztelu bat. Harrisu edo muralla haundiekin zen inguratua, eta barnian bazituen gaztelua, yauregia, erregeren ondoko aithorensemeen etxeak, gudularien egoitzak, elizaño bat, eta enparanza edo plaza nasai bat erdian.

Zer zen hura, ze edertasunak zituen barne hortan gogoratzen ahal ditugu yakitean bazituela «hemezortzi dorre», bakotxa bere izenarekin ezagutua.

Han bizi zen ere «Príncipe de Viana», gizon yakhintsua eta idazle aiphatua, bethi liburuen arthean zagona, eta anitz idazki utzi daukunak.

Oraino ikhusten da han haren gela ederra eta bere harrizko sohaillu lantua, eta lili-baratzea haren azpian.

Yanguas y Miranda idazleak bere «Diccionario de antigüedades de Navarra» liburuan erraiten du Príncipe de Viana-k bazituela «hiruetan hogoita hamar» kargudun eta sehi

bere yauregian, eta ekhartzen ditu karguen izenak. Horiek oro balinbazituen Prinzipeak, zonbat othe zituen erregeak?

Murallaren ondoan, kanpotik, eraiki zuten eliza eder bat, Santa María la Real deithua, atheko arkua miresgarriki lantua «gótico» gisan, eta zointaik yakhintsuek laudorio haundienak egin dituztenak. Han meza entzuteko erregeek bazuten bide estali bat bere yauregitik egina.

Yauregi-ko yateko-gela gaitza zen. Behin, Karlos III-ak eman zuen othurunza bat Oskar de Ezpeleta, bere idazlari eta sekretarioaren ohoretan, eta, bildu ziren lau-ehun bazkaltiar, Nafarroako haundieria guzia. Han ikhusten ditugu oral lau ximindegia haundi, bakotxa bere erregearen zigilua harri xurian lantua.

Holako barne haundiaren berotzeko negian, ze su-gaiak behar zituzten erre.

Olite-ko gaztelu-yauregia eraiki zuten erregeek oihan haundi bathen sahetsian, hedadura gaitzekoa eta ihiziz betea. Haren inguruko herriak khexatu ziren erregeari basurdek, basahuntzek, axeriek, azkonek eta erbiek kalte haundiak egiten zituztela beren alhorretan eta mahastietan, ba eta oilloetan ere.

Hango edertasunak nolakoak ziren erraiten dauzku Londres-eko liburutegian agertu paper zahar batek. Paper hori idatzi zuen hamabost garren mendean Alemania-ko aithorenseme batek, hango erregeren ahidia, eta handik Frantzian barna etorri zena Oliterat, bere arrebaren eta koinataren ikhustera. Bere arreba, Anna de Cleves, Príncipe de Viana-ren emaztea zen. Paper hortan erraiten du bere pidaia luzian egon zen yauregi aberetsenetan, nihun etzituela ikhusi Olite-koaren parerik, hor bezalako «salas doradas».

«Cámara de la Reina» deithu gelan, soliboetatik dilindan, baziren kobrezko, edo urrezko, diote zonbaitek, «plakak», eta haiziak higitzian soinu xoragarri bat egiten zutenak.

Europa-ko erregen orduko ohiduraren arau, Olite-n bazituzten karioletan Afrika-ko ihizi basa mota guzietakoak, lehoinak ere heien arthean. Toki hura deitzen zen «La

Leonera». Ordian ori zen erregeren yostagailu bat.

Ahatzi dut erraitea muralla barne arthean bazela dorre bat, haundiena «torre del homenaje» deitua, frantsesez «donjon» erraiten dutena. Dorre hori lodiena eta zabalena zen, denen arthean.

Etsaiak ardiesten balinbazuen barnian sartzea, han gerizatzen ziren erregeak eta gudulari hoberenak, kanoi eta tresna guziekin heien beiratzeko. Bainan hori sekhula etzen Olite-n gerthatu.

Bertze dorre bat meharra eta guzietarik gohorena, bazen, eta handik gazteluaren zaintzaleak ikhusten alhal zituen inguruetakoko bazter guziak. Torre del «goait» deitzen zen, eta goait hori ohartzen bazen etsaiak hurbiltzen zirela, bere adar zilatuarekin agintzen zituen gazteluko gudulariak, ihardokitzeke prest izan dituen.

Nork erran lezake oraiko egunetan ikhustean suntsituak hango edertasunak harri uzkaillduen arthean, asunez, lapharrez, belharrez erdi estaliak, dabiltzala suge-bandilak eta suge-muskerrak! !

Eta nola sinets eremu hek guziak oihanez betheak zirela, nihun orai ez delarik ageri zuhaitz bat ere (salbu baratzetakoak) lur guziak ogi-alor eta mahasti bilhakatuak?

Baditeke orai lurak aberatsagoak direla, bainan itsusiagoak ere. Oihanen edertasuna maite dugunentzat gauzarik deithoragarriena zauku buluztasun hura ikustea.

Iruñen, 1935'eko Mayatzan.

(El Día, 1935/5/29)

ORRIAGA-KO BEILAK

Idazki buru hau ikustean uste ahal zinezakete mintzatzerat nohala aitzineko denboretako beila hetarik, Europatik Orriagan gaindi Yondone lakue Compostelarat yuaiten zirenak. Ez; geroagoko denboretarik mintzo niz, eta zorionez oraiko egunetan egiten direnetarik, ohidura zaharraren arau.

Urtian badira bi sasoin Orriagan biltzen direla beilari anitz, Nafarroa iparraldekoak eta Benafarrokoak.

Arras aipatuak dira Artz-ibar, Erro-ibar, Oroz-Betelu, Auritz eta Auritz-berrik egiten dituztenak Salvatore ondoko astian, bakotxak bere egunian.

Beilarien artean bada gizon andana bat, bi lerroetan bide sahetsian doazinak, zurezko kurutze haundi batzu bizkarrian, berek eginak, begitarreak estaliak oial beltz batekin eta gerriak soka luze batez inguratuak, fraidek edo lekaidek eremaiten duten gisan. Hildura eta «mortificación» hori egiten dute bere bekatuen barkamendua ardiesteko, Yainkoari eskeinik yasaiten dituzten nekeak eta pairamenak.

Gauzarik ederrena eta bihotza hunkitzen duena da ikustea Auritzetik Orriagarako bide zabal xuxen artan, oianez inguratua, gurutzedunak beren pizu haundia bizkarrian, gurutzia goora atxikia beso altxatiez, eta arrosarioa kantatzen ozenki, apezaren otoitza errepikatzen.

Herri bakotxak ekartzen du bere elizako gurutzea, eta haren ondoan doatzi apezak eta bereterrak eliza soinekoekin. Gero kurutzedunen ondotik badoatzi ehunka beste beilariak, denak arrosario kantuz.

Eta beilari guziak barur doatzi, zonbait gauaz abiatuak bere etxetatik, Jauna-artzerat Orriaga-ko elizan.

Meza nausian eskuarazko prediku bat egiten du mintzatzaile berexi batek. Mezatik landa denak badoatzi ostatuetarat goizik itzultzeko beren herrietarat.

Anitz turista frantses yuaiten da beilarien ikusterat, eta han dabilta klix, klix, bere tresnekin itxura hartzen, gero Frantziako kasetetan agerrarazteko.

Gauza miresgarria da ikustea eskualdun fededun suhar horiek.

Beste egun haundi bat bada Orriagan Buruilaren zortzian, Andredena Mari egunean. Egun hortan etortzen dira mendiz bertze aldekoak, Benafarroakoak, Doniane Garazikoak, Arnegikoak, Lasa, Ehiaralarre, Izpura, Aintzile, Donazaharre, eta beste anitz, Luzaidekoak ahanzi gabe, erregebidez. Banka-rrak, Baigorriarrak, Urepeldarrak, Aldudarrak, Ezterenzubiarrak, mendiz gaindi, eta denak, yakina, barurik, Yauna-hartzeko Orriagan. Eta anitz, bospasei oren mendiz uñez ibili-ondoan.

Horiatarik badira bezperatik etortzen direnak, eta ostatuak beilariez betetzen dire.

Arratsaldean, etxeratekoan, ze yendeketa pasten den Luzaidetik!

Garaziko hogoita iru herrietan, ba eta Baigorri-ko ibarrian eta aranian ere fede haundia dute Orriaga-ko Andredena Marian, eta pidaian nekeak iraganik ere mediz doatzinak, halere sekula ez dute huts egiten.

Yakina, gudu haundiaren denboran etziren yuaiten, mugak etsiak zirelakotz, bainan gero berriz yarraiki dute ohidura, ez haatik lehen bezenbat.

Egun hori deitzen da Solbezio, eta ez dakigu nundik eldu den itza, ez eta zer erran nahi duen. Zonbaitek diote salvatio latinetik hartua dela; bainan yakintsuek ez dute onartzen ori.

Horra Nafarroako ohidura zaharrenetarik bat, zoinek erakusten dauku zer fede

suharra zuten gure aitzinekoek.

A. IRIGARAY: Prosistas navarros, Príncipe de Viana, Pamplona, 1958, 77-79.
or.-tik jaso.

VIII. ATALA
OHITUREZKOAK

UDABERRIAN NAPARROA'KO IPHARRALDEAN

Nafartar guziek ez dute ezagutzen gure ipharraldeko aurkintza miresgarriak hain aipatuak izanik ere bere edertasun lilluragarriaz. Udaberriaren buruz gira, eta nahiz aro tzarrak gibelatu dituen zugaitzen ostotzea, helduden ilhabeteko eremu guziak, pentze, larre, othar, eta mendi mazelak oro soineko ederrenetan yauntziak izan dira, gure begiak loriatzeko ikhusmen txoragarrietan.

Nik bederen aurthen ere ase on bat egingo dut toki eder horietan, mendiz gaindi ibiliz, bide xendre zehiarrez goti eta beheti, esker eta eskuin, eta azkenian yarririk pagodi eder baten itzalpean, iguzki saminetik gerizaturik, nere begi aitzinean bazterretxe txuriak kokatuak han hemenka mendi sahetsetan, pentziak eta larreak artaldez brokatuak, ardi xuri, behi xuail eta behor gorrailak alhapidetan. Eta noizian behin nere solasaldiak artzainekin gure eskuara maitean.

Ba othe da zorion ederragorik? Hiritik iges egiten luzaz, bazterturik, urrundurik gizonen nahaskeria, aiherkunde eta bekaitzkeria gohaindigarrietarik, han mendian bake ederraren erdian. Nik onhartzen dut yakintsu baten errana: Gehaigo ezagutzen dut gizona, gehiago urruntzen naiz bere ondotik.

Mendian bederen ez ditugu aditzen heien kalapitak eta hasarreak, eta ez dute meskartzen gure barneko bakea.

Bakotxak bilhakutzen du zoriona bere meneko heintsuaren moldean. Nik holatsu gogoratzen dut nerea, ez baigira, gero, guziak orhe beretik eginak. Ez eiki.

Mendi kaskoan nizalarik luze-luzea etzana soropilean, asmatzen dut udaminean nola diren erre kixkalduak, idorteak agorturik bazter guziak, hegoaldeko eskualdeak, gure ingurian ikhusiz naharoki ur txirripak yausten alderdi guzietatik errekari behiti, zolako ibaiaraino, phenzeak, goizeko ihintzak bustiak, iratziak eta belarrak bere usain samin eta goxoak loriatzen dutela gure uzna, alderdi guziak edertasunez hedatuak nasaiki. Ahoa zabal-zabala balditua nago.

Ez da, ez harritzeko han sortuak girenek zonbatetaraino maite dugun gure txoko goxoa; eta gero haur denborako oroitzapenak adimendua eta bihotza betherik oroitarazten gitu mutiko torratuak ginelarik (badu denbora puska bat) sagarrak eta gereziak sasitik yauzi egin eta zoin polliki bethetzen zituzten gure sakelak eta papoak, iges eginik patarrari behiti, harriak burrunban eta firrinduka iragaiten baitziren gure beharrietatik ez urrun. Futxo!.

Bainan zein aldatua, bertzelakaturia, gure sorterria ordutik geroz!

Eskolan ez da lehen bezala errient eskualduna. Gure denboran erdera ikhasteko behar zuten errientak eta errientsak itzuli eskual hitzak erderarat. «Aza, berza: bertza, caldera», eta hola. Zoazte orai holakorik ikhusterat. Herria arrotzek ithota dute bere mintzairaz.

Besta-berri bespera haurren zoriona zen. Bazterretxetan etxez-etxe ibiltzen ginen saski haundi batzu birazkoa atxikirik beren giderretatik, lili eta ezpata belarra biltzen. Eta zer atsalaskariak! Sagarrak, udareak, esnea, eztia, nik dakita zonbat dohain eta halere ezin asez gure klika. Oraiko adinean leher eta zapart egiteko baginuke holako hazkurri erdiarekin gure sabelean.

Eta ikhustekoa zen biharamunean prosesoina iragaitean karrikan, lurra dena liliz eta belarrez hedatua, estalia, yaun erretora Iguzkisaindua bere eskuetan ezkilak dandaka, lehioak eta atheak mihisiz aphainduak, herri guzia inharrosia.

O! haur denborako orizapenak! Ez dira nolanahi ahanzten.
Iruña'n yorrailan.

(La Voz de Navarra, 1932/5/8)

NEGU HITSEAN

Hor dugu, hor, yin zauku elurra mendi kaskoak bere yauntzi xuriaz estaltzerat. Alhapide nasaietatik ohildu ditu arthaldeak, hain goxoki bazkatzen ziren tokietan udaberritik udazkenaraino.

Ardiak eta behiak bere bulunba eta yuare ozenekin lerro lerro yautsi dira mendietako bide xendreeri beheiti, zakhurraren gerizan eta artzainaren histu saminaren manuz.

Itzuli dira herrietako bordetarat negu borthitzaren iragaiteko atherbe goxoan nasaiki asetzeko sabaian bilduak diren belharrekin, udaminean sartuak.

Bazterretxetan negu hotz eta hitsari ihardokitzeko metatu dituzte egurrak etxe sahetsian, sugai ausarkiz hazteko supazterra eta haren gar biziaren inguruan etxeakoak, afari tenoreari igurikan, han dira bilduak, etxeakoandereak begitik utzi gabe dilindan den padera noiztenka itzulikaturik, bai eta ere taloa, maxarrua giderretik atxikiz ez dadin sobera erre. Eta gero supazterrean gaztain erreak hedatuak eta mailuarekin zapatuak, xabal-xabalak, nola doatzin ahoetarat, ezin utzizko ahamen goxoak. Ondotik, talo bakotx barnean gasna zerra bat sarturik marrakuku borobil eder bat egiten dute, eta hari ausiki onik emaiten, arrunt itzali artio zintzurrari beheiti. Azkenekotz, horra esnea kotxuan egosia harriburdinekin, yauzika bere irakiduran, ixurtua gophorretarat eta zalhu hustuak aho ziloari barna.

Solasño izpi bat egin ondoan loale phizu batek begiak nekez idekiak doi-doia atxikiz hertsaraztero ditu, eta bat bertzearen ondotik xutiturik, sukaldea emeki emeki husten da denak ohearen bilha lo zurrunka ederrenean etzanak guziak haindik epheño baten buruan.

Sukaldean oraiko han dago etxeakoandera azken lanak egiten eta hautsaren metatzen su miko bat pian utzirik biharamuneko goiz-askarien berotzeko ez dadin itzal.

Gathuak ere, bethi hotzperak, hurbildu dira suburdinetaraino gauaren iragaiteko borobildurik etzanak, beroaren gerizan.

Horra irakurle maiteak nun-nahiko batzerretxe baten sukhalde xokoa Eskual herriko mendietan, negu borthitz arratsetan. Oraiko bazter guzietako nahaskeriak ikhusiz, hain nekea bizia izanik, bereziki hirietan langileentzat, ba othe da zerbait ederragokorik eta bakhetiar nola gure menditarren bizitzea, bere etxaldearen yabe, lurgintzako lanak beren besoez eginak, etxetik kanpo nehoren laguntzak beharrik gabe, eta ait-amak eta haurrideak denak elkhartuak beren ontasunaren gerizatzeke?

Ez; ez daiteke asma deusere miresgarriagokorik. Bakotxak balinbaluke lurpuska bat, ez besteeri ebatsia oraiko egunetan gizon nahasle eta alferrek nahi duten bezala, bainan bere izerdiarekin ardietsia, bakhe ederrian bizi litake mundua, negu hitsari buru eginez errexxi, gure menditarren ikhusbide araberan.

(La Voz de Navarra, 1932/12/11)

IRUÑE ZAHAR ETA BERRI

Gauza zaharrek badute bere alderdi ederra eta goxoa, zerbait gure bihotzian hunkitzen duena, eta oroitzapenak iratzartzen dituenak, bereziki gureentzat; hain aipatua izanik aitzineko mendeetan Naparroako erresuma eta bere hiri nagusia.

Iruñeko karrika zaharrak mintzatzen zaizkigu lehengo denboretako oiturez eta bizi moldez. Hertsiak eta ilhunak izanik ere, maite ditugu bere xoko eta bihurgunak. Dormitaleria, Mañueta, San Francisco, Carmen eta bertze, etxe zaharrak bere zigilu edo armaharri ederrak agerian, lehengo familia aipatuenean egoitzak gure gogoa oroitzapenez bethetzen dute. Eta orai hauzo xahar horiek erdeinatuz, ihes doa yendea auzo berri edo Ensanche hortarat, lakhet baitzakote argia eta zabaltasuna, bai eta ere osagarria, futxo!

Nola ukha osagarriarentzat hobeagoak direla karrika zabal eta etxe nasai berri horiek?

Karrika zahar eta mehar horiek lekuko dira nola orai ehun urthe Iruñen yende gehien-gehiena mintzatzen zen gure eskual mintzairan, bai eta aintzinago gibelatzen balinbagira, zer gudu izigarriak izan dituzten beren artean, egundainoko herrakundez inharrosiak, sarraski gorrienean odolztatuak, frantses arrotzak ohildu nahiz Nabar-erria hauzotik, hok bizi zirelarik Jaun Done Satordi elizaren inguruan.

Hor dira oraino karrika zonbaiten izenak, Lindatxikia, Txapitel, Mañueta, Santo andia, frogatzen digutenek, nola zen Iruñeko mintzaira eskuara huts-hutsa, eta yakina da bazela lehen Iruñen Plaza bat deitua, Zugarrondo, eta arrotzak itzuli zuen erdararat, Plaza de Olmo deituz.

Gure gazte denboran, baditu urtheak, etzen garbitasuna batere hedatua, etzen oroz gainetik baitezpedako behar bat, orai bezala; eta oraino oroitzen gira nola ur-ixurkien usain gohaindigarria gure sudur zilotik sartzen zitzaizkigun; zeren eta karrika sahetsetan bazirelarik zilo batzu lurpeko erreka zikinetaraino heltzen zirenak. Orai, zorionez, zilo horiek etsiak dira sifon tresna bati esker urak berak estaltzen dituenak, eta usain tzarrak ez dira igaiten karriketarat.

Zer ondorio onak doazkon osagarriarentzat!

Lehengo yendakia gogorra zen. Etzen hain minbera hotzari, beroari, usain tzarrereri egungo egunetako araberan.

Ez da harritzeko nola doan yendea auzo berriko bizitokietarat. Mundua bertzelakatu da izpiño bat. Goxoegi, aiseago, eta hobeki haziak eta yauntziak bizi gira. Oraiko yende aphilak lehengo ahaldunen heinenan eta herrunkan lerrokatuak dira. Langileak irabaziak lehengoetarik hiru aldiz goititurik, ikhusi behar da zer sudurrak dituen yateko, edateko eta yauntzietako. Untziko xardina eta xingar gizen urdindu guti orai langileen mahainetan. Xingar ginarrak xafra ederrak, bildotx giltxurrinak, oillasko eta sasoineko hegatzin yaki hautak.

Iruñeko auzo berria (Ensanche) ari da egin ahala hedatzen. Etxeak gero eta ederragoak erakitzen dituzte, bost, sei egoitzetakoak gehienak goititzale edo ascensor horiekin, karrika zabal eta nasaiak, zolak ederki zimentatuak, eta bidekarien ibil-tokiak ezin hobeki aphainduak.

Denboraren urratseri yarraiki behar. Erranak diona: Renovare o morire.

Lehengo gudu-harrisu gaitzak suntsiturik, eta heien azpiko phezoin beherak lurrez estalirik dena berdindu eta zelai zabal bat eginik, zer lan izigarriak oraiko egunetaraino

heltzeko!

(La Voz de Navarra, 1932/12/22)

EGUBERRI, URTHEBERRI

Errilisioneke egun aipatu horietan giristino gehienak othoizari baino gehiago lotzen dira sabelaren bethetzerat. Ba eta gero sinhestegabeak ere, nahiz Yinkoarentzat axola gutik ukanik, yateko phestetako sinhesteduneer elkhartzen dira. Hortan ez dute ukho egiten, alafede.

Eguberri goizian itzuli bat eginik merkaturat, izigarriko yendeketa khusi ginuen; trumilka harat zoan yendea, eta barne nasai guzia mukurru koka ahala baino bethea, ezin ibiliz, ukhondo ukaldika leku egin behar iragaiteko, eta gero nahas-mahas hartan ene zangoko konkor bat zapatu zaitan alimale gizon kankail batek ene zintzurretik atheraaziz, atx! samin bat. Barne haundi hura inharrosten zuen haroburrunaba batek, erle kofoin harrotu bat iduri.

Han ziren lerro lerro Iruñe inguruko herri eta herrixka guzietarik, emazteki, gizon eta nexkato, xutik, beren sahardetarik bildotx larrutuak dilindan, buruz-behiti, haragi xuri goxoak agerian, eskalearen beha. Eta segurki etziteken khexu, bazuten nahi bezanbat erosle. Ehunka izanik ere eguerdiko denak salduak.

Gero haratxago, beste atherbe batean, berinez estalia, ollo, ollasko, kapoin ahate, epher, eta hegaztin mota guzietarik, yendea sekulako kalapitan, erhotuak iduri, eta ezin higituz kasik, hain zen yendea metatua eta tinkatua, elemeniaka.

Eta bertze alderdi batean, nik dakita zer zen han! Espainia eskualde guzietako fruitu ederrenak eta goxoenak, eta denetarik hain ausarki eta nasaiki, nun harrituak izan ginen zer xahutze izigarriak egiten diren Iruñen, mahainari eta sabelari doazkon goxotasunez.

Beherean ere ba omen zen zer ikhus. Haragikeriak, arrainkeriak eta baratzekariak, dena ihaurri gaineraino, eta marruma apha bat igaiten zen handik, zerengatik ez nintzan ausartatu han sartzerat, harat-hunataka ez ibiltzeko itsas-untzi xume bat bezala uhinen artean.

Holako egunetan yan ahala sabela hantu ondoan, zonbaitek eginen dute leher-eta-zapart. Eta anartean zonbat errumes gose hamikatuak! !

Hipócrates, Greciako sendakin aipatuak erraiten omen zuen adin luzerat heltzeko, mahaitik behar dela xutitu gosea erdizka ase gabe. Erran zuhurra. Yan guti eta bizi luze. Ez dea hala, Larreko adixkidea?

(La Voz de Navarra, 1932/12/30)

OHIDURA ZAHARRAK: IHAUTERI KARAKOTXAK

Nahiz ihauteriak iragan diren, mintzatu nahi dut Baxenabarrako yostetaz egun horietan.

Karakotxa da, erdaraz, mascarada deitzen duguna. Ihauteri horietan ohartzekoa de begitarteak ez dituztela kukutzen edo estaltzen, ez ta ere ikhatzarekin emokatzen eta zikintzen, bainan garbiki agerian.

Benabarren, bereziki Garazin, biziki aiphatuak dira ene herrikoak, Luzaidekoak (Valcarlos), ederrenetarik baitira.

Horra zer eta nolakoak diren Luzaideko karakotxak.

Berrogoi bat dantzari, bi lerroetan, bolantak deituak, ederki yauntziak eta aphainduak. Galtza edo pantalón xuriak, sahetsak xingola eta kuxkulaz betheak gainetik beheraino. Espartin xuriak ere kuxkulekin. Athorra-has, aitzina urrezko edergailuz, botoinen orde. Bizkar eta sorbaldeetatik dilindan xingola luze batzu. Gerrian zetazko gerriko gorri bat, floka haundi betekin sahetsian. Eskuak eskularru xuriekin yauntziak, eta burian boneta edo xapel gorria.

Heien aitzinean doa banderaria, gero zaphurak, buruetan ardi larro iledun beltz haundi bat, haizkorak bizkarrian eta mantar xuriekin. Horien ondotik gorria palto gorriarekin eta ezpata xut-xuta eskian.

Bolanten sahetsetan doatzi atxo eta tupinak, yauntzarrak, metro bat eskuan, deneer izari hartzen, eta holako bertze yende irringarri, bai ta ere zaldizkoak soineko ederrekin.

Bainan karakotxetarik ederrena da Bolant yantza, hain aiphatua, hain eskualduna. Berrogei yantzari horiek trebeenetan hautatuak dira, eta ikhustekoa da badoatzilaik yantzan, xuri-xuriak, lerroak galdu gabe, Arnegirat, auzo herriari agur egiterat, ohidura zaharren araberan. Arnegin dantzatu onduan, eta arno xuri eta bixkotx ausarki yan-edanik, berriz Luzaiderat bazkaiterat.

Arratsaldean besta haundia. Bolant-yantza, kontra-yantza, yantza-yauzi eta yantza-luzea. Eta gero, Ayui!, ayui! eta irrintzin ozenak. Pertsulariak anartean yendeari irri eginarazten beren atheraldi urragarriekin. Nola hunkitzen dautan bihotza gure haur denborako oroitzapen horiek... hain hurrunduak!

Doniane-garazitik, Arnegitik, Uhartetik, Lasatik eta Izpuratik yendea trumilka doa Luzaiderat, karakotxetarat, erran bezala, hain aiphatuak direlakotz Garazi guzian.

Laphurdin eta Xuberon ere badituzte karakotxak idurikoak.

(La Voz de Navarra, 1933/3/4)

MENDIZ GAINDI

Gure Manez gizon goiztiarra da. Argi-urratzean xutirik zagon, bere lanetan garraiki beharrez, bizi borthitzari buru egiteko. Gathulu bat talo eta esne yan-edan ondoan eskalapoinen gantzolak antolatzen ditu katxeta batzu itzaturik, eta barneko belharra berriturikan, mendiari goiti yuaiteko.

Abiatzen da patarrari, leatxuna eta sega bizkarrian, ihaurgiketa, bordako kabalen xantzeak berritzeko, heien ixurgiek usteldurik, ungarri bilhakatzean, kalte haundia egiten baitute behieri zikin kotsagarriak.

Beñat, bere semettoa, badoa aitaren lagun, bai eta xuriko ere, zakhur etxezaina.

Maittipi, bere emazte zuhurrak, aphairu hazkor nasai bat ezarri dako, dafail xuri batean inguratua. Usain bafada goxo bat hedatzen da oihaletik, xingar xafla zerra haundi batzu eta beste yaki hun, etxekoandereak arthoski aphainduetarik.

Ihiziko denboran gure bazterretxtarrek mendi kaskoetarat yuaiten direlarik lanerat ez dute xixpa ahanzten, eta muttikoak derama sorbaldan, uhaletik dilindan.

Ihaurgi tokirat heldurik lotzen da Manez lanari hats gaitzian, pika eta pika, bere segarekin, eta eguerdiko bildu zituen meta haundi batzu, ez izerdirik gabe.

Hamabi ezkila dandak entzunik phago baten itzalean yartzen dira, eta yanaria oihalean hedatu ondoan, klika lehiatsuarekin aphairua suntsitzen dute. Han zagon xuriko ere, gose hamikatua, begiak zorrotz, muthurra luze, heldorra agerian usain goxoa usnatzen. Artho eta ogi puskak iresten ditu ziniztan bertze baten igurikan.

Gure gaizo Manez, ukhondoak altxatuak, zurrustaño goxo bat zintzurrari beheiti zoalarik, huna nun Beñat-en oihu samin batek yauziarazten duen. Bet-betan ikhusten du han berean, hurran-hurrana, harrigarriko yauzi bat eginik iragaiten, brist! ximixta bezala, erbi bat, eta agertu bezain sarri urrundua. Zakhurra ere abiatzen da haren ondotik oldar gorrian erausi garrasiaka.

Manez, xixpa harturik, badoa lasterka erbiaren bilha eta bulta luze baten ondoan enheatzen eta akhitzen hasi zelarik, zakhurraren erausiak urrunetik entzunik, bet-betan bidexka baten bihurgunean, laphar baten sahetsetik agertzen zaio, beharriak xut, yauzika, erbi bat den ederrenetarik.

Manez-en begiak nekez ukho egiten baitu gero, xixparen tiroa yali eta, inharroste bat eginik erbia erroz-gora erortzen da, kalitua, lau hatzak zeruari so.

Manez-en bozkarioa ikhustekoa zen bereganatu zuenean holako erbi larria eta azta edo phizu haundikoa!

Lehia haundiagorekin lotzen da berriz lanari eta leatxuna lurrean hedaturik, danba-danba metatzen du ihaurria, eta untsa tinkatu ondoan haga-ardatzarekin, xahakoa gohoratzen du eta zurrusta gorria iraunarazten barnea arrunt hutstu artio, brrr... luze bat ahotik yalirik.

Beñat-en laguntzarekin altxatzen du zama bizkarrerat, eta badoatzi berehala maldari beheiti etxe alderat.

Maittipi-k, bere senharraren eskuetatik hartzen du dohain ederra, loriatua. Manez-ek besoa luzaturik, halako urgulu izpi batekin doi bat idorki, erraiten dakolarik:

— No, larrutzen ahal dun berehala eta hea biharko zer bazkari goxoa aphaintzen dunan.

(La Voz de Navarra, 1933/4/28)

DONIANEKO MERKHATIAN

Doniane Garaziko merkhatu aiphatuak anitz yende bilharazten du astelehen guziz. Berrogoi kilometra inguruetako herri eta herrixka guzietarik badoa yendea multxoka, eta bideak emokatuak daude argi-urratzetik landa. Beribil, orga, karrosa zaldizko, huñez-ko, eta kabala mota guzietarik, denak Doniane alderat.

Goizeko hamarretatik arratsaldeko azken tenoreaino bada haro eta harrabots Donianeko plaza eder eta nasai hartan. Ba, eta denak eskuaraz; elearratzik ez da hitzik entzuten, saltzaile arrotz erdaldun, zonbaitez kanpo.

Kabalak, laborari tresnak, bai eta sukhaldekoak; oihalak, baratzekariak, bihiak, landareak. Hots, mozkin orotarik ausarki.

Noizian behin aditzen da frantximent bat oihuka, Bordele edo Baionatik pua. «Allons, mesdames, approchez-vous; vingt sous la piece». Bertze batek: «Voilà, menageres, ce qu'il vous faut. Plus de punaises: garanti, dix sous la boite. Allez, profitez-en».

— Ze debru dio horrek, Ellande?

— Zimitza kalitzeko herrautsak saltzen ditik, Battitt.

— Baia? To, mamutxa madarikatu horietarik agertzen zaizkiak ardura mihisian, eta futxo, ze hatza emaiten duten!

Zu, mossiu, frantximant, hea, emanezazu bat.

— Eta errak, Ellande, hau, nola ezartzen da?... Zimitza bakhotxari muthurrian emanik?

— Gizona, zozoa hiza, edo? Aski duk hedatzea herrauts birbira bat ohearen zur xokoetan. Ez dituk gehiago agertuko...bi egunez bederen.

Mahain baten gainean ikhusten ditugu yuareak, xilintxak eta uztaiak. Beste batean saltzen dira Larresoroko mizpirazko makhila aiphatuak. Aintziart-en lantegian eginak; Eskualherriko hoberenak, omen haundikoak.

Haratxago kauter biarnes bat ari da kobrezko untzi eta bertza antolatzen. Urrunago hegaztinak lurrian hedatuak. Bada nun haUta. Ahate, oillo, oillasko, ollandak eta bertze.

—Aphairu on bat egiteko gai ederrak eta nasaiak. Ez dea hala, Ellande?

— Ba, uste diat.

— Guazen aitzina. Alaintso! baduk hemen gasna. Luzaidekoek errekesta haundia die. Huna nun diren beren axai gorrituarekin. Pinterdi baten laguntzeko gauza goxoa ditekek. Uste nitek, Battitt; baina oixtian ikhusi oillasko heekin hobeki oono.

— Alo, baniak, Ellande, emazteak berantetsiko nik, bizixkoa baita, gero, ez baniz ilhunabarreko etxian sartzen.

— Heidu den aste arti.

(La Voz de Navarra, 1933/5/7)

ILE MOXTEA

Denek dakitena da Nafarroako menditarrek Uztailan dutela ardien ile moxtea.

Diteken gauza pollitenetarik da ikhustea nola arthaldeak yausten dituzten mendi gainetako alhapidetatik, eta heien sartzea herrian, artzainaren hixtu saminaren manuz. Arthaldearen aitzinean marroek eta zikhiroek bere bulunba ozenekin inharrosten dute herria, eta kudeatzaile horier yarraikitzen dira ardiak maltsoki, heien beharra balute bezala xuxenki ibiltzeko. Beren urratseer arau, gelditze ala abiatze, hein berean doa arthaldea, aintzindarien ondotik, begiak larrituak eta beharriak xut.

Etxe bakhotxak badu bere eguna hautatua lan hortako, aldizkatuz elgarren artean. Borda ondoan lerrokatzen dira hamar edo hamabi gizon, auzokoak, bere haixtur xorrotxekin, taulaz eginikako mahain luze baten aitzinean. Ardiak banazka, hazkak estekatuak, ezartzen dituzte mahain gainean, eta han, klaska, klaska, buluzten dituzte beren ile nasai eta ederretarik.

Lana goiz-goizik hasirik, bazkal aintzineko urhentzen eta bukatzen dute, othordu berant eginikan ere, zeren eta atsaldeko ez dute sekula utzi nahi lan hori, eta inahala, bururik altxatu gabe ari dira lanhari lotuak goiz guzia, lehiatsuki.

Eta, zertako, errain duzie, irakurle maiteak, nahi dute ile moxleek atsaldia haizu izan?

O!, ihardetsia errexa da. Benabarreko alde hortan (Luzaide barne) bazkari ederrari biziki aiher dire yendeak. Ezpainak milikatzeko heinean yartzen dira berehala. Edozein gerthakari aphairu on batekin ohoratzen dute; dela ogi (gari) yotzea, artho xuritzea ala ile moxtea...ba eta ehortzea ere.

Oitura zaharra hala da. Ile moxte egunian bazkari on bat emaiten dazkote langileer, auzoko laguntzaileak baitira. Yanhariak badabiltza mahian nasai eta ausarki, arno gorri lodisko batekin ihintztatuak.

Eta ikhustekoa da nola bazkaria aitzina doalarik, ze elhausturia ahoetatik yalgitzen den gero eta geiago; azkenian kalaka, harramantza eta oihutan, denek matelak gorrituak, lephoko zainak hantuak, begiak bizi eta xorrotx.

Oturuntzak luze irauten du, eta bazkalondoak zonbait aldiz atsalaskariko tenorerano. Ba, eta ordian ere zerbait hartu gabe, nola egon, nola huts egin ohiko atsalaskariari?

Ilhunabarrian badoatzi bakotxa etxealderat, ez gero goizian bezain erne eta arin, sabelak eta buriak labe gorritu baten berotasunean, ba eta ere zangoak izpiño bat herrestan.

Ilhabete baten burian yiten dira herrirat ile erosleak Doniane Garazi-tik eta Sara-tik, eta pilota plazan phizatzen dituzte iliak, zamaka, mihise eta marregetan inguratuak. Eta eremaiten dituzte Doniane alderat, handik Frantziako lantegietarat igortzeko (baltzeko), geroago ilezko yauntzi beroetan bilhakatzeko.

Ilearen sariak sakelak brokatu ondoan, emeki emeki plaza husten da eta birazka ...

— Ori, Benat, beransko baita orai etxeraino yuaiteko, nahi duzia hemen bazkal dezagun?

— Nahukan bezala, Ellande.

Eta gehienak adostu ondoan, bathere samurtu gabe afera horri buruz, han gelditzen dira bere baitan erranez: «Ba, ixilaraziko diat ba, emazia, moltsa gizen hunekin».

Sinesten ahal duzie, irakurleak, ene herritarrek deramaten bizia ez dela, ez, hain

hertsia nola herrixka itsusi batzuetan, langileak eta zuhurak baitira, eta badakitelakotz beren lurgintzako eta kabaleen mozkinen sariak beiratzan, noizian behin gorputzari dohazkon goxotasunak, ukhatu gabe, zuzenak eta garbiak direlarik.

(La Voz de Navarra, 1933/12/5)

SANFERMINETARAT

Uztailako 6-an gure herritik iragan eta iragan egun guzia zabiltzan automobilak, Iruñe alderat, hemengo besta aiphatuen ikhusterat.

Lau gizon gazte, adixkide minak, han zauden karrikan, so eta so, nola zoan yendea yostatzerat, eta gutizia hortarik kotsatuak erabaki zuten lauek hek ere, zer demuntre, behar zutela gorputzari eman eskatzen zuen inharroste eta bozkarioa.

Hartu zuten auto bat eta bazkal ondoan, trenpe ederrenian badoatzi alegera eta lorios Iruñeko besta ederretarat, egundaino bezala ez diren yostatzekeo ustean.

Autoan izterrak zabal zabalak hedaturik, zonbait irrintzina egin ondoan, hasten dira Urso xuria kantatzen.

Gure muthikoak Auritzetik hego alderat etzuten philik ezagutzen, eta Iruñerat hurbiltzean harrituak zauden eremu agortu eta idor horiek ikhustean. Gaizoeke uste zuten mundu guzian bazirela Garazi aldeko phentze eta larre pherde eta muskerrak.

— Dabrien bisaia, erraiten zuen batek, neholere ez nezakek laket lur kixkaldu itsusi hautan.

— Ba, altaa, ihardesten dako lagunak, Kalifornian ere berdintsu omen dituk, eta hea ez denetz han egiten sos ederrik. Hire osabak zerbait erran lezakek hortaik.

— To, nahukana; bana ez nezatela athera ene xoko pollitetik.

Ilunabarrian sartzen dira Iruñen, eta plaza haundi nasaia ikhustean harritzen dira. Yendez leherra alderdi guzietan, haro eta marruma haundian, dena harrobots eta argi disdirant: lilluratuak zauden.

— Hauxe duk, hau, hiri ederra eta miresgarria.

Tetelduak, begiak larrituak harat-hunata zabiltzan, oro ikhusi nahiz, botiga ederren aitzinian loriatuak, argi disdirant itsugarriak alderdi guzietan.

Karrikaz karrika ibili ondoan, lehertuak, azkenian ardietsi zuten nun afal eta etzan. Bostgarren bizitoki batian hegatsari hurbil izigarritzko bero egun batian, lauak ganbera berean!...

Berant afaldurik, akhidurak loelatu zituen eta badoatzi oherat, biharamunean zezenen sartzea ikhusteko xedean.

Bainan doi-doia ohean sartu ondoan, zimitza eta kukuso madarikatuak hedatzen dira mihisetan, eta nihondik ez dira han egoiten ahal: osteka dabiltza mamutxa gohaindigarriak. Zer egin?

Badoatzi kanporat karriketan gaindi ibiltzerat, zezenen sartzeari igurikan. Eta seiak eta erditan ardiesten dute plazan sartzea, ukhondoka bidia eginik yende trumilka hartan.

Kanpoko aldeko sohailuan kokatzen dira, handik ikhusteko zezenen yitea karrikatik landa.

Izigarriko furfurian, buztanak inharrosiak, ximixta bezala ikhusten dituzte zezen muthur beltzak gazteriaren ondotik begiak phindarretan, adarrak heien iphurdiari hurbil, eta, brist! sartzen dira barnerat. Eta plaza hartan denak nahastekatuak gizonekin, adar ukhaldika ezker eta eskuin ikhustean, gure gaizo muthikoen bihotzak punpa panpaka yauziarazten ditu, ikharatuak, izialdura haundian, hertsura gaitzian.

— Dabrien arima, Joanes, (dio batek), egundaino ez nitek sinetsi bazirela holako zezen errabiatuak.

Iduri dik debrua bera dutela barnian. Ageri duk ba Españako odola dela. Eta

adixkideak erraiten dako:

— Ze, uste hien Doniane Garaziko zezen xuri maltso hetarik zirela?

Handik athera eta yakin zutelarik atsaldian Corrida de toros hartan zezenek zaldieri adar ukhaldika tripak lehertzen zazkotela, eta hertzeak dilindan eta lurrian herrestan daramaztela gaixo zaldiek, ohkaztagarri sarraski odolztatu hori neholere etzuten ikhusi nahi izan. Basakeria holakoak bihotzgabe koentzat.

Atsalde hartan etzakiten zer egin, zer ikhus.

— To, gogoratzen zaio bati: guazen Circo-rat, han yostatuko gituk.

— Goazen ba, iardesten dute guziek.

Circo-aren athe aitzinian bazen zimino bat, eta ze irriak egin zituzten debru apho xar haren itzulipurdiak eta bere begitarte biziaren kheinu eta yestuak ikhusirik.

Zukre mokhorrak maite zituen itsuki, bainan norbait ausartatzen bazen trufatzerat, borthizki mendekatzen zen.

Han zagon muthiko batek zukrearen iduriko harri koxkor xuri bat eman zakon, eta ziminoak ahoan xehatu nahiz, hortzak kraskatu zitzazkon. Herra gorrian yauzi batez khendu zakon muthikoari bere lastozko xapela eta han berian zintzirikatu, pusketan, yende guzia irriz urraraziz.

Sartu ziren barnian eta harrituak zauden ikhustean nola gizon alimale batek, erdi buluzia, indar gaitzekoa, bihurtzen zituen burdinak eta izigarriko phizuak altxatzen.

— Debrien urdia! horren pasoa ez dutek Maneztitiapiarena bezalakoa, dio Yuanesek.

Gero athera zen itxura arras txarreko gizon bat, bizarduna, burlan debruaren iduriko adar gorri batzuekin, eta zetazko soineko luzeak herrestan, ezin sinetsizko sorginkeriak egiten zituenak. Iztupa phiztuak garrian iresten zituen, ba eta sagar oso-osoak ere. Eta azkenian iru zehe luzetasuneko kanibet edo nabala bat, hertzetaraino heltzen zena, zintzurrari behiti sartu zuen.

Baina hau zen, hau, harrigarriena. Suian gorritu burdin bat ekharri zakoten. Eta, ze uste duzie egin zuela harekin? Zakhurak eztian ibili untzi bat milikatzen duen goxotasunian, harek ere milikatu zuen burdin gorritu hura... eta mihia bathere erre gabe, gero.

— Debrien arima! guazen hemendik, guazen etxerat; eztikiauak zer debrukeriak ikhusiko ditugun Iruñe huntan, gehiago egoiten balinbagira, zioten izituak muthiko eskualdunek.

Berehala autoa hartu eta afal aitzinean, sartu ziren herrian.

— Ze, yostatu ziztea Iruñen?, erraiten zakoten herritarrek...

(La Voz de Navarra, 1934/1/24)

SUPAZTER SOLASAK

Neguko arrats luzeetan supazterrak errekesta haundia du. Suia egurrez ausarki hazia, sukhalde guzian hedatzen da berotasun goxo bat, eta han daude denak bilduak afal aitzinean, hain goizik illundurik. Aitaxoa bethi bere alki zizelu xokoan dago, bizkarrak gerizatuak, bere zahartasunaren hozperaz.

Supazterreko solasaldi horietan burasoek atheratzen dituzte beren gazte denborako gerthakariak eta oroitzapenak, eta denak, bereziki haurrak, heieri so daude behakoa baztertu gabe.

— Yinko huna! erraiten zien Mañiñok, nola aldatu eta bertzelakatu diren gure denborako ohidurak...!

— Ordian etzukan hitzik ere erdararik aditzen karrikan. Zoazte, orai. Berrogoi eta zonbait carabinero horiek, beren emazte eta hurrekin itho die eskuara karrikan.

— Oroitzen hiza, hi, Geaxan, gure gazterian Orriagako erregebidia etzelarik oraino egina nola bizi ginen hemen, gure xokoan, gure lekhitze guziak Doniane alderat, eta nola etxeko eta soineko behar ginituen guziak Intxauspe-enian, edo lehen deitzen ginuen bezala, Xerbaxo-enian, erosten ginituelarik?

Eta gero lehengo nexkatoek ere orai baino yauntzi pollitagoak eta eskualdunak zituztean, bere igandetako buruko ñimiño heekin, zetazkoak, xuri, arrosa, urdin eta horiak; eta atxoak motto beltz buztandunekin.

Hail, hail orai holakorik ikhusterat. Oraiko nexkato guziak buru has dituk, hirietan bezala. Ba eta gero Parisetik edo Bordeletik sehi egonik yiten direlarik zonbait egunendako, beren xapel pollitekin ere, anderiak bezala aphainduak. Alaintso!

— Altaa, gutaz ere, zion aitaxoak Mañiñori, zerbait erran ditaken. Xamar labur beltz hura eta pipa eta gerrikoa yuan ditun sekulakotz.

— Ze nahun, Mañiño, oraiko ohidurak ez ditun guretako eginak. Yendia arrotztu dun nahastekatu kanpokoekin eta damugarritzko egia hunek, holako gauzak ikhusirik, bihotza hitsten dian.

— Hala duk, hala, Geaxan, Yinko maitia! gure ait-amak errephitz balite ez lezaketek oraiko yendia ezagutuko.

— Eskualdungoa galtzen badute gaixo haur hok ethorkizun hitsa ditiene, eta gogoeta hunek bihotza urratzen dinat, Mañiño.

— Yinkoak bereganatzen nuenian ene othoizen arthean hau galdeginen dikonat. Ez diten othoi arrotz bilhaka gure haurrak; gure ohidura garbiak eta arbasoen mintzaira yarraik dezaztela.

Hori hitzemaiten badazie, haurrak, ene heriotza eztituko duzie.

Hurrek, nigar punpulk ahanxu begietan ihardetsi zakoten, Yinko lekhu hartuz, hitzemaiten zakotela haren nahikundeak yarraikiko zituztela.

Xaharren begitarteak argitu ziren eta pot edo musu batzu emanik, heien buriak pherekatu ondoan, yuan ziren oherat beren bihotzak eztituak eta ematuak.

Haurrak eta gazteak beren barneak arras hunkituan han zauden sukhaldean ixilduak, eta bultaña baten ondoan, batek erraiten du:

— Gu re elizako othoitz egiteko liburuak eskualdunak dituk, etxe guzietan bezala. Etxean ere guziak eskuaraz mintzatzen gituk, eta Eskualduna astekaria aspaldidanik erosten diakuk munduko berriak yakiteko eta gure lurgintzako zeretan ikhusbide hunak erakasteko.

Beraz, eztauk beste deusere beharrik gure bizia bakian iragaiteko, arrotzen ohidura eta mintzairan bathere nahasi gabe. Eta Yinkoaren laguntzarekin izain gituk bethikotz eskualdun. Horra gure egiazko zoriona.
(La Voz de Navarra, 1934/2/9)

BAZTERRETXIAN

Manex, Ibarrondoko nausia, Battitt, bere semia, eta etxeko muthila, argi urratzean yaikirik, abiatzekoak ziren gaineko alhorraren iraultzerat. Sukhaldian goiz-askariko gophorak husturik, etxekoandera aphaintzen ari zen askariari beha zauden. Xingar xafla eder batzu, ogi zerren erdian, usain goxoak sudurrak kilikatzen zituztenak.

Behiak bordan uztartu ondoan badoatzi alhorrerat. Zonbait egun euritsu iraganik, lurra guritua, arras plantan da goldearen barnatzeko, eta badakigu hazia barnago ereinik mozkin nasaiagoak emaiten dituela ogiak, bihi hauta erein delarik.

Lotzen dira lanari trenpe haundian. Manex, itzain, esku bat adar bati lothua, bestia akhuliarekin, kudeatzen ditu behiak oihuka. Alo, hots, behia be!...Muthilak, goldaren giderra eskietan, ildo aska barnatzen du, eta Battitt ari da belhar kaltekorren khentzen. Zakhurra ere, burla eta buztana apha, yarraikitzen da nausiari, laguntza baten igurikan iduri.

Elizako bederatzi dandak entzunikan yartzen dira alhorreko iphuruaren sorhophilan, gaztain ondo baten azpian, eta askariari lotzen dira lehiatsuki, ahamen goxoak aldizkatuz xahakoaren zurrusta gorriekin.

Xakhurra ere, heldorra ezpainen, han dago zerbaiten aiduru, sudurrak daldaran, eta ogi puska batzu iresten ditu airian zalhukara.

Indarrak berrituak, ari dira eguerdi artio, danba, danba, tirahala lanian, sekhulako lehian. Eta ikhustekoak ziren ze lerro xuxenak egin zituzten lur gorri hartan, geroago ereintzak uzta onak emaiteko.

Hamabiak irian agertzen da Kattalin etxeko alaba, zare haundi bat besoan, gizonen bazkariarekin. Eguerdiko danbak entzutean, hiru gizonak, buru-has anyelusako othoitza egiten dute, eskualdunen ohidurari huts egin gabe.

Kattalinek hedatzen du dafail xuri bat eta han ezartzen ditu bazkariko yanhariak. Kazula batian aza eta ilhar gorriak, gero xingar zerrak, lukainka, gasna eta sagarrak, denetarik ausarka eta ardo goxoa ausarkiago.

Ba eta aphurrik utzi gabe denak klikatu zituzten, xahakoari ardura lothurik, gainbeherako zurrustaño harek zintzurra arintzeko.

Ase hun bat egin zuten denek, xakhurra ahatzi gabe. Behiek ere bazka nasai bat ukhan zuten.

Oren erdi batetako lo bat eginik xutitzen dira lanhari berriz yarraikitze, eta iraul eta iraul, atsalaskaria zalhu eginik, ilhunabarra artio etzuten bururik altxatu.

— To, badiak aski egungo, dio Manexek, eta behiak bordan sarthu ondoan heltzen dira etxerat arratsirian eta ezkaratz aitzineko lauzetan eskalapoinak thorroskaturik sartzen dira sukhaldian.

Ene herriko eta Benabarreko ohiduraren arau, lanetik itzultzian, afal aitzinian ikhuzten dituzte zangoak, etxekoandeariak ekharri untzi haundi baten ur beroan.

Gurien arthean garbitasuna da oroz-gainetik gauza beharrena, eta ohidura horri sekhula ez dute huts egiten.

Supazter ingurian bilduak, solasaldi luze batian zaudenean, eltzia eta duphinak ari dira irakitzen, eta zartaina ere bere urin urtuarekin han dago arroltze eta xingarraren beha... Sukhaldeko soliboetatik dilindan daude xingar-azpi, birika, eta lukhainka ederraz, handik yausteko prest.

Anartean, etxekoanderaia afaria aphaindurik, mahainian yartzen dira gizonak, biharamuneko indarrak errephizteko.

Oherat yua aitzinian bakhotxak husten du gophor esne bat harri-burdinekin egosia, hurrupaka ozenekin, bere berotasunaren ganik.

Eta horra gure gizonak, loelatuak, begiak hesteko phundian, nola doatzin etzaterat, mihisien arthean sarthu bezain sarri lo zurrunga ederrenian gaua iragaiteko, eta goizian bezala, biharamuneko argi-urratzian yaikitzeke, beren funtsen lantzeko xedean, mundu nahasi eta bihurri huntako gerthakarietaz hitzik yakin gabe. Ez beharrik ere, to!

Holako bizitze dohatsua daramate Ibarrondoko bazterretxian, bere xoko maitian, nehorri makhurrik egin gabe.

Irular adixkideari

Ene Axularren idaztarian ahatzi nindutan haren Gero-ko aitzin-solaseko hitz ederrak eskuararen alde, zuk agerrarazi dituzu ene hutsaren bethetzeko.

Nik ez dakit nola ez zitzaitan bururat yin holako hitz yoriak eta ezagutuak. Esku menean nintuan, alaa.

Nik ere hautemaiten ditut, ba, zonbait huts bertzeen idaztietan, bainan...

(La Voz de Navarra, 1934/5/15)

GURE DANTZAK (Benabarreko eskuaraz)

Hego aldeko eskualdunen dantza ederrena eta aipatuena da, iduriz, aureskua. Dantza aithorenses, egiazki.

Mendiz beste aldeko dantza eskualdun huts mami gehiago duenak, eta denen arthean ezagutuena da, Yantza-yauzia.

Baztan'go Mutil-dantzak badu eite zerbait harekin, eta nik uste dut handik hartua dela, bainan neri etzait hain ederra.

Behialako dantza, bihotza inharrosten daukuna, zeren eta dantzak eta bere soinuak badute usain bat aitzineko mendeetako urrunduenetakoa, eta gure barnea hunkitzen du entzuten dugularik. Hain dugu sarthua bihotzian, hain da gurea, hangoa! Errotik eskualduna.

Badira dantza berarentzat aire mota zonbaitetakoak, bakhotxa bere izenarekin: Baxenabartarrak, Laphurtarrak, Xuberotarrak, Luzaidetarrak, Muxikonak, Xibandarrak. Horra Yantza Yauziaren aireak, bainan neri iduri zait ederrena Muxikonak.

Hitz hau Xuberokoa da, eta nik uste dut aldatua edo bihurtua dela. Batzutan idazten dute «Mutxikouak», eta hitz hau gure eskuararati itzulia, ez othe da «Mutikoak»?

Lerro inguru zabal bathian dantzaten dira eta soinulariak manatzen ditu bere harat-hunatetan eta yauzietan. «Ezker, eskuin, hiru yauzi, ozka, pika» eta dantzariak harek erranaren arau ibiltzen dira. Eta zangoak airian dardarikatzen dituzte.

Dantza hunen lerrotan sartzen dira gizon zaharrak ere (dardarikarik gabe, yakina...) bere pipa ahoan, eta paisola besapian.

Baditugu ere beste dantza eskualdun hutsak. Bolant-yantza, Yantza-luzia, Atxo eta tupinak, eta bertze.

Ihauteri egunetan besta ederrak egiten dituzte, «karakotxak» deithuak.

Izen horrek «mascarada» erdarazko hitzaren ordezkia ditake. Nehork ez du begitartea estaltzen edo zikhintzen. Denek agerian.

Berrogoi «bolant» bi lerroetan, xuriz ederki yauntziak, bonet gorriekin, punpuladunak, galtzak xingolaz aphaindiak, ba eta sorbaldak ere; gerriko zetazkoak, eta eskiak eskularru xuriekin.

Heien aintzidari doatzi, «banderaria», eta haren ondotik «gorria», bere palto gorriarekin, ezpata bat xuta eskian.

Gero «yaun-tzarra, atxo eta tupinak», eta beste yende irringarri.

Luzaide'ko ohidura zaharraren arau karakotxak yuaiten dira goizian Arnegi-rat, eta bolantak bethi dantzan, lerroak galdu gabe, agur egiterat auzo herriari.

Eta ikhusi behar da arratsaldean ze yendeketa ethortzen den Luzaideko plazarat, Arnegi, Lasa, Uharte, Izpura eta Donianetik besta ederraren ikhusterat eta dantzatzerat, zeren eta gure herriko karakotxek aiphu haundia dutelakotz.

Eta ilhunabarrian kanpokoak etxeratekoan ze irrintziak, ze ayui, ayui! eta harrabots. «Espainiako» ardo lodixka dastatu ondoan.

Egun hortan dantza eskualdun guziak dantzaten dituzte.

Yantza-yauziaren airea paperrian dut, eta Gipuzkoa'ko dantzari Batzak nahi balinbadu ikhasi, gogotik bialduko dakot.

Nik uste dut aire horrekin dantzaten ahal dela Mutildantza.

Eskeintza hau egiten dut ezagutzen ez dutelako ustean.

Iruñen, 1935'eko Otsailan.
(El Día, 1935/3/23)

ARNEGI-KO BESTETAN (Benabarreko eskuaraz)

Agorrilaren hamabostian, Andredena Mari egunian dira herri huntako bestak.

Luzaidetik eta Undarlatik gazteria guzia badoa, bidiak xinurri lerroak iduri, bazkal ondoan, denak Xiximurru mendixkari buruz, haren azpian den herri pollitean yostatzerat.

Bezperak landa, Faustin soinulari ezagutuak, Benabarreko aiphatuena eskual dantzetako plaza inharrosten du eta bihotzak alegeratzen «Yantza Yauziaren» airea hasten dielaik. Lerroa gero eta gehiago haunditzen da dantzari gazte trebeenekin lehenik, eta heien ondotik ezkontiak eta zaharrak ere, aire eskualdun horrek odola errephizturik. Ze oroitzapenak berritzen dituen gizon adinduenetan, gazte denborakoak, hogoi urthetakoak, beren ametsetako nexkatoen aitzinian zangoak dardarikatzen zituztelarik, bethikotz ihes egin duen arintasunarekin, ez oraiko izter herremelekin.

Yantza-yauziaren ondotik hasten da «Kontra-yantza», eta muthikoak badoatzi nexkatoen alkietarat langun bathen bilha, ahal bezain pollita, eta hautatu duenaren baimena ardietsirik, eskutik eremaiten du plaza erdirat. Eta denak birazkatuak direlarik, ze trenpian hasten diren.

Noizian behin ere emaiten daukute «Yantza-luzia», eskualdun dantza ederra, lerro luze bathian nexka eta muthikoak aldizkatuak, mokaneseekin lothuak eskuz-esku, eta aintzindari, makhila altxatua, xingolez eta udarez aphanidia, deneen gidari.

Bainan ostatuak ere koka-ahala bethetzen dira, eta ze harramantzak eta kalapitak arnoak sor-arazten dituenak!

Jakina, koblak ere atheratzen dira, Boryel-enak ahatzi gabe, denak bozkarioari emanak.

Elhausturia hartan orotarik mintzatzen da, ahoetarik burrustan atheratzen dira solas-gai guzietarik. Batzuk azindez, besteak lurretako zeretaz; uztak, ongailuak eta ongariak. Zoinek abereen minen sendatzeaz, harek sathorren kalitzeaz, hunek xerrien hasteaz. Eta denak oihuka, eta ardura paso bat mahian emanik, bere erraneri indarra emaiteko... Eta anarthean basoak bethe eta huts, huts eta bethe...

Oraino, sagarnoa, edo Irulegiko mehe hartarik izan balitz. Bainan Naparroako ardo lodixka horrek, ezpainetik ezin utzia, debriak barnian ditu. Beraz, harritzekoa othe dea kanporat atheratzian beren hurratsak makhur eta hurri izan ditene? Ez bathere.

Heien arthean bazen gizon horietarik bat bethi zerbait yokatzeko gogoan dutela.

— To, nahukana yokatzen diat mahi bathen gainian buruz-behiti eta zangoak goiti egoiten nizala bulta bat, erraiten yakon lagun bati. Ezetz, baietz, liphistan hasi eta denak berriz sarthu ziren ostatuan. Mahaiko basoak baztertu ondoan, gure gizona kadera batherat iyan eta xut-xuta ezartzen da, buria mahian eta ixterrak goiti... bainan eskiak mahiaren hegian lothuak.

— To, to! ze, hori duka hire balentria? Nik ere hori inen diat, ba. Kentzik, kentzik, eskiak.

Hunek ere nahi izan zien gauza bera egin, bainan laguna bezala ezarri zelarik, ez dakigu xuxen barnia nahasi zitzakon, edo arnoa zintzurrerat yaustian ithotzen zuelakotz, edo zer gerthatu zakon, bere gorphutz handiaren phizuak garaitu zuen, eta erortzen da basoen gainian harrabots gaitzian bospasei phorroskaturik, ez haatik haren haragiak xixtatu eta zauritu gabe.

Etxekanderia erasiaka eta oihuka hasirik, yandarma bat sarthu zen eta kalteen saneurria ordainarazi gainez amanda edo multa bat pagarazi zakon itzuliphurdiaren egileari.

Ilhunabarra zen, eta huñez biltzeko ezpaitziren aski erne, hartu zuten «Sebastienen» autoa, eta horri esker heldu ahal ziren beren etxetarat makhurrik gabe, bainan biharamunian lanhari lotzeko trenperik xarrenian.

Iruñen, 1935'eko Jorrailan.

(El Día, 1935/4/25)

ARNOKETARIAK

Denek badakigu Nafarroako arnoak ze arrakasta dien mugatik bertze aldeko herrietan, eta bere goxotasunak eta indarrak izari gainetik edaten delaik zonbat buru nahasten dituen, hurratsak xuxen egiteko nekhe aundiak emanik.

Eta ezta bathere harritzeko, zeren eta hangoak mehetxoak direlako, eta gero... hiru edo lau aldiz kariogoak.

Eta hala izanikan, yakhina, kontrabandari lothu dira yendiak, irabazpide haundiek hortarat lerraraziz, eta mendiez gaindi, eraman-ahala ari dira mugatik harat pasatzen. Nik dakitan herri bathian, eta bere izena ixildu nahi dutana, arras emanak dira sal-eroste hortarat.

Luzaiderat ethortzen dira bere mandoekin, eta bakhotxa bi zahagi haundiekin arratsalde aphalian abiatzen dira mendiari goiti.

Bidexka guzien zokho-mokoak axeriek bezain untsa ezagutzen dituzte, eta ilhunabarreko heltzen dira mendi gaineko mugarat.

Han hemenka badabiltza bertze aldeko mugazainak kontrabadixten barrandan, bainan heietarik ihes egiteko arnoketariek ere badituzte kideko laguntzaileak toki egokienetan khukutuak. Handik ikhusten dituzte mugazainen hurratsak, ba eta arnoketarietak ere. Zerbait hirrisku hautemaiten balinbadute, hek dakiten hixtuekin yakin-arazten deztee mugazainak hurran dabiltzala, eta kuku ditene; ala eskuinerat edo ezkererat har dezaten bidia, heien eskutan ez erortzeko.

Ez dakigu nola, bainan bethire zahagiak heltzen dira mugatik haraindiko ostatuetarat, batzutan denen agerian, eta bertzetan etxe inguruetako alhor edo phentzeetako sasietan gordeak utzirik.

Debru mihi gaixtoek diote mugazainek ez dituztela zazpi ahalak egiten arnoketarien bahitzeko, ba eta heiek ibiltzen diren bide bazterretan ere ardura kausitzen dutela hesol batetik dilindan xahako eder bat arno goxoz hantua... egarriaren itzaitzeko.

Eta ze irabazi pollitak egiten dituzten. Arno litroa hogaira sos erosirik, han saltzen dute berrogoita hamarna, hangoa baino anitzez merkheago eta hobe.

Ez da, beraz, balditzekorik, eskutaik nola harrapaka khentzen dazkoten eremen guziak. Saltzailea loriatua, eta eroslea arras kontent.

Eta gero ikhustekoa da ostatutan arnoño horrek nola bozkariotzen dituen bihotzak, eta mihiak laxo-laxo, ze elhausturia eta kalakan dabiltzan.

Ba eta etxeratekoan hurratsak sigi-sagaka, bidia zehiarka egin behar, buria freskatzen ez deno.

Bainan biharamunian, zintzurra latza izanikan ere errain du bere baitan:

— To, Mañex, barda soberaxko xurgatu nikan. Arno goxo horrek debriak ditik barnian, eta sekhula ez nindaitekek ase.

Eta gure Mañex gaizoa igandian berriz yuain zauku ostatu xokorat musian bi pinta nornahiri yokatzeko...

Bekhatuño hortaik kanpo arnoketari horiek biziki yende hunak dira. Eta ze gizon gothorak eta azkarrak!

Nik khausitzen ditut noizian behin mendiko bidietan eta solas aldiño bat ere egiten dut heiekin, eta gehienek hitzik ere ez dakite frantsesez! Hain dira eskualdun garbiak!

(La Voz de Navarra, 1936/1/17)

IHAUT-ASTEARTE

(Ohidura zaharrak)

Ihauteritan eskualdunak maite du yostatzea, baina sekulan ez du, bertze lekutan bezala, begitarte kukutzen, haren estalian egiteko trufa laidogarriak, aho-mihitan ibili ez ditaken gauzak agerian ezartzeko, emazte eta gizonen hutsak edo ahulkkeriak salhatzeko, ba eta frango lizunkeria ere erraiteko, ustez eta begitarte esataliarekin haizu direla zilhegi eta sori ez diren itsuskeriak egiteko.

Eskualdunak ihauteritan begitartia agerian du, (mintzo niz mendiz haraindikoez), eta soineko disdirantekin yauntzen da, eta azkarki yantzatzen, baina nehor gaitzitu gabe.

Ez niz mintzatuko orai Baxenabarren, Lapurdin eta Xuberon egiten dituzten «karakotxa» eder eta aiphatuez.

Bakharrikan yakhinarazi nahi dut ihaut-asteartez buharniek egiten duten eskea etxez-etxe ibilikan, eta hek kantatzen dituzten koplak batzu.

Egun hortan, ohidura zaharraren arau, buharniek edo yituek eskatzen dute xingarra etxetan eta eskutan daramate gerren luze bat hartan sartzeko biltzen dituzten phuskak.

Eskaleek etxe aitzinian kantatzen dute:

«Santibatek, andere
Aurthen bezala, gero're
Santibatek igortzen gitu xingarketa gu ere»

«Ez dugu nahi urdia,
Ez eta ere erdia,
Kostumako legearen gatik, liberako zathia
Liberako zathia eta gerrenaren bethia»

(Eskerren bihurtzea)
«Eman duzu nobleki,
Konpainiak ere badaki,
Parabisuan sar zitezela hamabi aingeruekin,
Hamabi aingeruekin eta zure familiarekin»

(Etxekanderiari lausenguak)
«Etxian eder ohako,
Haurra sortzen deneko,
Etxen huntako etxekanderia zaldiz elizarako,
Zaldiz elizarako eta zilhar kaderan yarriko»

(Deus ukhaiten ez dutelarik),
«Guazen, guazen hemendik,
Hemen ez duk xingarrik;
Etxe huntako gazitei xarrian sagiak umiak hazten tik»

«Etxian eder aihotza...

Etxekandere hortz motza.
Su burdinak hauts ditzatzula sudur eta kokotza»

Eta holako beste anitz badira, gehienak irringarriak.
Yakhina, gure haur denboran karrikako muthiko guziak yuaiten ginen Luzaiden buhame eskaleen ondotik, heien atheraldiekin irri egiteko, eta koplak gogoz ikhasteko.

Iruñen, 1936-ko Otsailan
(La Voz de Navarra, 1936-2-25)

IX. ATALA
ZENBAIT

OLDOZPENAK ETA ERRANAK
(Pensamientos y dichos)

Zakur erausitzale, ez da ausikitzale.
(Perro ladrador, no es mordedor).

Gizon ukhakorrak oinhazea ereiten.
(El hombre pesimista siembra el dolor).

Nun den lulikia, han da arranoa.
(Donde está la carroña allí está el buitre).

Hedoi beltzak, erauntsia agintzen.
(La nube negra, anuncia la tormenta).

Onezia ez da ahultasuna.
(La bondad no es debilidad)

Luze igurikatzen duenak, etsitzen du.
(El que largo espera desespera).

Holako egurretik, halako expala.
(De tal tronco tal astilla).

Gizona eskergabea, higuigarri da.
(El hombre ingrato es despreciable).

Eztiari uliak leihatzen dira.
(A la miel acuden las moscas).

Guti yaten duenak bizia luzatzen du.
(El que come poco alarga la vida).

Benabarreko eskuaraz.

(La Voz de Navarra, 1931/11/12)

OLDOZPENAK

Emazte aldakorra eta lagrikuna, azkenian izuna ta lizuna.
Irabaz nasaiki eta xahu zuhurki ondasunak ausarki.
Selhauru bethea, etxeko bakea.
Ogi eta egur, elhurrari ez beldur.
Gizon berekoia, behardunen etsaia.
Arno edaleak, ahoan eleak.
Adimendu handietan nagitsuna nabaro da.
Gizon zikoitza, bihotz borthitza.
Arrotza etxetik nausitu eta yabea ohildu, ardura da gerthatu.
Eskualduna da langilea, zuhurra eta perestua. Bere ohorea erresuma guzietan aipatua.
Ausartasuna goretsia eta herabea gutietsia.

Pensamientos

Mujer voluble y coqueta, acaba en falsa y deshonestas.
Ganar con largueza y gastar con prudencia los bienes en abundancia.
Granero colmo, la paz de casa.
Pan y leña no temen la nieve.
El hombre egoista es enemigo de los necesitados.
El bebedor de vino las palabras en la boca.
En las grandes inteligencias, la pereza es frecuente.
Hombre avaro, corazón duro.
El extraño que se adueña de la casa y expulsa al amo ocurrió con frecuencia.
La reputación de los vascos en todas partes la mejor.
El vasco es trabajador, prudente y probo. Su honor en todos los países es mencionado.
La audacia es elogiada; la timidez despreciada.
NOTA.— He compuesto estos intrascendentes pensamientos con el fin de dar a conocer algunos expresivos vocablos de la Baja Navarra.

(Benabarreko eskuaraz).

La Voz de Navarra, 1932/4/6

SOLASALDIAK

Neri erraiten daute gizon uzkur eta nagia nizala nere sailari lotzeko. Egia erran, bada hartan egi puska bat, nihauk ikusten dut, ez bainiz itsua; bainan behar dut argitu poxi bat erran hori. Ene bizimoldeko baitezpadako beharreneentzat ba daiteke, ba hala ditakeela, bainan futxo, eskuaraz idazteko aithor dezazie ez nizala bathere alfer, alafede. Ni baino nagi direnak badira sail huntako, eta hor dira ixilduak, ezpainak yosiak, hitzik erran gabe, hain polliki idazten badakitelarik.

Beraz, nere lazokeria ez da orotako berdin. Zerbait bada higiarazten nuela; bihotz xokoko su phindar bizia hunkitzen dualarik eskuararen amodioak. Ordian lehia khartsu batek beretzen nu eta bermatzen niz gogo eta bihotz osoekin ene eskuarako gosearen asetzeko.

* * *

Luma eskuan hartzen dutalarik aldiz gehienetan ez dakit zertaz mintza eta adimenduari galdegiten dakot argi nezan doi bat, irakurle maiteerentzat zerbait idazteko, bainan eneatzen ez diton gisan; hots, zerbait azken lerroraino yarraik diton gostuan, mintzaldi solas goxo batean. Ardiesten duta, yaun irakurleak, nere nahikundearen helburua?

Hortan ziek duzie hitza, bainan halere, zuen ihardetsia ez yakinikan ere, ni banoa aitzina, ausarta, lerro eta lerro idazten, zuen barkamendu amultsuari esker, aitzinetik igurikatua.

* * *

Yainkoa urrikaldu da azkenian gutarik, yuan den asteko aro hotz izigarri hura altxatuz, eta orai eztitasun epholean goxatzen gira egun hautan, iguzkiak parekatzen gitu bere piru eta argi biziarekin. Hola bizitzea yasaiten da bainan hotz ikharagarri heiekin, otsoak berak suntsitzen ditu, hain gogorak ere izanik.

* * *

Atzo, Iruñe bazterretan inguru bat egiten ari nintzalaik, gelditu nintzen ikhusteko nola laborari bat ari zen lurra iraultzen bere goldearekin eta idieri akhulatzen, noiz eta ohartzen niz eskuarazko hitzez garraikiarazten zituela idiak. Aida, be azti, hots, eta holako. Gizon gaizo harek hitzik eskuaraz yakin gabe frogatzen dauku nola aitzineko denboretan ehun urthe doi doia, Iruñe bazterretan mintzatzen zen yendea gure ele ederrean. Eta zer asmo hitsak yin zaizkitan gogorat hura ikhusiz! Zer ondorio deithoragarriak ekharri daizkigun gure mintzo eta ohikuntzeen galtzeak. Guhaurentzat gure elea mintzo arrotza! Zer da ahalgarriokorik? Hortaraino yautsi gira.

(La Voz de Navarra, 1933/2/4)

NAHAS-MAHAS

Badoa, badoa aintzina negua, eta zorionez orai artio «beretarik» egin gabe, salbu lehenbiziko egunetako elhurtea.

Ez gira, seurki khexatzen ahal, eta epheltasun goxo huntan iraun balezaz ez gintezke lotsa negu izigarriaz.

Bainan... zaite, oono hor ditugu urtharrila eta otsaila, ilhabethe beltzak, bere hotz eta karroin borthitzekin.

Iragana iragan, yin ditela, ihardokiko gira ahal bezanbat soineko lodiekin, eta sudurrak gerizaturik lephoarekin.

Egunak hasi dira doiño bat luzatzen, eta horrek iduriarazten gaitu bagoatzila udaberriari buruz, hain urrun izanikan ere, zorigaitzez.

Juan dira Eguberriko bestak, ba eta urthatsekoak eta urtheberrikoak, eta Trufania iragan ondoan, asteleunak izain ditugu handik harat, bakhian eta lanian bizitzeko. Hor dira botigak haur yostagailuez brokatuak, eta heien aitzinian ikhustekoak dira multxoka mutiko nexka mikoak, eta ttarroituak ere, begiak larrituak, liluratuak, eta gero arratsetan loa ezin hartuz, amets ederretan leiratuak erregeren dohainen igurikan.

Zaldiak, xakhurrak, turrutak, karrosak, niniak, dabiltza hauren gogoetan egun dohatsu horietan.

Ba eta aita-amek moltsa idoki behar xaubide frango nun-nahi.

Donado zaharrek eztugu, zorionez, holako buru hausterik.

* * *

Adin puska bat dugunek ez dugu sekhula ikhusi mundua egungo egunetan bezain nahasia.

Erresuma gehienetan bihurrikaldiak, goseteak lana xuhur, dena zinkurinak. Langileak bethi khexu, alhakairu nasaiak dituztenak ere, emendia galdeka sekhula asetzen ez direnak.

Eta horiek oro ez balira aski mundu its hunen nahasteko, hor dugu Italian egin duen harrokeria, Eurapako bakea kenka xarran ezarririk, Abisiniako erresumaz yabetu nahiz. Ohointza hori egiteko gudu tresna izigarrienak ereman ditu, harat, Abisinia xoilian heriotza bazter guzietan ereinik, sarraski garratzak eginik, airepian horietarik bothatzen dituzten tresnak zaphartatzean, yendiak andanaka garbituz zintzilikatuak.

Eta halere badute «kopeta» italianoek khexatzeko, Etiopiarrek balak «dun-dun» ibiltzen dituztela!

Aireplanotaik bothatzen dituzten bonba horiek ez othe direa higuingarriogoak?

Bainan hain tresnatuak izanikan ere, badute bulta luzeño baten dako Etiopiarrek garhaitu behar balinbatuzte.

(La Voz de Navarra, 1936/1/5)

NAHAS-MAHAS

Politikeroak erhotuak dabilta heldu diren hauteskundeetako prestatzen.

Mintzaldiak, bilkhurak eta hautsi-mautsiak egin nahiz, orai artio ziren etsaiak adosten dira, elkharturik multxo tarro bat biltzeko, eta beste alderdikoeri ihardokitzeko.

Heien arthian izan dituzten kalapitak eta erasiak batzu bertzeeri gezi phozoindatuak bothaturik, adixkide minak bilhakatu dira etsai gorriak. Dena zimarkunkeriak!

Hainbeste maltzurkeria ikhusirik, politikako zer horietaz kasetek ekhartzen dituzten idazki luzeak gutiesten eta okhaztatzen ditut, eta ene behakoa ez da han finkatzen, funtsezko berri ohargarri bat ez balinbada agertzen.

Deithoragarri da ihustea nola gizonen berekoikeriek, gezurak soineko pollitekin yauntzirik, nahi duten sinetsarazi yende xeheeri heien xedeak zuzenak eta garbiak direla. Eta zozoak bere saretan erortzen.

Azkeneko astelehen ilhunabarrian, Trufania bezperan, sartu ziren Iruñen Erregeak, Betleemetik hunaraino pidaia luzexko bat eginik, eta herriak ohore handietan ongi ethorri bat egin zazkoten.

Erregeak, zaldizko bere bizar luzeekin eta heien ondoko ehun bat lagun huñez, denak yauntzi ederrenetan, denbora hetako ber-bereko itxurazkoak, gauza ikhusgarria eta ederra zen heien iragaitea karriketan gaindi.

Haurrak erhotuak, trumilka zoatzen, guziek Erregeen begitarte beltzak hurbildanik ikhusi nahiz, harrituak eta doi bat beldurtiak ere.

Gero karrosa eder bathian gaineraino bethia, ekhartzen zituzten haur yostagailuak dohainik emaiteko eritegietan eta serora etxetan altxatzen dituztenen arthian.

Arrakasta haundiena ukhan zutela, haurren zoriona eginik, hori erran gabe doa.

Bainan haurrak bere yite aldakorrarekin, bizpahiru egunen burian enheatuko dira hain suharki gutiziatu dituzten gauzetarik. Gizonak ere, ez othe girea berdintsu?

Ez da zorion iraunkorrik. Ardietsi bezain laster gutiesten dugu, eta berehala bagoatzi berriz beste amets baten ondotik, itsuka, hura ere eskuratu eta bethi bertze zerbaiten ondotik.

* * *

Gipuzkoarrek, phertsulariak goretsi nahiz eta behar den heineraino altxatzeko Eskual-herrian dugun gauzarik «gurena», gizon miresgarri horietan, erabaki zuten zoin-gehiagokoak egitea heien arthian urthe guziz, hoberenen hautatzeko eta saristatzeko.

Aurthengoak hiru lekhutan egiten dituzte lehenikan, Azpeitin, Tolosan eta Elizondon. Herri horietan berexten dituztenak yuain dira gero Donostirat, eta han eginen dute horien arthian beste zoin-gehiagoka nausi bat, denen artheko hoberena saristatzeko.

Yadanik Azpeitian eta Tolosan egin dituzte hautatze horiek, eta heldu den igandian izain dugu Elizondokoa.

Orai artio LA VOZ DE NAVARRA ez du hitzik ere aipatu hortaz.

Donostiako «El Día» bi aste badu ori dela mintzatzen egun guziz, eta guk, hemen, ezpainak yosiak ditugu, den gutieneko axolarik gabe, iduriz. Donostiatik badoa autobusetan yende pharrasta bat Elizondora, eta gu, «etxekoek», ez ginezakea beste hainbeste egin behar?

Edo bethi pikaren azken umiak othe girea?...

(La Voz de Navarra, 1936/1/10)

NAHAS-MAHAS

Basakeria

Gizon odol berodunak suharki sumintzen dira zernahiren ganik, eta herra gorria phizten zitzaiote bihotzian etsaiaren aitzia, edo bekhaitzkeriaz. Egun hautan irakurtu dugu Nafarroa behere hortako herri batian egin duten izigarritzko gaixakeria.

Herritar batek bazituen borda batian bilduak axuri edo bildotx parrasta bat, eta norbait han sarturik, mendekuz, hamar bat bildotx ganibet ukhaldika garbitu ditu.

Bere bihotz gogorra etzaio urrikaldu basa-gizon horri gaixo hobengabeak ikhusten garrasika, lephoetarik odola burrustan, sarraskituak.

Holako gizon higuingarriak behar luzkete yendeetarik baztertu, eta lephoan burdinezko gathina bathekin untsa estekatuak atxiki. Afrikako bas ihiziak kayoletan ezartzen dituzten bezala, kalterik ez egiteko heinean.

Auteskundeetako kalapitak

Ilhabete hunen hamaseiaren ephea hurrantzen eta laburtzen ari den arau, gero eta gehiago dabilta deputadu gaiak eta heien ondokoak eta alderdikoak haro eta harramantza gaitzian bermatzen, zazpi ahalak eginik, eta ahurtaka dohainak hitzemaiten herriaren zoriona ardiesteko, heien hautuaren truk. Horra paper xerrena ñimiño batekin zonbat gauza emaiten ahal dauzkuten urrikik.

Ez dut ukhatuko badirela gizon bakhar batzu, (zoin guti!) herriaren egiazko maitetasunarenganik sartzen direla saltsa izigarri hortan. Bainan gehien-gehienak bere haundikeriaren gosea asetzeko dabilta. Eta gero, deputadu izendatzen dituztelarik hantzen dira aphotzarrak bezala, eta begi bazterretik soiten heien herrunkakoak ez direneri. Pitzunak!

Karroin gaitzak

Iphar-amerikan, Niágara ibaiako zurrumba aiphatuak karroindu omen dira hotz ikharagarri bat eskualde hartan hedaturik.

Eta futxo, ze hotza izan behar den hein hortaraino heltzeko, zeren eta izigarriko naza hartan hurek egiten dute ehun metrako yauzi bat, ezin sinetsizko oldarrian eta inharrosian yautsirik.

Eta halere indar horiek oro hotzak garhaitu eta hezi ditu, menperatu, bidian geldiarazi, ezeztatu, mendi gainetako hur xirripa bat izan balitz bezala.

Diote hotz-beroen izartzeko tresnek hogoita hamar malla hotz alderat ikhertu dituztela.

Hotz madarikatua eta hastiala, ze indarrak ditukan!

Othoi, etzakala hunaraino heda hire bothere izigarria. Ago hor, bestenaz xahu gaituk xaharrak, ahulduak eta hozperak.

Ze yauzilariak

Alderdi guzietan khexu dira denbora hitsak ditugula langilleak ezinbertzez alfer, irabazbidiak xuhur, bizigailuak khario. Eta bizkitartian sekhula gizona ezta hain lehiatua

izan yostetari oraiko egunetan bezala.

Alemanian ari dira prestatzen udaberrian han bildu behar diren munduko (sic) guziko gazteriak, yosteta mota guziak ikhusarazteko erresuma bakotxak trebeenak igorriarik.

Yosteta horien arthian badira ere mendi elhurtuetan egiten direnak, lerratzaileak gain-behera ximixtaren xixtian yausten direnetarik. Zapata zolari estekatzen dituzte ohol mehar eta luze batzu, erderaz «ski» deitzen dutena. Eta makhil bat eskuan patarrari behiti abiatzen dira izigarriko oldarrian, eta azkenian, bidian den phezoin edo bixkar batherat igan eta, handik beste alderat sinhets ez diteken yauzia egiteko.

Ze gohoratasuneko yauzia uste duzie egin duela horietarik batek bere entsegutan?

Lauetan ogoi metro gohora airez-aire altxatu da!

Ba eta yautsi ondoan hezurak bere lekian eta irria ezpainetan...

(La Voz de Navarra, 1936/2/12)

NAHAS-MAHAS

Aro ederraz

Yuan den egun batez ari nintzan solasian hemen bizi den ene herritar bathekin, Kalifornian egona, eta gizon hartze hunekoa. Denboraz ginuen solasa, harrituak, eta loriatuak ere, nola doan negia, hotza agertu gabe, epheltasun eta eztitasun goxoenian, egundaino ez dugun ikhusi heinean.

Eta nik erraiten nakon hea ez othe zenetz kaltegarri lurretako eta laborarientzat, zeren eta bethi aditu dutelakotz karroinak beharrak eta baitezpadakoak direla lur barnian gordiak diren mumutxa ohantze mota guziak kalitzeko eta suntsitzeko, geroago ez dezaten makhurrik egin, uztak mendratuz.

Eta irria ezpainetan ihardetsi zuen:

— Bo, horiek oro ixtorioak dira. Uzta eta mozkin ederrenak eta nasaienak, nun emaiten dira? Lekhu beroetan karroin eta izotzik ez den lekhuetan, Kalifornian gerthatzen den bezala.

Eta oharmen argia iduri zitzaidan eni ere, haren errana.

Sugiak

Iruñeko bazterretan orai lau-bost egun ikhusi nuen sugeño bat, xoko bathian iguzkian goxoki zagona. Eta gogorat yin zitzaitan udan zonbat suge ikhusten den ene sortherrian.

Beharrik, ez dira phozoindunak, bainan halere halako ezin-egon bat emaiten dute, izialdura poxiño bathekin, batbatian kausitzen direlarik.

Borda sahetsetako ihatze metak eta ungarritegiak dituzte lakhet, eta negian sartzen dira sabaietarat eta belharrian gordetzen.

Aurthen, udan, emazte bathek, haizkora bathekin kalitu omen zuen bat, hain lodia, ziotenez, nun sekhula han ikhusi etzen bezalakoa.

Bainan baitakit emazteek bere yite izikor eta biziarekin nola emendatzen dituzten gauzak, beldurrak beretzen dituelarik, yuan nintzan harenganat bere ezpainetatik entzuteko, eta egia bere heienean ezartzekotan. Horra haren hitzak:

— Sukhaldian nintzan, eta aditzen ditut ene oiluak ondoko phentzian, erohotuak bezala kalapita haundian zabiltzala. Ustez eta xakhur zonbaitez harrotu zituela atheratzen naiz zaharo bathekin, eta ikhusten dut alimaliko suge harrigarri bat, ene besoaren loditasunekoa, eta buria altahatia, herrestan, emeki bazeala sukhaldeko lehio aphalerat, haindik sartzeko, duaikeztena.

Ordian harten dut haizkora haundi bat, bainan ene zainak inharrosiak. Ikharan eta izialdura gaitzian, ez nintzan menturatzen hurbiltzerat. Azkenian ausartatzen niz, eta emaiten dakot ene indar guziekin ukhaldi bat lephoan, eta beste bat, eta hirugarren bat ere, arrunt kalitu artio, buria arraildurik. Bihotza yauzika ari zitzaitan eta bulta luze baten ondoan ene zainak etziren oono arrunt ematu.

— Bainan, errazu, ihardetsi nion, hain lodia eta luzia zena? Ez othe da zure izialdurak, zen baino haundiagoa iduriarazi zitzauzula?

— Ez yauna, ez, hortxet ikhusten duzun hesol horren heinekoa zen, luzian eta lodian...

Eta hesol harek bi metro luze zituen hurbil, eta loditasuna emazte gizen haren

besoaren izariko.

Sinhetsiko duguia? Ukhakorrek nekhez.

(La Voz de Navarra, 1936/2/23)

NAHAS-MAHAS

Behin ari nintzan herri bathian etxe zahar kalamastra bathen iduria atheratzen.

Aspaldidanik nehor etzen han bizi. Batzuk zioten sorginen egoitza zela, bainan buhamiek ez baitute sinhesten atso yatsakilako horietan, han pasten zuten gaua griña eta beldur pikorrik gabe.

Etxe huts harek arras itxura hitsa zuen. Itaxurak non-nahi, paretak arrailduak, lehioetako berinak hautsiak, eta gauaz huntzak hegatsian zabiltzan bere oihu garratz eta saminekin, eta yendiek uste zuten sorginen garrasiak eta erasiak zirela!

Ene lanian ari nintzalaik hurbiltzen zait gizon bat, eta harritua erraiten daat:

— Bainan yauna, ze ari zira hor eztatizia etxe horren aitzinian gelditzen denari nahigabe haundi bat gerthatzen zakola? Othoi, urrun zite hortik, hutskitzu lekiak zalhukara, bertzenaz zerbait makhur yinen zauzu.

Eta horra nun bat-bathian etxe madarikatu hartaik atheratzen den atso itsusi bat, gorphutza ukhurtua, makhil bat eskian, behakoa lurrian...

Gure gizona erbi bathen xixtian, ixtapeka haunditan urruntzen da hantik, izialdura gaitzian.

Eta nik, trufaz, oihu egiten dakot:

— Khasu, khasu, sorgina zure ondotik doha! !

Atsoa, eskale xahar okhitu bat zen, eman nakon bi soseko bat, eta eskerrak othoitz bathekin bihurtu zituen... Holakoak dira sorgin gehienak.

Hobengabea hobendun

1914-ko gerla haundia denboran Frantziako mugetan ibiltziak bazituen beren hirriskuak.

Luzaideko gizon bathi, izanahala zuzena ta huna, gerthatu zitzakon Arnegin nahigabe borthitz bat.

Astelehen guziz bezala bazoan Doniane-Garaziko merkhaturat, eta zubitik hurran hurbiltzen zitzako Luzaiden bizi zen frantses bat, gerlatik ihes yina, eta erraiten dako:

— Errak, emain dakoka letra hau Donianeko ene adixkide bathi?

Eta gaizo Luzaiderrak ihardesten du:

— Ba, ba, gohotik eremain dikoat.

Bainan egun latz eta hits heetan Frantziako muga mugazainez eta barrandariez brokatua zen, begiak zorrotz eta beharriak erne, ez bakharrik harat zoatzineri paperak untsa miatzeko eta ikhertzeko, bainan zernahi solas salhatzeko ere. Zubitik bertze aldeko mugazainek ikhusi zuten nola desertur harek emaiten zakon eskurat paper bat Luzaiderrar.

Eta gizon dohakabea zubia phastu bezain laster eskuratu zuten mugazainek eta papera irakhurturik presundegian sarthu.

Hobendun haundi bat omen zen. Frantziari aitzia ari zena, deserturrak laguntzen.

Gaixo gizon hobengabea Pau-eko presundegirat ereman zuten lau-bost urtheen dako.

Bainan Ibarregaray deputadu eskualdunari esker, inahalak eginik yakhinarazteko gizon dohakabe harek dremenden xede gorderik gabe hartu zuela paper hura, sei ilhabetheen burian utzi zuten haizu, pairamen haundienak yasan ondoan, ez yakhinikan sekhula handik atherako othe zenetz.

Debrien arima, erraiten zien itzuli zelaik, handik atheratzian ez nintzan oono fida,
eta Pekotxetan zangoak sarthu arthio ene zainak etziren phausatu eta ematu.

Ze pinterdi goxoa klikatu nien Lakheth-lekun!

(La Voz de Navarra, 1936/3/12)

NAHAS-MAHAS

Baxenabarre eskualdun

Baiona'ko «Eskualduna»n «Ausarta» idazle biphilak emaiten dauzkigu xeheki astekari horren hedaduraren berriak, eta nun irakhurtzen den gehienik.

Lehenbiziko herrunkan dugu Doniane-Garaziko eskualdea, 864 erosleekin. Eta Arnegi, hango Eskual-herri guziko herri bakhar bathian gehiago sartzen dena Eskualduna, yende arauka. Gora beraz Garaztarrak!!

Garaztarra zen (Ehialarrekoa) Detxepare, eskuarazko lehen liburuaren egilea. Garazin (Donazaharren) sorthua da «Eskualduna» astekaria, Etxeverri, yauregiko nausiaren laguntzarekin, orai dela berrogoita zortzi urthe.

«Ausarta» idazle (sic) harritzen da nola holako herri ttipian saltzen diren hainbeste «Eskualduna», eta erraiten du ez othe diren horietarik sartzen zonbait Luzaiden ere.

Eta nik, (Luzaiden batek) ihardesten dakot berrogoita hamar bat «Eskualduna»ren irakhurle badirela. Luzaiden, Bayonatik igortzen dituzte Luzaidekoak Arnegi'ko Sinketenerat eta hortik helarazten dituzte Luzaiderreri.

Horra beraz, nola Luzaidek ere badien Arnegiko ohore hortan zathi mikoño bat, «Ausarta» yauna.

Eta halere seurki uste dut Arnegin bezanbat «Eskualduna» yende izarian nihon ere ez dela saltzen. Larunbatetan eta igandetan deneen eskutan ikhusten da.

Arnegi, eskualdun ohidura zaharreri eta errelixionari arras atxikia da. Baditu hamar bat aphez-gai Ustaritzeko Semenari'an, hain herri ttipia izanikan ere. Hortaik ageri da zoin fededuna eta eskualduna den herrixka xuri pollit hori. Xiximurru mendiko kurutzearen azpian kokatua. Arnegi eta Luzaide sendi edo familia berekoak dira. Gure Pekotxetako hauzoa zubiak bakharrik berexten du, etxiak ibaiaren bi alderdietan hedatuak, denak multxo bathian.

Ahidegoak hedatuak eta nahasiak dira bi herritan. Luzaideko haurrak yuaiten dira Arnegiko eskolarat frantsesa ikhasterat, eta ohoitzen niz nola gure aspaldiko haur denboran harrikatzen ginen, samurtzen ginelaik zubitik bi aldekoak.

Ez da, beraz, harritzeko zonbat maite dutan Arnegi, eta ze oroitzapen goxoak ditutan gogo-bihotzian.

Predikari gaitza

Yuan den egunian aditu nien Aita Sagastibeltza Yondone Fermin Aldapako Elizan, entzulez yasan-ahala mukhurru.

Harritua eta loriatua nintzan haren eskuarazko mintzaldi miresgarria entzutean.

Mintzaiaren yabetasuna eta trebetasuna, bihotz suharra, oldozmen ederrak eta sarkhorrak, ikhusbide eta erakaspen hunkigarriak. Hots, mintzaile eder bathen dohain guziak ba ditu Aita Sagastibeltzak entzuleen bihotz zolaraino heltzeko. Eta nola atheratzen den elhea haren ezpainetatik, gauzak hain ederki erranak, hitz aphainduekin, eta burrustan botz ozen edo aphalarekin, oldozmenari dohakon heinean eta izarian, bere hitzeri indar eta su edo eztitasuna emaiteko!

Predikari hauta eta gaitza, Aita Sagastibeltza, Leitzako seme ohoregarria!

(La Voz de Navarra, 1936/3/22)

NAHAS-MAHAS

Dominixe Eiharazaina

Ene adineko herritarrek ezagutu ginien gizon xahar eta lerdan hura, bere eiharan, Baxoa-ko erreka hartan, bethi lanian ari zena.

Bazterretxetan gaindi ikhusten ginien ardura bere mando herbailarekin, kraixtia besapian, pipa ahoan, batzutan behiti zakhu bihien ehotzerat, bertzetan patarrari goiti, phikorrak irin bilhakaturik etxeetarat eremaiten.

Sudurra luze, bilhoa xuri-xuria, begiño xorrotxak gorphutz mehaila, bazoan bere bidian ttape, ttape, hurrats hurriekin, mandoa behaztopaka bidexka lohitsu eta itxilduetan eta xakurra sahets-hezurak agerian, haren ondotik.

Eta ikhustekoa zen nola Yanpiarreeneko lasterbideko patar xuta iraiten zien dremenden akhidurarik gabe.

Bana Dominixe, beste anitz bezala, soberaxko emana zen ukhondoaren altxatzerat, eta Luzaide-ko karrikan sekhulan etzen phastuko ostatian phausu aldiño bat egin gabe, hurrupa bat edateko.

Eta, egun batez, izaria gainditurik, etxeratekoan, oixteñuan aiphatu dutan lasterbidian lerratu eta gain-behera bere mandoarekin yuan zen itzulipurdika erregebideraino. Eta gure gizonttoa, hezurak oso eta zarramiska batzuekin bakharrik, xutitu eta buria arindurik, makhur gehiagorik gabe sarthu zen eiharan... bere laueta hogoi urtheekin bizkarrian.

Mari-kantton

Haurren arthian arrakasta gaitza zuen atxo hunek. Doniane-Garazin, Plaza gaineko ixkina hartan zien bere sal-tokia. Bixkotxak eta bunbunak saltzen zitien, eta bethi haurrez inguratia, begiak handik ezin baztertuz. Sakhelan bi soseko bat balin bazuten, ze lorian milikatzen, murtzikatzen, eta klikatzen zituzten goxokeria hek!

Bana, guziz, Mari-Kanttonek egiten zitien kauserak omen haundia zuten. Ihauteritan inhala saltzen zitien, eta harrapaka khentzen zazkoten eskuetaik.

Udan yuaiten zen herrietako besteetarat, eta Luzaiderraino ere heltzen zen. Haurren arthian berehala hedatzen zen berria, «Mari-Kantton yin duk». Eta ze hur zukretia, zitroin yusarekin, saltzen zien, frexko-frexkua! Eta bunbuna gorri hek, sosian sei!...

Gaixo atxo xilhar hura aspaldian yuana da. Phentsemazie!

Ene haur denboran yada xaharra zen. Eta ez niz atzokoa...

Xixtapur eta laxkor

Zer edo nor dira hok? errain dute ene irakurleek. Zaharrek gauza behialakoetaik lakhet dugu mintzatzea.

Biak soinulari aiphatiak ziren, orai dela... berrogoita hamar urthe. Xixtapur, arrabitaria, eta Laxkor, tanbur yoilea, aitzineko eskualdun yantzetan nausiak zirenak. Xixtapur ikhustekoa zen Yatza-yauzian! Bere bonet haundiarekin, eta zetazko xamar laburrarekin (orduko gisan), arrabita kokotzpian, soinuarekin bathian emaiten zitien yantzako manuak. «Ezker, eskuin, erdizka, ozka, pika, zote, ebats, lau hurrats»... eta haren oihuen arau denak ibiltzen.

Bestia, Laxkor, tanburlari gaitza zen. Ze dardarikak, ze burrunbak, aphilak edo

ozenak, makil miresgarri heekin, ze harrigarritzko trebetasuna eskutan, Kontra-yantzan, Atxotatupin edo Xilo-xiloan! Bethi bere aitzinian bazen yende multxo bat.

Napoleon-ekin egona zen tanburlari aiphatua. Etzen nor nahi, gero.

Nik seurik sekhula eztut holakorik entzun.

Bakhotxak bere eskuara

Behin, Doniane-Garaziko merkhatian arno saltzen ari zen oihu kalapitan mendiz hunaindiko arnoketari eskualdun bat. «Milla demonio, erosi ezazute ardo fuertia merienda bat egiteko. Erosi, erosi, ardo onek barrua berotu egiten du, eta ler egiten badezute bildurrik gabe sartuko zarete kanposantuan».

Eta Izpura-tar bathek erraiten zakon ondoko lagun bathi:

— «Bana errak, ze debru dio kalakari horrek?»

— Arno azkarra eros dezagun atsalaskari bathen iteko.

Arno horrek barnia berotzen diela, eta leher iten balin badugu beldurrik gabe sarthuko girela hilherrian.

— To, banindiokan, ba, hori etzela Ezterenzubikoa...

(La Voz de Navarra, 1936/4/12)

NAHAS-MAHAS (Baxenabarreko eskuaran)

Luzaide'ko sort leku goxorat yina (ethorria) niz uda phasatzerat ene heritarren arthian, Sanferminetako kalapita, harrabots haro eta oihuetarik ihes eginik.

Gaztetasunetik adinak urundu gituenentzat hastiogarri zauzkin Iruñe'ko egun erho horiek. Nahiago dugu hemengo ixiltasuna eta bakhe ezta, aurkhintza ederren ikhusmenetan loriatuak Astobizkar'ko mendi kaskoa bethi agerian, deneen nausi bere gohoratasunaz.

Eta ba othe dea gero gauza goxoagorik bethi gure Baxenabarreko eskuara ederrian mintzatzea baino goizetik arratseraino?

Eskualdun berri guziek behar luteke urthe bakhotx egon aldi bat egin herri eskualdun huts bathian, zeren eta liburuetan ikhasten dena ezta aski gure mintzaiaren zoko mokho guzien zagutzeko, eta guziz hi-ka edo toka mintzatzeko, hortan baita gure elhearen gatz eta edertasun guzia, eta gero aintzez bertzelakoa edo desberdina delakotz. Beraz, gauza beharrenezkoa eta baitezpadakoa da. Hika ez dakienak erdizka bezik ez daki eskuara.

Yuan den astian ukhan ginuen Luzaideko elizan Donazarharreko (Saint-Jean le Vieux) bi gazteen ezkontza.

Ezkongaiak benedikatu zituen Donazarharreko yaun errektorak, eta handik ekharri zituzten kantariak ederki egin zuten «Magnificat» kantua mezan.

Donazarharretik Arnegiko zubiraino ethorri ziren beribiletan, bainan handik ezin phasa, oraiko mugako debeku borthitzekin paperrik gabe ez baititake, eta hunarainoko hiru kilometrako bidia huñez egin zuten berrogoi ezteiliarrek, andregaia bere yauntzi xuriekin eta zapata hertsiekin akhitia eta izerditua, goiz bero hartan.

Bainan holako nekheak yasanikan ere bozkario haundian eta irrintzinaka yuan ziren gero lerro luzian eta birazka Arnegiraino, eta han beribilak harturik Donazarrerat eztei othuruntza egiterat.

Donazarharre Garaziko herri eskualdunenetarik da, eta han sorthu zen orai berrogoita bederatzi urthe Eskualherriko kaseta zaharrena gure mintzoan idatzia, «Eskualduna» astekari ohoregarria, Etcheverry, Hiriart Durruty eta Adema yaunek moldatua.

Eta «Eskualduna»k erein zuen hazia ildo hunean erori baitzen, uzta ederra bildu zuen bere sort lekhuko alhorretan, zeren eta Garazi da Eskual herriko toki guzietarik gehienik saltzen dena «Eskualduna»: bethi lehenbiziko lerroa atxikitzen du. «Ausarta» idazleak erraiten dauku horgo yendeek, ehunetarik hamabiek erosten dutela; % 12. Erran nahi du, zortzien artean irakhurle bat. Haurrak khentzen balin baditugu, bada zerbait.

Hemen Luzaiden, baditugu berrogoita hamar erosle, herria ttikia izanikan ere. Ohore, beraz, Baxenabar Garaztarreentzat!!

* * *

Bestaberri egunian ethorri ziren Doniane Garazirat lau ehun «komunista», Maule'tik, eta eliza athe aitzinian bildurik bere ikhurrin gorriarekin eta kalapita haundian zintzurak (eztarriak) urratu zituzten «Internationale» kantatzen eta oiuhu garrasika «a-bas

la calotte» (abajo el solideo).

Diote gehienak Espainiarrak zirela, Mauleko lantegietarat yuaiten diren horietatik sabelaren bethetzerat, Espainian gosez ez lehertzeko, eta gero, hango nagusi bilhakatu nahiz, Bizkaian eta Gipuzkoan gerthatzen den bezalatsu. Erran zaharrak dion bezala, «Kanpotik yinen duk hire etxetik yabetuko dena».

Ze kopeta duten yende horiek herri hain girixtino bathetarat yuaiteko, ta han, eliza aitzinian laidostatzeko heien errelisionekeo sinesmenak birau okhartagarriekin!!...

Ba eta, emazteak omen ziren gorrienak eta suharrenak, errelisionaren herra gehiago oihukatzen zutenak.

Gizon zuhurrek erraiten dute emazte koska, ahuntza bezala kraixtu laburrez atxiki behar dela. Luze eta lazo uzten badakote, phendoitzari behera yuan litakeela.

Luzaiden (Valcárlos), 1936'eko Uztailan.

El Día, 1936/7/18

X. ATALA
KAZETARI KRONIKAK

NAFARROATIK

Iruñeko berriak.— Denbora arras borthitza izan dugu azken astian. Maiatzaren erdian arropa lodiekin neguko aro tzarrian bezala. Noiz jinen zaizkigu egun ederrak?

Gizon yakintsunek diote iguzkia aldeko lur ikhararen ondorioak direla; hori hala izanik, urrunetik heldu zaigu sasoin nahasia. Dena den, laborarientzat makhur haundiak ekharri ditu, baba alhorrak galdiak, lurrak usteldurik eta ogiak ere biziki berantuak.

Iruñeko ayuntamendua (Conseil municipal) gastu gaitzetan sartu zaizkigu. Kartier berri haundi bat egin ondoan bere karrika zabal eta etxe ederrekin eta holako lan handiak sei urthetan eginik, orai berriz bederatzi miliun pesetako emprunt bat egin du hiri zaharraren edertzeko. Sei urthe aitzineko bazterrak bere muraille handiekin ikhusi dituenak, harritzeko da zer obrak egin dituzten denbora labur hortan. Eta nola bete diren etxe haundi horiek, lau eta bost estayakoak. Yende guziek hor bizi nahiz bildu dira kartier berrian bost mila arima.

Iruñe eta Nafarroa guzia badoa goiti, sosa ausarki bazter guzietan. Jendia ere higitzen da eta egun guziez sartzen dira hemen hogoi bat autobus de ligne, herritarik hiri nausira.

Gobernuko emprunt guzietan Nafarroak bethi atxikitzen du bigarren lekua. Bilbao ondotik. Yuan den urthian sei hilhabetetan athera zituen bere moltsatik berrehun miliun peseta. Yakina da Nafarroa dela Espainako departamendu aberatsenatarik.

San Fermin-eko besta famatuak hurbil ditugu. Berrogoi eguneko buru sartuak izanen gira zalapartan. Aurthen urthe guziz bezala baditugu bost courses de taureaux toreador hoberenekin. Gazteriak badu nun yostatu eta sakelaren husteko eztu lan handirik egin behar.

Larreko adixkidia Madrid-erat yuanik, ene luma dorpia hartu dut haren orde Eskualdunaren irakurtzaler helarazteko hemengo berriak.

Eskualduna, 1928/6/1.

NAFARROATIK

Iruñeko berriak.— Juan den astean khexu nintzen aro hotz eta latza gatik, baina uste ginuen bezala yauzi batez sarthu gira uda beroan, bere harri erauntsiarekin eta oro, primadera alde baterat utzirik. Sasoinak gizonak bezain nahasiak ditugu.

* * *

Hilabethe hunen erditsuko heldu da Iruñerat Alemaniako Cirque Krone handia, Espainiako hiri haundienak kurritu ondoan. Ekhartzen omen ditu berrehun bat wagon treenekoak, eta munduko alimale guzietarik, beren artean berrogoi eta hamar elephant, bat sei mila kilo pizukoa. Zer anta pollita! Eztu arbi batekin betheko bere sabela. Naski, izigarriko orruak eta marrumak entzunen ditugu. Zenbaitek diote ez ote den Alemainako reclame haundi bat, gobernuko sosaren laguntzarekin, bethi gauzak kolossal egin nahiz. Baditeke.

* * *

Ohartu gira Eskualdunak eztiela aipatzen hitzik hemengo pilota partidetarik. Iruñeko Fronton Euskal-Jai, Espainiako famatuenetarik da, eta hemendik atheratzen dira pilotari gaitzak. Orai berian Espainiako bi pilotari hoberenak, les as, Nafarrakoak dira, Irigoyen eta Abrego, Iruñeko eskolan eginak. Espainiako kasetek Irigoyen deitzen dute, el león navarro, indar gaitzekoa. Abrego, hemezortzi urtheko mutiko bat, deitua da fenomeno de la pelota, artista de la cesta. Hola deitzeko zonbat ez du balio behar! Orai artio Irigoyenek eztu etsaiik (sic) izan, nehork etzaikon hari hurbildu Espainiako pilotarien artean. Eta horra nun Abrego, holako adin gaztian nausitzen zako ardura bere yoko xoragarrienarekin. Biak aspaldi dabiltza Madrileko fronton ederrenean, eta futxo pagatzen dituzte kantari famatuak bezala.

Irigoyen aberastu da pilotarekin eta Abrego, muthikoño hori, zalhu aberasteko bidian doa, holako irabazi haundiekin.

San Ferminen bestetan ariko dira hemengo fronton Euskal-Jai an.

Eskualduna, 1928/6/8.

NAFARROATIK

Iruñe.— Atseginekin irakhurtu dugu yuan den ilhabeteko azken egunetan bilkura bat izan dutela hemengo Roncal herrian Santa Graziko auzapezak bere konseillerrekin eta ingeniurrak ere.

Vallée de Roncal deitzen den ibarrak baditu zazpi herri eta beren burua dute Roncal. Herri hortarik aspaldian egina da erregebidea Arrako deitzen den lekhuraino, Zuberoko muga ondoan.

Ronkaltarren aspaldiko nahia da, Zuberotarrek egin dezaten erregebidia Santa-Grazitik mugaraino. Horren ondotik dabilta aspaldian eta Pauen gaindi ibili dira bizpahiru aldiz, behin prefetarekin.

Azkenian konsillerek, gure adiskide Constantin-i esker, onhartu dute bide horren egitea eta hortakotz izan dute bilkura hori. Agian laster egin-dezatela bide hori gure Xuberotar anaieri eskua emateko eta hango herri pollit eta lekhu ederrak ezagutzeko. Ala, emazie hor, Xuberotarrak.

Eta guk noiz eginen dugu Aldudetako burdin bidia? Berrogeitahamar urthe hautan zonbat aldiz ez da hortarik beroki mintzatu eta gero ixildu eta ihatzi? Azkeneko egun hautan goberniak erran du, décret batian Iruñetik Alduderako burdin bidia behar haundiko dela, d'urgente nécessité, eta prest dela bere laguntza emateko. Nik entzun dut Iruñeko yaun bati afera haundi horretan arras sartua, hemengo Conseil Generalak (Diputación provincial) berak egin nahi duela burdin bide hori.

Alfonso XIII erregiaren ametsa bethi izan da bide hori eta hemengo deputatuak hari hurbiltzen direlarik berehala hortarik mintzo da.

Planoak aspaldi eginak dituzte eta horietan ez dira Iruñetik mugaraino hogoi eta hamabost kilometra baizik eta hortik Baigorriat hamabost. Alta, badakitenek diote bidia aise egin ditaikela, Iruñetik Aldudetako mendi azpiraino, dena erreka sahetsetik goiti. Hea azkenekotz ikhusten ahal dugun lehenbiziko lanen hastia.

Eskualduna 1928/6/15.

NAFARROATIK

Iruñe.— Aste huntan jakin ditugu bi berri hun gure eskualdearentzat. Paris-etik Madrid-erat behar omen dute hemendik aitzina ibili aeroplanak egun guziz, eta yakina da bi hiri haundi horien artean bide xuxenian eta pidaya laburrenien Iruñen gaindi behar dutela bortxaz ibili.

Iruñen eginen dute phausu aeroplanek eta hortakotz berexi omen dute hemengo bazterretan yausteko lekhu bat, Eskirotzko larre zabal eta zelayan. Horezarriko dute douane internationale delakoa eta behar dituzte nik dakita zonbat enplegatu, beren bulego etxe eta atherbiekin. Lekhu ausarki dute hor finkatzeko xori horiek.

Huna beste berria. Aspaldian dabilta jaun trebe batzu bide eder bat egin nahiz Madriletik Irunerat, Gipuzkoako hiri pollita Frantziako muga. Bide hori da Italian eta EtatsUnis-etan egin duten bezalakoa, automobilentzat bakarrik, auto-estrade deitzen dutena. Arras zabalak dira eta zimentazkoak, zehe bat eta erdi loditasunekoak. Sahetsetan badituzte bi bide hertsia goak pirripita eta huñeskoentzat. Auto-estrade horrekin berrehun kilometra laburtzen omen da Madrid eta Irunen artian, oraiko bidetikan hal bezain xuxen eginen dute eta mendietan lur petik treina bezala doa, ez mendiz gaindi, bere argi elektrikarekin. Lan handienak Nafarroako ipharraldian dira eta Belateko mendian lau kilometrako tunel bat egin behar dute Baztanerat yausteko. Handik Bidasoa hureko lehorrari behiti doa Irunerano.

Bide hunek erdiz erdi hunkitzen du Iruñe. Frantziako muga eta Madrilen artian laburrena delakotz, eta berdin gertatzen da Madrid eta Parisen artian aeroplanentzat.

Bana zer diruketa etzen behar auto-estrade horren egiteko. Zer milun multxo! Azkenian bildu dute sosa. IpharAmerikanoek alde batetik eta bertzetik Espainiako banketako gizonez kontratu bat siñatu dute Miarritzen, ilhabete hunen lehenbiziko egunetan.

Berrehun miliun peseta (200.000.000) gostatzen dira lan horiek, eta bidearen luzetasuna lau ehun kilometra inguruan.

Aspaldi mintzo ziren yendiak auto-estrade hortarik, baina ganzte ez girenek ez baigira sinetskorak holako miliun meta dabilzalaik mihietan, dirua eskian ez deno, azkenian guk ere beharko sinetsi.

Oraikoan, alta, bide pollitan doa... makhurrik ez balin bada gertatzen. Agian ez.

Eskualduna, 1928/6/22

IRUÑETIK

Larreko, gure adiskide hemengo eritegiko sendatzaile aipatuari behinkotz galdeiten diot lekhu poxiño bat zonbait lerro agerrarazteko haren aldiz Eskualdunean. Barkanezazie beraz irakurle onak.

Astobizkar iphar aldeko azpian sorthurik, nola ez maite herriño pollit horiek, bere phentze, mahasti eta ohian ederrekin Arnegiko eta Donianeko eskoletan ibilirik gure lehenbiziko urthetan. Adin guri hortan bihotzian sartzen dena erro azkarrak lotzen ditu eta ez nolanahi ahazten edo itzaltzen.

Horra zergatik hartzen dutan luma nere eskuetan.

Hemengo berri haundiena tenore huntako badakizie segurki. Primo de Ribera, Espainiako yabea sei urthe luzez espāñolen ahoak tinki atxikarazi ondoan, bera nausi zenez, juan zaikigu etxerat, here gogoz edo hura baino goitiago den norbaitek manatuz.

Berak azken egunetan aithortu zien etzakeela ukhatu kaseta gehienak, etsaiak edo ez onhartzen zutenetarik haren jabetasuna zirela, hala nola Espainiako gizon argienak, banketako eta lantegi haundietako gizonak ere.

Dictateur horiek badakigu eztutela anitz urthe irauten ahal. Azkenekotz higatzen dira eta beren lekua utzi behar, gaitz haundiogotarik beiratzeko.

Bego besteentzat egin duten gauza xuxen edo makhurren jujamendia. Guri, Nafartarreer, gaitz eta kalte haundiak ekharri daizkigu. Izigarriko zergak bortxatu gitu pagatzerat. Bi miliunetik altxatu ditu sei miliunetaraino. Maluruski sekulako gelditu zaizkigu zauri kirats hori, nik uste.

Gobernamendu berriak hitzeman du leheneko legiak ezarriko dituela, ez batbatean, bainan emeki, eta ahal bezain laster, politikako gizonak perestutu eta oneski ibiltzen balinbadira, bere aitzineko tzarkeriak alde bat utzirik.

Pilotaz

Badakizea Espainiako bi pilotari hoberenak, les as remonte edo atxiki ttipian nor diren? Irigoyen eta Abrego. Biak hemengoak nafartarrak, Iruñeko Fronton Euskal-Jai deitu plazan eginak.

Abrego, hemezortzi urthetako adinian kontratu eder batekin ereman dute Madrid-erat. Hogoi eta hamar partida, hogoi eta hamar mila peseta, bakotxian berrehun bost liberako sakelian. Holako sari pollita emaiteko zerbait behar du izan, alaintso!

Donostiako kasetek nola uste duzie deitzen dutela? Artista insuperable, maravilla del remonte, fenómeno de la cesta. Batere gutiago.

Eta bestia, Irigoyen? El león navarro. Indar gaitzekoa, gorphutz lodia bainan haragi ginharria, ukhaya zaindunak eta izterrak erne. Abrego agertu artio etzuen etsairik, buruz buru. Muthikoño hunek lan aski emaiten dako.

Eskualduna, 1930/2/7

IRUÑEKO BERRIAK

Bihotzmin handiarekin yakin ditugu zer izigarriko desmasi eta eriotzak xahutu dituen Abontauban aldeko eskualdean uholde gaitzak. Eztakigu nola erran zer pena sartu zaizkigun arimaren erroraino gaixo yende dohakabearentzat.

Hemen ere urhandiak Iruñeko Arrotxapeko auzoan bazter guziak urak estali ditu eta ereman berekin baratziak, hiri guzia hazten dituenak, eta familia ainitzek galtze handiak ukhan dituzte; sasoin hoberenian dena suntsiturik.

Urthe guziez bezala Orriagako mendian elhur erauntsiek bere lana egin dute, erregebidea haundizki estalirik, eta Auritzetik Doniane Garaziraino doan autobusa ilhabete batez egon da ezin pasatuz, eta anhartean Luzaiderrak zoko behe hartan bethi beha hea noiz Otsobizkar kaskoko elhurra urthuko zen, bere yauntzi xuriaz kukutia. Ez balute negian Donianeko bidea haizu nola bizi erreka hartan? Bainan irinak, arnoak eta bizigailu beharrenak Iruñetik ekarri behar, eta bidea ardura hesten negu borthitzetan.

Luzaideko Eskualduna-ren berrikaria khexu zen ustez herriak saldu dituen phago zuhaitzak mendi osoa buluziko zituenez eta bere ondorio gaitzez euri haundik bidea haizu dutelarik, trabarik gabe mendi behera kurritzeko. Ez da holakorik gerthatuko zeren eta oihana ez dute erroz xahutuko.

Nafarrako legeek debekatzen dute, Conseil-eko ontasunak direlarik, eta azkarki punitzen xuxen ez balinbadira ibiltzen. Hor dabilta mendizainak mendiz mendi oihanen beiratzeko eta herriek, Conseil General baimenarekin aitzinetik, behar dituzte moztu mendizainak markhatzen dituenak bere burdinarekin. Bertzenaz amanda gogorra dute. Erran gabe doa zuhaitz zaharrenak moztan dituztela; hots mendi garbitze bat gazteen ontasunarentzat.

Hola egin daitela Luzaiden ere, bertzenaz noizbait ohartuko dire, bana berantegi, zer kalte gaitzak ekhartzen dituen herriari mendiren buluztiak. Nun da oihanen edertasuna bezalakorik? Eta zer onek, zer sosceta ez ditu emaiten herriari. Nafarroan hamabost urthe hotan egin dituzte lau ehun eskola eta gehienetan nundik atera herriek sosa? Oihanetarik. Nafarroak bere legeak baititu, autonomie deitzen dena, eskolak ea erregebideak guhauk egiten ditugu Gobernamentuak ardit bat gastatu gabe. Beira ba eta artha-untsa ontasun eder hori.

Hemen ere baditugu ba bi zangodun asto pulloak zuhaitzen etsai gorrienak direnak eta landa mehe batzu ikhusten dituztelarik erregebide sahetsian berriki landatuak heiekin zaharo pollit bat egiten dituztenak, pidaia goxoki egiteko edo aberiaren tritzikatze.

Bainan nor da egiazko aberia? Nik uste xutik doana. Horier, horier, ez zaharoño batekin, bainan bizkarrian haga lodi batekin.

(Eskualduna, 1930/3/21)

NAFARROATIK

Aspaldi zabiltzan hemengo aphezpikuak eta kalongeak Semenari haundi baten egin ahalaren lanetan asmatzen, eta azkenian bururatu dute bere ametsa. Bost elizetako erretorak elkharturik eske haundi bat egin zuten eta beren lana zabaldu eta hedaturik fruitu ederrenetarik eman ditu. Bildu dituzte yadanik lau miliun peseta (4.000.000) eta huna lan emaila haundienak. Orriagako abadiak, Diputación provincial (Conseil Général), Marqués de Vessolla yaunak, eta Celedonio Leyin yaunak, bakhotxak bost ehun mila peseta (500.000). Lauen artian bi miliun peseta.

Iruñeko Conseiluak eman ditu berrogei ta hamar mila peseta (50.000) eta asko yaunek hogoitabost mila, hogoi mila, hamabost mila, hogoi mila, hamabost mila eta hamar milako emaitzak. Gainetik Nafarroa guziko herrietan ere bildu dute sosa ausarki. Behar dituzten bost miliunak Semenariaren egiteko aise bilduko dituzte.

Planoetan ageri da zoin ederra izain den, style gothique delakoan moldaturik.

Irakurri zintutena ene atzineko berrietan nor zen gure pilotari famatia, Abrego? Madrid-en harritu ditu ikhusliarrak eta etxerat itzuli ondoan, bere sakelak hogoita hamar mila pesetarekin, Donostian arizan da erregearen aitzinean.

Egunkariak diote barne guzia koka ahala beteturik mundu guzia xutitu dela bere alkietan esku zartaka, bakhana holakorik ikusten ez denik.

Huna zer dion El Pueblo Vasco, Donostiako kasetak. La jornada brillante de ayer pasará a los anales de la Pelota. Vimos al indiscutible fenómeno de la pelota jugar con la maravilla de su cesta en forma tal, que levanto al público de sus asientos para ovacionarle.

Gure alkatia (mera) Madrid-en arizan da lanian Ministroarekin nahiz Iruñetik Alduderako erregebidea egin dadien. Badakizie Aldudeko eskualdeak bere muga sartzen duela Iruñeko alderat eta arras hurbiltzen girela. Baditugu hemen, Nafarroan, sei bide eder frantziar bainan lekhu luzeenetarik, eta Aldudekoa, laburrena, jinkoak daki zer lanak ditugun bidetarik Luzaidekoa da laburrena 64 kilometra, eta Aldudeko mugarat ez da helduko 40 kilometretarat.

Hortan gira, eta ez dakigu noiz bururatuko dugun gure amets eder hori.

Hemengo Aste Saindua Espainiako ederrenetarik da, bereziki ortziraile sainduko profesionea. Han ikhusten dira lehengo Erromako gudulariak bere yauntzi ederrekin, oñezkoak eta zaldizkoak, bai eta Jerusalem gertatu ziren gauzak Jesusen eriotzeraino. Begiek ez dute ikhusten ahal ederragokorik. Eta zer yendeketa Iruñeko karrketan egun hortan! Frantses andana batek agindu du autocarsetan yin beharrak direla, eta hoteletan hartu dituzte ganberak aitzinetik.

Eskualduna, 1930/4/18

NAFARROATIK

Xuberoko bidea

Berriz ere gure deputatuak badabiltza lanetan Santa Grazitik mugarainoko erregebideari buruz, guk haradino egina dugunarekin eskuratzeko. Mendien bi alderditako berrientzat, iphar aldeko nola hego aldekoentzat zer behar haundia ez da bide hori!

Gure Erronkari eskualdeko herriak hango mendi haundien azpian daude zoko hetarik ezin bidetuz bere Xuberoko anai eskualdunetarat, ezin elkhartuz bizipideko gira beheretan. Hain hurbil eta bizkitartean hain urrunduak. Ybarnegaray zuen jaun deputatuak uste dugu ez duela utziko eskutik aspaldiko asmo eder hori eskualdunen heinean.

Barañain-go eritegia

Andere alarguntsa aberats batek, Mexike-koa, izenez Beistegui, duela urthe multxo bat nahi izan zuen egin Iruñeko bazterretan eremu handi batean eritegi edo hospitale eder bat.

Eremua ingurukatu ondoan harrisu handi batekin, barnian eraiki zituen pavillons batzu bere kapera ederrarekin, nolabanakoa! eliza haundi bat bezalakoa.

Sei milun peseta xahutu dituztelarik lan haundi horietan andere horrek makhur eta gaitzak ukhanik bere ontasunetan, bet betan manatzen du bere arxitekta gelditi lan guziak. Eta hango egin guziak uzten ditu gure Ayuntamenduari (Conseil municipal). Hunek, holako obra handiaren bururatzerat ez da menturatzen, zeren eta bere ahalak ez baitira aski haundiak. Hola iragaiten dira deus egin gabe beste urthe andana bat.

Azkenian Dictature-ko Conseillak, zer egiten du? Bere yabea Primo de Ribera balakatzeko, horren gobernuari emaiten dazko ontasun haundi horiek urrik, haizutasun ederrenarekin. Baina Conseiller horiek ez baitziren beren botzekin berexiak, Dictature hori erori delarik, oraiko Conseiller berriak hasi dira lanetan Gobernu berriarekin, Barañain-go eritegia itzul dadin bere egiazko yabearen eskutirat, gure hirirat.

Auzo berria

Iruñe, lau mende egon ondoan inguraturik bere rempart haundierekin, handik kanpo debekatua izanik etxolaño bat ere altxatzea, azkenian orai duela zazpi urthe bota ondoan harrisu gaitzak eta eremu berdindurik, zelai eder hortan eraiki dute kartier haundi bat bere karrika zabalekin eta etxe lau bost estayakoak. Jendeak karrika hertsia eta ilhun zaharrenatarik ihes doa (sic) etxe berritarat, eta jadanik auzo berrian badire bost mila arima eta goiti doa emendian.

Nik eztakit sosa nundik jaltzen den, ez ene sakeletik segurki, baina ari dira hor eraiki eta eraiki etxe berriak, zoin ederragokoak. Diote egungo egunetan hori dela diruaren plazamendu hoberena. Aberatsek ere badituzte bere lanak dirua nun untsa altxatuz. Ez ditugunek haizu gira holako neketarik.

Larreko, gure adixkidea, yuan zaizkigu (sic) ilabete baterentzat hiritik kanpo, Panticosa-ko mainuetarat eta anhartean guk igorriko ditugu Eskualdunari hemengo berriak.

Hango urek on egin dezatela gure adixkidearen bere osagarrian.

Eskualduna, 1930/4/25

NAFARROATIK

Aldudetako bidea

Ene aitzineko berrietan erran nion (sic) gure alkatea (mera) Madrid-en ministroarekin mintzatu zela Urepeleko bidearen gainez, eta egin ahal guziak ezarriko zituela bere menetik asmu horren bururatzeko. Eta huna nun egun hautan irakhurtzen dugun hemengo kaseta batean gure deputatu provincial-ek (Conseillers généraux) urrats beretan ari direla ministroekin. Guk aspaldi egina dugu erregebidea.

Eugui-n gaindi bost kilometra muga aitzineraino, eta hor gelditua zeren eta orai artio guduko ministroek debekatzen zutelakotz aitzina yuaitea, ustez etsaiak sar ahal ditene alde hortarik!...

Segurki guk azkenian erreusituko dugu puska hori bukhatzea mugaraino, eta orduan da zuen aldia Urepeletik hedatzea eta elgarraraztea guriari. Pollit litake erditarat laburtzea mendi haindikoko bidea orai ditugunetarik. Iruñetik Urepelerat berrogoi eta hamar bat kilometra, erran nahi baita, ordu bateko pidaia beribilez. Alo, higi zaizte ziek ere, denen holako asmu ederraren buruz.

Lehen idaztu nuen bezala Nafarroak baditu autonomie delakoaren legeak eta bideak guhaurek egiten ditugu Gobernuak baimena eman ondoz, baina hau ez da errex gehienetan.

Aro tzarra

Arras itsusia ukhan dugu ilhabethe huntako aroa, ortziraila sainduraino. Izigarriko euri erauntsiak, haize hotz zorrotzak, elhurak, guzietarik nahas-mahas egin du, negu beltzan bezala. Noizbait akhitu behar baitzen, azkenian amoi egin du, eta eztiturik, agertu da iruzki dirdiranta eta goxoki berotzen gitu. Baginuen beharrik.

Euri eta hotz haundi horrekin aurthen ez da yin hainbeste yende, ustez etzela atherako ortzirale sainduko prosesionean aipatua eta ederra, baina zerua poxi bat garbiturik yalitu da azkenian. Sahetsetan baiziren bi lerroetan bi mila gizon denak bere yauntzi beltzarekin fraideen itxuran bururaino estaliak eta eskuetan zirhu haundi bat, Confrérie delakoak.

Eskuarazko misionak

Iruñen gerthatu ez dena, nik ez dakit noizdanik, aurthen Jesus eta Mariako aita Jesuiten elizan eman dituzte eskuaraz garizuna azken egunetako misionak hemen bizi giren eskual dunentzat. Aita Legatz baztandar eskualdun hutsa zen mintzatzailea eta bere elhe sarkhorrarekin guziak loriatu gitu. Pedekatu du egunian bi aldiz. Bat goizian, sehientzaz, eta bertzea arratsaldean, eta eliza bethetzen zen entzulez.

Heda dezatela aphezek gure eskuara maitagarria.

Eskuara galtzen

Izigarri da nola ari den galtzen lasterka gure mintzaira ederra Nafarroako herri eskualdun hutsenetan, eta maluroskiez da oraikoa min hori, baina aspaldikoa. Nork daike sinets Elizondon, Baztan-go herri nausian hogoi eta hamar urtheke gizonak ez dakitela hitzik eskuaraz. Ber bera gertatzen da Donezteben eta bertzetan; gazteriak ahatzi, ez ikhasi edo ez mintzatu nahi, eta hitsena dena ahalgetzen bere mintzairaz.

Hortaraino erori dira dohakabeak, bere zozokerian!

Duela ehun urthe Iruñe bazterretako herrixkitan etzaiteken kausitu erdaldun bat, eta orai herri horietan eskuara da hizkuntz arrotza! Gelditu diren hatzak dira anitz hitz erdaratuak eta eremuetako eta menditako izenak oro eskualdunak, bai eta ere laborariak bere idiekin dabiltzalaik akhuloa eskuan alhorretako lanetan, aida, hots behia be, eta holako, bainan ez besterik. Bere ahoetarik jalitzen dira zuzenik jakin gabe heien mamia.

Zorionez, Baxenabarren, Laphurdin eta Xuberon ez da holakorik ikusten, Miarritze eta Doniane Lohitzune alde bat utzirik, arrotzek itho dituzten herriak beretarik jabetuak.

Eta nola eta geroztik galtzen da gure eskuara? Urguluaz. Horra suntsitzailea eta ehortzailea. Mendi hunandikoek sartua dute urguloa arras barnean, eta hortarik errex da ohartzea bere biziko gora beheretan. Ahalgetzen dira eskuaraz mintzatzea ustez eta aphaltzen direla mintzo arrunt horrekin, bere abara berean, eta gizonak ahultasun horrek beretzen balinbaditu, zer ez dugu ikhusten emazteetan arinkeriaz nausituak bere bihotza eta gogoa?

Hortakotz herrietako andereñoak dira lehenik baztertzen dutenek bere solasetarik gure mintzaira maitea. Maizaldiz ohartu gira herrietan; muthikoa eskuaraz, nexkatuak, alaintso: erdaraz.

Iruñen giren eskualdun huts eta khartsuek badugu batasun bat izendatua Eskuararen Adiskideak, eta horren aitzindariak lan ederrik egiten duzte urthe guziz, ereiten eta hedatzen eskuararen amodioa galdu dituztenen herrietan; mintzaldiak, yantzak eta gure ohidura zaharrak bai eta ere sariak haurrentzat hobeki mintzatzen eta idazten dituztener, eta hortan ederki laguntzen dituzte aphezak muthikonoak aitzinetik eskolaturik.

Erresuma guzietako gizon jakintsuenek mintzaira zaharretako ithurburuen bidezko lanetan ari direnak harrituak dire gure mintzaiatik ez bakarrik bere urruntasunatarik mendeetan galdua bainan bere hitzketa aberatsatarik. Diote bakharra dela bertze mintzoarekin ahaiderik gabekoa, zaharrena eta ederrena. Eta guk gaixo zozoak alde batherat baztertzen, erdaraz liluratuak eta uztartuak.

Eskualduna, 1930/5/2

XI. ATALA BI GUTUN
AITA DONOSTIA-RI IDATZITAKOAK

Iruñen, Otsailaren 4-an

Aita Donosti begirunekoari

Atsegin goxoenarekin irakurtu ditut zure hitz amultsuak. Ene eskual sailek ez dute garrantzi haundirik. Gerthatzen da idazle gehienak ez batira sortzez eskualdunak, ez baitute eskuara ikhasi ohakoan, bere ameen bulharretan, erraiten den bezala, hortakotz ez dute gure trebetasuna. Nik ibiltzen dutan eskuara ez da liburuetan ikhasten ahal. Horren mamia, itzulikak eta erroak ene herritarren arthean ikhasiak ditut.

Galdegiten dazu hea zoin diren Luzaideko dantzak.

Hangoak dira Yantza-yauzia, Yantza luzia eta Bolant-yantza.

Bolant-yantza hau ihauterietan edo karrosa bat egiten dutelarik dantzatzen da. Karrosa hori da mascarada bat (Karakotxak) egiten dutelarik trufa gerthakari irringarri batez nahi dutenean egin. Nexkato bathen haur egitea, bi alargunen ezkontza: zahar bat nexkato gazte batekin ezkontzen delarik, eta holako bertze.

Bolantak dira muthil andana bat soineko xuriez yauntziak, eta xingolaz eta edergailuz aphainduak. Badituzte bizpahiru aire.

Yantza luzia iduri zaut ez denetz Grecia-ko ohiduretatik hartua. Lerro luze bat, nexkato eta muthilkoak aldizkatuak, eta mokanesez eskuz esku elgartuak. Aitzinekoak eta giblelekoak eremaiten dute eskian, besoa altxatua, makhil bat udarez eta xingolaz betheak. Ez othe da hori Grecia-tarren tirso-a, eta besta hori Céres yainkosaren ohoretan egiten zituztenetarik?

Aita Policarpo-ri ene esker khartsuak, nahiz ez dutan haren ezagutzaren ohorea.

Eta zuk onhartzkitzu ene esker eta goraintzi amultsuenak.

En. Zubiri

Iruñen Negilaren 29-an, 1934-an
Aita Donosti-ri
Lekarotzen

Ene begirune eta errespetu guziko yauna:

Angel Iraigaray, Irular, gure adixkideak eman dauzkit zure partez goresmenen bizienak ene idazti eskuarazkoak hain goxoak kausitu dituzulakotz. Zure amultsutasunari itzultzen ditut bihotz zolatik ene esker beroenak. Zu bezalako gizon argitu eta biphil baten goresmenek ohore haundia egiten daate. Milesker, yauna.

Aspaldidanik gogoratzen zait ene idazti hoberenekin liburuxka baten egitea, sari merke bathean saltzeko gisan. Irularrek ere hori bera erraiten daat: behar nukela liburuño batian bildu, sail pollitenak hautatuz. Bainan ez baitakit izain duen arrakastarik, ezniz ausarkatzen xahubide hortan sartzerat.

Orai barka nezazu, yauna, zure musikatzalezko eremuetan ene sudurraren sartzea, bainan eskual-herriko zer guziak suharki maite baititut, horra zergatik ausartatzen niz ene xede bat zuri ikusaraztea.

Badakizu Xubero, Benabarre eta Laphurdiko dantza hutsa dela Yantza-yanzia (le saut basque). Enetzat, (barka nezatela Baztandarrek) Muthil-dantza handik hartua da. Helen soinuak edo aireak eskualdun errokoak dira. Yantza-yauziaren aireak deitzen dira Laphurtarrak, Xuberotarrak, Baxenabartarrak, Luzaiderrak, Xibandarrak eta Muxikonak.

Huntakoak igortzen (bialtzen) daukitzut paperrian finkatuak ikhus ditzazun nolakoak diren. Eta beiratu (gordetu) nahi baititut, othoitzten zitut ikhusi ondoan itzul nezazun, aitzinetik nekheaz eskerrak emanik.

Ze lan ederra egin ahal zinezake zuk idazti batian dantza horietaz mintzatuz!

Barkha berriz, Aita Donosti, eta badakizu zonbatetaraino ohoratzen nuten zure laudorioak ene idazti xumeenentzat; «Manezaundienak».

Amultsuki emaiten daukitzut bihotzeko eskerrak

Enrique Zubiri

P.S. Behin mintzatu nintzan zurekin, orai duela hamabost bat urthe hemen, Iruñen,
Antonio Irurzun ene ahaide zenarekin zinelarik.
Avenida Carlos III, 16.